

EUSKALTZAINDIA

**EUSKAL
GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-II**

**EUSKAL GRAMATIKA.
LEHEN URRATSAK-II**

**GRAMATIKA BATZORDEA
EUSKALTZAINDIA
1997**

EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA

EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-II

Berrinprimaketa

1997

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua: Patxi Altuna

Buruordea: Pello Salaburu

Idazkaria: Patxi Goenaga

Idazkariordea: Maria Pilar Lasarte

Kideak:

Lino Akesolo

Miren Azkarate

Piarres Charriton

Andolin Eguzkitza

Jean Haritschelhar

Alan King

Jose M. Larrarte

Jose Antonio Mujika

Beñat Oyharçabal

Karmele Rotactxe

Berrinprimaketa honi buruzko oharra:

Euskal Gramatika. Lehen urratsak-II liburuki honek 1987an ikusi zuen lehenbizikoz argia. Orduetik hona Euskaltzaindiak zenbait arau berri eman ditu. Tartean, aditzari buruzkoak ere badira. Alokutiboen forma erabakia dago, adibidez. Aditz arazleen jokoa ere bai. (Ikus Euskaltzaindiaren *Araueak*). Hala ere, erabaki hauek liburuki honetako gaiari erabat lotuak izan arren, ez dizkiogu erantsi. Hasiera batean argitaratu zen bezalaxe ematen dugu lana, bere behin-behinekotasun guztiarekin. Irakurleak jakingo du noiz eta nola osa.

EGLU-2

Txostengileak:

Lino Akesolo
Miren Azkarate
Andolin Eguzkitza
Patxi Goenaga
Alan King
José M. Larrarte
José A. Mujika
Beñat Oyharçabal
Karmele Rotaetxe
Pello Salaburu

Laguntzaileak:

Patxi Altuna
Piarres Charriton
Jean Haritschelhar
Maria Pilar Lasarte

Azken moldatzaileak:

Patxi Altuna
Pello Salaburu

AURKIBIDEA

0. Hitzaurre gisa	17
1. Aditz multzoaren egitura	21
1.1. Izen sintagma eta aditza	23
1.2. Aditza	24
1.2.1. Aditz motak	24
1.2.2. Adizki ez jokatuak: aditz oina	26
1.2.3. Adizki ez jokatuak: partizipioa	28
1.2.4. Adizki ez jokatuak: aditz izena	29
1.2.5. Adizki jokatuak: a. perifrastikoak	30
1.2.6. Adizki jokatuak: a. trinkoak	32
1.2.7. Aginte eta baldintzazko adizkiak	33
1.2.8. Perifrasi multzoak eta gainerako osagaiak	34
2. Aditz motak	37
2.1. Aditzaren egitura motak	39
2.2. Aditz elkartuak	43
2.2.1. Aditz elkartu berezkoak	43
2.2.2. Izena + ukan/izan egiturakoak	44
2.2.3. Izena + egin/eman/hartu	44
2.2.4. Izan laguntzaileaz osaturikoak	46
2.3. Aditzen sailkapena	47
2.3.1. NOR eta NOR NORK motako aditz oinak	47
2.3.2. Sail aldaketak	51
2.3.3. Nori sintagma	58
2.3.4. Aditz erazleak	60
2.3.4.1. Aditz oin erazleen sailkapena	60
2.3.4.2. Aditz erazleak eta inpersonaltasuna	63
3. Adizki ez jokatuak: aditzoina	65
3.1. Aditzoina perpaus lokabeetan	68
3.1.1. Aginduak ematean	68
3.1.2. Galdera erretorikoetan edo hamdurazkoetan	68
3.1.3. Errefrauetan eta itxura bereko esapideetan	69
3.1.4. Kontakizunetan	70
3.1.5. Antzerkietako didaskalietan	72
3.2. Aditzoina perpaus koordinatuetan	72
3.3. Aditzoina perpaus txertatuetan	73

3.3.1.	Errefrauetan	73
3.3.2.	Zehar galderetan	73
3.3.3.	Hautuzko perpausetan	74
3.3.4.	Zenbait posposizioekin	75
3.3.5.	Zenbait esapidetan	75
4.	Adizki ez jokatuak: partizipioa	79
4.1.	Partizipioa eta adjetiboa	81
4.1.1.	Partizipioa izen sintagmaren barnean	81
4.1.2.	Partizipioa predikatu osagarria	82
4.2.	Partizipioa eta izena	84
4.3.	Partizipioa jokatu gabeko zenbait mendeko perpaus- sen aditza denean	88
4.3.1.	Partizipioa erlatibo laburtuetan	88
4.3.2.	Partizipio jokatu gabea zenbait predikaturen osa- garri diren perpaus batzutan	89
4.3.3.	Zirkunstanzialetan	90
4.3.3.1.	Partizipioa posposizio batekin erabilia	90
4.3.3.2.	Partitiboarekin	91
4.3.3.3.	Instrumentalarekin	92
4.4.	Partizipioa perpaus elkartuetan	93
4.5.	Partizipioa zenbait esakeratan	93
5.	Adizki ez jokatuak: aditz izena	95
5.1.	Sarrera	97
5.2.	Aditz izen deklinatua	98
5.2.1.	Ergaiboa	99
5.2.2.	Absolutua	100
5.2.3.	Datiboa	101
5.2.4.	Genitiboa	102
5.2.5.	Instrumentala	102
5.2.6.	Soziatiboa	103
5.2.7.	Inesiboa	103
5.2.8.	Ablatiboa	104
5.2.9.	Adlatiboa	104
5.2.10.	Adlatibo bukatuzkoa	106
5.2.11.	Leku genitiboa	106
5.2.12.	Kausazkoetan	108
5.3.	Beste erabilerak	108

6.	Adizki jokatuak: a. perifrastikoak	111
6.1.	Sarrera	113
6.2.	Aspektua	114
6.2.1.	Burutua	115
6.2.2.	Geroa	116
6.2.3.	Ezburutua	117
6.3.	Aspektua eta aditz laguntzailea	117
6.4.	Gainerako oposizioak: tempusa, modua eta pertsona	121
6.5.	Tempusa	124
6.5.1.	Tempusa eta denbora	124
6.5.2.	Tempusa eta aspektua gurutzatzen zaizkigunean	126
6.5.3.	Alegiazko adizkiak	131
6.6.	Modua	134
6.7.	Pertsona	139
6.7.1.	Sarrera	139
6.7.2.	Pertsona markak	141
6.7.3.	Hirugarren pertsona delakoa	142
6.7.4.	Pluralgilea	143
6.7.5.	Pertsona marka hauen kokalekua	145
7.	Adizki jokatuak: a. trinkoak	147
7.1.	Aspektua	149
7.2.	Tempusa	150
7.3.	Modua	151
7.4.	Pertsona	152
8.	Zenbait aditz berezi	153
8.1.	Arazoa	155
8.2.	Tratamentu berezia duten aditzak	159
8.2.1.	"Nahi/gura ukan"	159
8.2.2.	"Ari izan"	161
8.2.3.	"Behar ukan" eta "bizi izan"	161
8.2.4.	"Maite ukan", "maitatu" eta "balio ukan"	162
8.2.5.	"Komeni izan", "iduri" eta "uste ukan"	163
8.2.6.	"Mintzo izan", "mintzatu" eta "heldu"	164
9.	Adizki laguntzaitearen paradigmak	165
	Izan	168
	*edin	170
	*edun	182

*ezan	190
10. Adizki trinkoen paradigmatik	221
egon	228
etorri	234
ibili	240
joan	246
atxeki	252
erion	256
etzan	258
jarraiki	260
eduki	264
ekarri	272
erabili	280
eraman	286
eroan	294
*io	298
jakin	304
entzun	308
eritzi	312
erran	316
ezagutu	320
ihardun	328
iharduki	332
ikusi	336
iraun	340
irudi	344
11. Aginte adizkiak	349
11.1. Aginte adizkien ezaugarriak	351
11.1.1. Modua	351
11.1.2. Aspektua	352
11.1.3. Tempusa	353
11.2. Aginte adizkien taulak	355
11.2.1. Adizki perifrastikoak	355
11.2.1.1. *edin	355
11.2.1.2. *ezan	356
11.2.2. Adizki trinkoak	358
11.2.2.1. egon	359
11.2.2.2. ekin	359
11.2.2.3. etorri	360
11.2.2.4. ibili	360

11.2.2.5. izan	361
11.2.2.6. joan	361
11.2.2.7. eutsi	362
11.2.2.8. eduki	363
11.2.2.9. egin	363
11.2.2.10. ekarri	364
11.2.2.11. iraun	364
11.2.2.12. irudi	364
11.2.2.13. jakin	365
12. Baldintzazko adizkiak	367
12.1. Baldintzazko perpausen periodoa	369
12.2. Baldintzazko adizkien formak	370
12.2.1. Baldintzazko adizki trinkoak	370
12.2.2. Baldintzazko adizki perifrastikoak	372
12.2.2.1. Ez-alegiatzkoak	373
12.2.2.1.1. "bada" sailekoak	373
12.2.2.1.2. "bazen" sailekoak	375
12.2.2.1.3. "badadi"/"badeza" sailekoak	375
12.2.2.1.4. "bazedin"/"bazezan" sailekoak	376
12.2.2.1.4. "badaiteke"/"badezake" sailekoak	377
12.2.2.1.5. "bazitekeen"/"bazezakeen" sailekoak	378
12.2.2.1.6. "baliteke"/"balezake" sailekoak	378
12.2.2.2. Alegiazkoak	379
12.2.2.2.1. "-tu", "-tzen", "-tuko" + izan/*edun	379
12.2.2.2.2. "etor baledi"/"eros baleza" sailekoak	381
13. Alokutiboa	385
13.1. Hika, zuka eta xuka	388
13.2. Hiru errejistroko sistema	389
13.3. Pare bat ohar gehiago	390
13.4. Adizki alokutiboen formez	392
14. Adizki jokatuen erabilera	397
14.1. Kontzeptuak eta definizioak	399
14.1.1. Denbora	399
14.1.2. Denboraren garrantzi semantikoa	399
14.1.3. Denbora nozioen gramatikalizazioa	400
14.1.4. Hizkuntza baterik bestera alda daitezkeen kontzeptu nozionalak	400
14.1.5. Denboraren deiktikotasuna	401
14.1.6. Denborazko beste zenbait kontzeptu	402

14.1.7. Denborak eta tempusak	403
14.1.8. Aspektua	403
14.1.9. Modua	403
14.2. Kategoria formalen balio nozionalak	403
14.2.1. Adizki jokatuaren sailkapen formala	403
14.2.2. Tempus formalen balioak	404
14.2.2.1. Tempusak vs. denborak	404
14.2.2.2. Geroaldia adierazteko bideak	405
14.2.2.3. Iraganaldia adierazteko bideak	405
14.2.3. Aspektuen balioak	406
14.2.3.1. Aspektu puntualaren (adizki trinkoen) balioak	406
14.2.3.2. Aspektu ez-burutuaren balioak	410
14.2.3.3. Aspektu burutuaren balioak	411
14.2.3.4. Geroaren balioak	411
14.2.4. Moduen balioak	413
14.2.4.1. Azalpena	413
14.2.4.2. Ke-dun adizkien balio modalak	413
14.2.4.2.1. Ke-dun adizkien balio menturazkoa	413
14.2.4.2.2. Ke-dunen balio ahalezkoa	415
14.2.4.2.3. Ke-dun adizkiak ondorio hipotetikoan	415
14.2.4.3. Ke-dun adizkien denborazko balioa	416
14.3. Adizkiak banaka banaka	417
14.3.1. Orain puntuala: "dator"	417
14.3.2. Orain ez-burutua: "etortzen da"	419
14.3.3. Orain burutua: "etorri da"	420
14.3.4. Orain geroa: "etorriko da"	421
14.3.5. Orain aspektugabea: "etor dadin, has gaitezen, etor dadila, etor badadi/dadinean", e.a.	421
14.3.5.1. Orain aspektugabea + -(e)n: "etor dadin"	422
14.3.5.2. Orain aspektugabea + -(e)la	422
14.3.5.3. Orain aspektugabea + ba-;-enean: "etor badadi, etor dadinean, etor dadin baino lehen..."	423
14.3.6. Iragan puntuala: "zetorren"	424
14.3.7. Iragan ez-burutua: "etortzen zen"	424
14.3.8. Iragan burutua: "etorri zen"	424
14.3.9. Iragan geroa: "etorriko zen"	425
14.3.10. Iragan zehaztugabea: "etor zedin, etor zedila"	426
14.3.11. Alegiazko puntuala: "letorren, bailetor, bailetorren"	426
14.3.12. Alegiazko ez-burutua/geroa: "etortzen balitz, etorriko balitz"	427
14.3.13. Alegiazko burutua: "etorri balitz"	428

14.3.14: Alegiazko aspektugabea: "etor ledin, etor baledi, egin legi"	428
14.3.15: KE orain puntuala: "datorke"	429
14.3.16: KE orain ez-burutua: "etortzen dateke"	429
14.3.17: KE orain burutua: "etorri dateke"	429
14.3.18: KE orain geroa: "etorriko dateke"	429
14.3.19: KE orain aspektugabea: "etor daiteke"	430
14.3.20: KE iragan puntuala: "zetorkeen"	430
14.3.21: KE iragan ez-burutua: "etortzen zatekeen"	431
14.3.22: KE iragan burutua: "etorri zatekeen"	431
14.3.23: KE iragan geroa: "etorriko zatekeen"	431
14.3.24: KE iragan aspektugabea: "etor zitekeen"	432
14.3.25: KE alegiazko puntuala: "letorke"	432
14.3.26: KE alegiazko (ez-burutu/burutua) geroa: "etortzen litzateke, etorri litzateke, etorriko litzateke"	432
14.3.27: KE alegiazko aspektugabea: "etor liteke"	433
14.3.28: Agintekera puntuala/aspektugabea	434
15. Perifrasi multzoak	435
15.1. "Ari izan" eta kideak	437
15.1.1. -tzen + ari izan	437
15.1.2. -tzen jardun	440
15.1.3. -tzen + egon	441
15.1.4. -tzen + ibili	442
15.2. "Nahi", "gogo", "gura", "gei" + izan/*edun	444
15.3. "Behar"	448
15.3.1. "Behar" + izan/ukan	448
15.3.2. "Beharra", izan sintagma	454
15.4. Ahala eta ezina	455
15.4.1. Ahala	455
15.4.1.1. "Ahal", aditz laguntzaileak eta adizkera desberdinak	456
15.4.1.2. "Ahal", KE-dun aspektugabeko formetan	457
15.4.1.3. "Ahal", aspektu markadun formetan	458
15.4.1.4. "Ahal" adizki trinkoetan	461
15.4.2. Ezina	461
15.5. "Ohi"	462
15.5.1. "Ohi" + izan/ukan	462
15.5.2. Ohitura adierazteko beste forma batzu	464
15.6. -tzera/-ten	466
15.6.1. -tzera/-tzen + joan	467

15.6.2. -tzera + egin	467
15.6.3. -tzera + egon	468
15.7. -tzeko (a,ak)	468
15.7.1. -tzeko(a,ak) + izan/egon	468
15.7.2. -tzeko (a,ak) + ukan/eduki	470
15.8. -tzea	471
15.9. -tu(a)z/-tzen + joan	473
15.10. Partizipioarekin osaturiko perifrasiak	474
15.10.1. -(k) + izan/egon	474
15.10.2. -ik + izan/egon	475
15.10.3. -ta + izan/egon	476
15.10.4. -a(k) + ukan/eduki	477
15.10.5. -ik + ukan/eduki	477
15.10.6. -ta + ukan/eduki	477
15.10.7. -tu (+izan/ukan) + naiz/dut	478
15.11. -tzer eta -tzeaz	480
15.11.1. -tze + r + izan/ukan	480
15.11.2. -tze + ar + izan, egon/*edun, eduki	481
16. Aditz multzoko beste osagaiak	483
16.1. Osagaion sailkapena	485
16.2. "ba-" eta "ez": baieztapen eta ezeztapen ezaugarriak	488
16.2.1. Zermolako nagusiak	488
16.2.2. Jokabide sintaktikoa	491
16.2.3. Erabilera	495
16.3. Adizki jokatuari erantsitako bestelako elementuak	498
16.3.1. "-a" atzizkia, galdera ezaugarria	498
16.3.1.1. Zermolako nagusiak	498
16.3.1.2. Jokabide sintaktikoa	500
16.3.1.3. Erabilera	501
16.3.2. "Ahal"/"al", "bide", "ei", "omen", eta "ote": aditz multzoko partikula modalak	501
16.3.2.1. Zermolako nagusiak	501
16.3.2.2. Jokabide sintaktikoa	509
16.3.2.3. Erabilera	512
Bibliografia	517

HITZAURRE GISA

HITZAURRE GISA

EGLU-1 eta *EGLU-1 (Eraskina)* liburukietako hitzaurreak irakurtzeko astia hartu duen irakurleak ez du azalpen berri gehiago askorik behar oraingo honetan aurkezten dugun liburua zertan den ulertzeko, liburuki haiek burutzeko erabili genuen prozedura berberaz baliatu baikara orain ere.

Izen sintagma eta deklinabidearen sistema aztertu ondoren, aditza geratzen zen aztergai perpaus bakunaren analisisa burutzeko: aditz sistema da, bada, liburuki honetako gai nagusia. Ikusiko denez, euskal aditzak erakusten digun sistema uste baino errazagoa da, alde batetik, eta pentsa genezakeen baino konplexuagoa ere, bestetik. Beti esan ohi da morfologia aldetik izugarri zaila eta aberatsa dela aditz laguntzailea. Hori egia izanik ere, morfologia hau erraz uler daiteke, forma aldetik behintzat, aditz laguntzaile diferenteak ditugula ohartzen baldin bagara, denak sistema beraren azpian geratzen baitira. Dena dela, onartu behar dugu, aditza deitzen dugun horren inguruan biltzen dela beste elementu anitz ere, perifrasi aberatsak eta konplexuak osatuz honela.

Aurkezpenaren aldetik, eta horra zertaz ez dugun hitzaurrea luzatu nahi hemen, lehenbiziko kapitulua da gero datozen guztien laburpena eta kapitulu horretan planteiatzen dira gero sakonago ukituko diren gaiak.

Liburu honetan ikusiko den bezala, euskalkiek aberastasun handia erakusten digute forma aldetik eta gramatika kontuetan ezin dira zirt edo zart alde batera edo bestera gauzak erabaki, eman behar diren urratsak alde zurretik ongi pentsatu eta informazioa bildu gabe. Hori biltzen saiatu gara hemen, horretarako laguntza handia eskaini digutelarik *Orotariko Euskal Hiztegia* lanerako Mitxelena eta Sarasola irakasleek bildu eta sistematizatu dituzten langaiek. Luzera begira, material horretaz sistematikoki baliatzeko bideak aurkitu beharko ditugu, Euskaltzaindiak urratsez urrats proposatu nahi duen hizkuntz erdua behar bezala hornitzeko.

Ez dugu besterik esateko; hala iduri ez badu ere, eskuetan duzun lan honetan ordu eta egun luzeak daude bildurik eta talde baten urteetako lanaren ondorioa da. Halaz ere, lan hau behin-behinekoa da eta eztabaidarako prestatua denez, Gramatika Batzordeak pozik eskuratuko lituzke egin lekizkiokeen ohar eta kritika guztiak.

Gramatika Batzordea

1. ADITZ MULTZOAREN EGITURA

1. ADITZ MULTZOAREN EGITURA

1.1. IZEN SINTAGMA ETA ADITZA

*EGLU-1*ean esaten den moduan (ikus 37. orr.), perpausa aditzaren inguruan gauzatzen da. Hortaz, aditzak bakarrik osaturiko perpausak aurkituko ditugu edo, eta hau dugu kasurik arruntena, aditza eta beste osagai batzuz baliaturik eginak ere:

- (1) a. atertu du
- b. Jon etorri da
- c. Mikel agurtu dut mendian
- d. haur txiki hori gaisorik dago
- e. zazpi lagun horiek kantari ederrak dira
- f. Mirenen senarrarekin afaldu dute
- g. Bilboko alkatea joan berria da

Perpaus bakuna aztertzen hasi garenean, aparteko lekua eskaini zaio izen sintagmari: **Jon, Mikel, haur txiki hori, zazpi lagun horiek, Mirenen senarra, Bilboko alkatea**, e.a. Esan daiteke *EGLU-1* eta *EGLU-1 Eraskina* deitu liburuetan gai hori, izen sintagmarena alegia, izan dela aztergai bakarra. Hori dela eta, arreta handiz eta xeheki ikusi da zerk osa dezakeen izen sintagma hori eta zein den izen sintagmek perpausaren barnean har dezaketen ordena.

Ez gara, alabaina, izen sintagmara bakarrik mugatu: izen sintagmek kasu markak har ditzakete eta, orduan, adizlagunak edo izenlagunak osatzen dituzte:

- (2) a. Mikel agurtu dut mendian
- b. Mirenen senarrarekin afaldu dute
- c. Bilboko alkatea joan berria da

Adibide hauetan badakigu, adizlagun edo izenlagun bakoitzaren azpian izen sintagma bat dagoela beti: **mendia-n, Mirenen senarra-rekin, Bilbo-ko alkatea**, e.a.

Bada hemen ikutu nahi ez dugun arazo bat, nolana ere: perpausaren osagai nagusienetako bat izen sintagma baldin bada, zein dira besteak? Aditz sintagma akaso? Adizlagunak eta gainerako osagaiak aditzaren inguruan eta azpian biltzen dira edo aditza eta beste osagai horiek pare parean daude? Arazo hau nahikoa sakona denez, eta haren azterteza lan honen mugetarik kanpo geratuko litzatekeenez, ez dugu ezer esanen horretaz. Jakin dezagun, hori

bai, perpausean izen sintagmak ageri direla, izen sintagmetatik eratoritzen ditugun gainerako sintagmak eta aditza bera. Azkeneko elementu hau hartuko dugu liburu honetan aztergai.

1.2. ADITZA

1.2.1. Aditz motak

Ohartzen garenez, goian eman ditugun adibide horietan era askotako aditzak ageri zaizkigu:

- (3)
- a. du
 - b. etorri da
 - c. agurtu dut
 - d. dago
 - e. dira
 - f. afaldu dute
 - g. joan berria da

Adibide horiei behatuz, ikusten dugun lehenbiziko gauza da "aditzaz" hitz egiten denean, izen horren azpian ezaugarri diferenteak dituzten fenomenoak estaltzen direla.

Aditz batzu *bakunak* dira: joan, erosi, saldu, e.a. Beste batzu, ordea, *elkartuak*: berantetsi, gaitzeritzi, e.a. Aditzen artean *berezkoak* eta *eratorriak* ere bereizten ditugu bestealde. *Berezkoak* deitzen dira hiztegian beti aditz bezala bakarrik agertzen direnak, hala nola: erosi, saldu, e.a. *Eradorrien* artean badira izen batetik erakartzen ditugunak: gizondu, haurtu, urtu, e.a. Badira adjetibotik eratorriak: luzatu, ilundu, gaurkotu, etxekotu, e.a. Baditugu, baita ere, aditzondoan oinarritzen direnak: urrundu, harrikatu, e.a. Kasu markatik ere eratoritzen dira zenbaitetan euskal aditzak: etxeratu, oheratu, e.a. Esan dezagun, azkenik, aditz eratorri hauek (zehatzago esan, aditz eratorri hauen partizipio bukatua) osatzeko biderik emankorrena *-tu* atzizkia erabiltzea dela, goian jarritako adibide guztietan ikusten den bezala.

- (4)
- a. etxe ederra *erosi* duzue
 - b. zer ordutan *gosaltzen* duzue etxe honetan?
 - c. udaldera anitz *luzatzen* du egunak
 - d. sagar guztiak *usteldu* zaizkigu
 - e. mendia hantxetik zeharka *daiteke*
 - f. gaur plazaratuko da kantari hau

Aditz batzu, azkenik, *inkoatiboak* direla esaten dugu, egoera aldaketa bat ematen baitute aditzera: **zuritu, zahartu, hil**, e.a. Beste batzuei *erazle* esaten diegu, beti ere nahitaezko eragile bat behar dutelako: horretarako **-ra-**artizkia edo **erazi** (eta bere aldagarriak) erabiltzen ditugu.

Dakigun bezala, aditza da perpausaren ispilu antzeko bat, berak biltzen baititu laguntzailearen bidez (adizki trinkoek zuzenean ordea) perpaus horretako izen sintagmak. Hori dela eta, **nor, nori** eta **nork** sintagmen arauera sailkatzen ditugu aditzak:

- (5) a. Jon dator
b. Jon heldu zaigu
c. Miren ikusi dut
d. Mireni esan diot

Adibide horietan ikus daitekeenez, aditzean beti agertzen da **nor** hori, nahiz gero ez den beharrezkoa sintagma batean gauzatzea:

- (6) a. urak irakin du
b. lanari ekin diogu

Kasu horiek eta hauen antzeko batzu albora utzita, aditzak **nor** sailekoak, **nor-nori** sailekoak, **nor-nork** sailekoak eta **nori-nori-nork** sailekoak direla esaten dugu. Ohart gaitezen, dena dela, sail aldaketak gerta daitezkeela sarritan:

- (7) a. aitona zaharra hil da
b. etxe horretan gizon bat hil omen zuten
c. mundu honetatik joan da
d. mundu honetatik joan zaigu

Ikusten denez, aditz bera sail batean nola bestean ager daiteke. Dena dela, bestelako sail aldaketak ere gertatzen dira: modu inpersonalera pasatzen ditugunean, esate baterako, jatorrizko aditza zein izan daitekeen ezkutuan gerta daitekeelarik orduan:

- (8) a. egunero hiltzen da jendea
b. zerriak negualdera hiltzen dira

Adibide horietan, nabarmen denez, jatorrizko **hil** aditza **nor** sailekoa edo **nor-nork** sailekoa izan daiteke. Gauza bera gerta liteke beste aditz batzurekin ere:

(9) hemen jendea jazten da

Esaldi hori entzunez gero, ez dakigu ongi leku hori jazteko erabiltzen duen jendeak edo leku horretan jendea jazten duten, bi perpausen esanahia izan baitezake.

Erabilerari buruz, esan dezagun azkenik aditz batzuk erabilera bat baino gehiago dutela:

- (10)** a. etxera lagundu dizut
b. etxera lagundu zaitut
c. zortzietan deituko dizut
d. zortzietan deituko zaitut

Forma guzti horiek erabiltzen dira eta denak ontzat eman beharrak dira, inolako barbarismorik ikusi gabe hor. Dena dela, erabilera bikoitz hau aditz batzurekin bakarrik gertatzen da, ez denekin:

- (11)** a. kalean ikusi zaitut
b. *kalean ikusi dizut

Ez gara luzanuko aurkezpen honetan. Aditz mota guzti hauek xeheki aztertzen dira liburu honen 2. kapituluari eta han aurki daitezke bestelako xeheatasun asko.

1.2.2. Adizki ez jokatuak: aditz oina

Aditzaz hitz egin badugu ere, ez dugu haatik esan aditz horren bamean forma jokatuak eta ez jokatuak ager dakizkigukeela:

- (12)** a. etorri berehala!
b. berehala etorriko da

Bi adibide hauetan ikus daitekeenez, perpaus batean adizki jokatuak nahiz jokatugabeak ikusiko ditugu. Bestalde, adizki ezjokatuen artean --gerorako utziko baititugu jokatuak--, itxura hartuz gero kontuan, forma bat baino gehiago aurkituko da:

- (13)** a. *sar* barnera!
b. partidua *amaitutzat* eman zuten
c. hura zurekin *ikusteak* harritu ninduen

Lehenbiziko kasuan aditz oina bakarrik ageri da, hau da, aspektu markarik gabeko adizkia (horrela deitzen dugu "aditz erroa" ere bereizteko. Beraz, etor aditz oina da eta -*tor*- aditz erroa); bigarren adibidean, ordea, aspektu marka ere ageri da (-*tu*, kasu honetan), partizipioa dela esanen dugularik, eta hirugarrenean, azkenik, aditz izen bat dugu, hau da, jatorrizko aditza izenaren itxurarekin emana.

Aditz oinak perpaus lokabeetan agertzen dira, aginduak ematean, galdera erretoriko edo harridurazkoetan, errefrau edo itxura bereko esapideetan, kontakizunetan eta antzerkietako didaskalietan, ondoko adibide guzti hauek erakusten diguten bezala:

- (14) a. **urrikal jauna!**
b. **nork hari eskua eman?**
c. "Hic maca nic saka" (Oihenart, 267. errafraua)
d. **lehenik zernahi esan, gero zernahi egin eta azkenean zernahi ikus**
e. "Sar eskuinetik...ama besarka..." (A. d'Oihenart pastorala)

Egia da kasu horietan partizipioa ere ager daitekeela eta, anitzetan, euskalkiak edo mintzairaren usuarioak bereizten dituela aditz oina eta partizipioa. Beraz, oso zaila da arau zehatzik ematea puntu honetan. Esan behar den gauza bakarra da aipatu testuinguruetan aditz oina erabil daitekeela, besterik gabe.

Perpaus koordinatuetan ere aurkituko dugu aditz oina:

- (15) **irakur ezazu eta gogoan har**

Ber gauza perpaus txertatuetan ere: errefrauetan, zehar galderetan, hautuzko perpausetan, zenbait posposizioekin eta zenbait esapidetan aurkituko dugu aditz oina. Ikus, bestela ondoko adibideok:

- (16) a. "Otsa non aipa, han gerta" (Oihenart, 385. atsotitza)
b. **ez dakit nondik sar**
c. **zuk aitor ala hark sala, eni berdin zait**
d. **bazkal ostean hurbilduko gara**
e. **ikus ahala urrun**

Lehen egin dugun ohar bera gogora eraziko dugu hemen bertiz, guzti hauek ez baita nahitaezko aditz oina erabiltzea kasu horietan. Euskaldun asko ere askok partizipioa sartzen dute hor:

- (16') a. ez dakit nondik sartu
b. zuk aitortu edo ez, niri berdin zait

1.2.3. Adizki ez jokatuak: partizipioa

Jakina denez, euskalki askotan ez dira aditz oina eta partizipioa bereizten. Nolanahi ere den, egia baldin bada aditz oina dagoen lekuan partizipioa ager daitekeela, alderantzizkoarekin ez da gauza bera suertatzen, partizipioak baliabide gehiago baitu.

Hasteko, partizipioa eta adjetiboa oso hurbil daude bata bestetik (ikus *EGLU-I*, 250. orr.) eta horregatik, partizipioa izen sintagma baten barnean ager dakiguke eta predikatu osagarri gisa ere, adjetiboa ageri den testuinguru berberetan alegia:

- (17) a. emazte polit eta apaindu bat etorri zen
b. ama hila dugu aspaldion
c. sagarrak amari emanak dizkiot

Partizipioa izenaren erudian agertzen da beste zenbaitetan, dela izen huts bezala, dela erlatibo laburru baten aditz gisa, dela izen bihurtutako partizipio moduan. Hona hemen adibide batzu:

- (18) a. etorri handiko gizona da
b. zure esanak alferrikakoak dira

Beste batzutan, alabaina, partizipioa jokatu gabeko zenbait mendeko perpausen aditza izaten da:

- (19) a. goizean etorri gizona
b. etorri behar duzu
c. oroit naiz han ikusirik
d. pozten naiz zu ikusia

Posposizio batzuk partizipioa eskatzen dute:

- (20) a. ikusi arte
b. bazkaldu aurretik

Partizipioak partitiboarekin eta instrumentalarekin ere ageri dira sarri askotan:

- (21) a. **ele horiek entzunik, etxera itzuli ginen**
b. **lan eginez bakarrik ikasten da**

Perpaus elkartuetako koordinazioa partizipioaz baliaturik egin daiteke:

- (22) a. "Ikusi eben andra bat bidea ausi ta basora sartzen"
(Kirikiño, **Egunekoa**, 107.orr.)
b. **etxera itzuli eta lanari lotuko gatzaizkio**

1.2.4. Adizki ez jokatuak: aditz izena

Izen bihurturiko aditz hauek, edo izenaren ixura duten aditz hauek, bestelako izen guztiak bezala izen sintagma osatuz ager daitezke eta, horregatik, gainerakoekin gertatzen den bezalaxe, kasu markak ere hartu. Ergatiboan beti artikulua behar du aditz izenak:

- (23) **hori irakurtzeak buruko mina ematen dit**

Absolutuan ere artikulua behar du, bestela, artikulurik gabe ematekotan, partitiboa erabiltzen baitugu:

- (24) a. **hemendik joatea debekatu digute**
b. **ez dut esan beharrik hori berria dela**

Datiboa erabiltzen dugu kasu hau eskatzen duten aditzekin:

- (25) **etxeko lanak egiteari ekin zitzaion**

Gauza berbera beste kasu zenbaitekin ere. Aditzak edo posposizioen batek hala eskaturik, aditz izenak marka horiek hartu beharko ditu:

- (26) a. **erortzearen beldur naiz**
b. **pozten naiz zu hemen ikusteaz**
c. **esateaz gain**
d. **hori erabakiz gero**

Soziatiboan jarriz gero, denboraren balioa hartzen du:

- (27) **hara joatearekin mediku bat aurkituko duzue**

Inesiboan esanahia aldatuz geratzen da, artikularen arauera:

- (28) a. **etxean sartzen ikusi dut**
b. **etxean sartzean ikusi dut**

Gorago esan dugunez, deklinabideko edozein kasu marka har dezake:

- (29) a. **aitaren ikustera joango gara**
b. **eskolara abiatzerakoan**
c. **boza galtzeraino kantuz segitu zuten**
d. **liburua erosteko dut sosa**

Aipa dezagun, azkenik, aditz izena erabiltzen dugula laguntzailearekin eta guzti (sartzen naiz); kasu hauetan laguntzailea ezabaturik agertzen da aritzetan:

- (30) a. **Euskaltzaindia egun biltzen Tolosan**
b. **hori esatea ere!**

1.2.5. Adizki jokatuak: A. perifrastikoak

Aditzaren gora-beherak ikusten ari garela, orain arte aipatu ditugun kasu guztiak adizki ezjokatuen artean sartzen ditugu. Halaz guztiz, bistan da adizki ezjokatuek adina pisu dutela adizki jokatuek. Adizki jokatuen artean perifrastikoak (ez nahasi 15. kapituluan aztertzen ditugun perifrasi multzoekin) eta trinkoak bereiz daitezke, aditz berberak forma trinkoak eta perifrastikoak izan ditzakeelarik:

- (31) a. **dator**
b. **etorri da**

Adizki trinkoak eta perifrastikoak bereizteko ematen dugun irizpide bakarra formala da: adizki batek laguntzailea behar baldin badu --bi hitz, horiaz--, perifrastikoa izanen da. Trinkoa, bestela. Laguntzaileak, geroago aipatuko dugunez (ikus hemen 6. kapitulua) izan, *edun, *edin eta *ezan dira.

Adizki perifrastikoen sarea zenbait oposizioen bidez gertatzen da eta oposizio hauek **aspektua**, **modua**, **tempusa** eta **persona** ezaugarriak kontuan izanik suertatzen dira:

- (32) a. neska etorri da
 a'. neska etortzen da
 b. erosi zuen
 b'. erosi zukeen
 c. sartu gara
 c'. sartu ginen
 d. erabaki duzu
 d'. erabaki duzue

Bikote hauek jarri ditugun arauera ikusten dira aipatu oposizioak: aspektuarena aditz nagusian dago beti (batean burutua, bestean ez); modua **-ke** markaren bidez adierazten dugu; tempusa ere ikusten da hirugarren bikotean (oraina dugu lehen adibidea eta iragana bigarrena) eta pertsonaren markak ere aditz laguntzailean ageri dira. Ezaugarri guzti horiek bereiz daitezke formalki aditzaren sisteman eta baturako erabiltzen ditugun adizkien berri nahikoa erraz eman daiteke oposizio horiek baldin baditugu beti ere kontuan. Horrela, lau aditz laguntzaile izanik ere, distribuzio konplementarioan daude eta oposizio gurutzatze horretan aditz bakoitzak bere testuingurua hartzen duela dirudi: ***ezan** eta ***edin** agertzen dira aditz nagusiak aspektu markarik erakusten ez duen gehienetan; aditz iragankorrek ***edun** eta ***ezan** bakarrik onartuko dute; adizki batzuk subjuntiboaren esanahia duten perpausetan (ikus 14. kapitulua) bakarrik ageriko dira, e.a.

Euskara baturako hobetsi diren lau aditz laguntzaile hauez gain, badira euskara mintzatuan eta idatzian beste aditz laguntzaileak ere, euskalkien arauera:

- (33) a. jan dagigun
 b. esaten eutson
 c. ikus diro

Egin dugun aurkezpen hau formala denez, ez gara gai hau esplikatzen den 6. kapituluan semantikaz edo esanahiaz arduratuko, oraingo honetan formaz bakarrik baikara arduratzen. Kontua da adizki hauek modu batera edo bestera erabil daitezkeela eta itxuraz (formaz, alegia) "oraina" den zerbaitek "geroaldiaren" esanahia izan dezakeela edo "iraganaldiarena":

- (34) a. bihar heldu omen da Ameriketatik
 b. atzo sartu da kamioi asko mugatik

Hori dela eta, gure ustez nahikoa garrantzizkoa da forma eta forma horren erabilera bereiztea eta bi arazo hauek banan bana aztertzea. Horixe egin dugu 6. eta 14. kapituluekin.

1.2.6. Adizki jokatuak: a. trinkoak

Beste horrenbeste esan daiteke adizki trinkoez ere. Hauetan, modua, pertsona eta tempusaren oposizioa agertzen dira. Ez, ordea, erakutsian behintzat, aspektuarena.

Arazo interesgarri bat suertatzen da puntukaritasunarekin: esan ohi da adizki trinkoek puntukaritasuna erakusten dutela (**dator**) eta adizki perifrastikoetan puntukaritasun hau zehar bidez agertzen dugula. Erlazio horiek zehaztea ez da, halaz ere, hain gauza erraza:

- (35) a. **jendea dator orain**
- b. **oraintxe ari da jendea etortzen**

Euskaldun askorentzat, testuinguru egokiak aurkiturik, forma puntukaria eta "egunerokoa" erabil baitaitezke aditz berarekin. Guzti hau saiatu gara zehazten 6., 7. eta 8. kapituluetan.

Badira, bestalde, aspektu eta moduaren aldetik, baina aspektuaren aldetik batez ere, artas ezaugarri bereziak dituzten aditzak. Ohartu gaituzten, esate baterako, itxuraz hain desberdinak diren **dator**, **ari da**, **nahi du**, **behar du**, **bizi da**, **maite du**, **balio du**, **komeni da**, **iduri du**, **uste du**, **mintzo da** eta **heldu da** ("etorri"ren esanahiarekin) pare parekoak ditugula aspektu aldetik. Badira adizki gehiago ere. Arazo hau ez dugu uste sobera aztertua izan denik euskal gramatiketan eta, horregatik, aurkezpen egoki bat egiten saiatu gara 8. kapituluari.

Behin adizki laguntzaileen eta trinkoen berezitasunen beti eman ondoren, literatur hizkuntzarako hobetsi diren paradigmak jarri ditugu, hemen agertzen den sistematikus berri honen arauera, zehaztu diren lau oposizio horien gainean oinarriturik eraikiz taula guztiak (ikus 9. eta 10. kapituluak).

1.2.7. Aginte eta baldintzako adizkiak

Aginte adizkiak, nolabait esatearren, eskematik kanpo geratzen dira, bere tokian (11. kap.) ikusiko denez. Moduarekin dute zerikusia, pertsona aldetik ere pertsona batzurekin bakarrik ageri dira eta tempusean ere oraina besterik ez dute onartzen. Guzti horregatik, eta eman ditugun lau oposizio horiek hartuz gero kontuan, aginte adizkiek ez lukete lekunik sistemaren barnean.

Hala ere, nola utzi kanpoan adizki hauek? Aginte adizkiak hain erabiliak direnez eta gramatikak zerbait esan behar duenez kontu honetaz, kapitulu oso bat eskaini zaie, bereizketa handiegirik egin gabe oraingoan forma edo itxura eta esanahiaren artean. Paradigmak ere hantxe agertzen dira.

Arazo diferentea da baldintzazkoek (ikus 12. kap.) aurkezten dutena: alde batek, badira baldintzako perpausetan bereziki erabiltzen diren adizkiak, "alegiakoak" deitzen direnak:

- (36) a. **jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen**
b. **euria egin baleza, kanpoak eskertuko luke**

Hauek, adizki bereziak diren aldetik, bidezkoa da aditzaren azterketa egiterakoan aztertzea. Baina badira bestelako adizki "arruntak" erabiltzen dituzten baldintzako perpausak. Dena den, **ba-** aurrizkia ezaugarritzat duten adizki hauei denei buruz zerbait esan behar zelakoan denak batera aipatu ditugu. Bi esaldi hauen lehen zatiak (**jakin(izan) banu** eta **euria egin baleza**, alegia) mendeko perpausen artean sartu beharko genituzke eta beste mendeko perpausekin batera aztertu. Jakina, liburuki hau, behin eta berriz esan denez, perpaus bakunaren azterketa egitera mugatu nahi dugu eta, hortaz, iduri luke lekuz kanpo leudekeela perpaus hauen analisia orrialde hauetan.

Ikusiko denez, erdiko bidea haru dugu: baldintza adizkiez zerbait esaten da, erakutsian utzi nahian adizki diferente hauen oinarriak, baina horrek ez du kentzen beste batean askoz ere sakonago ukitzeko gai hau. Beraz, mendeko perpausen artean berriz ere esanen dugu zerbait honetaz.

1.2.8. Perifراسي multzoak eta gainerako osagaiak

Orain arte aztertu ditugun adizki guztiak ondoko bi multzo hauekoak ditugu:

- (37) a. Jon dator
b. Jon etorri da

Lehenbizikoak "trinko" deitu ditugu eta bigarrenak, berriz, "perifrasikoak" direla esan dugu. Nolanahi ere, euskal aditzak eskaintzen dizkigun aukerak ez dira hor bukatzen. Ikus ditzagun ondoko adibideok:

- (38) a. garaiz joan nahi zuten etxera
b. euskara ikasten ari dira
c. askotan joaten izan da Bilbora
d. Donostiara joatekoak dira
e. garaiz etortzeko esanda zaudete
f. Unibertsitateko ikasketak bukatuta dauzkate

Ezin ditugu adizki guzti horiek, besterik gabe, perifrasikoaren artean sartu. Horregatik perifراسي multzoak (ikus 15. kap.) direla esan dugu. Perifراسي multzo erabilienean artean aipatu beharrik dira, dudarik ez, ari izan-ez baliaturik osaturikoak:

- (39) a. ikastolako haurrak jolasean ari dira
b. euskara ikasten eta sakontzen ari dira gazteak

Esanahiaren aldetik baditu ondo ondoan beste perifراسي multzo batzu ere, jardun, egon eta ibili aditzez baliaturik egiten ditugunak:

- (40) a. nire euskara ez dela euskara esaten jardungo duzu
b. jausten zegoen etxe zahar batean sortu zen
c. nola habil hi heure herriaren aurka mintzatzzen?

Perifراسي hauen artean bigarren multzo handi bat osatzen dute nahi, gogo, gura eta gei formek:

- (41) a. lana egin nahi genuke
b. irakurleak ugaldtu nahi ditu idazleak
c. etxetik irten gura dut
d. zinemara joan gogo dugu afal ostean.

Hirugarrenik, **behar** delakoarekin (anitzetan izen sintagma besterik ez da) osatutakoak aipatuko ditugu:

- (42) a. **etxera garaiz joan behar dugu**
b. **lehengoa bukatu eta lan gehiago ematea behar dugu**
c. **erosi beharra dugu**
d. **liburu hau irakurri beharra daukazu**

Beste multzo batean sartuko ditugu **ahal** eta **ezin** partikulez osatzen ditugun perifrasi multzoak:

- (43) a. **etortzen ahal naiz**
b. **zure liburua irakurri ostean, neurea irakurri ahal nuen**
c. **ezin daiteke horrelakorik esan**
d. **ezin zuen ogirik erosi**

Ohitura adierazi nahi dugunean, **ohi** erabiltzeko aukera dugu, partikula honekin beste perifrasi multzo bat eginez:

- (44) a. **etorri ohi da**
b. **ikasten ohi du**

Ez da, zemahi gisaz, forma bakarra, partikula horren ezagutzerik ez baitute euskaldun askok:

- (45) a. **askotan joaten izan da Bilbora**
b. **anitz jende engainatu darama**

Aditz izena adlatiboan jarriz ere, perifrasiak sortzen ditugu:

- (46) a. **orma zahar hori erortzera doa**
b. **egin zuen zutitzera**
c. **etxe hori erortzera dago**
d. **zure astoa lehertzera omen da**

Aditz izenaz sarri baliatzen gara bestelako perifrasi multzoak egiteko orduan, genitiboaren marka hartuz anitzetan:

- (47) a. **ikustekoak ziren joko haiek**
b. **lan hori zuek egitekoa da**
c. **datorren urtekoa ikusteko duzu oraindik**

Absolutuan eta inesiboan ere behin baino gehiagotan:

- (48) a. oraindaino alferra izan dela? Orain lan egitea du
b. ikusi al duzu Pello? Bai, oraintxe irtetea egin du
c. gaur ez dugu hara joaterik
d. orain arte ikusi gabeko gauzak ikusten goaz

Partizipioan zuzenean eraikirik edo partizipioan oinarrituriko formetan eraikirik ematen ditugu sarri askotan perifrasi multzoak:

- (49) a. zu Ameriketara ibilia omen zara
b. nere gurasoen etxean lo eginga naiz
c. damaturik zegoen bere alaba ez bialia
d. ongi aspertuta daude honez gero
e. jantziak dagoeneko zintzilika jarrita ditu
f. haren hitza irakurri izan nuenean ihardetsi nion

Horrela biltzen dira perifrasi multzo garrantzizkoenak: 15. kapituluaren ikus daiteke zein den perifrasi hauen esanahia eta erabilera, zer nolako desberdintasunak dauden forma batetik bestera eta zein diren hemen aipatu gabe utzi ditugun bestelako perifrasiak. Hori dela eta, ez dugu emanen hemen xehetasun gehiago.

Adizki trinkoak, adizki perifrastikoak eta perifrasi multzoak aipatu ondoren, bada oraindik ukitzeke utzi dugun puntu bat. Kontua da aditzaren inguruan agertzen direla edo ager daitezkeela bestelako partikula batzu ere, aditzarekin zuzenean loturik daudenak: partikula horiek ditugu aztertzen 16. kapituluaren. Hona hemen adibide batzu:

- (50) a. ez omen du ezer ere ikusi
b. ez deo xarmangarri?
c. Mikel ez dator
d. Mirenek badaki
e. ba al daukazu dirurik hau erosteko?

Honekin bukatzen dugu aditzaren eta, aditzarekin batera aditz multzoaren barnean agertzen diren osagaien, analisia. Kapitulu honetan ondoren datozen orrialdeetako gaiak aurreratu besterik ez ditugu egin, xehetasunak eta adibideak gero baitatoz. Hortaz, hementxe berean uzten dugu aurkezpen hau, esan dezakegun guztia gero esaten baita.

2. ADITZ MOTAK

2. ADITZ MOTAK

2.1. ADITZAREN EGITURA MOTAK

Aditzaren egitura motak esatean, ez gara ari hemen adizki trinko eta perifrastikoen artean egin daitezkeen bereizketa aipatzen (ikus 6. eta 7. kapituluak), hau da, aditz nagusi eta laguntzaileak osatzen duten aditz formaz; baizik aditz oina dei dezakegunaz (ikus 3. kapitulua).

Aditz oina, eta hemen darabilgun "aditz nagusia" terminoak gauza bertsua adieraziko ligukete: aditzaren barnean, esanahia ematen duen atala, hiztegian aurkituko duguna. Horrela:

- (1) a. liburu berri bat erosi dut
- b. berandu iritsi da
- c. hamarretan oheratzen da gure haurra
- d. izugarri maite dute elkar

Perpaus hauetan **eros**, **irits**, **ohera** eta **maite izan/ukan** direla aditz oinak esanen dugu. Guk, hala ere, aditza izendatzerakoan, aipatzerakoan, ez ditugu aditz oinak erabiltzen; hau da, hiztegieta, esate baterako, ez ditugu **irits**, **etor**, **aitor** edo **ikus** bezalako formak aurkitzen normalean. Horien ordez, lehen partizipioari (ikus 3. kapitulua) dagozkion formak aurkituko ditugu, **iritsi**, **etorri**, **aitortu** edo **ikusi** bezalakoak alegia. Era berean, norbaitek galdeuz gero "nola esaten da euskaraz **comprar** edo **acheter**?", **erosi** esango genioke; eta ez **eros**.

Dena dela, aditzoin hauen artean ere, ez daude guztiak berdin eratuak morfologiari dagokion neurrian. Batzu aditzoin **BAKUN** direla esango dugu; horrelakoak ditugu **joan**, **eros(i)**, **sal(du)**, **etorr(i)**, **jo**, **gorri(tu)**, **luza(tu)**, **berandu(tu)**, **egin**, **ikus(i)**, **ekarr(i)** eta abar luzea. Hauen artean ere badira, ordea, desberdintasunak, morfologiaren ikuspuntutik. Batzuri, **sal(du)**, **etorr(i)**, **ikus(i)**, **egin**, **joan**, **eros(i)** eta antzekoei, **BEREZKOAK** deituko diegu, hots, aditz besterik ez direnak, beste kategoria gramatikal batetik, berehala esplikatuko dugun bezala, eratortzen ez direnak.

Bestalde, euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, badugu aditzak, izen, adjetibo edo aditzondo batetik sortzeko, eratorzeko edo deribatzeko aukera. Horrela sortuak ditugu gorago aipatu ditugun **luza(tu)**, **gorri(tu)**, **berandu(tu)**, edo izenondo elkartuetatik (ikus *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-1 (Eranskina)*, 3. kapitulua) sorturiko beste hauek: **luma harrotu**, **bihotz gogortu**, **hega baldartu**, e.a. (Ikus, dena dela, aipatu kapitulua guzti honetaz). Piska bat sistematizatuz, honako bereizketa hauek egin ditzakegu aditz oin **BAKUN** izanik, **BEREZKO** ez direnen artean:

a) **IZEN** batetik eratorritako, sortutako aditzak, hala nola:

gizon	-	gizondu	distira	-	distiratu	esker	-	eskertu
arau	-	arautu	gosari	-	gosaldu	diru	-	dirutu
ume	-	umetu	aitona	-	aitondu			

b) **ADJETIBO** (izenondo ta -koz osaturiko izenlaguna) batetik eratorriak (ugarienak):

luze	-	luzatu	gorri	-	gorritu	ilun	-	ilundu
zahar	-	zahartu	goibel	-	goibeldu	zikin	-	zikindu
ihar	-	ihartu	garratz	-	garratzu	garbi	-	garbitu
ustel	-	usteldu	gaurko	-	gaurkotu	lehor	-	lehortu
etxeko	-	etxekotu	bestelako	-	bestelakotu			

(izenondoa bera ere aldi berean eratorria izan daiteke; adibidez: haserrekor-haserrekortu, idurikor-idurikortu...)

c) **ADITZONDO** batetik eratorriak (aurreko bi sailak baino askoz urriagoa):

berandu	-	berandutu	urrun	-	urrundu	hurbil	-	hurbildu
gainezka	-	gainezkatu	zeharka	-	zeharkatu	harrika	-	harrikatu

d) **-RA** kasu marka daraman izen sintagmatik eratorriak:

plazara	-	plazaratu	urrutira	-	urrutiratu	ohera	-	oheratu
lepora	-	leporatu	etxera	-	etxeratu	kalera	-	kaleratu

Aipatu behar da ohitura zaharra **plazara da / plazara zen** egitea zela, gaur egun oraindik gorde dugun **atera da** adizkian ikusten den moduan.

Lau sail hauetan aipatu ditugun aditzak sortzeko **-tu (-du)** atzizkiak baliatu gara. Hau baita, izan ere, aditz berri bat sortu nahi dugunean erabili ohi duguna. Halere, zenbait kasutan, **-ztatu**, hots, **-z** kasu markaren gainean eraikitako aldakiaz baliatzen gara: **legeztatu**, **ureztatu**, **harriztatu**, **begiztatu**, **egiaztatu**, e.a.

e) Aditz oin **ERAZLEAK**, hau da, ekintzak eragileren bat izan duela adierazten dutenak. Gaur egun euskaraz balio erazle hau lortzeko **arazi/erazi/erazo** edo **eragin** aditz elementuaz baliatzen gara (aurrerago nolabait erazle diren beste aditz mota batzu ere aipatuko ditugu):

- (2) a. "Ordu beteko lasterraldia eginda, baserritar batek *geldierazi* zun (Santa Kruz), eta jendarmeen eskuetara egotzi" (*Santa Kruz Apaiza*, 37)
- b. "Baña arranzalcaek badakie, an, itxasoaren barruan dagoala euren da etxeko guztien janaria, ta jan bearrak *saiatu eragiten* deustie ikusi barik sifistuko ezlitzatekean ausardi, neke ta arriskoagaz" (Tx. Agirre: *Kresala*, 65)
- c. "Mendeak eta mendeak ditik, Pello, Espainiako errege handi batek...*egin-arazi* zuela jauregi eder hori" (Elissanburu, *Piarres Adame*, 36)
- d. "Gazta handi guztian *ezar-arazi* zuten: nahi zuenak ongi irabazi, aski zuela hortan emaita sosa" (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 45)
- e. "Dendako zorrak be, oindifto zuritu barik daukaguzala *gomuterazo* yaustak gaur goizeon bertan gure atsoak" (E. Erkiaga, *Arranegi*, 14)

Adibide hauetan erraz ikus daiteke balio erazle hori. Horrela, lehen adibidean, esaterako, ez zen Santa Kruz berez, bere kasa, gelditu, beste norbait izan baitzen ekintza horren eragilea. Bide beretik, hirugarren adibidean, Espainiako erregea dugu jauregiaren eragilea, baina beste batzu egileak. Edota bosgarrenean, ez zaio agurari berez gomutatu zorrak ordaindu gabe daudela, bere andrea, "atsoa" izan da gomutatze horen eragile. Beraz, esan dezakegu aditz erazle edo faktitiboetan ekintza bakarrean, eragilea eta egilea berezi behar ditugula. Esan beharra da, dena dela, elementu horiek ez dutela denek hedadura bera: erazo eta eragin bizkaieraz erabiltzen dira; beste euskalkietan, berriz, arazi/erazi nahiago dituzte.

Orain arte aipatutako aditz elementu erazle horiekin (**arazi / erazi / erazo / eragin**) batera, antzina euskaraz bazuen beste baliabide bat aditz oin erazleak sortzeko: -ra- artizkia. Horrela, honako bikoteok --besteak beste-- aurki ditzakegu gaur egun ere:

etorri - eratorri	ibili - erabili	egin - eragin
esan - erasan	jaso - eraso	jantzi - erantzi
jatxi - eratxi	igo - irago	jaiki - eraiki
	igaro	
egotzi - eragotzi	ikasi - irakatsi	entzun - erantzun
etzan - eratzan	igan - iragan	itzarri - iratzarri

Artizki hau, nolana ere, iharturik gelditu da, ez baitu balio iadanik balio erazle hori aditz oinari eranstea. Areago, **-ra-** artizkiaren bidez sortutako aditz oin erazle askok eta askok balio berezi hau galdu egin dute eta, ondorioz, **-ra-**dun aditz oin horiek beste edozein aditz oinen pareko bilakatu dira; beraz, beste aditz oinek bezalaxe ekintza horiek *eragileren* bat izan dutela adierazi nahi dugunean, **-ra-**dun aditz oin horri **arazi/erazi/erazo/eragin** erantsiko diogu. Esan dugunaren zenbait adibide ematekotan, hor ditugu oraindik gure artean bizi-bizirik honako hauek:

- (3) a. **ume zahar hauek erasaten dizkigutenak**
 b. "Orra zergatik Joanesez eskulitz bat *eragin* zion Maleni osabarentzat" (Tx. Agirre: *Garoa*, 178)

Adibide hauetan garbi ikusten da **erasan** eta **eragin** aditz oinen balio erazlea, **-ra-** artizkiak ematen diena. Baina aldi berean hor dugu ondoko adibide hau, non Elissanburuk ez baitio *eragin* bakarrik baizik *egin arazi zuela*:

- (4) "Espainiako errege handi batek egin arazi zuela jauregi eder hori"

Bide beretik, gaur egun, **erantzun**, **eratorri**, **erabili**, e.a. ez ditugu **entzun**, **etorri** edo **ibili**-ren erazletzat hartzen, beren esanahi propioa garatu baitute. Eta goraxeago esan bezala, beste edozein aditz oini bezalaxe lot diezaiekegu **erazi** hauei ere, **erantzun** edo **iratzarri** aditzetan ez dugula inolako kutsu erazlerik somatzen adieraziaz:

- (5) a. "Oihurik egiten ez badut, jakiten ahal duk, Pello, hiregatik dela...zeren ez baihindutan nahi iratzar-arazi!" (Elissanburu *Piarres Adame*, 42)
 b. "Atzo, arratsalde epelean, mendiaz bertzaldean nintzelarik antxuekin, Zugarramurdiko fraidek ereman edo ereman-arazi dituzte beren komentura gure berrehun ardiak, beren ahariekin" (Elissanburu, *Piarres Adame*, 46)
 c. **Abuztuko sargori hartan, hiru orduz larruzko berokia soinean erabil erazi zidaten**

Azkenik, aditz erazleen inguruan morfologiari dagokion auzi bat aipatu behar dugu: **arazi/erazi/erazo** eta **eragin** zeri lotzen dizkiogu, lehen partizipioari ala aditz oinari? Bi joera desberdin aurkitzen ditugu euskalkien arauera. Orohar, ekialdeko euskalkietan, aditz oinari lotzen zaio erazlearen marka (ikus goiko adibideko **ezar-arazi** hori); mendebalekoetan, aldiz, lehen partizipioari: **saiatu eragiten, galduerazi**... Batasunaren bidetik, **arazi / erazi / erazo** edo **eragin** aditz oinari lotzea hobetsi du Euskaltzaindiak.

2.2. ADITZ ELKARTUAK

Orain arte aipatu ditugun aditz oinak **BAKUNAK** deitu ditugu. Beste aditz batzu, aldiz, **ELKARTUAK** direla esanen dugu. Honakook ditugu aditz oin elkartuak, mola desberdinak bereizten ditugula hemen ere.

2.2.1. Aditz elkartu berezkoak

Honela deitzen ditugu bi elementuz osaturiko aditzak, bi elementu horien artean bigarrena aditza delarik. Horrela eratuak ditugu **eraberritu, antzaldatu, itxuraldatu** eta horiek bezalakoak. Hemen sartzekoak lirateke, era berean, **etsi** eta **eritzi** aditzekin osatutako aditz elkartu berezkoak, gaur askotan ihartutzat eman baditzaiegu ere: **onetsi, oneritzi, gaitzetsi, berantetsi, gaitzeritzi**, e.a.

- (6) a. "Matinek onetsi zian, beraz, lagun on gisa, atsegin horren egitea" (Elissanburu, *Piarres Adame*, 16)
- b. "Ikusiz ikasi du Jainkoak nola lagunzen duan, ea anima itxuraldatzen duan, ez baitirudi bera" (Orixe, *Jainkoaren Billa*, 202)
- c. "Yolasak eta musikak gutxietsiz zoaien" (Orixe, *Mireio*, 118)

2.2.2. Izena+ukan/izan egiturakoak

Guzti hauek *edun motako laguntzailea daramate, hala nola: maite izan/ukan, behar izan/ukan, nahi izan/ukan, uste izan/ukan, damu izan/ukan, merezi izan/ukan, balio izan/ukan, higuin izan/ukan, astio izan/ukan, ezagun izan/ukan, e.a.

- (7)
- maite ditut, maite, zure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkidanean
 - gure haurrak beti bere lehengusuaren jostailua nahi izaten du
 - Zertako balio du azterketa gainditzeak, ez bada ezer ikasten?

Sail honetan sartuko genituzke, era berean, ahal izan eta ezin izan, aditz bezala erabiltzen ditugunean, ez modal gisa:

- (8)
- nik ahal dut
 - zuk ezin duzu
 - ahal baduzu, etorri

2.2.3. Izena+egin/eman/hartu

Aditz esapide hauek aski erabiliak dira: negar egin, alde egin, lo egin, hitz egin, ez tul egin, berba egin, ele egin, min eman, hitz eman, okasio eman, bide eman, esku eman, min hartu, kontu hartu, e.a.

- (9)
- ez da jendearen aurrean berba egiteko gauza
 - ez duela gehiago gezurrik esango hitz eman dit
 - oso ondo lo egiten da ohe honetan
 - harri tartean erori eta ukalondoan miu hartu du

Aditz esapide hauetako izenek, beste edozein izen sintagma objektu bezala joka dezakete ezezkoetan, galderetan, e.a.:

- (10) a. ez du negarrik egin
b. ez du minik hartu

nahiz

- c. ez du negar egin
d. ez du min hartu

Badira, halaz guztiz, horrelako aditz esapide zenbait erabat ihartuak geratu direnak, hau da, izena eta aditza bereizten ez direnak. Horrela, ondoko esaldia ez da gramatikala:

- (11) *ez du alderik egin

Horren ordez, nahitaez beste hau esan behar:

- (12) ez du aldegin

Gauza bera ondoko adibidean ere, bi esaldi horiek esanahi desberdina dutelako:

- (13) a. ez du hitzik egin (=ez du ezer ere esan)
b. ez du hitz egin

Ez dira bakarrak: erabilera ihartu hori dela eta, sarri askotan gerta litezke esanahi aldaketa hauek:

- (14) a. motorrak ez du lan egin (=ez da abian jarri)
b. egun osoan ez dut lanik egin

Dena dela, hirugarren sail honen eta aurrekoaren artean bada diferentzia nabarmen bat egitura aldetik: biak nor-nork motakoak izanik ere (ikus aurrerago), 2.2.2. saileko aditzak daramazkiten perpausetan, beste izen sintagma absolutu bat ager daiteke ("*maite ditut gure bazterrak*"). 2.2.3. sailekoekin, ordea, ezin daiteke halakorik gerta: hauetan **negar**, **berba**, **hitz**, **min**, e.a. baitira hasierako izen sintagma absolutu mugagabeak, gaur egun esapide horietako izena iharturik badago ere. Izen ihartu honek bere aztarna uzten du, eta horregatik ezin ditugu ondoko perpaus hauek bezalakoak osatu:

- (15) a. *Inakik etxea aldegin du
 b. *Inakik bere andregaia aldegin du
 c. *ez du egia hitz egin

Zernahi gisaz, bada salbuespenik:

- (16) trena huts egin du

2.2.4. Izan laguntzaileaz osaturikoak

Hauen artean daude lotsa izan, gose izan, egarri izan, hotz izan, beldur izan, bizi izan, e.a.

- (17) a. txikitari, Tolosan bizi izan nintzen
 b. beldur naiz berriro ere ez ote duen kazkabarra egingo
 c. gose dena, edozertarako prest jana lortzea-gatik

Orain arte esandako guztia laburtuz, bada, honako eskema hau genuke aditzaren egitura motei buruz:

1. Bakunak;
 - 1.1. Berezkoak: *joan, etorr(i), egin, ikus(i), esan, entzun*
 - 1.2. Izen, adjetibo edo aditzondo batetik eratorriak: *luzat(u), gizon(du), berandu(nu)*
 - 1.3. Aditz oin erazleak: *ikus erazi, gomuterazo, ezar erazi*
2. Elkartuak
 - 2.1. Berezko elkartuak: *eraberritu, itsuraldanu, gaitzetsi*
 - 2.2. Izena+izan/ukan: *maite izan/ukan, balio izan/ukan, ezagun i zantukan, uste izantukan*
 - 2.3. Izena+egin/eman/hartu: *negar egin, min eman, kontu hartu*
 - 2.4. Izena+izan: *lotsa izan, beldur izan, ageri izan*

2.3. ADITZEN SAILKAPENA

2.3.1. NOR eta NOR-NORK motako aditz oinak

Orain arte eman ditugun erizpideez gain, aditz oinak beste modu batera ere sailka daitezke. Aditz bakoitzak onartzen dituen kasu gramatikaletan (hau da, **nor**, **nork** eta **nori** kasuetan) oinarrizten da beste sailkapen erizpide hau, aditzak erabakitzen baitu perpaus batean **nork** edo **nori** sintagmarik agertu behar duen ala ager daitekeen. Adibidez, **etorr(i)** aditzak ez du **nork** sintagmarik onartzen. **Nori** sintagma, berriz, onartzen du, nahiz ez beharrezkoa izan:

- (18) a. berandu etorri da
b. berandu etorri zaigu

Era berean, **jakin** aditzak beti **nork** sintagma eskatuko du, baina ez du **nori** sintagmarik onartuko:

- (19) a. aitak egia jakin du
b. *aitak egia jakin dio

Horrela, **nor** sintagmaren bat beti izango dugunez euskal perpausa osatzerakoan (ikus, dena den, **nor** izunaz dioguna aurrerago), aditz oinen sailkapen nagusia honako hau dela esan dezakegu:

NOR motakoak / NOR-NORK motakoak

Horrela, "joan", "etorri", "egon", "ibili", "lotsa izan" edo "beldur izan" lehen sailean diren bezala, "jakin", "uste izan/ukan", "gonbidatu", "ezagutu", "saldu", "erosi", "ezagutu", "ikusi", "jan", "ekarri" edo "craman" bigarrenekoak dira. Dena den, euskal aditz konkretu eta jakin bat zein motatakoa den jakiteko ez dago arau edo erregelarik, gramatikak eman dezakeenik, informazio hori ematea hiztegiari baitagokio.

NOR-NORK motako aditz oinen artean, berriz, hiru azpisail bereiz daitezke:

1) Gehienak egiazko **nor** eta **nork** sintagmekin azaltzen zaizkigu:

- (20) a. gure osabak hiru idazle gonbidatu ditu afaltze-
ra
b. egunean hiru bider ateratzen dugu zakurra
kalera
c. baserritar horrek zituen ziza guztiak berehala
saldu ditu

2) **Nor izuna** duten egiturak, hau da, benetako **nor** sintagmarik ez dutenak. Aditz oinak sailkatzerakoan, perpaus guztietan **nor** sintagmaren bat izango dugula aipatu dugu. Hala ere, ondoko adibide hauetan ez dugu **nor** sintagmarik, nahiz aditza **nor** sintagma dugunean bezalakoxea izan; horrexegatik esango dugu **nor izuna** dugula:

- (21) a. **josten ikasi du**
b. **badaki** batuketak egiten
c. arratsalde osoan **dihardu** lanean
d. **kaneloiak** egiten **ahaztu** zaio (=nola egiten diren ahaztu zaio)

Adibide hauetako aditzak **nor-nork** motakoak ditugu, guztiak osagarri bezala perpausa daramate, eta inesiboa, **non** kasua (**josten, egiten**) azalduko zaigu **nor izun** bezala. Eta inesiboan badoaz ere, **ikasi** edo **jakin** edo **ahaztu** aditzen objektu dira (nahiz normalean objektuak **nor** kasuaren bidez adierazi). Guzti honek ez du, halaz guztiz, esan nahi **ikasi** edo **jakin** beti **nor izuneko** egituretan aurkituko ditugunik.

Nor izunari dagokionez, bigarren sail bat osatzen dute **balio izan/ukan, iraun, pisa(tu)** bezalako aditz oinek. Hauetan, itxuraz, **nor** sintagma azaltzen da, baina, funtzioa aztertzen badugu, objektua ez beste zerbait adierazten duela ohartuko gara.

- (22) a. **hiru ordu irauten du pelikula horrek**
b. **bost mila pezeta balio du liburu horrek**

Ikusten denez, "bost mila pezeta" edo "hiru ordu" ez dira benetako objektuak eta **zenbat** galderari erantzuten diote. Horiaz, adberbiotzat jo behar ditugu (ikus honetaz esan genuena *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-1*, 224. eta 333-334. orrialdeak).

Nor izuna delako honetan bada oraindik hirugarren sail bat ere:

- (23) a. **etxera lagundu dizut**
b. **telefonoz deitu dizute**
c. **jakinminez begiratu dizu**

Hemen agertzen diren **dei(tu)**, **begira(tu)** edo **lagun(du)** bezalako aditz oinak **nor-nori-nork** erako laguntzailearekin erabiltzen ditugu askotan mendebalean; halere, adibide guzti horietan ez zaigu **nor** sintagmarik azaltzen, nahiz horien ondoan **lagun egin**, **dei egin** edo **so egin** ere badiren. (Bestalde, hiru aditz horiek **nor** ageriarekin ere erabiltzen dituzte zenbait idazlek).

Bada oraindik laugarren sail bat ere: **bazkal(du)**, **gosal(du)**, **afal(du)**, **dimiti(tu)**, **irakin**, **kurri(tu)**, **distira(tu)** eta antzekoek osatzen dutena. Ez dugu hauetan inolako **nor** sintagmarik eta horregatik ditugu egiazko salbuespenak. Lehen esan dugun "nor sintagma bat dugu euskal perpausa osatzerakoan" perpausak badu, beraz, salbuespenik.

Aipagarria da gaur egun euskarak mailegatzen dituen aditzik gehienak horrelakoak direla (**funtzionatu**, **dimititu**, **existitu...**), **nor-nork** gisa jokatzeko baititugu, nahiz **nor** sintagmarik perpausuan azaldu ez. Dena dela, badirudi maileguak uholdeka onartu ordez, euskal ordainak erabiltzen edo aurkitzen saiatu beharko genukeela.

- (24) a. gure herriko alkateak gaur goizean dimititu du
b. urak irakin du
c. lanari ekin dio
d. horrek edan egiten du
e. berriek kurritu dute

3) Badira beste batzu benetako **nork** sintagmarik ez dutenak. Gutxi izanik ere, baditugu euskaraz zenbait aditz oin, laguntzailea **nor-nork** motakoa delarik, **nork** sintagmarik gabe azaltzen direnak:

- (25) a. euria hasi du
b. hotz handia egiten du
c. elurra ari du
d. eguna luzatu du
e. atertu du

Ikusten den bezala, orohar eguratsari dagozkion aldaketak adierazten dituzten aditzak ditugu hauek (ikus, dena dela, liburu honetako 16. kapituluko lehen puntua).

4) Azkenerako geratzen zaizkigu merezi izan/ukan eta balio izan/ukan esapideek osaturikoak. Aditz hauek aipamen berezia eskatzen dute. Berauen subjektua, pertsona adierazten duen izen sintagma denean, aditz hauek egiazko **nor-nork** direnak bezala, hots, lehen sailekoak bezala erabiltzen ditugu:

- (26) a. **halako abiadan joategatik, urtebeterako karneta kentzea merezi du gizon horrek**
b. **lan horretako asko balio duen pertsona duzu**

Baina ekintza batez ari garenean, hots, pertsona adierazten duen izen sintagmarik ez dugunean, gaur egungo erabilera nahasia da; ez dugu jakiten benetako **nork** ez dutenak bezala ala **nor** izuna sailekoak bezala erabili behar ditugun:

- (27) a. **pelikula hori ikustea merezi du**
b. **pelikula hori ikusteak merezi du**
c. **horrela jokatzek ez du balio**
d. **horrela jokatea ez du balio**

2.3.2. Sail aldaketak

Nahiz eta sailkapen nagusiaren arauera, aditz oinak **nor** edo **nor-nork** motakoak direla esan, sail batetik besterako aldaketak gerta daitezke. Fenomeno honi dagokionez ere, zenbait azpisail bereiz daitezke:

2.3.2.1. **Nor-nork** motako aditz oinak, **nor** motako gisa ager daitezke. Horrela, **sal(du)**, **eros(i)**, eta **esan** tankerako aditzak **nor-nork** motakoak direla esan dugu, baina honako perpaus mota hauek ere ager daitezke:

- (28) a. **sagarrak merke saldu dira**
b. **horrelakorik ez da esaten**
c. **liburu zaharrak erosten dira**
d. **leiho honetatik lorategi eder bat ikusten da**

Horrelakoetan ez zaigu **nork** sintagmarik azaltzen, aditz laguntzailea ere **nor** erakoa da, eta egitura honen bidez inbertsonaltasuna, aditzak adierazten duen ekintzaren egile jakinik ez izatea, ematen dugu aditzera (aditz laguntzailea hirugarren pertsonan doalarik). Hau da, ez dakigu **sal(du)**, **esan**, **eros(i)** edo **ikus(i)** ekintzen egileak nortzu diren. Eskema hau genuke bada:

[NOR-NORK] <-----> [NOR]
+inbertsonala

Balio inbertsonala, ordea, ez da **nor-nork** motako aditz oinak **nor** saileko eginaz bakarrik lortzen. **Nor** saileko aditz oinekin ere, subjeto jakinik, ez agerian ez isilbidez, azaltzen ez den neurrian, gerta daiteke balio inbertsonal hori:

- (29) a. **nola joaten da hemendik udaletxera?**
b. **oso ondo egoten da hemen**
c. **ezin da gaur egun horrela ibili**

Nolanahi ere, eta adibideetan antzeman daitekeenez, badirudi balio inbertsonal hau ohitura markatzen duen aspektuari loturik dagoela.

2.3.2.2. **Ikus ditzagun honako perpaus hauek orain:**

- (30) a. **aitona zaharra hil da**
b. **mendia elurrez zuritu da**
c. **ontzia urez bete da**
d. **gelako mutikoak ikaratu dira**

Perpaus horiek ondoan datozen hauekin erkatuz gero berehala ohartuko gara ez dela inperstonaltasunik adierazten hor; alegia, ez dela zehaztugabeko egilerik suposatzen:

- (31) a. zakur basati horiek aitona zaharra hil dute
 b. auzo horiek beren etxeetako hormak karez zurutu dituzte
 c. gure hurrek ontzia urez bete dute
 d. iluntasunak gelako mutikoak ikaratu ditu

Berehala ohartzen gara adibide hauen artean gertatzen den oposizioa ez dela goikoa bezalakoa. Han bazirudien jatorrizko aditza [nor-nork] sailekoa zela eta, horrenbestez, [nor] sailekoa nolabait eratorria edo, zela. Balio inperstonala, hain zuzen, hortik zetorkion, alegia, berezkoa zuen subjektua (nork sintagma, alegia) ezahatzetik.

Hemen ez. Hemen alderantzizko zerbait gertatu dela ematen du: lehenagokoa litzateke, nolabait, [nor] aditza [nor-nork] aditza baino, eta hau, hain zuzen, [nor] aditzari kanpotik egile bat erantsiz lortuko litzateke. Hortaz:

hil ₁ ----->	hil ₂
[nor]	[nor-nork]

Oraingoan, oposizioa ez da lehen bezalakoa. Lehen [nor] aditzak balio inperstonala bazuen, orain [nor] aditz horrek ez du, nahitaez, balio hori. **Ontzia bete da** dioenak ez dio ontzia pertsona zehaztugabeko batek bete duenik, berekasa bete dela baizik. **Ontzia gaur saldu da** esaten dugunean ez bezala.

Hil₁ eta hil₂-ren arteko oposizioa, hortaz, oraingoan aditz inkoatibo baten eta erazle baten artekoa da. Aditz inkoatiboak dira egoera aldaketa bat adierazten dutenak, edo ekintzaren hasiera adierazten dutenak. **Zuritu da** esatean zuri ez zena zuri bihurtu dela esaten dugu. Horrenbestez, **zuritu du** esatean, aldaketa horrek eragileren bat izan duela esan nahi dugu. Hortaz, nolabait, aditz erazle izango litzateke bigarren zuritu hau. Beraz:

[nor] ----->	[nor-nork]
+inkoatiboa	+erazlea

Dena dela, badirudi diferentziaren bat badela, gehienetan behintzat, gorago ikusi diren **erazi** bidezko aditz erazleen eta oraingo hauen artean. Izan ere,

sartu da/sartu du adizkien arteko oposizioaren parean ditugu **sarrerazi du** eta **sarrerazi dio** ere. **Sarrerazi du** adizkia **sartu da** adizkiari legokiokeen erazlea izango litzateke, baina **sarrerazi du** eta **sartu du** ez dira beti, nahitaez, baliokide. **Sarrerazi dio**, berriz, **sartu du**-ren eta, beraz, nolabaiteko erazletzat eman dugunaren erazlea litzateke.

Baina arazo hauek gorabehera, hemen argi gelditzea nahi dugu --eta hori hiztegian eman beharko litzazigukeen informazioa da-- [nor] aditz baten eta [nor-nork] aditz baten arteko erlazioa, sarritan, aditz inkoatibo baten eta nolabaiteko erazle baten artekoa izan daitekeela. Eta informazio hau hiztegian eman behar dela diogu erori eta **bota** aditzen arteko erlazioa ere --**bota** nolabait erori-ren erazlea baita-- hiztegian eman behar den arrazoi beragatik.

Hala ere, [nor-nork] erako aditz erazle hauek, **nork** ezabatuz, [nor] formako bihur daitezke, gorago bezala orain ere interpretazio inpersonala ematen zaiolarik. Horrek esan nahi du **hiltzen dira** bezalako aditz forma bat interpreta daitekeela bai "norbait zehaztugabeak hiltzen ditu" bezala ("nola hiltzen dira zerriak zuen herrian?"), modu inpersonaleraz beraz, bai aditz inkoatibo soil gisa ("egunero honenbeste pertsona hiltzen dira gosez", esaten dugunean bezala). Horrela gertatzen da **nola?**, **noiz?**, **non?** bezalako galdetzaileak erabiltzen ditugunean edo hauei dagozkien adizlagunak dauzkagunean:

- (32) a. **noiz hiltzen dira zerriak zuen herrian?**
b. **nola janzten dira umeak hiri handietan?**
c. **noiz bete da ontzia olioz?**
d. **udazkenean hiltzen dira zerriak gure herrian**

Hauek ere itxuraz (30)ean jarritako adibideen parekoak ditugu baina haietan garrantzia egoeraren aldaketari ematen baldin bazaio, inolako egilerik suposatu gabe, honakootan somatzen dugu egoera aldaketaren eragilea kontuan hartzen dela, baina espreski aipatu gabe. Nolabait esatearren, isilpean, baina hor dago. Eta hemendik sortzen da inpersonaltasunaren balioa.

2.3.2.3. Azkenik, inpersonaltasuna adierazteko moduez ari garelarik, balio hau **nor-nork** saileko aditza gordez ere lor daitekeela aitortu behar dugu. Horrelakoetan, aditz laguntzaileak hirugarren pertsonako ergatibo pluralari dagokion marka eraman ohi du, **-te** alegia. Beste modu batera esanda, **nor-nork** motako aditza gordez, inpersonaltasuna adierazi nahi dugunean, **hai**ek subjeto ez zehaztuaz (testuinguruan nor edo zer seinatzen duen ez baitakigu) baliatu ohi gara:

- (33) a. **Indian behiak ez dituzte hiltzen**
 b. **Suizan izan ginenean, goizero zortzietan esnatzen gintuzten**
 c. **sorginen ipuinak kontatuz ikaratzen zituzten lehengo haurrak**

Eta bide hau da, hain zuzen ere, (hots, ergatibo plurala), **nor** sintagma hirugarren pertsonako izan orde, lehen edo bigarren pertsonakoa dugunean, inbertsonaltasuna adierazteko bidea. Lehen ere aipatu dugu, balio inbertsonala duten perpausetako (edota ekintzaren egilea adierazten ez duten perpausetako) aditz laguntzaileak hirugarren pertsonari dagokion marka daramala. Honek esan gura du **nor-nork** motako aditza erabiliz gero, objektu funtzioa betetzen duen izen sintagma beti hirugarren pertsonakoa izango dugula. Har ditzagun goraxeago ikusiriko (28) multzoko adibide batzu eta gorde ditzagun **sal(du)**, **esan** eta **eros(i)** aditzak **nor-nork** sailean:

- (34) a. **baserritar horrek sagarrak merke saldu ditu**
 b. **gure amak ez du inoiz horrelakorik esaten**
 c. **literatura irakasleak liburu zaharrak erosten ditu**

Perpaus hauetan **sagarrak**, **horrelakorik** eta **liburu zaharrak** hirugarren pertsonako izen sintagmak ditugu. Eta hauexek dira, hain zuzen, aditzak **nor** sailera pasatuz gero, subjektu berri bezala gelditu zaizkigunak aipatu adibideetan, (28)an alegia. Baina, beste horrenbeste egin al dezakegu objektu funtzioa betetzen duen izen sintagma hori lehen edo bigarren pertsonan denean? Eman dezagun:

- (35) **Andereñoak, etxeko lanak ez egiteagatik zigortu nau**

Perpaus honetan, **zigortu** ekintzaren egilea isilpean utzi nahi badugu, zilegi al da euskaraz **ni** subjektu berri bezala hartu eta **zigor(tu)** aditza **nor** sailera pasatzea? Badirudi ezetz:

- (36) ***etxeko lanak ez egiteagatik zigortu naiz**

Horrelakoetan, inbertsonaltasuna adierazteko bide bakarra, hirugarren pertsonako ergatibo plurala erabili behar da:

- (37) a. **etxeko lanak ez egiteagatik zigortu naute**
 b. **hitzaldia dugunean, autoz eramaten gaituzte etxetik hitzaldi aretora**

c. duela bost urte atxilotu zintuzten eta oraindik ez zaituzte askatu

Lehen esan bezala, haiek izenordain "huts" den heinean, hau da, nor seinalatzen duen ez dakigun bitartean, perpaus horiek inperzonaltzat jo daitezke.

Arazoa, ordea, ez da besterik gabe lehen edo bigarren / hirugarren perzonaren artean gertatzen. Inperzonaltasuna dela eta, lehen eta bigarren perzonari buruz esan dugun guztiak balio baitu, hirugarren perzonako izen sintagmak egiazko perzona, gizakia, adierazten duenerako ere. Alde honetatik (35)-aren ordez (38) bagenu, ezin izango genuke (36)-aren parekorik osatu, (39)-an ikusten denez:

(38) **andereñoak, etxeke lanak ez egiteagatik zigortu du mutiko ile gorria**

(39) ***etxeke lanak ez egiteagatik zigortu da mutiko ile gorria**

Aukera bakarra ondoko hau dugu:

(40) **etxeke lanak ez egiteagatik zigortu dute mutiko ile gorria**

Dena dela, batek baino gehiagok pentsa lezake: zergatik, orduan, esan daitezke hurrengook?:

(41) **a. arriskuan ikusi naiz
b. gero ikusiko gara**

Argi dagoenez, **ikus(i)** aditza **nor-nork** motakoa da eta bi adibideetan persona adierazten duen subjektua gelditzen zaigu **nor** sailera pasatzean. Egia da horrelakoak esaten direla eta gaur ontzat ematen ditugula. Baina hauetan, adibide horiei dagozkien **nor-nork** aditza gordetzen duten perpausetan, objektu funtzioa beteaz, izenordain **elkarkaria** edo **bihurkaria** aurkituko dugu (ikus *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*, 105. orrialdea):

(42) **a. nik, arriskuan ikusi dut neure burua
b. gero ikusiko dugu elkar**

Gertatzen dena da, inguruko hizkuntzen eraginez edo, eta haietan erabiltzen diren egituren analogiaz, areago, egitura horiek gaizki jasoaz, (40). adibideak erakusten digun bide arriskugarririk abiatu dela euskara. Bide honek garamatza, hain zuzen ere, aipatu elkarkari eta bihurkariak baztertzera askotan:

- (43) a. *ispiluan ikusi naiz
b. *Mikel eta biok ikastolan jo gara

Badirudi euskal gramatikak nahiago lituzkeela, horien ordez, beste honako hauek:

- (44) a. ispiluan ikusi dut neure burua
b. Mikel eta biok ikastolan elkar jo dugu.

Areago oraindik, izenordain elkarkari edo bihurkaririk ez dugunean ere, inguruko hizkuntzen eraginez datekeena, honelakoak entzun ditzakegu gaur egun:

- (45) a. *txapela jantzi naiz
b. *etxe berria erosi naiz

Jakina, euskal perpaus jatorrak bestelakoak dira:

- (46) a. txapela jantzi dut
b. etxe berria erosi dut

Perpaus horietan ageritzen diren bi sintagmak **nor** eta **nork** ditugunez, ezin dugu aditza **nor-nork** sailekoen artean **nor** sailekora pasa.

Orain arte, **nor-nork** ---> **nor** sail aldaketaren barruan, balio inpersonalari buruz esan duguna laburbilduz, eskema xume hau eman dezakegu:

[NOR-NORK.]	<--->	[NOR] +inpersonala
-------------	-------	-----------------------

Baldintza bat bete behar da, dena dela: **nor-nork** motako aditz oinaz osatzen dugun perpausuan, objektu funtzioa betetzen duen izen sintagma absolutuko izena [-bizidun] motakoa izanen da (ikus *EGLU 1*, 70. orr.), esan nahi baita ez dituela izaki bizidunak adieraziko, bizigabeak baizik. Horrelakoetan bakarrik zaigu zilegi euskaraz **dut** adizkia **da** motara aldatzea, balio inpersonala emanez.

[NOR] +inkoatibo	<--->	[NOR-NORK] +erazlea
---------------------	-------	------------------------

Gero, jakina, [nor-nork] +erazle horrek **nork**-en urratzea ikus dezake eta, orduan, inpersonal gisa interpretatu.

2.3.2.4. **Nor** eta **nor-nork** sailen arteko aldaketa honetan, beste mota bat, euskalki batean edo batzutan sail bateko, eta beste euskalki batean (edo batzutan) besteko, diren aditz oinek osatzen dute. Adibidez, gipuzkeraz **irten** aditza **nor** motako aditza da; bizkaieraz, aldiz, **nor-nork** erakoa. Horrenbestez, bi egitura hauek izanen ditugu euskalkien arauera:

- (47) a. aita berandu irten da etxetik
b. aitak berandu urten dau etxetik

Beste horrenbeste beste aditzekin ere:

- (48) a. goraino igo gara
b. goraino igon dogu

Zubereraz eta Baxenafarreraz **bazkaldu** **naiz** esaten da, beste euskalkietan **bazkaldu** **dut** esaten den bitartean. Euskalkien arauerako erregimen desberdinei dagozkien aldaketak dira, beraz, azken sail honetan aztertu ditugunak.

2.3.2.5. Azkenik, beste erabilera bikoitz bat **deitu**, **lagundu**, **begiratu**, **ikutu**, (zerbait egiten) **utzi**, **eskertu**, **entzun**...bezalako aditz oinekin aurkitzen duguna da. Hemengo aditz oin guztiak **nor-nork** sailekoak ditugu, eta hala erabiltzen dira euskalki guztietan; desberdintasuna, berehala aipatuko dugun **nori** sintagmatik dator. Orohar, mendebaleko euskalkietan, goiko aditz oin horiek, **nor-nori-nork** saileko bezala erabiltzen dira; ekialdekoetan, **nor-nork** saileko bezala:

- (49) a. etxera lagundu dizut
b. etxera lagundu zaitut
c. telefonoz deitu dizute
d. telefonoz deitu zaituzte
e. jakinminez begiratu dizu
f. jakinminez begiratu zaitu
h. jaietara joaten utziko dizut
i. jaietara joaten utziko zaitut (baina euskalki

guztietan, ordea, **etxean utzi zaitut**)

2.3.3. Nori sintagma

Hasieran esan dugu aditz oinen sailkapen nagusia **nor** eta **nor-nork** motakoen artean egiten dela. Baina aditz oinen sailkapena, bakoitzak onartzen edo eskatzen dituen kasu gramatikaletan oinarritzen dela ere esan dugu. Eta kasu gramatikalen artean **nori** sintagma ere badugu. Orain artekoetan, beste bi sintagma gramatikalez, **nor** eta **nork** sintagmez aritu bagara, zer erants diezaioke **nori** sintagma kontuan hartzeak aditz oinen sailkapenari?

Galdera honi erantzuteko, bi alderdi berezi behar ditugu:

2.3.3.1. Alde batetik, **nori** sintagma, orain arte ikusi ditugun bi sailletako (**nor** eta **nor-nork**) gehigarri aukerazkoa besterik ez da; eta hala gertatzen da gehienetan. Hauxe da esan nahi duguna: **nor** saileko aditz oin askok eta askok **nori** sintagma perpausean azaltzea onartzen dutela, baina ez derrigorrez eskatzen. Eta beste horrenbeste gertatzen da **nor-nork** saileko aditz oinekin: askok ere askok perpausean **nori** sintagma onartzen dute, ondorioz aditz laguntzailean **nori** sintagma horren markak azalduko direlarik (ikus liburu honetako 6.8.2.). Beraz ondoko adibideetako perpaus guztiak ditugu aukeran:

- (50) a. joan da mundu honetatik
b. joan zaigu mundu honetatik
c. berandu iritsi zen berria
d. berandu iritsi zitzaizuen berriz
e. auto berria erosi dut
f. aitak auto berria erosi dit
g. traste zahar guztiak ekarri ditu
h. traste zahar guztiak ekarri dizkigu

2.3.3.2. Badira, ordea, **nori** sintagma nahitaez eskatzen duten aditz oinak. Horrexegatik esan dugu lehen atalean "aditz oin askok eta askok" eta ez "aditz oinek" edo "aditz oin guztiek". Gutxi izanik ere, badira **nor** sailekoen artean, derrigorrez **nori** sintagma eskatzen dutenak. Eta beste horrenbeste gertatzen da **nor-nork** sailekoekin ere. **Nor-nori** sailekoak ditugu, besteak beste, **burura(tu)** eta **jarraiki**. Aldiz, **nor-nori-nork** sailekoak ekin, eritzi, eutsi, eragin eta beste zenbait.

- (51) a. ideia sanorik ez zaio haur horri sekula bururatzten
b. lehenbailehen ekingo diogu lanari
c. eragiok, mutil, aurreko danbolin horri!

Bigarren sail honek, dena dela, honako galdera hau dakar berarekin: **nor** eta **nor-nork** saileko aditz oinen artean, **nori** sintagma nahitaez eskatzen dutenak aurkitzen baditugu, ba ote da beste aditz oin multzoren bat **nori** sintagma inoiz ere onartzen ez duenik? Baietz erantzun behar. Izan ere, **nori** sintagma azaltzen den perpausuan erabili ezinezkoak ditugu honakook:

a) **lotsa izan, bizi izan**, e.a., hots, "izena"+"izan" egitura dutenak. Ikusten denez, **nor** sintagma bakarrik ager daiteke hauetan, **nori** sintagma sartuz gero perpaus ez gramatikalak sortzen baitzaizkigu:

- (52) a. *horrenbeste jenderen aurrean hitzegin behar
zuelako lotsa zaigu
b. *mendian, eguzki galdatan, hiru orduz ibili
ondoren egarri zaigu

b) Baditugu bestalde **nor-nork** saileko zenbait aditz oin, salbuespenik gabe, **nori** sintagmarik onartzen ez dutenak. Sail honetakoak ditugu, besteak beste, **jakin, uste izan/ukan**, e.a.

- (53) a. berehala jakin du egia osoa
b. *berekala jakin dio egia osoa
c. datorren astean oporrak hartu ahal izango
ditudala uste dut
d. *datorren astean oporrak hartu ahal izango
ditudala uste dizut

Ondorioz, aditz oinen sailkapena honela labur dezakegu:

1. **Nor** sailekoak
 - 1.1. **Nor-(nori)**, hau da, **nori** sintagma aukeran dutenak
 - 1.2. **Nor-nori**, hau da, **nori** sintagma ezinbestekoa zaienak
 - 1.3. **Nor**, hau da, **nori** sintagmarik onartzen ez dutenak
2. **Nor-nork** sailekoak
 - 2.1. **Nor-(nori)-nork**, hau da, **nori** aukeran dutenak
 - 2.2. **Nor-nori-nork**, hau da, **nori** sintagma beharrezko dutenak
 - 2.3. **Nor-nork**, hau da, **nori** onartzen ez dutenak

2.3.4. Aditz erazleak

2.3.4.1. Aditz oin erazleen sailkapena

Lehenago ikusi dugu nola eratzen ditugun aditz hauek: **arazi**, **erazi**, **erazo** edo **eragin** aditz elementuaren bidez.

Aditz oinen sailkapenaren arloan, zer esan daiteke bereziki aditz mota honetaz? Morfologiaz hitz egitean definitu ditugu **erazleak**, ekintzaren egilea eta **eragilea**, bultzatzailea, adierazten duten aditz bezala. Ikus dezagun, bada, zer suposatzen duen **aditz sail** nagusienetako bakoitzean, **nor** eta **nor-nork** sailetan, aditz oina erazle bihurtzeak. Har ditzagun, hasteko, **nor** saileko aditza daramaten ondoko adibideak:

- (54) a. **Pacheco ganbara eder batean sartu da**
b. **ordu beteko lasterraldia eginda, gelditu zen Santa Kruz**

Perpauk hauetan "Santa Kruz" eta "Pacheco" dira "geldi(tu)" eta "sar(tu)" ekintzen egileak. Ekintza horiek, ez berariaz, baizik beste baten eraginez, beste batek bultzatuta egin dituztela esan nahi badugu, honako perpauk hauek aurkituko ditugu:

- (55) a. "Jauregira heldu diren bezain sarri, jaun lekaio lehenak sar-arazten dik Pacheco ganbara eder batean" (J. Elissanburu, *Piarres Adame* 38)
b. "Ordu beteko lasterraldia eginda, baserritar batek geldierazi zun [Santa Kruz], eta jendarmeen eskuetara egotzi" (Orixe, *Santa Kruz apaiza* 37)

Ekintzaren eragilea sartzeak, zermolako aldaketak ekarri ditu? Alde batetik, lehen aipatu duguna, aditz oinari **arazi/erazi** eranstea; bestalde, ekintzaren eragilea, **nork** sintagmaren bidez adierazten dugu: **jaun lekaio lehenak** eta **baserritar batek**. Beraz, honelako eskema genuke:

nork sintagma (eragilea)	nor sintagma (egilea)	aditzoin erazi	nor-nork lag.
------------------------------------	---------------------------------	-----------------------	----------------------

Mendebalean, ordea, **nork** sintagma (eragilea), **nori** sintagma (egilea), aditzoina, **erazi**, **nor-nori-nork** laguntzailea:

(56) baserritarrak sartu eragin zion behiari kortan

Ikus dezagun orain zer gertatzen den **nor-nork** saileko aditza dugunean, eta erazle bihurtu:

- (57) a. "Illaren 14garrenean Mañarian Letonak sekulako mutil-sailla galdu zuen" (ikus beherago)
b. "Eguna argitu ezkerre arraiñ ederrak eta merke! luze, zoli ta garbi deadar egifaz, belarririk so da gorrenak entzun artean" (ikus beherago)

Bi adibide hauetan, **Letonak**, **mutil sailla** beste norbaiten eraginez galdu zuela, edo **belarriek** beste norbaiten edo **zerbaiten** eraginez entzun zutela esan nahi badugu, ondoko hauetara joko dugu:

- (58) a. "Illaren 14garrenean Mañarian bizkaitarrak sekulako mutil-sailla galduerazi zioten Letonari, eta 15garrenean Oñatin giputzak "Mendigorrako eiztariarena" zeritzaion batalloian" (Orixe, *Santa Kruz apaiza*, 37)
b. "Eguna argitu ezkerre arraiñ ederrak eta merke. luze, zoli eta deadar egifaz, belarririk so da gorrenak entzun eragin artean" (Tx. Agirre, *Kresala*, 75)

Adibide hauetan ditugu, alde batetik **gal(du)** eta **entzun** ekintzen egileak ('Letona, "Mendigorrako eiztariarena" zeritzaion batalloia' eta 'belarririk sor eta gorrena'), (56)an **nork** sintagmaren bidez adieraziak, eta (57)an, berriz, **nori** sintagmaren bitartez. Bestalde, ekintza horien *eragileak* izango ditugu (bizkaitarrak, giputzak, eta, azaltzen ez diren, baina ulertutzat ematen ditugun "arrain saltzaileak"), **nork** sintagmaren bidez adieraziak. Eskema oraingoan honela geratuko litzazuke:

nork sintagma (eragilea)	nor sintagma (objektua)	nori sintagma (egilea)	aditzoin erazi nor-nori-nork laguntzailea
------------------------------------	-----------------------------------	----------------------------------	---

Baina, erazle marka ezartzeak, ekintzaren egilea **nork** sintagmaren bidez eman ordez, **nori** sintagmaren bidez ematea eskatzen du. Laburpen gisa, bi eskemak lotzen baditugu, honela geldituko litzazuke eskema orokorra:

NOR aditz oinari **arazi/erazi/erazo/eragin** lotuz:

nork sintagma (eragilea)	nor sintagma (egilea)	aditzoin erazi	nor-nork lag.
------------------------------------	---------------------------------	-----------------------	----------------------

NOR-NORK aditz oina + erazi:

nork sintagma (eragilea)	nor sintagma (objetua)	nori sintagma (egilea)	aditzoin+erazi
------------------------------------	----------------------------------	----------------------------------	----------------

Eskema honek, lehenago 2.3.3. puntuan **nori** sintagmaz esan duguna kontuan izanik, zenbait ondorioztara garamatza:

1) Perpaus batean **nor**, **nork** eta **nori** sintagmak aurkitzen baditugu (nahiz aditz oinak aukeran uzten duelako, nahiz ezinbestean hirurak eskatzen dituelako), **erazi/arazi/eraginekin** batera agertzen direnak, askotan arazoak gerta daitezke bi **nori** sintagma agertzean. Horrela, zenbait perpaus beste batzuk baino onargariago gertatzen zaizkigu:

- (59) a. **apezari aitor arazi didate nere bekatu handia**
b. **salgai nuen landa Mikeli salerazi didate gurasoek**

Adibide horiek egokiago suertatzen zaizkigu aitari liburua eman arazi diote Joxeri baino.

2) **Nor-nork** saileko aditz oinen artean ere, **nori** sintagmarik onartzen ez dutenak ikusi ditugu: **jakin, uste izan/ukan...** Baina hauek onartzen dituzte erazle markak, nahiz **nori** sintagmarik ez onartu ez erazle direnean. Horrela, gogora ditzagun gorago eman ditugun adibideak ere:

- (60) a. ***brehala jakin dio egia osoa**
b. ***datorren astean oporrak hartu ahal izango ditudala uste dizut**

Hala ere, **jakin** edo **uste izan/ukan** ekintzen eragilea adieraz daiteke, aditz oinari **arazi/erazi/erazo/eragin** markak erantsiz.

- (61) a. **brehala jakin erazi diogu aitari egia osoa**
b. **datorren astean oporrak hartu ahal izango ditudala uste izan arazi didate lagunek**

2.3.4.2. Aditz erazleak eta inbertsonaltasuna

Aditz erazleekin ere aurki ditzakegu erabilera inbertsonalak. Gertatzen dena da, inbertsonaltasuna, nagusiki, eragileari, hots, **nork** sintagmari badagokio ere, bigarren maila batean egileari buruzko inbertsonaltasuna ere kontuan har dezakegula. Hobeki esan, egilea, **nori** sintagmaren bidez adieraziko dena, isilpean utz daiteke, nahiz hau ez izan erabat egitura inbertsonala. Azter dezagun zer gertatzen den kasu bakoitzean, lehen bezala **nor** eta **nor-nork** sailetako aditz oinak bereziz.

1) **Nor** saileko aditz oinak. Sail honetan, inbertsonaltasuna eragilea isilpean uztean datza, ekintzaren eragilea **nor** den ez aipatzean. Baina erazle markak (**arazi...**) beti **nor-nork** motako laguntzailea eskatzen duenez, inbertsonaltasun markatzat -te, hirugarren pertsonako ergatibo pluralari dagokion markaz baliatuko gara:

- (62) a. **Pacheko ganbara eder batean sar-arazi zuten**
b. **ordu beteko lasterraldia eginda, geldierazi zuten Santa Kruz**

Horixe da esango genukeena, baldin ekintza horien eragilea isilpean utzi nahi bagenu.

2) **Nor-nork** saileko aditz oinak. Hemen ere egiazko inbertsonaltasuna eragilea, **nork** sintagmaren bidez adierazten duguna, isilpean uztean datza, horren ordez **hai**ek subjetu "huts" bat azaltzen delarik.

- (63) "Illaren 14garrenean Maftarian sekulako mutil-sailla galduerazi zioten Letonari..."

Edota, ondoko adibidean, aditz ez jokatu izan arren, garbi gelditzen da eragileari buruzko inbertsonaltasuna, ez baita espreski aipatzen **nork** "irunsi-erazoten" dizkien berriak adiskideei:

- (64) "Illunzea zan, eta arratsaldeko une ori izan bere, egoki ta artarakoena da,[...], albista, izpar eta esamesak elkarri agertu ta adierazoteko, eta esanok geituz eta aldatuaz lenengo antzik bage utzi ta gorputz barriez tainturik adiskideei irunsi-erazoteko" (E. Erkiaga, *Arranegi*, 13)

Bestalde, egiazko inbertsonala ez izanik ere, egilea, **nori** sintagmaren bidez adierazia, isilpean utz dezakegu, horrelako perpausak lortuz

- (65) "Santa Kruzek... eriotz asko egiñarazi zula.. Egiñarazi zitun eriotzak, baño gerrako legez" (Orixe, *Santa Kruz apaiza*, 16)

Azkenik, eragilea eta egilea, biak isilpean utzirik, honako perpausok sor ditzakegu:

- (66) a. hamar liburu irakur erazi dituzte gela hartan
b. aurten, literatura lehiaketa horretan, hiru milioiko saria eman eraziko dute

Hauetan gainera, nor-nork sailekoak nor sailera alda daitezke, nahi izanez gero:

- (67) a. gaur jakin erazi da soldaten %5eko igoera
b. hamar liburu irakur eraziko direla entzun dugu

3. ADIZKI EZ JOKATUAK: ADITZOINA

3. ADIZKI EZ JOKATUAK: ADITZOINA

Aditzak, zenbaitetan, forma ez jokatuan ager daitezke perpausetan, esan nahi baita, ez dutela tempusaren edo pertsonaren markarik hartzen (ez beraien barnean, ez eta aditz laguntzaile baten bitartez ere).

Aditz jokatu gabe hauek hiru oinarritzko itxuratan ager dakizkiguke:

ADITZOINA: sal, eros, hauts, etor, e.a.

PARTIZIPIOA: saldu, erosi, hautsi, etorri, e.a.

ADITZ IZENA: saltze, eroste, hauste, etortze, e.a.

Ikus ditzagun hiru multzo hauek banan banan.

Aditzoinak ez dira nonahi ageri: zenbait perpaus lokabetan eta mendekotan soil-soilik ageriko dira. Horrelakoetan, ia gehienetan, forma jokatu ere erabiltzen ahal da, eta badirudi gainera erabilera ezjokatu hauek aspektu edo/ta denbora modu markak isilean atxekiz moldatzen ditugula.

Aditzoina, gaur egun, ekialdeko euskalkietan baizik ez baita erabiltzen, dituen erabilera gehienak partizipioaren bidez adierazten dira gainerako euskalkietan. Gure aurkezpena argiago izanen delakoan, horrelako kasuetan, bi baliabideak elkarren ondoan ezarriko ditugu letru hauetan.

3.1. ADITZOINA PERPAUS LOKABEETAN

3.1.1. Aginduak ematean

Aditzoinak solaskideari egiten zaion agindua adieraz dezake:

- (1)
 - a. **urrikal, jauna!**
 - b. **sar barnera !**
 - c. "Hel, sokorriko Mariá !" (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*, 61.orr.)
 - d. "Mugi, mugi, ...ahokua atxean dun...Utz hemen den denak duen bezala" (P. Larzabal, *Bordaxuri*, 68.orr.)
 - e. "Bcraz, goberna ongi, bizi prestuki, ez zeure burua abantallean hartzera utz, ez ihardets, ez konturik egin !" (Axular: *Gero*, 198)

Hemen ikusten dugunez, beti solaskideari agintzen dioguna seinalatzen du eta, hortaz, ezin daiteke erabil aditzoina 2. pertsona ez den bati eginikako agindua adierazteko:

- (2) ***Jainkoak barka!**

Bestalde, mendebaleko euskalkietan bestelako usadioa aurkitzen da eta normalean partizipioa erabiltzen da jokatu gabeko agintekera markatu gura denean:

- (3)
 - a. **Barkatu !**
 - b. **Sartu barrura !**
 - c. "Erdu ba neugaz !" (Kirikiño, *Egunekoa*, 55. orr.)

3.1.2. Galdera erretorikoetan edo harridurazkoetan

Berriz ere, aditzoina agertuko da ekialdeko euskalkietan:

- (4)
 - a. "Jesusen ama Birjina, nundik sinhets eta nola zu guk ama zaitugula?" (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*, 80.orr.)
 - b. "Nor fida halakoari ?" (Hiriart U., *Jauna dut argi I*, 37.orr.)

- c. "Non koka bada holako jendeketa izigarria ?" (J. Hiriart U., *Jauna du argi, II*, 40 orr.)

Mendebaleko euskalkietan, ordea, partizipioa dugu kausitzen inguru hauetan:

- (5) a. "Nork adierazo bi biotz mailagarri ayek elkarri esango ziozkaten amodiozko itzak ?" (Lardizabal, *Campionen Gramatikatik, Apéndices, V*)
- b. "Ori be sifistu ? Areek esan deusuefa -ta" (Kirikiño, *Egunekoa*, 58.orr.)
- c. "Doai onec emaiten dio animari edertasun bat" (...) diamanteen edertasun gucia garaitzen duana. Ta doai an galdu guc !" (Agirre, *Erakusaldiak I*, 36.orr.)
- d. "Nok arei eskua ezarri ? Ta ezarri bear !" (Kirikiño, *Egunekoa*, 67. orr.)

3.1.3. Errefrauetan eta itxura bereko esapideetan

Hemen ere aditzoinarekin nola partizipioarekin aurkituko dira adibideak, aukeran ditugula:

- (6) a. "nic hora mana, horac bert bustana" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak*, 334. errefraua)
- b. "linua ascarrari garhait" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak*, 267. errefraua)
- c. "Hic maka nic saka" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak* 232. errefrana)
- d. "ifloren emoia artu eta norberen burua saldu" (Oixolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 76.orr.)
- e. "Betiko ituteak arria zulatu, ta aldi luzeak guztia aztu" (Lopez Mendizabal, *La lengua vasca*, 216. orr.)
- f. "urteak galentu, ajiak azaldu" (Azkue-k bildua, *Euskalerriaren Yakintza III*, 1833. atsotitza, 165.orr.)
- g. "Orcen irakurritza orduan auxe da: gu ondatu ? Ludi guztia ondatu. gu galdu ? Ludi guztia galdu. Gu il ? Danak il". (Kirikiño, *Egunekoa*, 115.orr.)

Igarkizunetan ere ber gauza gertatzen zaiugu:

- h. "Basoan yaio, basoan azi, etxera etorrira zuririk janzi" (Azkue-k bildua, *Euskalerraren Yakintza III*, 2507. atsotzitza, 207. orr.)

3.1.4. Kontakizunetan

Iparraldean maiz erabiltzen dira aditzoinak jokadura markarik gabe, kontakizunetan eta arrazoinamenduetan, perpausei halako erritmo berezia, bizi-bizia eman nahi zaielarik. Deskripzioetan ere aurkitzen da aditzoina, ia-ia aditzondo baten balioa duela:

- (7) a. "behin gezurra saka, sar ahala. Zernahi sinets araz jende ahulari; zernahi hitzeman, eta gero... Gero, iduri zeinengan kenka ona duela, hitza jan" (J.Hiriart U., *Zezenak Errepublikan*, 110.orr)
- b. "Ez dira lotsa hemen, egun bat osoa kurrizeko edo berdin biga: lagun multxo bat bil, eta lot bidetari" (J.Hiriart U., *Jauna dut argi, I*, 37.orr.)
- c. "Erbitto bat: beharri xut, buztan labur, *Ausik; itzul, beha, jauzi...* bethi beldur" (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*, 87.orr)
- d. "...ikustekoak ziren jendeak lerro-lerro, mendi batetarik *jauts*, beste bai goiti *abia*, denak beila tokiari buruz goatzila" (J. Hiriart U., *Jauna dut argi I*, 40.orr.)

Mendebalean bereziki, baina anitzetan ekialdean ere antzera suertatzen da, partizipioa bera molde bertsuan erabiltzen da. Gehientsuetan koordinazioak ekarri aditz laguntzaile baten ezabaketa gertatzen da, baina ez, ordea, beti: batzutan ez baita forma jokaturik ageri, denak ezabatuak izaki:

- (8) "Unamunok euki bear dau alako gomuta samar lautsotsu bat (...) eta geiago barik 'or joak' eta ukondoa *sartu, sinestu, ta esan*, 'di' atzizkiak arbolea dikurrela" (Kirikiño, *Egunekoa*, 88. orr.)

Halaz guztiz, joera hau ez da mendebalekoa bakarrik, goraxeago esan dugun bezala. Hortaz, ekialdean ere aurkinuko dugu, bertsogintzan bereziki:

- (9) "Ni Ajenan bi urhez, libre nintzala ustez,
Bena aita orano ez ase mendekatzez;
Jaun horier *galthatü ükhen* otoritatez,
Presu begiratzeko librantxaik ükhen gabez,
Eta ere *edüki* hamar ilabatez.

Ni Ajenan *libratü*, etsaien artin *sarthü*
Hunak galdütrik, haurrak dohakabe *baratü*,
Eni hen ikhustiak odola *alteratü*,
Azione triste bat süjet hartarik *heltü*,
Harzara jüstiziak ni berriz preso *hartü* (Etxahun Barkoxe, "Bi berset dolosürik", 6. ahapaldia, J. Haritschelhar, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*, 142. orr.).

Zenbaitetan fokalizazio baten ondorioaz aurkitzen ditugu forma jokatugabeak. Zenbaitetan partizipioa dugu orduan kausitzen, eta beste batzutan, berriz, aditz izenak:

- (10) a. "lapurrak ba geure gauzea ostatua daroa bafia geu ez garoaz, ta barriz, bakaldun orrek *dagiëna* da: gizonak eurak *ostu* osagun guztiakaz, gizonai aberria *ostu*" (Kirikiño, *Egunekoa*, 54.orr.)
- b. "Ez dauke gogoan beste gauzarik: *il, erre, apurtu, kiskaldu, birrindu, ezereztu*, ... Odola *ixuri, negar eragin, ikaratu ta beldurtu* mundu guztia" (Kirikiño, *Egunekoa*, 86.orr.).
- c. "Sobera akitu gabe egin zuten errepublikanoek erresumaz jabetzea" (J. Hiriart Urruti, *Jauna dut argi I*, 14.orr.)
- d. "Justiciac ezpaitceriçun, nahi egin sinhestia,
Senhar hil batec cirouala, erho ahal emastia
Egin ceriçun bereki, presounteguilat erouitia,
Bena ez çuri eraguin, erranes *khambiacia*" (Etxahun Barkoxe, Heguiluz-en Khantore berria, 7. ahapaldia, J. Haritschelhar, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*)

3.1.5. Antzerkietako didaskalietan

Antzerkietako didaskaliak dira pastoraletan egileak egiten dituen oharrek antzeslariak betetzeko. Ekialdean, eta bereziki Zuberoako pastoraletan, antzerki jokoak aditzoinarek bidez adierazten dira izkribuetan:

- (11) a. "Jalqui Oger, richart, alar (...) Asquen 2 jar" (*Charlemagne* pastoral, Saffores-en eskuizkribua)
- b. "Sar eskuinetik (...) ama besarka (...), Allandek khanta (...) denak eretira..." (*A. d'Oihenart* pastoral, A. Aguergaray-k ontua)

3.2. ADITZOINA PERPAUS KOORDINATUETAN

Aditzoinarek erabilera manatzen duten bi aditz edo bi perpaus koordinatzen direlarik, aditz laguntzailetarik bat ezaba daiteke, aditzoina bera bakarrik uzten dugula orduan:

- (12) a. "Ordu deno begiak idek ditzagun eta gisa hartarat *berma*" (J. Hiriart U., *Jauna dut argi I*, 45.orr.)
- b. "bakean *haz* eta emenda dadin" (J. L. Davant, Belapeyre-ren *Catechisma laburra*-ren hitzaurrea, 13.orr.)

Halako kasuetan (**edin* eta **ezan* laguntzaileekin) hobe da, gure ustez, euskara batuaren ereduari jarraikiz, aditzoina erabiltzea, nahiz batzutan aditzoina eta partizipioa elkarren ondoan erabiltzeko joera ere baduten zenbaitek:

- (13) a. "Jaiki zaitez, *hartu* esku-oheta eta zoaz" (Liturgi Euskaratzaile Taldea, Markos 2, 9)
- b. irakur ezazu, eta gogoan hartu
- c. irakurri, eta gogoan har ezazu

3.3. ADITZOINA PERPAUS TXERTATUETAN

3.3.1. Errefrauetan

Aditzoinak errefrauetan ageriko zaizkigu, baldin eta direlako itzuli hauek erlatibozko perpausari badagozkie:

- (14) a. "otsoa non aipa, han gueria" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak*, 385. atsotitza)
- b. "non fida, han gal" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak*, 337. atsotitza)

Mendebalean partizipioa erabiltzeko joera handiagoa da, Azkuek bildutako errefrau honetan ongi aski ikusten den moduan:

- (15) "non gertatu, an ostatu" (Azkuek bildua, *Euskalerriaren Yakintza III*, 2695. atsotitza, 217. orr.)

3.3.2. Zehar galderetan

Zenbait predikatuk jokatu gabeko zehar galderak onesten dituzte eta, hortaz, aditzoina erabiltzen ahalko da ekialdeko euskalkietan eta partizipioa, berriz, mendebalekoetan:

- (16) a. ez dakit nondik sar
- b. ez dakit har ala utz
- c. dudan nago zuri sal edo hari eskaint
- d. "ez dakit zer oldoztu be; nora jo ez dakidala itxi nozu" (Kirikiño, *Egunekoa*, 58. orr.)
- e. "Badakigu non har" (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zorbait*, 86.orr.)
- f. dudan nago hemen gelditu ala zurekin joan
- g. esplikatu zigun nola erabili

Badirudi molde horretako zehar galderak forma jokatu bat erabiliz adieraziko bagenitu, modu morfema baez balia gintezkeela: **ez dakit nondik sartu behar dudan, ez dakit nondik sartzen ahal naizen**. Hala ere, ez da horrelakorik gertatzen mendeko perpaus hauek ***edun, izan, egon** edo horiek bezalako aditz baten hedamenak direlarik. Orduan aditzoina nahiz partizipioa ager dakiguke:

- (17) a. "Banikek, to, hiri zer ihardets" (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zorbait*, 187.orr.)
 b. badugu, engoitik, zer pentsa eta zertaz grina
 c. "historiazaleentzat ere badate zer alha" (J.L. Davant, Belapeyre-ren *Catechima laburra*-ren hitzaurrean, 13. orr.)
 d. "denek badükegü zer ikas" (J.L. Davant, Belapeyre-ren *Catechima laburra*-ren hitzaurrean, 13. orr.)
 e. "ik ez daukak nigaz zer agindu" (Kirikiño, *Egunekoa*, 126. orr.)
 f. "nora joan baneuko orduan aske izango nintzake" (Kirikiño, *Egunekoa* 117. orr.)
 h. "ez dagoela zetan ikaratu" (Kirikiño, *Egunekoa*, 88.orr.)

Partizipioa molde honetan erabilia denean artikulua ere har dezake edo partitibo bihur daiteke:

- i. "alkarregaz zer ikusirik euki ez arren" (Kirikiño, *Egunekoa* 39. orr.)
 j. "burletan-olgetan idazten badogu be zer esana beti dago" (Kirikiño, *Egunekoa* 40.orr.)

3.3.3. Hautuzko perpausetan

Hautuzko perpausetan, orobatasuna adierazten duten zenbait predikaturen gisa erabil daitezke aditzoinak eta partizipioak, bai eta aditz izenak ere:

- (18) a. "urean ito, edo suan erra, da calte bera" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak*, 460. atsoritza)
 b. **zuk aitor ala hark sala, eni berdintsu zait**
 c. "ori galdu ta egaz dabillen txoria galdu, berdín dira ba" (Kirikiño, *Egunekoa*, 57.orr.)
 d. **gaizki egitea edo batere ez egitea orobat heldu da**

3.3.4. Zenbait posposizioekin

Komunzki posposizioak partizipioarekin erabiltzen badira ere, haietarik batzu bederen, aditzoinarekin ere ager dakizkiguke, hala nola, **arte**, **ondoan**, **eta**, **ordu**, e.a. Horrelakoetan ere, lehen ikusi den bezala, aditz laguntzaile baten ezabaketa gertatu dela ez da dudarik; neke da jakitea orduan hura ***ezan/*edin** sailekoa den edo ***edun/izan** sailekoa, ezabaketak aspektu marka bera ere jotzen baitu:

- (19) a. **sar eta**
b. **sar aitzin**
c. **ikus arte**
d. **har ondoan**
e. "odey batec hen beguier esial artio" (Belapeyre, *Catechima laburra eta Jesus-Christ gowre Ginco Jaunaren eçagutcia, salvatia içateco*, 147.orr.)
f. **ardiak sar arau, artzainak kontatzen zituen**

3.3.5. Zenbait esapidetan

Subjuntiboa onartzen duten zenbait predikatuk aditzoinarekilako perpausak onesten dituzte osagarri gisa, ondoko adibideotan ikusten den moduan:

- (20) a. "begirauk eror !" (Lafitte, *Grammaire Basque* § 440)
b. **beldur naiz leizera eror**
c. **kasu emazu ez gal !**

Aditzoina galdetzaile batekin ager daiteke, kontzesibo kutsua duten zenbait esakeratan (gehienak ekialdekoak, bistan dena):

- (21) a. **zer hel ere**
b. **zer gerta ere**
c. "lurra ardura mintzo baita Ameriketian, deliberatu zuten (...) hobe zitekela bakoitza bere etxerat joan zadin, zer gerta ere" (J.B. Etxarren, *Lehen Urbian*, 13.orr.)

Adlatiboa ohi duten zenbait izen aditzen ordeztu beste zenbait esakeratan ere berdin-berdin:

- (22) a. "goazen ikus (ikusiera)" (Lafitte, *Grammaire Basque* § 440)
 b. **emadazu dasta** (dastatzera)

Aditzoina erabiltzen da ekintza baten luzapena edo errepikapena adierazteko:

- (23) a. "Ari zen irakur eta irakur" (Etxarren, *Lehen Urbian*, 52.orr.)
 b. "eror eta xuti dabilta" (Axular, *Gero*, § 346)
 c. "batean eror eta bertzean jaiki dabilanak" (Axular: *Gero*, § 346)
 d. **mintza eta mintza, ez da ele egitetik baratzen**

Horien ordeaz, partizipioa nahiago izaten da mendebalean

- (84) "ibilli ta ibilli, aldi edo denpora zati baten ondoren, auxe jazo zan"
 (Kirikiño, *Egunekoa*, 95. orr.)

Esakera "hormatu" edo ihartu batzutan ere aditzoina:

- (25) a. **orohar**
 b. **orogal**
 c. "Iokazea, orogal, da mando hilarequin ehorstea arbalda" (Oihenaar, *Atsotitzak eta neurititzak*, 637. atsotitza)
 d. **orohar hauxe esan daitekeela uste dut**
 e. "Gutarik bakocharen bizian, oro har, gaur egunak nolako duita? On ala tzar?" (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*, 70.orr.)

Aditzoina agertzen da **ahal** eta **ezin**-ekin berdin, zenbait itzulitan:

- (26) a. **euria jaits ahala ari zuen**
 b. **sinets ezina da**
 c. **ikus ahala urrun**
 d. "Badute bostek eman ahala" (J. Hiriart U., *Jauna dut argi I*, 37.orr.)

Izen batzuk bi aditz elkaturik moldatuak baitira, lehena aditzoinaren forman ager daiteke:

- (27) a. **har-eman: harremanak**
 b. **saɣ-eros: salerospenak**

c. doi-doia sar-atera bat egin zuen

Erazi eta eragin aditz eragileek aditzoinarekin elkartzen dira euskara batuan (ikus 2.1.):

- (28) a. **hurbil erazi**
b. **sinets eragin**

4. ADIZKI EZ JOKATUAK: PARTIZIPIOA

4. ADIZKI EZ JOKATUAK: PARTIZIPIOA

Euskalki askotan ez dira bereizten partizipioa eta aditzoina. Hori dela eta, lehen puntuan ikusi ditugun erabilera gehienak partizipioaz baliatuz moldatzen ditu euskalki horietako hiztunak. Halaz guztiz, partizipioak dituen baliabideak ez dira mugatzen aditzoinek dituztenetara eta beste zenbait baliabide gehiago ere badela ikusiko dugu partizipioarekin.

4.1. PARTIZIPIOA ETA ADJETIBOA

Lan honen lehenbiziko liburukian (ikus *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (1)*, 250.orr.) eman genuen partizipioa eta adjetiboaren artean gertatzen diren zenbait erlazioen berri eta han baieztatzen zen partizipioa aditz adjetibo bat besterik ez dela: izen sintagma batean izenondoan lekuan agertzen ahal direlako partizipioak eta perpaus batean predikatu osagarri gisa ere. Ikus ditzagun, bada, kasu hauek.

4.1.1. Partizipioa izen sintagmaren barnean

Hurrengo adibide hauetan agertzen diren partizipioak izen sintagma baten barnean daude:

- (1) a. "pago erorira egurkari guziak laster ari dira" (Elissamburu, *Atsotitz ezagun hau Azkucereganik bildua da, Euskal-erriaren Yakintza III, 2775. atsotitza, 222.orr.*)
 b. "harri erabilic estu bilzen oroldiric" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak, 211. atsotitza*)

Bi adibide horietan erori eta erabili partizipioak, beste izenondoak bezala, izenaren eskuinean ezarriak dira, eta izen sintagmari dagokion kasu marka haiei zaie lotzen. Molde horretako partizipioak beste izenondo batekin ere elkar daitezke:

- (2) **emazte polit eta apaindu batengana hurbildu nintzen**

Ez da dudarik partizipioen erabilera hau erlatibatzearen ondorioa dela.

Aditz partizipio jakin batzuekin izan ezik (ikasi, edan, e.a.) nor sintagmari dagokio beti partizipioa izen sintagmaren barnean dagoelarik. Hortaz, **soldadu hilak** diogunean, "hil izan diren" edo "hil dituzten soldaduak" direla endelegatzen dugu eta ez, esate baterako, "norbait hil duten soldaduak". Aldiz, **haur ikasi batek** diogunean, "ikasi duen haur batez" ari gara, ez "ikasi izan den batez".

4.1.2. Partizipioa predikatu osagarria

Euskara zaharrean predikatu osagarri gisa erabili partizipioak deus beste markarik gabe ager zitezkeen. Gaur egun, nolana ere, **-a(k)**, **-ik** edo **-ta** atzizkiak lotzen zaizkie partizipio horiei (non ez duten **-tzat** posposizioa hartzen):

- (3) a. **benedikatu dela Jaunaren izena**
 b. **benedikatua izan bedi Jaunaren izena**
 c. **partida galdutzat emazu**
 d. **bilkura amaitutzat eman zuten**

Partizipioari aipatu ditugun atzizkiak eransten zaizkiolarik, forma perfektuak sortzen dira. Zenbaitetan argi baino argiago ageri da partizipioa predikatu osagarri hutsa dela, eta harekin batean agertzen den adizkera jokatu ez dela aditz laguntzailea, baina kopula:

- (4) **ama hila dut aspaldion**

Badirudi azkeneko adibide honetan agertzen den **dut** adizkia ez dela (interpretazio batean bederen) ***edun** laguntzaileari dagokiona, baina **izan** kopularen orde, baliatzen ahal dugun ***edun** kopula biltzailea, hala nola esaten ahal baititugu honakook ere:

- (5) a. **liburua hemen dut**
b. **zapatak handiegiak ditut**

Gure adibideetan hiztunak ez dio "ama hil duela", baina zendua duela soil-soilik, "hila", kasu horretan, predikatu osagarriaren paperean dagoelarik.

Beste batzutan, berriz, gauzak ez dira hain garbi eta, kasu hauetan, partizipioaren ondoan agertzen den adizkiari nekez eman geniezaioke kopula deitura:

- (6) **sagarrrak amari emanak dizkiot**

Adibide honetan partizipioa perfektuan agertzen da. Esan ote dezakegu, zernahi gisaz, hemen ere, aurreko adibideetan bezala, **dizkiot** adizkia kopula dugula eta ez aditz laguntzailea? Ez da batere gauza segurua. Bego horretan, bada, hemen zuzitzeko ez den auzi hau.

Gisa honetako partizipioak (perfektu marka duten partizipioak) ez dagozkio beti **nor** sintagmari eta zenbaitetan **nork** eta **nori** kasuetan ere aurkituko ditugu. Horrela, ondoko perpaus honek hiru interpretazio izan ditzake:

- (7) **esanik dago**

Hiru interpretazio horiek honako esaldiotan ikus daitezke:

- (8) a. **oraingoan dena *esanik dago*; ez da ezer gaineratzekorik**
b. **ez zenuen gura hark jakin zezan. Beranduegi da ordea: segur naiz dagoeneko norbaitek *esanik dagoela***
c. **ez zenuen nahi Patxik inori esan ziezaion. Beranduegi da, ordea: segur naiz dagoeneko bati baino gehiagori *esanik dagoela*.**

4.2. PARTIZIPIOA ETA IZENA

4.2.1. Partizipio bat izenaren eremuan ager daiteke, hiru egoera motaren aurrean gerta gaitzkeelarik orduan:

4.2.1.1. Delako elementua, partizipioaren forma ukanik ere, izen hutsa da: **itzuli**, **bizi**, **erauntsi**, e.a.

4.2.1.2. Delako partizipioa erlatibo laburtu baten aditza besterik ez da, baina perpaus erlatibo laburtuak modifikatzen duen izen ardatza ezabaturik baitago partizipioari lotzen zaio zuzenean mugatzailea.

4.2.1.3. Delako elementua partizipioa da, baina arras izen bihurtua dugu orain.

Lehenbiziko bi kasuak ez ditugu kontuan hartu behar hemen.

Hori dela eta, **itzuli**, **bizi**, **erauntsi** eta horrelakoak izentzat jo behar ditugu. Beraz, oso osoan dira izenak. Izen izaera hori zer gisaz lotua den itxura bereko aditzarekin, hemen aipatzerik ez dugun arazoa da. Gauza bera esan genezake bi aditz elkarturik moldatzen diren izenez: **joan-etorriak**, **har(tu)-emanak**, e.a.

Partizipioa erlatibo laburtu baten aditza delarik gauzak ez dira beti garbi. Alde batetik, lehenago ikusi dugun moduan, badakigu, erlatibatzearen ondorioz partizipioak izenondo gisa ager daitezkeela. Badakigu, halaber, izenondo asko izen bihurtu daitezkeela dagokien izen ardatza isilekoa denean: **gazteek hala diote**. Beraz, molde horretako erabilerak badituzte partizipioek, **eginak ez du eginkizunik**, esaterako, diogunean. Gehienetan molde horretako partizipioen adiztasuna ongi ageri da, partizipioaren ondoan, osagarri gramatikalak, nahiz **-ko** gabeko adizlagunak ager baitaitezke, ondoko adibideotan argi aski ikusten denez:

- (9)
- zuk esana ez da egia**
 - alkoolari emanek ez dute ardorik edan behar**
 - atzo Parisen gertatuek harriturik utzi naute**

4.2.2. Beste batzutan, zernahi gisaz, badirudi partizipioa arras izen gisa hartzen eta erabiltzen dugula. Izenlagun batekin agertzen denean, adibidez:

- (10)
- zure esanak ez ditut sinesten**
 - ezagutu zuen bere gaizki egina**
 - "aitamen erranetarik bama ibili bagina"** (kantua: *Nevadara joan nintzen...*)
 - ororen jakinean**

Hemen sartu beharko genituzke gure lehenbiziko liburukian, gai honetaz ari ginela, ematen genituen zenbait adibide (ikus *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak (I)*, 254.orr.):

- (11) a. aitonaren esanak gogoan ditugu oraindik
b. apostoluen eginak
c. oiloen jana prestatzen ari da
d. zein izan da zure lanaren ekarria?

Honetako adibideetan partizipioa izen bihurtu dela esan dezakegu, dagozkion osagarriak izenak berarekin eramaten dituenak baitira, ez aditzarenak. Batzutan, jatorriz horrela sortu diren itzuliak erabat lexikalizaturik geratu dira hizkuntzan: **esan zaharrak, hilak, irabaziak, e.a.**

- (12) a. esan zaharrak honela dio
b. zer duzu urteko irabazia?
c. zenbat hil kontatu dituzte?

4.2.3. Beste zenbait kasutan, ordea, ez dirudi izen gisa erabiltzen ditugun partizipioak erlatibatzearen ondorio direnik. Adibidez, horixe suertatzen da, hain zuzen ere, **edan** aditzarekin ondoko perpaus honetan:

- (13) "besteak edanean igarotzeko (...) ohitura zarrean bizi dira" (J. B. Agirre, *Erakusaldiak I*, 18.orr.)

Hemen, **edan** izen gisa erabilia da, baina nekez kontsidera genezake perpaus erlatibo laburtu baten aditza dugula. Hau da, ez dugu uste **edanean** sintagman ardatza isilean dagoenik edo **edan** partizipioaren **nor** sintagmari dagokionik. Izatekotan ere, **edan**-ek hemen aditz izenaren balioa duelakoan gaude, hala nola gertatzen baita ondoko bi adibideotako partizipioekin:

- (14) a. "geure ele gaisoa ostikopean darabilen ele arto maminbakoia olan ostikatuta ikusiak neure barru guztia berez gozatu eustan" (Kirikiño, *Egunekoa*, 104. orr.)
b. "anhiz iana, eta anhis edana da hontara naccarrana" (Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak*, 26. atsotitza)

Azkeneko adibide honetan Oihenartek ematen duen frantsesezko itzulpenak ez digu zalantza izipirik uzten: "Le manger beaucoup et le beaucoup boire m'a réduit à ceci".

Egia esan, partizipioaren erabilera hau ez da biziki emankorra, nahiz ez den gezurra molde horretako partizipioak kasik lexikalizaturik geratu direla (**ukitu, begiratu, e.a.**)

(15) begiratu bat emaiozu honi

Beste kasu batzutan dudazkoa da nola sortu den partizipioaren izen erabilera, **izan** aditzarekin, esate baterako. Zenbaitetan erlatibatzeari dagokiola iduri luke, baina bestetan, ordea, ez:

- (16) a.** "ez izana ez da baitezpada ezin izana" (J. Hiriarri U., *Jauna dut Argi I*, 37.orr.)
b. "onek dute alegrantziaren izena eta izana, eta gaiztoek izena eta ez izana" (Axular, *Gero*, § 288)

Lehenbiziko adibidean, **izana** aditza dela pentsa daiteke, horren ordez, **ez gertatua ez da baitezpada ezin gertatua** esan baikenezake. Bigarren adibidean, berriz, **izana** aditz izenari dagokiola ematen du, **izate** edo **izaera**-ren balioa duelarik.

Soziatiboaren marka lotzen zaiolarik, partizipioak maiz balio hau hartzen du:

- (17)** "harrituarekin geldi-geldia zauden" (Lafitte, *Grammaire Basque* § 497)

4.2.4. Zenbait esakeratan partizipioa izen itxurarekin agertzen zaigu, honako kasu hauek ditugularik aipagarrienak:

4.2.4.1. Norbaiten alegiazko jarrera adierazteko **egin** aditzarekin erabiltzen dugu:

(18) ez ikusiarena egin zuen

Hemen **ikusi** erlatibo libro laburtu baten aditza da, jakina: **ikusi** ez duenaren itxura edo horrelako zerbait.

4.2.4.2. Partizipioak izen bat edo aditz izen bat osa dezake **ezin**-ekin elkartzen denear:

(19) a. ezin egonak hartua zen gure mutila

- b. **utz ditzagun elkar ezin ikusiak eta gatazkak**
- c. **aitari ezin mintzatuak kezkatzen ninduen**

4.2.4.3. Partizipioa aditz izen bihurtzerazten dugu **huts** adjetiboarekin:

- (20) "mantuaren ukitu hutsarequin (...) sendatu zitzayon" (Lardizabal, Campionen Gramatikatik hartua, Apéndices, V)

4.2.4.4. Gauza bera partizipioa errepikatu edo **bortxaz** eta **ariaz**-ekin erabiltzen dugunuan:

- (21) a. **esanaren bortxaz**
 b. **ikusiaren ariaz**
 c. **ikusiaren ikusiaz**
 d. "behatuaren ariaz, ikasia bezala nuen" (J. Etchepare, *Buruxkak*, 65. orr.)

4.2.4.5. Zenbait aditz, galdetzaile batekin erabiltzearen ondorioz, arras izen bihurtu zaizkigu:

- (22) a. **gure zer-eginak**
 b. "zeregin asko jaukoat-eta" (Kirikiño, *Egunekoa* 92. orr.)
 c. "kalean bidez doa emakume bat bere zeregiñetara" (Kirikiño, *Egunekoa*, 119. orr.)

4.2.4.6. Lehen ikusi dugunaz, izen batzu badira bi aditz elkaturik moldatuak direnak: partizipioa agertu ohi da bigarren elementuan eta, mendebaleko euskalkietan, lehenbiziko elementuan ere ager daiteke:

- (23) a. **joan-etorriak**
 b. **hartu-emanak**
 c. "bercaixe sumatzen dira (...) goznarien joan-etorri iradukorrak, sartu-urten eta zalaparta andia" (Kirikiño, *Egunekoa*, 68. orr.)

4.3. PARTIZIPIOA JOKATU GABEKO ZENBAIT MENDEKO PERPAUSEN ADITZA DENEAN

Partizipioa jokatu gabeko zenbait perpaus mendekoren aditza da batzutan. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, gorago aipatu diren (ikus 1.2.) kasuez bestalde, erlatibo laburtuetan, zenbait predikaturen osagarri diren perpaus batzutan eta zirkunstantzial zenbaitetan. Guzti hauek ikusiko ditugu oraingoa.

4.3.1. Partizipioa erlatibo laburtuetan

Jadanik aipatuak dira hauek (ikus 4.1.1.) eta zehazki ikertuko ditugu erlatibogintza aztertuko dugunean, hurrengo liburuki batean. Oraingoz seinala dezagun erlatiboak labor daitezkeela nahi izanez gero, aditzetik forma jokatua kenduz eta aditz nagusia aspektu burutuaren marka daukala utzirik. Zenbaitetan, eta hau mendebalean gertatzen da bereziki, perfektuaren marka **-(r)ik** edo **-ta** ere lotzen zaio, eta **-ko** atzizkia erantsi:

- (24) a. goizean etorri gizona
b. goizean etorritako gizona
c. goizean etorririk(a)ko gizona
d. goizean etorriko gizona
e. goizean entzuneko gezurra

Azkeneko bi adibideetan ikusten den bezala, zenbait hizkeratan nahikoa izaten da **-ko** zuzenean eranstea partizipioari, besterik gabe.

Nahiz ez den gure oraingo buruhaustea, esan dezagun horrelakoetan badirudiela beti forma perfektua dugula, partizipioak interpretazio akriboa edo pasiboa ukan baitezake:

- (25) a. egia esandako poeta
b. poetak esandako egia

Lehentxoago ikusi bezala, partizipioa orduan adjetibo baten itxuran geldi daiteke:

- (26) a. odol isuria
b. haur galduak

Zenbaitetan itzuli hau aposizioen eraikitzeke erabiltzen dugu:

- (27) a. "also bi, jeiniñoz erre-erreak, alkarregaz asarratu dira" (Kirikiño, *Egunekoa*, 90. orr)
 b. "Sinaico mendian eman cien leguea, letraz ezarria, eta deitzen zayo Moysesen leguea" (J. B. Agirre, *Erakusaldiak I*, 9.orr.)

Aposizioan diren perpaus erlatibo laburtuetan, partitiboa ere lotzen ahal zaio partizipioari:

- (28) "edan niro basoa beterik" (kantua: *Nik badakit...*)

Batzutan, aposizioan diren perpaus jokatu horiek, beren autonomia hartzen dute, eta bakarrik agertzen dira, maiz halako balio adberbiala hartzen dutelarik (maizenetan kausazkoa edo kontzesiboa):

- (29) a. "aita-amek hain artoski altxatua, ez diotet ahalgerik eman nahi" (P. Lafitte, *Grammaire Basque*, § 485)
 b. **arras gosetua (goseturik), ostatu batean sartu nintzen**

4.3.2. Partizipio jokatu gabea zenbait predikaturen osagarri diren perpaus batzutan

Bi egoera desberdin bereziko ditugu hemen: modalitate prediku batzuren osagarri denean perpausa: **behar, nahi, gogo**, e.a., eta psikologiazko beste predikatu batzuk elkartzen dutenean: **barkatu, oroit, hobe izan, urriki ukan**, e.a.

4.3.2.1. Modalitate edo moduzko predikatuak erabiltzen direlarik aditza partizipioaren forman agertzen zaigu (ikus 15.2 eta 15.3), ondoko adibideotan bezala:

- (30) a. **etorri behar duzu**
 b. **joan nahi dut**
 c. **ikus gura duzue**
 d. **mintzatu gogo dugu**
 e. **etorri gogo zuen**

Ekialdeko euskalkietan **uste**-rekin ere agertzen ahal dira horrelako perpausak:

- (31) a. "Saindu batek bezala hil uste duenak..." (Axular, *Gero*, § 144)
 b. "hil uste ezpazendu" (Axular, *Gero*, § 159)

4.3.2.2. Hiztunaren sentimentuak nolabait adierazten duten beste predikatu batzurekin partizipioa partitiboarekin edo artikulatu singulararekin ager daiteke:

- (32) a. barkatu berant jirik (= berandu etorria)
 b. oroit naiz han ikusirik
 c. kontent naiz zure ezagutza eginik
 d. hobe duzu orain berean joanik
 e. pozten naiz zu ikusia
 f. nik zer kulpa daukat zuk seme asko hazia?
 g. "Parcatu, Jauna, niri Ceuri verba eguiten azartuba" (Bartolomé de Santa Teresa, *Euscal-errijetako oltueeta...*, Sarrera, 6. orr.)

4.3.3. Zirkunstantzialetan

Ez dugu gai hau hemen behar bezala sakonduko. Beraz, partizipioaren erabilera hauek mendeko perpausak aztertzerakoan aipatzeko asmoa dugu. Nolanahi ere, hemen halako sailkapen bat eginen dugu, mota askotakoak baitira, maizenik agertzen zaizkigunak edo kontuan izanez. Guzti horien biltzen saiatuko gara.

4.3.3.1. Partizipioa posposizio batekin erabilia

Gehienetan aditz laguntzailearen ezabaketa somatzen bada ere, anitzetan jokatu gabeko eraikidura nabarmendu eta nagusitu egin da, laguntzailearekin emanak oso artifiziala eta zaharkitua ematen duelarik (ikus 1.2.4.). Hona, beraz, partizipioarekin ager daitezkeen zenbait posposizio:

- (33) a. ikusi arte (artio, artino)
 b. zuk egin artean (bitartean)
 c. aita etorri ondoan (ondoren, ostean)
 d. bazkaldu eta
 e. bazkaldn aitzin(ean) (aurretik)
 f. ama heldu ordu(ko)
 g. hau egin lekuan (beharbidean, ordez)
 h. ikasi faltan
 i. hurrak sartu arau (ahala)

- j. lan eginarren
- k. lan eginagatik

Sail berean sar genitzake, denborazko edo moduzko erkakerak:

- (34) a. lokartu bezain laster (sarri, fite,...)
 b. hautsi baino lehen
 c. etorri bezala joan zen

Gauza bera suertatzen da partizipioa gabe-rekin erabiltzen denean:

- (35) a. lan egin gabe bizi da
 b. "zer egiten dozu ba artu barik?" (Kirikiño, *Egunekoa*, 46.orr.)

Ekialdean denborazko balioa ere izan dezake zenbait aldiz itzuli honek:

- (36) lana ni sartu gabe bukatu zuten

Kasu hauetaz aparte, partizipioa osagarri zirkunstantzial modura aurkitzen delarik, partitiboarekin, edo kasu marka batekin agertzen da. Halaz guztiz, **nahiz eta** erabiliz moldatzen diren kontzesiboetan partizipioa forma hutsean agertzen da jokaturia ez bada:

- (37) nahiz eta handia izan

4.3.3.2. Partitiboarekin

Oso maiztasun handiarekin agertzen zaizkigu, gehienetan aurrekotasuna eta modu edo bidea adierazten digutela:

- (38) a. ele horiek entzunik, etxera itzuli nintzen
 b. "sardea tripan sarturik hil zuen" (Lafitte, *Grammaire Basque*, § 498)

Baina ere partikula darraionean, kontzesiboa markatzen du:

- (39) a. "Baina aberatsei emanak emanik ere, franko gelditu baitzeien"
 (Axular, *Gero* § 153)

b. nornahik esanik ere, ez nezake sinets

Jakina: partitiboaren lekuan **-ta** ere erabil daiteke, hau da, mendebaleko bigarren perfektu marka:

- (40) a. "an dabilz su inguruan beraka elkarri eskudatik eldua, abestuten"
(Kirikiño, *Egunekoa*, 48.orr.)
b. "eta idorota ere, 17500 lauriekok ez dute atzera etortzerik"
(Kirikiño, *Egunekoa*, 52.orr.)

4.3.3.3. Instrumentalarekin

Instrumentala partizioari erantsiz, modua edo bidea adierazten duten perpausak molda ditzakegu, ondoko adibideotan ikusten den legez:

- (41) a. **lan eginez ikasi egiten da**
b. **zurekin mintzatuz anitz ikasi dut**
c. "bertze bat, piltzarrez lepo beharriak kukutuak ipar haizeak azpiük goiti daldaratuz, ukurturik badoana" (J. Etchepare, *Buruxkak*, 83.orr.)

Halakoetan artikulua singularrean lot dakioke partizioari:

- (42) a. **zurekin hitz eginaz asko ikasi dut**
b. "bizigaiak geituaz ia boltxebilarren diruak gastauaz, munduaren gaiso au joango da" (Kirikiño, *Egunekoa*, 111. orr.)

Instrumentalari **bat(era)** edo **gero((z)tik)** segitzen bazaio, perpausak denborazko balioa hartzen dute. Hona hemen adibide batzu:

- (43) a. **irakaslea sartuaz batera, ikasleak isildu egin ziren**
b. "ikusiaz batera oldoztu edo pentsau ebafa axe zala bear eban gizona" (Kirikiño, *Egunekoa*, 111. orr.)
c. **lagunak joanez gero bakarrik egon naiz**
d. "Behin ikusiz gero, ez bir-ikhus" (Axular, *Gero*, § 256)

4.4. PARTIZIPIOA PERPAUS ELKARTUETAN

Perpausak edo/eta aditzak koordinatzen direnean, maiz partizipioa bakarrik dugu aurkitzen, kasu horietan aditz laguntzailea ezabaturik geratzen baita. Hego aldeko euskalkietan partizipioa, horrela, aditz izenarekin, edo [-burutua] aspektu marka dakarren aditz batekin, edo aditz trinko batekin elkar daiteke, aurretik doanean. Ikus ditzagun honako esaldiok:

- (44) a. "otu jatak, gaur zuei edestu edo kondetea (...) gauza polit bat" (Kirikiño, *Egunekoa*, 92. orr.)
b. "ikusi eben andra bat bidea ausi ta basora sarzen" (Kirikiño, *Egunekoa*, 107. orr.)
c. "eurak ondatu ta erreteko guraria adierazoten dabe" (Kirikiño, *Egunekoa*, 49. orr.)
d. "tontel aldra bat, erderas 'intelectuales' izena eurentzat artu ta darabilenak" (Kirikiño, *Egunekoa*, 33. orr.)

Beste euskalkietan aspektu komunztadura atxekitzen da eta, hortaz, partizipioa agertuko da, forma jokatuaren aditza ere partizipioan denean (laguntzailearen ezabaketa bereziki eskuineko aditzaren gainean gertatzen delarik):

- (45) a. auto baten saltzeko edo erosteko
b. ikusi nuen haur bat baratzean sartzen eta enegana hurbiltzen
c. etxera itzuliko naiz eta segidan lanari lotuko

Baina honetaz luzaki mintzatuko gara eta kopulatiboaz aritzean.

4.5. PARTIZIPIOA ZENBAIT ESAKERATAN

Desafiatzeko **baietz** edo **ezetz** erabiltzen dugu euskaldunok, honako adibideotan bezala:

- (46) a. "larri ibilli baietz" (Kirikiño, *Egunekoa*, 60.orr.)
b. **ezetz harri hau altxatu**

Bestalde, 2.2.4. puntuan ikusi itzuliaren arauera erabil daiteke partizipio huts hutsa **egin** eta **irudi**-rekin ere:

- (47) a. "badakit (...) ez ikusi egingo deutzazuna" (Otxolua, *Bertolda ta Bertoldin*, 31. orr.)
b. "ez ikusi iduri eginik" (Axular, *Gero*, 27. orr.)

Zenbait itzulitan edo testuinguruntan partizipioa aditz laguntzaile barik erabiltzeko joera izaten dugu. Hala ere, behar izanez gero, geroaren marka erants dakioke horrelakoetan. Tituluetan, adibidez, eta zenbait modismotan ere:

- (48) a. Eusko Jaurlaritza bihar bilduko
b. poliziak 200 kg. heroina aurkitu
c. geroak erranen
d. gero ikusiko
e. ikusiak ikusi
f. erranak erran
g. abiatuan abiatu
h. "hasian hasi" (J.B. Etcheberry, *Orotarik*, 17.orr.)
i. "sartuan sartu" (J.B. Etcheberry, *Orotarik*, 25.orr.)

5. ADIZKI EZ JOKATUAK: ADITZ IZENA

5. ADIZKI EZ JOKATUAK: ADITZ IZENA

5.1. SARRERA

Aditz izena hemen aipatzen duguncan bazterrean uzten ditugu forma bera duten izenak, esate baterako, **haste, sartze, sineste, ohandze** eta **abar, hastapen, sargia, fede, ohe** edo **etzangia**, hitzak bezala erabiltzen ditugularik:

- (1)
 - a. **liburuaren hastean orri bat falta da**
 - b. **sartze guztiak hertsia izanez gero kanpoan gelditu ginen**
 - c. **ez dezagun gal geure arbasoen sineste sendoa**

Aditz izenaz ari garelarik, jokatu gabeko perpaus baten aditzaz ari gara, aditz hori izen baten itxurarekin agertzen baldin bazaigu ere. Egia esateko, aditz izenen izaera bikoitzak arazo larriak sortzen ditu, ber denboran izenen eta aditzen berezitasun eta ezaugarriak baitituzte horrelako formek. Areago dena, ez dirudi beti egoera bera dugunik. Aditz izenak ardatz duen sintagma desberdinen azterketa egitean hobeki ikertuko baitugu arazo hau, oraingoz sintagma hauen izaera bikoitza zertan den agertzen seinalatzera mugatuko gara.

Alabaina, besteren artean erizpide gisaz balia dezakegun osagarri gramatikalen eta adizlagunen tratamendua ez da beti molde berean egiten: adibidez, zenbaitetan, subjektuari dagokion izen sintagma genitiboan agertzen da (izenlagun gisa, beraz), eta beste batzutan, berriz, kasu gramatikal batean (ergatiboan nahiz absolutuan); halaber, zenbaitetan adizlagunei dagokien sintagmak **-ko** atzizkia hartzen du (izenlagun bilakatuz orduan, jakina); beste aldi batzutan, aitzitik, ez; objektu zuzenari dokaion sintagmaren tratamendua ere aldakorra da: batzutan, absolutiboan da, bestetan genitiboan (ekialdeko euskalkietan joera nabaria da, azken hau), eta beste batzutan, kasu markarik gabe, izen elkarketa bateko elementu modifikatzaile izaki.

Hiru erizpide hauek (subjetuaren, objektuaren eta adizlagunen tratamenduak) sintagmen izaera mugatzeko baliagarri gerta badaitezke ere, ohargarria da, aditz izenen kasuan, ez datozela beti bat: hau da, ez dela beti korrelazio zuzenik tratamendu horietan. Adibidez, subjektua genitiboan agertu arren, batzutan aditz iragangaitzekin adizlagunak **-ko** gabe gelditzen dira, aditz izena izen gisa agertzen delarik subjetuaren eratzean, eta aditz gisa adizlagunaren aurrean: **Jesusen zerutik jaustea**. Beste batzutan (aditz iragankorrekin) subjektua ergatiboan erabili arren, objektu zuzena dagokion kasu gramatikalean (absolutuan) agertu ordez, genitiboan azaltzen zaigu (izen lagun baten itxuran, beraz): **haurrek paper zikinen biltzea**. Ez da esan beharrik lehen kasu horretan aditz izena oso-osorik izen zein aditz gisa tratatzea ere zilegi dela:

- (2) a. **Jesus zerutik jaustea**
- b. **Jesusen zerutikako jaustea**

Halaber, aditz iragankorrekin, objektua absolutuan eman daiteke, aditz izena arrotz aditz gisa erabiliz, edo, bakanago gertatzen bada ere, izenen moduan ere trata daiteke aditz izena objektua elkarketa batetan sar eraziz eta subjektua genitiboan emanaz:

- c. **haurrek paper zikinak biltzea**
- d. **zure liburu saltzea (edo haurren paper biltzea)**

Zernahi gisaz, aditz izena ardatz den sintagma perpaus bati dagokiolarik, ororen buru, beste perpaus bateko osagarri gisa agertzen zaigu: mendeko perpaus gisa.

Horretaz, molde horretako eraikidurak ez baitagozkio atal honi, baina geroxeago ikertuko den mendeko perpausen sailari, oraingoan guztiz eskemanikoa izanen da gure aurkezpena.

5.2. ADITZ IZEN DEKLINATUA

Aditz izena mugagabeen edo mugatzaile (singular) batekin ager dakiguke; deklinatu ere, deklina daiteke bai kasu gramatikaletan nola besteetan (gehienetan behintzat). Beraz, erakusleak aipatu gabe utzirik, hara zer moldetan emanik ager daitezkeen aditz izenak (forma eratorriak kontuan izan gabe) **-ko**, **-tik** eta **-ra(ino)** marketan ezin baitira singularreko eta mugagabeko hondarkiak berezi. Deklinabideko bi kasu (**-rantz**, **-rentzat**) ez dira ageri, aditz izenekin ez baitira erabiltzen):

	mugagabeen	mug.singularrean
absolutiboan	-ø, -rik	-a
ergatiboan	--	-ak
datiboan	--	-ari
instrumentalean	-z	-az
genitibo edutezkoan	-ren	-aren
toki-genitiboan		-ko
destinatiboan		-ko
inesiboan	-n	-ean
ablatiboan		-tik
adlatiboan		-ra
adlatibo bukatuzkoan		-raino
soziatiboan	--	-arekin
motibatiboan	--	-agatik

Zerrenda honi **-arren** posposizioa gaineratu behar zaio oraino. Azal dezagun guzti hau pixka bat.

5.2.1. Ergatiboa (beti artikularekin)

Aditz izena ergatiboan agertzen da biltzen duen perpausa aditz iragankor baten subjektua denean:

- (3)
- a. **hura zurekin ikusteak harritu ninduen**
 - b. **idazle zaharren irakurtzeak munta handia du guretzat**
 - c. "batayoan ura isurtzeac adierazten digu..." (J. B. Agirre, *Erakusaldiak I*, 30. orr.)

Ohart gaitezen, dena dela, **munta ukan, balio ukan** eta horrelako predikatuekin aditz izena absolutuan uzten dela:

- (4) **ez du balio horrenbeste lan egitea**

5.2.2. Absolutua

Ia beti artikuluekin. Lehenbiziko liburukian (ikus *EGLU-1*, 407. orr.) aipatzen da partitiboa absolutuaren azpisail bat dela (nahiz han bi kasu diferente bezala ageri diren). Hemen absolutuaz ariko gara lehenik: izen aditza daukan perpausa aditz iragankor baten objektua edo aditz iragangaitz baten subjektua izan daiteke:

- (5) a. **hemendik joatea debekatu digute**
- b. **aitari esatea ahantzi dut**
- c. "eder da herriarentzat hiltzea" (Lafitte, *Grammaire Basque*, § 451)
- d. **laket dut haurrarekin jolastea**

Zernahi gisaz, zenbait predikaturekin (**gaitz, neke izan, erraz izan**, e.a.) aditz izena inesibo arkaikoan ere ager daiteke. Hala nola:

- (6) a. "erex da erortzen, gaitz berriz chuützen" (Lafitte, *Grammaire Basque*, § 457)
- b. "gaitz da ba ulerzen" (*Kirikiño, Egunkoa* 39. orr.)

Partitiboa guti erabiltzen da **izan, ukan, egon** eta eduki aditzetan ez bada. Ahala edo beharra adierazten da horrela, sarritan:

- (7) a. **ez dago harekin hitz egiterik**
- b. **ba al duzu hara joaterik?**
- c. "ara ez dago geroago inor sartzerik" (*Kirikiño, Egunkoa*, 100.orr.)
- d. "ez dute alzera etortzerik" (*Kirikiño, Egunkoa*, 52.orr.)

Ekialdean, **behar**-ekin, aditz izena forma hutsean geldí daiteke. Bestalde, **nahi**-ekin ere ageriko da. Honela:

- (8) a. **ez dut errate beharrik**
- b. **ez nuke nahi Patxik halakorik egitea**
- c. "ez zela urrun joaite beharrik hortako" (Etxarren, *Lehen Urbian*, 55.orr.)

Kontuan izanen dugu, dena dela, azkeneko kasu honetan **nahi ukan**-en eta mendeko perpausaren subjektuak pertsona diferenteak direla.

5.2.3. Datiboa

Datiboa manatzen duten aditzen osagarria delarik:

- (9) a. **modu horretan hitz egiteari barregarri deritzot**
b. **etxeko lanak egiteari ekin zitzaion**
c. "nik itxiko baneutso jaimetarra izateari" (Kirikiño, *Egunekoa*, 57.orr.)
d. "nola dabilan jakiteari behatu gogo naiz" (J. Etchepare, *Buruxkak*, 52.orr.)

Baizutan, adlatiboaren ordeaz ere erabil daiteke, indarra emateko:

- (10) "sosak (...) sukarra eztiago eta jendea erosteari lchiatuago"
(Etxarren, *Lehen Urbian*, 83. orr.)

Beste zenbaitetan, zirkunstantzial gisa erabil daiteke forma hau:

- (11) "sagarrak ontzeari, gure eliza-pestak ez dira urrun" (Lafitte, *Grammaire Basque*, § 473)

Adibide honek esan nahi baitu: "sagarrak ontzean/ontzearekin".

Gogoia edo asmoa adieraz dezake **egon**, **ari** eta **eduki** aditzekin datiboan den aditz izenak:

- (12) a. **partitzeari nengoen hura etorri zenean**
b. "ihotzeari banaukan" (Lafitte, *Grammaire Basque* § 473)
c. "Badira ere beharrik beste batzu (...) ari direnak fedearen argitzeari eta itxura berritzeari" (J. Hiriart U., *Jauna dut Argi*, 145. orr.)

Ikusten denez, argi dago esaldi hauen esanahia: "partitzeko asmotan nengoela..." eta "itotzeko zorian edo puntuan...".

5.2.4. Genitiboa

Genitiboa mantzen duten zenbait predikaturekin edo posposizio zenbaitekin:

- (13) a. "bafa cer da au, Ceruco errefu eta ondasunen jabegai izatearen aldean ipintzen bada" (J. B. Agirre, *Erakusaldiak I*, 24. orr.)
b. "Ez ote da hingatuko (gezur hori) (...) hainberitze horizen artean hasmarnu erabiltzearen borbaxaz" (J. B. Etcheberry, *Orotarik*, 298. orr.)
c. "erortzearen beldur" (Axular, *Gero*, § 259)

Genitibo edutezko hau **behar**-ekin ere erabil daiteke, mugagabean batzutan:

- (14) a. **ez dut esate(a)ren beharrik**
b. "Badugu denek funtski konbertitzearen beharra" (J. Hiriart U., *Jauna dut Argi II*, 74.orr.)

5.2.5. Instrumentala

Mugagabean delarik, aditz izenak kasu berean partizipioak duen balioa du. Erabilera hau ekialdean bereziki ezaguna da.

- (15) a. "-Nola [ohoreskiak egin Jesus jaunari]? Behar gachoen eretxian, hoyer honki eguitez" (Belapeyre, *Catechima laburra...*, 131. orr.)

Mugatuan:

- b. **pozten naiz zu hemen ikusteaz**
c. "ez da erraz bide haren eta handik iragaiteaz hartu duen usantzaren gal arazitzea" (Axular, *Gero*, § 59)

Instrumental mugatuan, posposizio batekin ager daiteke aditz izena: **batera, gain, gero, gainera ...**

- (16) a. **sartzeaz gero**
b. **sartzeaz batera**

c. sartzeaz gain

5.2.6. Sozlatiboa

Denborazko balioa du orduan perpausak (erkatu "b" eta "c" adibideak lehenbizikoarekin):

- (17) a. **herriko bestak larunbatarekin hasi ziren**
- b. "Mugera-rat hurbiltzearekin, ikustekoak ziren jendeak" (J. Hiriart U., *Jauna dut Argi I*, 40.orr.)
- c. "heien loria ikustearekin egunez egun pinpirinak handitzen, loditzen eta koloreztatzen" (J.B.Etxarren, *Lehen Urbian*, 50. orr.)

5.2.7. Inesiboa

Aditz izena mugagabea edo mugatua ager daiteke inesiboan. Baina banaketa berezi batek zuzentzen du bataren eta bestearen erabilera. Mugagabea (-TZEN) agertzen da 'jakintza edo hautemate' aditz zenbaitekin, aditz izenaren subjektua matrizeko aditzean ere partaide delarik: **ikusi, entzun, hauteman, jakin, ikasi, aditu**, e.a.:

- (18) a. **sartzen entzun dut**
- b. **ingelesez mintzatzen ikasi duzu**
- c. **josten ikasi dut**

Halaber mugagabea erabiltzen dugu **hasi, utzi** (mendebalean), **lagundu** (mendebalean), edo ekintzaren errepikapena edo luzapena adierazten duten beste aditz zenbaitekin: **ari izan, izan, egon, ibili, ohitu, usatu, ihardun, atxeki**, e.a.:

- (19) a. **haren ikusten izan naiz**
- b. **haurrekin jostatzen ari da**
- c. **entzuten dago**
- d. "ordituarte edaten ez egon gizonak" (Kirikiño, *Egunekoa*, 50. orr.)
- e. **ikasten dabil**
- f. "an dabiliz su inguruan (...) abestuten" (Kirikiño, *Egunekoa*, 48.orr.)
- h. **horrela lan egiten ohitua naiz**

- i. **ura irakiten eduki ezazu**
- j. **josten ahantzi dut**
- k. "Akitu girelarik, irakurtzen, izkiriutzen bagaudek" (J. Etche-
pare, *Buruxkak*, 115. orr.)

Azkeneko aditz honekin (**ahantzi/ahaztu**) bereizketa bat ageri da, aditz izena mugagabean eta absolutu mugatuan denean:

- (20) a. **josten ahantzi dut (zait)** (=ez dakit gehiago josten)
- b. **aitari esatea ahantzi dut (zait)**

Mugatuan, berriz, perpaus aditz lagun baten zeregina betetzen du, denborazko balioa duela:

- (21) **aita lanetik sartzean zurekin joango naiz**

5.2.8. Ablatiboa

- (22) a. **hara joatetik gibelatu ditut**
- b. **euskaldun izatetik datozkigu horiek oro**
- c. "zarata guztiak datoz biziga guti egoietik" (Kirikiño, *Eguneko*, 110. orr.)
- d. "deusek ez du gibelatu etsaia haren azken egunak nahigabeaz eta kriebasunez pozoindatzetik" (J. Hiriart U., *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 122.orr.).

5.2.9. Adlatiboa

Helburua edo adierazten duten zenbait aditzekin eta predikaturekin: **joan**, **lagundu** (ekialdean), **utzi** (ekialdean), **prest izan**, **lehiatu**, **deliberatu**, e.a.

- (23) a. **aitaren ikustera joan behar dut**
- b. **honelako bati lotzera prest naiz**
- c. **hobeki ikustera berma zaitez**
- d. "nola ez gira bermaluko (...) eri eta dohakabe guzien laguntzerat" (J. B. Etcheberry, *Orotarik*, 18. orr.)

Adlatiboa eta inesibo mugagabea elkarri biziki hurbil dira honelako kasuetan. Bizkaian, adlatiboa ez da erabiltzen baina beti inesiboa. Bestetan ere, zenbait aditzekin, jokabide desberdina da (**utzi** eta **lagundu**-rekin, adibidez). Ekialdean bereziki erabiltzen da adlatiboa. Baina euskalki horietan ere, inesiboaren ordeaz agertzen ahal da, helburu ideia horren azpimarratzeko:

- (24) a. "ikastera ari da" (Lafitte, *Grammaire Basque*, § 462)
 b. "Sinets ongi (...) elizaren begiratzerat ari direnek miletan kalte gutiago egiten diotela erlisioneari, ezen ez eliza baretik etsaiaren laguntzen, hari indar emaiten ari direnek" (J. Hiriart U., *Zezenak errepublikan*, 201. orr.)
 c. "Beti bakarren gatik egitea zagon hautsi-mautsieck, ez adinak, ez eritasunak, (...) deusek ez du gibelatu eisaia, haren azken egunak (...) pozoindatzetik" (J. Hiriart U., *Mintzaira, Aurpegia*, Gizon, 122. orr.)

(24a) adibideak esan nahi du ikasteko indar handia egiten duela norbaitek. Euskalki hauetan adlatiboa eta inesiboa bereizten dira:

- (25) a. **kantatzera utzi** (=baimena eman)
 b. **kantatzen utzi**(=kantatzen zegoela utzi)

Adlatiboa erabil daiteke adizlagun baten osatzeko ere, baldintzazko balioa hartzen duelarik orduan perpausak:

- (26) a. **jakitera, han gelditu nintzatekeen**
 b. "Ori, ama, jakiterat, azukre untzia aurdikituko nuen" (J.B. Etcheberry, *Orotarik*, 292. orr.)

Adlatiboari **-ko** genitiboa lotzen zaionean, izen lagun bat edo adizlagun bat moldatzen da:

- (27) a. "kantatzerako apailuak" (Lafitte, *Grammaire Basque* § 464)
 b. **kantatzerako momentuan**

Maiz, halakoetan, izenburua ezabatzen da adizlagun bat sortuz denborazko balioa duena:

- (28) a. **hasterakoan**
 b. **eskolara abiatzerakoan**

- c. "Jesus-Christen hilceracoan cer heltu zen?" (Belapeyre, *Catechima laburra*, 2. partea, §49, 140. orr.)
- d. **guk bazkaltzerako, lan horiek bukatuak egongo dira**

5.2.10. Adlatibo bukatuzkoa

- (29) a. **boza galtzeraino kantuz segitu zuten**
- b. "hanitz jarraikitzen dira Jesusi ogiaren haustialano, bena aphür haren pasioneko kaliziarren edatialano" (Intxauspe, Campionen Gramatikatik hartua, Apéndices, XXIII. o.)

Hemen ere **-ko** lotzen ahal zaio adizlagunari:

- (30) a. "hiltzerainoko oinazek" (Lafitte)
- b. **elkar hiltzerainokoa borrokatu ziren**

5.2.11. Leku genitiboa

Oso maiztasun handikoa da, jakina denez. Izen lagunak molda ditzake, eta adizlagunak ere. Batzutan kompletibo aire bat hartzen dute perpausek. Honako adibideotan izenlaguna da perpausa:

- (31) a. **Jainkoaganaino heltzeko xedea**
- b. "eurak ondatu ta erretoko guraria adierazoten dabe" (Kirikiño, *Egunekoa*, 49. orr.)
- c. "partidaren ikustera joaiteko baimena" (J. Etchepare, *Buruxkak*, 37. orr.)

Ondoko hauetan, ordea, adizlagun gisa, balio destinatiboa dutela:

- (32) a. **sosa behar duzu, erosketen egiteko**
- b. **ingelesa ikasteko, hoberena, bertara joatea da**

Orain datozenetan, berriz, predikatu gisan ageri zaizkigu. Ikusten denez, **izan/egon** eta ***edun/eduki** aditzak erabiltzen ditugu. Gehienetan artikulua eransten zaio aditz izenari (forma perfektuaren arauerako emaitzak ditugu. Ikus 2.1.):

- (33) a. hemendik laster Ameriketara abiatzekoa naiz
 b. hemendik laster Ameriketara abiatzekoa nauzu
 c. Manu bihar ikustekoa naiz

Zenbaitetan aditz izena+ko forma lexikaldu zaigu arras: egiteko, esateko, joateko, e.a.

- (34) a. "Bada eskiribatzeaz denaz bezanbatcan ere ez naiz egiteko gabe" (Axular, *Gero*, § 9)
 b. "zenbait jateko eta bazkarekin" (Axular, *Gero*, § 330)
 c. "etxu gizon errateko gaberik" (Azkue-k emana, *Euskal-erriaren Yakintza III*, 197.orr., 2332 zb.)

Konpletiboak honela osatzen dira, aginduen zeharkako diskurtsoan sartuz eta aditz izena+ko erabiliaz:

- (35) a. amak hara joateko esan du
 b. ikasteko erran zigun

Izenlagun izan daitekeenez gero, aditz izena+ko forma, batzutan, izenburua ezabatuarekin ager daiteke, helburua, baldintza nahiz denbora adieraziz:

- (36) a. hara joatekotan erosi dut
 b. hara joatekotan erosiko nuke, bestela ez
 c. abiatzekotan ginen, euria hasi zuelarik

Lehen balioarentzat -kotzat erabil daiteke eta batzutan ko(t)z ere. Azken honek halere baldintzazko edo kausazko balioa izan dezake.

- (37) a. "jitekotz, zatho berehala"(Lafitte, *Grammaire Basque* § 471)
 b. "Mintzatzekotz, behar da zerbait erraiteko" (J. Etchepare, *Buruxkak*, 50.orr.)
 c. "Joatekotz, aski goiz hobc dik deliberatzia" (Larzabal, *Hiru ziren*, 15.orr.)

5.2.12. Kausazkoetan

- (38)
- a. "Baña cer eguin degu? Cer ezpada(...) gure charrac garaitzeco nequea ez artzeagatik (...) esayagana igarotzea" (J. B. Agirre, *Erakusaldiak I*, 18.orr.)
 - b. "Erran gabca izan nintzala ni ere, paradaz balia, junta hortan, beilaren ongi bururatzea gatik" (J. B. Etcheberry, *Orotarik*, 16.orr.)
 - c. "eta galdu cergatic? Gura char bati lecu emateagatic" (Agirre, *Erakusaldiak*, 36.orr.)

Mendebaleko euskalkietan **-arren** posposizioa erabiltzen da, esanahi bertsua duelarik:

- d. "zuek gelditu erazotearren" (Kirikiño, *Egunekoa*, 41. orr.)

5.3. BESTE ERABILERA

Aditz izena forma jokatuan ere agertzen baita, aditz laguntzailea ezabaturik egon daiteke batzutan: koordinazioan, galderetan, tituluetan, leiendetan, e.a.:

- (39)
- a. **lagunak mendira buruz abiatzen** (argazki baten irazkina)
 - b. **Euskaltzaindia egun biltzen Arantzazun**
 - c. **Ondo ikasten zuen, eta gero gogoan atxekitzen**
 - d. **Ikusten?**

Zenbaitetan koordinazio baten ondoan, aditz laguntzailearen ezabaketak zirkunstantzial bat moldatu du:

- (40) "Nausiak kargua khentzen-eta zer egin orai?" (L. Léon, Luk, 16.3)

Beste zenbait esapidetan, aditz izena mugatuan agertzen da. Harriduretan, esaterako:

- (41)
- a. **hori sinestea ere!**
 - b. "heien harrizea!" (J. Hiriart U., *Jauna dut Argi I*, 37.prr.)

Azkenez, aditzari indar emateko ere balio dezake, fokalizazio modu bat denez orduan:

- (42) a. "egucie bertset hocin khandacia" (Etxahun Barkoxe, Heguiluz-en khandore berria, 16. ahapaldia)
b. "irea oraintxe jasotzea egin diat" (Lizardi, *Itz lauz*, 16.orr.)
c. **entzutea badut**
d. "irakurtzea egin nezake" (Lafitte, *Grammaire Basque* § 452)

Eta zenbait esapide berezitan:

- (43) a. "oldoztearen oldozteaz" (Kirikiño, *Egunekoa*, 67.orr.)
b. "amesetearen ameseteaz" (Kirikiño, *Egunekoa*, 111. orr.)

Beharbada kontestu zabalagoa behar liteke:

- (44) a. "Ba dabil ibilli (...) bere garunak urtu bearrez oldoztearen oldozteaz"
b. "Onetan, dant!, itxartu nintzan oean, buru guztia darundituta amesetearen ameseteaz"

Jakina denez, partizipioarekin ere egiten da itzuli bera:

- (45) **ikusiarene ikusiaz**

6. ADIZKI JOKATUAK: A. PERIFRASTIKOAK

6. ADIZKI JOKATUAK: A. PERIFRASTIKOAK

6.1. SARRERA

Hurrengo orrialdeetan datorren aurkezpena aditzaren forman oinarriturik dago, forma horien erabilera (ikus 14. kap.: "Adizki jokatuaren erabilera") geroago aztertuko delarik. Hori dela eta, nahiago izan dugu forman oinarritu lehenbizikoz gure eskema eta forma horrek eskaintzen dizkigun aldakiak eta adizkiak aztertu. Geroago ikusiko denez, forma horiek erabilera bat baino gehiago izan dezakete eta anitzetan, gainera, forma jakin batek ez du nahitaezko erabilera bakarra, egia baldin bada ere forma bakoitzak bere esanahia duela. Horrela, iraganeko forma batek (**zen**) iraganaldia (aldeztatik geraturiko zerbait, alegia) adierazteko balio baldin badu ere, askotan suertatzen da parekotasun hau hautsia: **etorriko zen** forman, esaterako, iragana dago baina geroaldia ere adieraz dezake, sarri ikusiko denez. Beste adibide bat jaritzeko, **kantatzen du** diogunean, badirudi gaurkotasuna adierazten duela forma horrek: **larunbatero kantatzen du Laboak** adibidean ikusten den bezala. Halere, **bihar kantatzen du Laboak** esaten dugunean, nahiz eta forma berbera erabiltzen dugun, esanahia aldatu agerzen zaigu, oraingoan etorkizunean edo geroan gertatuko denari buruz buruz ari baikara. Arrazoi horregatik berezi nahi izan ditugu lan honetan adizkiaren **forma** eta adizkiaren **erabilera** (esanahia), bi kontzeptu hauek elkarrengandik banatzea hain erraza ez dela ongi aski dakigun arren. Nolanahi ere, komenigarria da, gure ustez, argi izatea euskal aditzaren eskema formala, erabilera behar bezala aztertzeo abiapuntua hura baita, hain zuzen ere.

Euskal gramatika gehienetan berezi izan dira adizki trinkoak (**sintetiko** ere deitu ohi zaie) eta adizki perifrastikoak. Bereizketa hau egitean morfologikoak izan dira gehien batean erabilitako erizpideak: horrela, adizki trinkoak hitz batek bakarrik osatzen dituen bitartean, adizki perifrastikoetan hitz bat baino gehiago aurkituko dugu. Hori dela eta, **da**, **dator** edo **dagozkie** aditz-formak adizki trinkoen artean sailkatzen ditugun bezala, **izan da**, **etortzen da** edo **egokitzen zaie** perifrastikoak direla esaten dugu. Ikus dezakegunez, bestalde, perifrastikoek aditz laguntzailea agerian eramatean dute. Hortaz, eta hemen adizki perifrastikoez ari garelarik, forma horietan agertzen den aditz nagusiaren ezaugarriez eta aditz laguntzailearen berezitasunez arituko gara atal honetan.

Adizki perifrastikoetan agertzen den aditz nagusian jartzen dira **aspektuaren** markak eta ezaugarri hau hartuz gero kontuan, bi sail egin daitezke aditz nagusiaren barnean: **aspektu marka** daramaten adizkiak eta **aspektu markagabeak**. Aditz laguntzailean, berriz, beste zenbait ezaugarri berezi behar

dira, hala nola, **modua**, **pertsona** eta **tempus-a** (geroago itzuliko gara berriz ere kontzeptu hauetara). Hortaz, honako oinarrizko eskema hau dugu adizki perifrastikoetan:

Adizki Perifrastikoa

Aditz Nagusia

Aspektu marka (bai/ez)

Aditz Laguntzailea

pertsona

modua

tempus-a

Egia da, nolana ere, baditugula zenbait aditz aipamen berezia beharko dutenak: **falta**, **pasa**, **kosta** eta beste batzu. Guzti hauek geroago ikusiko dira. Ohar gaitezen, bestalde, perifrastikoa dena eta ez dena bereizteko erabili dugun erizpide hau ez dela beste hizkuntzetako gramatiketan horrela erabiltzen: zenbait gramatikatan perifrasiak deitzen zaie sintaxi konbinaketa konplexuagoei (ikasten hasi behar dut, adibidez), hemen gertatzen ez den bezala, gu, hain zuzen ere, lehenbiziko sailkapenera mugatu baikara, tradizioari eutsiz: hitz batean biltzen diren aditz formak **trinkoak** izanen dira eta hitz bat baino gehiago behar dutenak, berriz, **perifrastikoak**. Nolanahi ere, bestelako perifrasi itzuli horietakoak ere aztertuko ditugu geroago (ikus 15. kap.: "Perifrasi multzoak").

6.2. ASPEKTUA

Aditz perifrastikoen sailkapena egin nahi denean, zenbait aurkakotasun hartuko dugu kontuan: hiztunak forma bat edo bestea aukeratzen duenean, honako hau beste hura baino egokiago eta adierazgarriago delakoan egiten ditu hautaketak. Hautaketa horien sarea, hain zuzen ere, adizkien arteko oposizioek josten dute. Horrela, adizki batek biltzen du bere esanahia, kontra dituen gainerako aditz forma guztiei aurpegia emanez.

Oposizio hauek marka morfologiko batzuren bidez adierazten ditugu eta marka hauek agertzen dira batzutan aditz nagusian eta besteetan, berriz, laguntzailean. Oposizio horietako bat **aspektua** dugu eta honen marka aditz nagusian bakarrik agertzen da. Euskararen aditz perifrastikoaren sisteman ezarriko dugun lehenbiziko oposizioak bereizten ditu, bada, aspektu-marka duten adizkiak alde batetik eta gainerako guztiak bestetik: **ekarri du** (aspektuduna) sail batekoa dugu, hortaz, eta **ekar dezake**, berriz, bestekoa. Horrela, **ekar** aditz-oinari *i* bat erantsiz gero, aspektu marka gaineratu zaiola esanen dugu. Aspektua deitzen dugun horrek, bada, Izen Sintagmaren kasuan artikulua eta Adjetiboarenean

maila-adberbioek betetzen duten paperaren antzeko zerbait beteko luke.

Esan dugunez, aspektu-marka beti aditz nagusiari loturik agertzen zaigu: hortaz, kategoria honek ez du autonomiarik, ezin baita aditzetik berezi. Zertarako erabiltzen dugu kategoria hau? Zer adierazi nahi dugu haren ezarketarekin? Kategoria hau erabiltzen du hitzunik adierazi nahi duen prozesua bereganatzeko: **etorri da, etortzen da, etorriko da**. Kasu batean, aditzak adierazten duen egoera, ekintza, prozesua edo dena delakoa burutua dago (**etorri da**); bestean, prozesu bera burutu gabe aurkitzen da (**etortzen da**); hirugarrenean, azkenik, hasi gabe eta gertakizun den zerbaiten aurrean gaude (**etorriko da**). Ohar gaitezen, bide batez, aspektuak ez duela zerikusirik zuzenik aditzaren **tempusarekin**: adibide guzi horietan oraina agertzen zaigu (**da**), baina aspektua berdin berdin adieraz daiteke aditza iraganean jarritz gero ere: **etorri zen, etortzen zen, etorriko zen**, ondoren paratzen dugun adibide hauetan ikus daitekeen moduan: **Agirre New Yorkera joan zen. Han ezagutuko zuen bere senarra izango zena edo Galdetu zuen noiz etorriko zen**. Bi adibide hauetan, forma aldetik, geroa markatzen dugu (-ko) eta iragana ere (zuen/zen). Denbora absolutuaren aldetik lehenbizikoan iraganaldia da (ezagutu zuen benetan) eta bigarrenean, aldiz, iraganaldia edo geroaldia (ez baitakigu etorri den edo etortzeko den). Denbora objektiboa normalean tempus markaren bidez adierazten badugu ere, etorkizunaren denbora seinatzeko tempus markarik ez dagoenez, aspektua erabili behar dugu. Horrenbestez, geroak normalean etorkizuna edo geroaldia adierazten du, gertakizun dagoen zerbait alegia.

6.2.1. Burutua [+burutu,-gero]

Oposizio honek banatzen ditu burutu diren prozesuak --esanahi aldetik iragandako prozesuak alegia-- alde batera, eta bestera, berriz, gainerako guztiak: **etorri da, sartu dira, ekarri genuen**, e.a. prozesu burutuak ditugu. Alderantziz, **joango dira, sartzen ziren, ekarriko duzue** edo **ezagutuko zuen** prozesu ezburutuak markatzeko erabiltzen ditugun adizkiak dira.

Aspektu burutua adierazteko partizipioa erabiltzen dugu, ezaugarri morfologiko diferenteak agertzen zaizkigularik aspektu hau markatzeko. Delako morfema aditzoinari ezarritik, honako hiru multzo hauek bereizten dira (partizipioaren bestelako balioak direla eta, ikus *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak -I*, 250.orr. eta jarr.):

a) batzutan ez da aspektu marka ageririk. Hori gertatzen da n-z amaitzen diren aditzekin: **jan, edan**, e.a. Guzti hauetan esan beharko dugu Ø marka dutela, aspektuari dagokionez. Markarik ez dutenez, aditz oinek eta partizipioek forma bera dute: **joan dadin** eta **joan da** (vs. **sar dadin, sartu da**). Sail honetakoak ditugu **kosta, falta, bota, pasa** eta horrelakoak ere. Hauek ez dute marka

berezirik erakusten.

b) **-tu** marka dutenak: **lotu, makurtu, sartu**, e.a. Baita ere, fonologi aldaketek eraginik **-du** bihurtzen direnean: **apaindu, ezkondu**, e.a. Ohartzeko da mailegatzan ditugun adizkiek marka hau hartzen dutela gaur egun.

c) **-i** marka dutenak: **ekarri, hasi, ikusi**, e.a.

Hemendik aurrera hiru multzo hauek marka berarekin izendatuko ditugu: <TU>. Horrela, marka honen azpian bilduko dira aldaki guzti hauek: **eman, sartu, saldu, ekarri, botu**, e.a.

6.2.2. Geroa [+gero,-burutu]

Geroaldia (esanahia) adierazteko modurik arruntena --nahiz ez bakarra-- geroa (forma) erabiltzea da eta hori aspektuaren bidez egiten dugu, marka diferenteak erabiliz:

a) **-ko** marka da, beharbada, maizenik agertuko zaiguna: **sartuko, helduko**, e.a. Berriz ere, fonologiak eragiten ditu aldaketa zenbait, **-ko** hori **-n** -ren ondoren suertatzen delarik **-go** ahozkatzen baita: **jango, eramango**, e.a. Marka hau eransten zaie zuzenean **botu, pasa, kosta** eta horrelakoei ere: **botako, pasa(tu)ko, kostako**, e.a.

b) **-en** marka har dezakete, baita, kontsonantez bukatzen diren guztiek ere: **janen, joanen**, e.a. Beraz, adizki guzti hauek bietara eman ditzakegu eta horrela ematen dira hizkera arruntan, euskalkien arauera aldatuz: **joango / joanen, jango / janen, eramango / eramanen, hilgo / hilen** e.a.

Zenbat eta Ekialderago jo, orduan eta hedatuago dago **-en** honen erabilera, eta hizkera batzutan (baina erabilera hau ez dago aurrekoa bezain hedatua) **-en** morfema agertzen da adizki guztiekin, aurreko morfema bokalez bukatutakoan ere, **-r-** tartekoa sartzen delarik orduan: **sarturen, etorriren**, e.a.

Ez hori bakarrik: zenbait lekutan bi markak metatzen dituzte bata bestearen gainean, honako adibideotan ikusten den bezala:

- (1) a. "Errozabal ordokiük
Ibañetako lephulat
Ditzat gure indar güziak
hedatürenko goitilat" (J. Casenave, *Ibañeta*, 133.orr.)

- b. "Karles Handia zirela
 dizie *bogatiärenko*
 bai batsunek eta bestek
 zütie *gozaturenko*" (J. Casenave, *Ibañeta*, 137.orr.)

Hortaz, hemendik aurrera <TUKO> marka erabiliko da geroaldia adierazteko.

6.2.3. Ezburutua [-burutu, -gero]

Hirugarren sail honetan sartzen dira "burutu" edo "gero" ez diren gainerako guztiak: **saltzen dugu, hartzen dituzte, igortzen genituen, ematen zioten**, e.a. Aldaki fonetikoak direla eta, baditugu bestelako formak ere, hala nola, **ikusten, hozten, hausten, bereizten**, e.a. Zenbait lekutan -n-z bukatzen baldin bada aditz oina beste forma hauek erabiltzeko joera aurkitzen da: **izaiten, eramaiten, egoiten, erraiten**, e.a. Beste toki batzutan "-etan" hartzen du: **pentsetan, olgetan, betetan, kostetan**, e.a. Hori suertatzen da -**atu** bukaera -**au** bihurtzen duten lekuetan, nahiz ez beti: toki batzutan **kantau** edo **kantsau** esaten bada ere, ez da sekula ere egingo **kantsetan** edo **kantetan**. Horrela, **kantau - kantauko - kantetan**. Azkenik, mendebaleko euskaldun askok "-tuten" egiten dute: **amaituten, sartuten**, e.a., partizipioa -**tu** formarekin bukatzen denean: **amaitu, sartu**, e.a.

Hemendik aurrera <TZEN> marka erabiliko da ezburutua seinatzeko.

Aspektu marka kontuan izanik hiru sail berezi dira hemen. Ikusten denez, hiru sail hauek aditz nagusiaren arauera egin ditugu, hantxe agertzen baitira, hain zuzen, marka hauek. Hala ere, horrek ez du esan nahi aspektua aditz nagusian bakarrik dagoenik eta, ikusiko denez, aditz trinkoetan ere aurkituko dugu aspektua, marka ageririk ez baldin bada ere.

6.3. ASPEKTUA ETA ADITZ LAGUNTZAILEA

Esan dugun moduan, <TU>, <TUKO> eta <TZEN> aspektu markak adizki perifrastikoetako aditz nagusian agertzen dira. Nolanahi ere, aspektu marka agertzeak edo ez, badu eragina aukera daitekeen aditz laguntzailean ere:

- (2)
- a. etorri *naiz*
 - b. ekarri *dugu*
 - c. etor *gaitezen*
 - d. ekar *dezakegu*
 - e. jan *dagigun*
 - f. esaten *eutson*
 - g. ikus *diro*

Adizki horietan agertzen diren aditz laguntzaileak honako erro haueetan oinarritzen dira:

izan
 *edun
 *edin
 *ezan
 egin
 eutsi
 *iro(n)

Aditz guzti hauek ez dute hedadura bera: erabilienak *izan*, **edun*, **edin* eta **ezan* ditugu, besteak ez baitira hain ezagunak eta euskalki batzutara bakarrik mugatzen baitira. Bestaldetik, aipatu behar da lau horien artean *izan* bakarrik agertzen dela partizipioan ere (aditz nagusi bezala):

(3) Iruñean *izan* da

Aipatu diren lau horietara mugatuz gero, beste zerbait ere seinlatu behar da: *izan* eta **edun* aditz laguntzaileek aspektu-marka eskatzen dute aditz nagusian, baina ez **edin* eta **ezan* aditzek, hauekin doan aditz nagusia gehienetan aspektu-markarik gabe agertzen baita euskaraz, ondoko adibideotan ongi aski ikusten denez. Horrexegatik esan da aspektu-markaren agertzeak baduela eragina aditz laguntzailean:

- (4)
- a. etortzen *naiz*
 - b. etorri *naiz*
 - c. etorriko *naiz*
- (izan)

- | | |
|-------------------------|---------|
| d. ekartzen <i>dugu</i> | (*edun) |
| e. ekarri <i>dugu</i> | |
| f. ekarriko <i>dugu</i> | |
| g. etor <i>gaitezen</i> | (*edin) |
| h. ekar <i>dezakegu</i> | (*ezan) |

Izan eta *edun bakarrik ere ager daitezke, benetako aditz nagusi bezala:

- | | | |
|-----|-----------------------------------|---------|
| (5) | a. hori hemengo alkatea <i>da</i> | (izan) |
| | b. etxe ederra <i>du</i> | (*edun) |

Hortaz, izan eta *edun izan daitezke aditz nagusi nahiz aditz laguntzaile. Halaz guztiz, garbiago aurkeztearren, *edun erroa laguntzailea izendatzeko bakarrik erabiliko dugu lan honetan eta erro horretan eraikirik sortzen diren adizki trinkoak, nahiz eta itxuraz laguntzaileak duen forma berbera izan, ukan aditzarenak direla esanen dugu. Aipa dezagun, azkenik, izan partizipioa ukan partizipioaren ordez ere erabiltzen ahal dela:

- (6) guk ere izan ditugu kezka

Arrazoi guzti hauengatik hiru izan diferente berezi beharko ditugu euskaraz: aditz nagusia (izan gara, gaztea da); ukan-en ordez erabiltzen duguna (izan dugu) eta laguntzailea (etorri da).

Laburki esateko, bada: aspektu marka aditz nagusian agertzen da eta *edin eta *ezan aditz laguntzaileek ez dute, normalean, marka hori duen aditz nagusirik onartzen.

Oposizio guzti hauek, hortaz, honela gurutzatzen zaizkigu:

ASPEKTUA

	burutua	geroa	
Aspektu-markarekin Laguntzaileak: <i>izan!*</i> <i>edun</i>	<TU> +	-	<i>etorri da</i> <i>etorri zen</i> <i>hartu du</i> <i>hartu zuen</i>
	<TUKO> -	+	<i>etorriko da</i> <i>etorriko zen</i> <i>hartuko du</i> <i>hartu zuen</i>
	<TZEN> -	-	<i>etortzen da</i> <i>etortzen zen</i> <i>hartzen du</i> <i>hartzen zuen</i>
Aspektu-markarik gabe Laguntzaileak: <i>*edin!*</i> <i>ezan</i>			<i>etor dadin</i> <i>etor zedin</i> <i>har dezan</i> <i>har zezan</i>

6.4. GAINERAKO OPOSIZIOAK: TEMPUSA, MODUA ETA PERTSONA

Esan bezala, aspektu-marka aditz nagusian agertzen da. Nolanahi ere, eta gaizki ulertzerik egon ez dadin hemen, komeni da adieraztea adizki trinkoetan ere badela aspektua, nahiz marka ageririk agertzen ez den. Guzti hau geroago ikusiko da. Aspektuarekin batera badaude, egon ere, beste oposizio zenbait: tempusarena, moduarena eta pertsonarena. Guzti hauek aditz laguntzailean agertzen zaizkigu eta adizki trinkoetan ere zuzen zuzenean. Aspektuarekin gertatzen ez den bezala, azken kasu honetan, marka ageriak daude adizki trinkoetan.

Gure buruari egin behar diogun lehenbiziko galdera da zenbat aditz laguntzaile ditugun gaur egungo euskararen sisteman: gure artean eta, zabalduz dago bi aditz laguntzaile daudela (*izan* eta *ukan*). Horrela, *izan* aditzaren azpian egonen lirateke *naiz*, *ginen*, *daiteke*, *liteke*, e.a.; *ukan*-ek bilduko litzuzke *duzu*, *genuen*, *lezake*, *dezaket*, e.a. Bestela esateko, ergatibodun perpausetan *ukan* egonen litzateke eta *izan*, berriz, ergatiborik gabekoetan, uste honen arauera. Guzti hau hobeki zehaztu beharra dago, hala ere.

Hasteko, lehentxoago esan den bezala, zazpi aditz laguntzaile berezi behar dira euskaraz: *izan*, **edun*, **edin*, **ezan*, *egin*, *eutsi* eta **iro(n)*. Horietarik lau dira, laguntzaile bezala, euskara batuan agertzen direnak: lehenbiziko lauak. Ergatiborik agertzen ez den perpausetara mugatzen baldin bagara, bi aditz-oin hauek bereziko dimgu: *izan* eta **edin*. Bigarrenak izartxo bat darama ez bait dugu bereiz, partizipio bezala edo, erabiltzen. Horrela *izan* dago *etorri naiz*, *joan ginen* eta horrelakoetan. **Edin* agertzen da, ordea, *joan nadin*, *joan naiteke*, *etor nendin* eta horien parekoetan.

Eman diren arrazoiengatik esanen dugu *izan* aditzak bi erabilera dituela: lehenago esan dugun bezala, aditz nagusi bezala agertzen ahal zaigu (*etorri*, *joan* eta horrelako aditzekin gertatzen den gisara) eta aditz laguntzaile bezala ere erabiltzen da, honako adibideotan ikus daitekeenez:

a. nagusia

izan
izan

a. laguntzailea

naiz (=izan)
nendin (=edin)

Beste horrenbeste suertatzen da ergatiboa behar duten perpausetan ere, hauen artean ere bi aditz laguntzaile bereziko baititugu: ***edun** eta ***ezan**, hain zuzen ere. ***Edun** aditz laguntzailea erabiltzen da, **izan** bezala, aditz nagusian aspektu-marka agertzen delarik. ***Ezan** aukeratuko da, ordea, aditz nagusian aspektu-markarik ez dagoenean ***edin**-ekin gertatzen den bezalaxe. Bi aditz hauek beti laguntzaile bezala ageriko zaizkigu eta, hortaz, ez dute partizipio ageririk: horrexegatik jarri zaie izartxo bana. Beraz, euskal aditz laguntzaileen artean, lau aditz laguntzaile hauen artean, **izan** da nagusi bezala ere agertzen den bakarra. Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskal Aditz Batua* izeneko liburuan ***iro(n)** ere ikus daiteke aditz trinkoen artean, baina kontraesana da hori, ***iro(n)**, hain zuzen ere, ez baita aditz trinkoa eta erabiltzen den euskalkietan beti laguntzaile moduan agertzen baitzaigu. Bestaldetik, euskara batuan erabiltzen ditugun laguntzaileen artean ez dagoenez, badirudi ez dela zuzen paratua liburuan: ez da aditz nagusia, baina ez da baturako aukeratu diren laguntzaileetakoa ere.

Esan dugunaren arauera **dugu**, **genuen** eta horiek ***edun**-etik sortuak bezala eman ditugu. Hala ere, zenbait gramatikatan ikusiko da **ukan** aukeratzen dela haien errotzat. Beste batzutan ***edun** nahiago dute. Guk egin dugun aukera, esan bezala, honako hau da: **ukan** erabiliko dugu aditz nagusi bezala (**hartu** edo **ekarri** erabiltzen diren bezala) eta ***edun** izanen da aditz jokatua:

	*edun
ukan	dugu
ekarri	dugu
---	dugu

Ohart gaitezen, azkenekoz, **ukan** aditz nagusia baldin bada ere, honen ordez **izan** (aditz nagusia, jakina) erabiltzen dela euskalki gehienetan, lehentxoago esan dugun bezala: **izan naiz** baina **ukan dut** edo **izan dut**.

Esandako guztia kontuan hartuz gero, bada, honako hau suertatzen zaigu:

1) **Izan** eta ***edin** ergatiborik gabe erabiltzen dira, perpaus iragangaitzetan. ***Edun** eta ***ezan**, ordea, ergatiboarekin ageriko zaizkigu aditz iragankorrekin doazelako, hain zuzen ere.

2) **Izan** aditz nagusi bezala agertzen denean edozein aditz laguntzaile har dezake eta horixe da, hain zuzen ere, lurralde askotan gertatzen dena:

- (7) a. **izan naiz** (izan)
b. **izan nadin** (*edin)
c. **izan dut** (*edun)
d. **izan dezaket** (*ezan)

Beste zenbaitetan, ordea, bereizketa egiten dute **izan** eta **ukan** erabiliaz:

- (8) a. **izan naiz**
b. **izan nadin**
c. **ukan dut**
d. **ukan dezaket**

3) Bestalde, hau ere esanik dago, **izan** eta ***edun** aditz laguntzaileen aurrean agertzen den aditz nagusiak aspektu-marka eraman behar du; ***edin** eta ***ezan**, jakina, aditz oinekin bakarrik agertzen dira.

Esan dezagun, azkenik, **egin**, **eutsi** eta ***iro(n)** aditzak ere erabiltzen direla laguntzaile modura:

- (9) a. **kanta(tu) da(g)igun** = **kanta dezagun**
b. **ikus da(g)ian** = **ikus dezan**
c. **ikus da(g)ikezu** = **ikus dezakezu**
d. "ezkon ezak semea nai doanean, ta alabea al dagianean"
(*Refranes y Sentencias*, 390)
e. **eman eutsan**

Hauetan denetan aditz laguntzaileak taju bera du: erro desberdina izatean dago diferentzia. **Egin**-en gainean eraikitako laguntzaile hauek batez ere bizkaieraz dira erabiliak. Dena dela, gure laguntzaile tauletan ez ditugu hauek kontuan hartuko. Gauza bera honakootan ere (**eutsi** eta ***iro(n)** aditzekin):

- (10) a. **egun baten esan eutsan Marixek**
b. **ikus diro(ke)**
c. **ez diro(ke) ikus**

Azkenik, ohart gaitezten **-gi-** errodun adizkiak erabiltzen dituzten cuskaldunek, euskara batuzko formez baliatu gura dutenean, guzi hau gogoan izan behar dutela. Horrela, adibidez, **ikus** leike bezalako forma bakarrak, adibidez, bi adizki desberdin izkutatzen ditu:

- (11) **ikusi leike** = a) **ikusi le(g)ike**
 (= ikus lezake norbaitek zer bait)
 b) **ikusi leiteke**
 (= ikus liteke zer bait)

Beraz, **izan/*edin** ("nork" gabeko aditzentzat) eta ***edun/*ezan** ("nork"-dun aditzentzat) izanen dira jasoko ditugun aditz laguntzaileak.

Honelaxe laburtuko dugu orduan orain arteko kontu guzti hau:

Aditz laguntzailea

	ergatibodunak		ergatibogabeak
Aspektu-marka	BAI	*edun	izan
	EZ	*ezan	*edin

6.5. TEMPUSA

6.5.1. Tempus-a eta denbora

Adizkien sailkapenez aritu garenean, oposizioak hartzen ditugula kontuan esan da. Oposizio horietako lehenbizikoa aspektuarena izan da eta aspektua adierazteko erabiltzen den marka morfologikoa aditz nagusian agertzen dela ere ikusi dugu. Bigarren oposizioa, ordea, aditz laguntzailean gertatzen da eta tempusari dagokio beraz. Tempusa ere, aspektua bezala, gramatika kategoria da eta ezaugarri honek iragana eta iragana ez dena bereizten ditu, adizki trinkoetan gertatzen den bezalaxe, hauetan ere baitauekagu oposizio hau ageri agerian. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

- (12) a. **mutil gizen hau menditik dator**
 b. **mutil gizen hau menditik zetorren**

Badakigu, jakin, lehenbiziko perpausaren kasuan mutilaren etortze hori oraingoa dela, aurretik zer egin duen axola ez zaigula. Beste adibidean, ordea, atzera behatzen dugu eta, atzera begiratu bai, mutil hori "orduan" zetorren. Horrelako esaldietan adberbioak sartzen ditugunean ezin dugu nolanaahi aukeratu aditza, nolabaiteko komuntadura gertatzen baita adberbioa eta aditzaren

tempusaren artean. Horrela, gaineko esaldietan "orain" eta "atzo" aditzondoak aukeratzen baldin baditugu, aditz-tempusean ere haien pareko aukera egin behar da:

- (13) a. mutil gizen hau mendian dago *orain*
b. mutil gizen hau mendian zegoen *atzo*

Eman dezagun honako irudi hau:

-----D----->

Lerro horrek denboraren iragaitea irudikatzen badu eta D puntua baldin bada hiztuna kokatzen den unea, une honetatik atzera gelditzen edo gertatzen diren prozesuei dagozkie normalean iraganeko formak. Eta prozesu hauek ongi konpontzen dira, jakina denez, "atzo", "herenegun", "lehen" eta antzeko aditzondo eta adberbio esapideekin, hauek ere denborazko aditzondo izaki, iraganeko denbora erreferentzia baitute. Prozesu guzti hauek, orduan, [-orain,+iragan] tasunekin seinalatuko ditugu lan honetan.

Irakurlea ohartu denez, bi kontzeptu berezi ditugu hemen: *tempus*-a eta *denbora*. Lehenbizikoa gramatikari dagokio eta adizki formak seinalatzen ditu (*da - zen*). Bigarrenak, berriz, balio nozionala du (*orain - atzo*). Normalean biak parekatuak agertzen zaizkigun arren, ez da nahitanahiezkoa hori horrela izatea: *atzo etorri da* esaten dute zenbait euskalkitan. Ohartu gabe ere, horrelako adibide franko esaten ditugu: *sartu naizenean banekien lo zinetela*. Adibide honetan tempus diferentek (oraina-iragana-iragana) erabiltzen ditugu nahiz eta, denborari dagokionez, deskribatzen ditugun gauza guztiak une berean gertatzen diren. Aditz formen erabilera (gauza bat baita eskema formala --hemen aztertzen ari garena-- eta bestea benetako erabilera) geroago erakutsiko da 13. kapituluan.

Orain arte esandako gauzak kontuan izanik hauxe gertatzen zaigu gure hizkuntzan. Adizkien forma kontuan harturik, *oraina* eta *iragana* (berehala mintzo gara honetaz) bereizten dira: *da/zen*. Ez dugu modurik, tempus-aren aldetik, *geroa* adierazteko eta aspektuaz baliatzen gara horretarako. Hori dela eta, esanahiaren aldetik ditugun *orainaldia*, *iraganaldia* eta *geroaldia* adierazi nahi ditugunean, erabilera bat baino gehiago ditugun arren, tempusaz eta aspektuaz baliatzen gara. Tempusaren *orainaz*, *orainaldia* adierazteko; tempusaren *iraganaz*, *iraganaldia* adierazteko eta aspektuaren *geroaz*, *geroaldia* adierazteko. Hori da normalean gertatzen dena, baina eman ditugun eta emanen ditugun adibideetan ikusten da ez dela beti hori suertatzen. Horregatik berezi ditugu forma eta esanahia edo forma horiei ematen diegun erabilera. Hemen

formaz bakarrik ariko garenez hurrengo orrialdeetan, erabilera geroago aztertuko dugu. Ez ahaztu, nolana ere, **oraina**, **iragana** eta **geroa** kontzeptu gramatikalak eta formalak direla; aldiz, **orainaldia**, **iraganaldia** eta **geroaldia** kontzeptu nozionalak dira, esanahiari loturik daudenak.

6.5.2. Tempusa eta aspektua gurutzatzen zaizkigunean

"Iragan"aren tasuna erabili dugu lehenbiziko oposizioa seinaltatzeko. Zein izango litzateke bigarren oposizioa gure eskema honetan? Ikus dezagun orain beste irudi hau:

-----D----->

Jo dezagun hitzuna kokatua dagoen unean gertatzen ari den prozesua deskribatu nahi dugula: [+orain,-iragan] ezaugarriak erabiliz seinala daiteke une hau. Gertatzen hasi da baina ez da oraingoz bukatu, une honetan gertatzen ari baita.

Halaz guztiz, zerbait gehiago esan beharra dago hemen: eman ditugun adibideetan **egon** aditz trinkoaz baliatu gara. Zer gertatzen da aditz perifrastikoak erabiltzen ditugunean? Kasu honetan, orain arte ikusi ditugun bi oposizioak ("aspektua" eta "tempus-a") gurutzatu egiten dira eta hor sor daitezkeen koropiloak laxatzea uste baino zailago gerta dakiguke, konbinazio guzti hauek baititugu oraingoa:

- (14) a. etortzen da
b. etorri da
c. etorriko da
d. etortzen zen
e. etorri zen
f. etorriko zen

Lehenbiziko hiru adizkiak, Tempus-ari dagokionez, orainean daude (**da**) eta beste hiruak, berriz, iraganean (**zen**). Hiru hauek [-orain] ditugu, nahiz eta azkeneko adibidean geroaren marka agertzen den. Irudi baten bidez saiaturiko gara argi zerbait ematen kasu honetaz:

-----2-----3-----1----->

Lehen bezala, denboraren iragaita irudikatzen dugu lerro horretan, baina lehen ez bezala, zenbaki batzu jarri ditugu oraingoan hor. Hiztuna "1" zenbakian dago eta iragandako prozesu bat behatzen du:

(15) lagun batek esan zidan New Yorkera joan zela

Baina errepara dezagun beste prozesu bat: hiztunak, "1" puntuan egonik, "2" zenbakira begiratzen du orain, gertaturiko prozesua daukala kontuan; eta "2" puntuko prozesuaz ari bada, oraingoz "3" zenbakian (zenbaki hau "1"-en ezkerrean nahiz eskuinean izan daiteke) gertatu gabe dagoen zerbaiti buruz ari da; horixe da hurrengo adibidean ikusten dena:

(16) hantxe ezagutu(ko) zuen denborarekin bere senar bihurtuko zena

Hor deskribatzen den prozesua geroaldikoa da "2" deituriko kokagunetik behatuz, baina gertatua da "1" puntutik begiratzen baldin badugu. Horrexegatik sortzen dira hemen halako nahasteak:

**(17) lagun batek esan zidan N. Yorkera joan zela.
Hantxe ezagutuko zuen ... bihurtuko zena.**

Ikusten denez, une hartan --joan zenean-- ez zuen ezagutzen hori, baina hau esaten dugun momentuan ezkondurik daude biak. Hona hemen beste adibide bat:

(18) "Hitz eman-cion Salbatçailleari lehenago hillen-cela ukhatuco-çuen baino haren dicipulutaric cela" (Larregi, *Testament çaharreco eta berrico historia*, 263. orr.).

Goian jarri ditugun sei kasu horietarik, itzul gaitezen orain lehenbiziko hiruretara: tempus-aren aldetik ez dago zalantzarik eta hirurak ditugu [+orain,-iragan]. Denboraren aldetik, berriz, **etorriko da** adizkiak geroa markatzen du, aspektu markaren bidez eta esanahiaz ere geroaldia da. **Etorri da** adizkiaren kasuan aditzaren tempusa orainean dago, ikusten denez, nahiz eta gertatu den zerbaiti buruz ari garen, iraganaldiaz, hain zuzen ere.

Hemen gauzak nahikoa nahasiak gerta daitezke eta euskalkien arauera aldatzen da tempusaren erabilera; noiz dugu **etorri zen** eta noiz **etorri da**? Iragana erabiltzekotan gutienezko unitatea gauerdiak markatzen duela esan daiteke:

- (19) a. atzo hamaietan etorri zineten
 b. oso ongi ohartu naiz bart arratseko biak aldera etorri zaretelarik

Beraz, gauerdia baino lehenagoko kontuak adierazteko, iragana erabil daiteke. Gauerdiaz geroztik gertaturakoen berri emateko, ordea, ez:

- (20) a. bart berandu etorri zara
 b. bart berandu etorri zinen

Besterik esaten ez den bitartean, hiztunak berehala interpretatzen du, bigarren esaldi hau entzuten duenean, gauerdiko hamabiak baino lehenago gertatu zela "etortze" hori.

Gutienezko unitate hori gauerdiak markatzen baldin badu ere, horrek ez du esan nahi kasu horietan beti iragana erabili behar denik, iraganeko formak erabil "daitezkeela" baizik. Beraz, honekin zehazten duguna da noiz erabil daitezkeen iragana. Zenbait euskalkitan denbora luzeagoa behar da, ederki entzunen baitira honelako esaldiak:

- (21) atzo berandu etorri zarete

Euskalkien arauera honela suertatzen dira orduan gauzak:

Ekialdeko euskalkiak
 (gauerdia baino lehen):

etorri zarete
 etorri zineten

(gauerdia pasatuta):

etorri zarete
 * etorri zineten

Mendebaleko eusk.
 (gauerdia baino lehen):

?? etorri zarete
 etorri zineten

(gauerdia pasatuta):

etorri zarete
 *etorri zineten

Eman ditugun arrazoiengatik, ondoko esaldi hauek ongi daude euskalki edo orduaren arauera:

- (22) a. bart arratsean oso berandu etorri zineten.
 b. bart arratsean oso berandu etorri zarete.

Orain arte eman ditugun adibide guztietan "eguna" hartu dugu unitate moduan --gauerdiak markatzen duela muga-- baina, unitate hori, egunaren ordeza, beste zerbaite ere izan daiteke. Eguna dugu unitate minimoa (ezin baitugu esan * hamarretan etorri nintzen, hau esaterakoan egun bereko hamaikak baldin badira). Egunarekin batera, hona hemen beste zenbait unitate:

- (23) a. gaur etorri da
b. aste honetan ez du euririk egin
c. hilabete honetan ez dugu ikusi
d. urte honetan ez du lasterketarik irabazi
e. mende honetan lur ikara handiak izan dira Californian

Unitate erlatibo hori baino lehenago gertatuaren berri emateko tempusa aldatzen dugu:

- (24) a. atzo etorri zen
b. joan zen astean ez zuen euririk egin
c. joan zen hilabetean ez genuen ikusi
d. joan zen urtean ez zuen lasterketarik irabazi
e. joan zen mendean lurrikara handiak izan ziren Californian

Ikusten den bezala, adibide guzti hauek gauza berbera erakusten digute behin eta berriz: halako "komunztadura" bezalako bat suertatzen da denbora adberbio eta tempusaren artean: "atzo", "joan den astean", "lehengo astean", "mende hartan", "joan zen mendean", "iaz" eta horrelako formek iraganeko formak nahi dituzte. Horien ordeza "gaur", "aste honetan", "mende honetan", "aurten" eta horrelakoak erabiliz gero oraineko formak erabiltzen ditugu. Komunztadura bera gertatzen da, adibideetan ikusi denez, lehen eta hirugarren graduko erakusleen artean: "honetan" jarriz gero, **da**, **du** eta horrelakoak erabiliko dira aditzean.

Halaz ere, esan dugu hori nahikoa erlatiboa dela eta esaldi guztietan oraineko tempusa ere onartzen dela, zenbait euskalkitan bederen:

- (25) a. atzo etorri da
b. joan den astean ez du euririk egin
c. joan den hilabetean ez dugu ikusi
d. joan den urtean ez du lasterketarik irabazi
e. joan den mendean hil da

Ohar gaitezkeenez, ez da gauza erraza arau zehatzik ematea kontu hauetan: nolana ere, esan daiteke [-orain] ezaugarria duten formak markatuago

direla eta eremu mugatuagoetan bakarrik erabil daitezkeela.

Tempusaren marka hau lau aditz laguntzaileei ezartzen zaie eta [+orain,-iragan] ezaugarriak ezarriz honako forma hauek sortzen zaizkigu:

izan	*edun	*edin	*ezan
da	du	-dadi- (badadi/ dadin)	-deza- (badeza/ dezan)

Kontua da, ordea, [+orain,-iragan] ezaugarriek hornitutako beste zenbait adizki ere baditugula (-KE morfema^{adunak}, alegia), nahiz ez diren besteak bezain zabalduak. Oraingoz izenik gabe utziko ditugun formak, hauexek dira (ikus geroago):

izan	*edun	*edin	*ezan
sartzen dateke	ikusten duke	sar daiteke	ikus dezake
sartu dateke	ikusi duke		
sartuko dateke	ikusiko duke		

Beti bezala, aspektuaren marka lehenengo bietan bakarrik ageriko da. Azkenez, [-orain,+iragan] ezaugarriekin honako hau dugu (goikoak berak baina iraganearan oraingoan):

izan	*edun	*edin	*ezan
zen	zuen	zedin	zezan
sartzen zatekeen	ikusten zukeen	sar zitekeen	ikus zezakeen
sartu zatekeen	ikusi zukeen		
sartuko zatekeen	ikusiko zukeen		

Bistan da, bada, nola bereizten diren forma hauek denbora markaren arauera. Ikusi dugu, baita, badirela zenbait adizki esplikatu gaberik utzi ditugunak oraingoan. Guztia kontuan harturik, honela geratzen zaizkigu bi oposizio (aspektua-tempusa) hauen ondorioz sortzen zaizkigun aldakiak:

TEMPUSA

Aspektu marka	[+orain,-iragan]		[-orain,+iragan]	
+	DA	DU	ZEN	ZUEN
+	DATEKE	DUKE	ZATEKEEN	ZUKEEN
-	DAITEKE	DEZAKE	ZITEKEEN	ZEZAKEEN
-	-DADI-	-DEZA-	ZEDIN	ZEZAN

6.5.3. Alegiazko adizkiak

Guzti honek, hala ere, bi aukera gehiago ere ematen dizkigu: jakina, prozesu bat ezin daiteke izan era berean "iragana" eta "oraina" eta bien arteko aukera egin behar da nahi eta ez, koadroan ikusten ahal den bezala. Baina zer dira balitz, nintzateke eta horrelako adizkiak? Guzti horiek [-orain,-iragan] ezaugarriak dituztela esanen dugu. Puntu hau behar bezala argitzeko, aditz laguntzailearen formak aztertu beharrean, adizki trinkoetatik bilduko ditugu adibide batzu. Edozein aditz trinko hartuz gero ("etorri", esaterako), honako formok ditugu "tempus"-aren oposizioa kontuan harturik:

Tempusa

[+orain,-iragan]	[-orain,+iragan]
NATOR	NENTORREN
NATORKE	NENTORKEEN

Adizki guzti horiekin batera baditugu beste bi ere: **banentor** eta **nentorke**. Bi forma hauek iraganarekin parekatuz gero, berehala ohartuko gara iraganeko amaierako -N hori ez dela ageri:

NENTORREN ----- **-NENTOR-**

Eta **-nentor-** honetatik sortzen dira aipaturiko bi formak, ikusten ahal denez: **ba-** eransten dugu kasu batean (**banentor**) eta **-ke**, berriz, bestean (**nentorke**).

Baina kontura gaitezen orain gauza batez: **nator** eta **nentorren** nahikoa erraz bereizten ditugu denboraren aldetik, oraina eta iragana baititugu. Zer dira, ordea, **banentor** eta **nentorke**? Adizki berri hauek errealitatetik urrundu bezala egiten gaituzte, alegiazko mundu batean kokatzen delarik aditz ekintza, denboraren aldetik markatu gabe balitz bezala. Hortaz, alegiazko, hipotetiko, den zerbaiten aurrean aurkitzen garela ematen du. Errealitatetik urrundu bezala egiten gara (gogora dezagun "balizko olak" ere ez duela burdinik egiten, balizkoa delako, alegiazkoa, eta ez egiazkoa, alegia). **Etorriko banintz, joango ginateke, ekarriko genuke** eta hauek ere mundu horretakoak ditugu, alegiazkoak, hain zuzen ere.

Lehenago esan dugun bezala, hizruna kokatuta dagoen momentutik kanpo gelditzen diren ekintza guztiek ez dute "gaurkotasunik". Hortaz, **banentor** eta **nentorke** ezin dira [+orain] izan, ez baitira hiztunaren momentuan kokatzen. Halaz guztiz, ikusten da ezin dutela eraman [+iragan] ezaugarria ere. Aipatu bi tasun horiez baliatu nahi baldin bagara adizki hauen berri emateko, bi aukera besterik ez zaigu geratzen: **banentor, nentorke** eta hauen sailekoak, edo [+orain,+iragan] edo [-orain,-iragan] izanen dira. Argi denez gero gauza bat ezin dela "oraina" eta "iragana" izan aldi berean, geratzen zaigun hautabide bakarra [-orain,-iragan] aukeratzea da. Horixe da, hain zuzen ere, alegiazko mundu hori, zeinean ez baita denborarik markatzen: ez da ez gaurko ez atzoko kontua hor adierazi nahi izaten dugun egoera. Honela, bada, eskema hau geratzen zaigu orain aditz sistemari:

Tempusa

[+orain -iragan]	[-orain +iragan]	[-orain -iragan]
NATOR	NENTORREN	-NENTOR
NATORKE	NENTORKEEN	NENTORKE

Aditz laguntzaileetara itzultzen baldin bagara berriz ere, gauzak konplikatuagotzen zaizkigu, morfologia ez baita Aditz Trinkoetan bezain garbia. Nolanahi ere, oposizio berberak atzeman ditzakegu:

TEMPUSA

	oraina		iragana		alegiatzkoa	
Asp. marka	[+orain -iragan]		[-orain +iragan]		[-orain -iragan]	
+	DA	DU	ZEN	ZUEN	-LITZ	-LU
+	DATEKE	DUKE	ZATEKEEN	ZUKEEN	LITZATEKE	LUKE
-	DAITEKE	DEZAKE	ZITEKEEN	ZEZAKEEN	LITEKE	LEZAKE
-	-DADI-	-DEZA-	ZEDIN	ZEZAN	-LEDI	-LEZA

Tempusaren oposizioa zenbait morfologi markaren eskutik joan ohi da. Adibidez, iraganeke adizkiek amaieran **-n** bat izan ohi dute:

- (26) a. *naiz / nintzen*
 b. *dator / zetorren*

Hala ere, Hegoaldeko Goinafarrerako zenbait hizkeratan ez da **n** hori agertzen:

- (27) a. "Jaun ónac *errancióte* gafaracoei" (Lizarraga, *Doctrina Christianoaren Catechima*, 79.orr.)
 b. "Maite-edérr *zue* bere semé bacárr própioa Jesus, ta *etzió* barcátu, baicic emán níóri baño yagó trabajo" (Lizarraga, *Doctrina...*, 80.orr.).

Horrezaz gainera, 3. pertsona delakoan ere hiru zutabeen arteko oposizioa morfologi aldetik nabarmen ageri da (dena dela, ikus honetaz kapitulu honetako 4.8. puntua):

- (28) *dator / zetorren / letor*

Azkenik, askotan bokal desberdintasuna gertatzen da oraingo eta ez-oraingo formen artean **a / e, i...**, sarritan **-n** bat ere tartean delarik:

- (29) *dator / zetorren*
gara / ginen

Hala ere, **a** hori askotan ez da ageri: **diot, dezaket**, e.a. Gainera, ez da segurua **a** hori tempus marka ote den ere.

6.6. MODUA

Eman den irudian pare parean jarri ditugu **da** eta **dateke** edo **du** eta **duke**. Berdin berdin **zen** eta **zatekeen** edo **zuen** eta **zukeen** ere. Zein da guzti horien arteko diferentzia Tempusaren kontuaz gain? Seguraski ere, desberdintasun bat baino gehiago dago, baina bat bakarrik aipatuko dugu hemen: **etorri da** diogunean badakigu zerbait gertatu dela, ziur gara horretaz, eta baieztapena besterik ez dugu egiten; **etorri dateke** diogunean, ordea, ez gara batere segur mintzo: agian etorri da, baiezkora makurtzen gara, baina ez dugu segurtasun osorik inondik ere. Badirudi bigarren kasu honetan gertatua den zerbaiten aurrean gaudela, prozesu honek gerta itxura erakusten duela. Hots, horrek horrela izanaren antz handia du, bestela esan, bidezko dateke hori horrela izatea, ez da itxuragabea hori horrela izatea. **Ahal**-en barmean sartzen da hori. Hortaz, hori seinatzen diguten adizkiek [+ahal] ezaugarria daramatela esanen dugu. Hori dela eta, ezaugarri honek markatzen digu moduari dagokion oposizioa:

MODUA	TEMPUSA			
	{+orain -iragan}		{-orain +iragan}	
[-ahal]	DA	DU	ZEN	ZUEN
{+ahal}	DATEKE	DUKE	ZATEKEEN	ZUKEEN
{+ahal}	DAITEKE	DEZAKE	ZITEKEEN	ZEZAKEEN
[-ahal]	-DADI-	-DEZA-	ZEDIN	ZEZAN

Ohartzen garenez, [+ahal] tasuna jarri diogu **dateke** adizkiari baina tasun berbera erabili dugu, baita ere, **daiteke** eta **-dadi-** bereizteko. Guzti horiek, ikusten denez, menturazkotasuna, ustezkotasuna edo agiangotasuna seinatzen dute. Nolanahi ere, adizki hauen arteko desberdintasunak bere garaian aztertuko dira.

Bestalde, zuzenean esan ez badugu ere, nahikoa argi geratu dateke agian **-ke** dela modua adierazteko erabiltzen dugun marka. Hala ere, hirugarren pertsonari (edo, gero ikusiko den bezala, ez pertsonari) dagokionez, **d (da, du)**, **z (zen, zuen)** eta **l (litzateke, luke)** ere agertzen dira eta hauek modua edo denboraren markak izango lirateke. Dakigunez, bizkaieraz "ø" ere agertzen da (**eban**).

Honela laburbil daitezke, bada, kuadro batean euskal adizki perifrastikoak:

ADIZKI PERIFRASTIKOAK

A. NAGUSIA

A. LAGUNTZAILEA

ASPEKT	MODUA	TEMPUSA					
		[+orain -iragan]		[-orain +iragan]		[-orain -iragan]	
(-TZEN -TU -TUKO) bai	-ahal	DA	DU	ZEN	ZUEN	-LITZ	-LU
	+ahal	DATEKE	DUKE	ZATEKEEN	ZUKEEN	LITZATEKE	LUKE
Ø	+ahal	DAITEKE	DEZAKE	ZITEKEEN	ZEZAKEEN	LITEKE	LEZAKE
	-ahal	-DADI-	-DEZA-	ZEDIN	ZEZAN	-LEDI-	-LEZA-

Koadro honetan ez ditugu pertsona markak kontuan izan. Ikus geroago.

Kontuan izan behar du irakurleak gauzak errazago egitearren aurkeztu dugula guzti hau honela: agian, oposizio garbiagoak aurki litzake norbaitek edo hemen eman ditugun hauek beste nolabait ere moldatu (segur aski [+iragan] dugu tasun markatua eta ez [+orain], hemen jarri den bezala) baina, gure ustez, badirudi sailkapen hau nahikoa argi geratzen dela.

Aditzak honela multzokatzeak esplikatuko luke zergatik gertatzen diren erabilera diferentek **luke/lezake** formak bezalakoan parean, denak baitinugu [+ahal]. Sarri askotan baliokideak dira forma hauek eta hizkera batek alde batekoa hartzen duen bitartean (**ekarriko luke**), bigarrenak nahiago izaten du bertzea (**ekar lezake**).

Hemen dakargun adibide hau nahiko argigarria gerta daiteke, P. Lafittek pare-parean jartzen baititu bi formak, koordinazioa eginez:

- (30) "Atsegin handia ere ginuke, gu baino arginago batek berriz *has baleza* lantxo hau, eta eskuararen onetan guk baino hobeki *bururatzen balu*" (P. Lafitte, *Eskualdunaren loretegia*, 6.orr.).

Arrazoi beragatik gertatzen da Iparraldeko leku askotan **dateke** eta **daiteke** adizkiek itxura bera hartzea. Horrela, batzuk **dita(i)ke** adizkia erabiliko dute **dateke** nahiz **daiteke** adierazteko. Hala ere, erabilera hau ez da nolanahi egiten eta forma alokutiboetan argian jartzen dira diferentziak:

hemen ditake (**dateke** adierazi nahi duela) honela erabiliko da alokutiboetan: **hemen dukek, duken, dukezu**, e.a.

gerta ditake (**daiteke** esan nahi duela) honela erabiliko da alokutiboetan: **gerta ditakek, ditakezu**, e.a.

Bistan dena, **daiteke** aditz laguntzaile gisa besterik erabiltzen ez denez gero, laguntzen duen aditz nagusiak ezin dezake aspektu markarik hartu: **gerta ditake = gerta daiteke** (***gerta dateke**).

Laburbilduz, bada, hauxe esanen dugu. Aditz laguntzailean oraina/ez oraina bereizten dugu lehenik (**da/zen izan** laguntzailearen kasuan); ahala/ez ahala dugu bigarren bereizketa (**da/dateke izan**-ekin) eta, azkenik, alegiazkoa daukagu (-**litz, izan** aditzean). Sailkapen honen arauera ematen dugu adizki guztien berri.

Jakina; orainoko sailkapenak paradigmak izenak aldatzera eramaten gaitu. Euskaltzaindiak *Euskal Aditz Batua* liburuan proposatzen zituen haien ordez honako hauek eskaintzen ditugu:

Gure deitura**Euskal Aditz Batua**

- | | | |
|-----|--|--|
| 1) | DA / DU:
<i>Izan / *Edun-en orainaldia</i> | Indikatibozko orainaldia |
| 2) | DATEKE / DUKE:
<i>Izan / *Edun-en KE orainaldia</i> | Geroaldi arkaikoa |
| 3) | -DADI- / -DEZA-
<i>*Edin / *Ezan-en orainaldia</i> | Subjuntibozko orainaldia /
Ahalezko baldintza hurbila |
| 4) | DATEKE / DEZAKE:
<i>*Edin / *Ezan-en KE orainaldia</i> | Ahalezkoa (berchalakoa) |
| 5) | ZEN / ZUEN:
<i>Izan / *Edun-en iragana</i> | Indikatibozko lehenaldia |
| 6) | ZATEKEEN / ZUKEEN:
<i>Izan / *Edun-en KE iragana</i> | Ondorioa (II) |
| 7) | ZEDIN / ZEZAN:
<i>*Edin / *Ezan-en iragana</i> | Subjuntibozko lehenaldia |
| 8) | ZITEKEEN / ZEZAKEEN:
<i>*Edin / *Ezan-en KE iragana</i> | Ahalezkoa (iraganerakoa) |
| 9) | -LITZ / -LU:
<i>Izan / *Edun-en alegiazkoa</i> | Baldintza |
| 10) | LITZATEKE / LUKE:
<i>Izan / *Edun-en KE alegiazkoa</i> | Ondorioa (I) |
| 11) | -LEDI- / -LEZA-:
<i>*Edin / *Ezan-en alegiazkoa</i> | Subjuntibozkoa lehenaldia/
Ahalezko baldintza urruna |
| 12) | LITEKE / LEZAKE:
<i>*Edin / *Ezan-en KE alegiazkoa</i> | Ahalezkoa (gerokoa) |
| 13) | Agintekera (<i>*Edin/*Ezan-ekin</i>) | Agintaldia |

Ez ditugu gustoz aldatu izenak. *Euskal Aditz Batua* delakoa baino lehenago proposatuak zituzten izen diferentek Intxauspek (1858), Ithurry-k (1895), Lafon-ek (1943) eta Lafitte-k berak ere, elkarren artean bat ez zetoze. Orain arte adizkien forma bakarrik izan dugu kontuan eta forma horretan oinarriturik, ikusi den bezala, ez dugu beharrezkotzat jo "subjuntibo" eta horrelako izenak erabiltzea. Hala ere, gure bideari jarraituz gero, zenbait adizkiren deitzeko --zenbait forma deitzeko, alegia-- nahikoa buruhauste izango ditugu. Adibidez, etor dadin bezalako adizki bat honelatsu deitu beharko genuke: "etorri aditzaren aspektu gabeko *edin oraina ez-ahalezkoa". Hau, agian, nahaste iturri izan liteke. Horregatik, zenbaitetan, eroso gerta daitekeelakoan *subjuntibo* hitza ere erabiliko dugu. Deitura hori -**dad**i- edo -**de**za- laguntzaileen sailekoentzat gordeko dugu, bereziki -n edo -la atzizkiaz hornitua doanean. Hain zuzen, atzizki hauekin joan daitezke beste laguntzaile batzu ere. Hori da zenbait adizki iharturekin gertatzen datekeena. Gure sailkapena "forman" oinarritzen da hortaz. Kontu bera dugu adizki ihartu batzutan ere, "subjuntibo zahar" edo deituekin, eta formaz bestelako berezitasun gabe agertzen zaizkigunetan: *dugun* edan , *dena dela*, *dugun ttanffatto bana* (herri kantua), *Jainkoak dagizula* (edo *dizula*) egunon, *datorrela*, *dagoela*, *on dagizula*, *on dizula*, *bejon dizula*, *Gabon Jainkoak diela*, *dugun otoitz egin*, e.a.

6.7. PERTSONA

6.7.1. Sarrera

Aditz jokatuena eta jokatu gabeen artean dagoen diferentziarik handienetakoa da pertsona markak izatea edo ez izatea. Esan nahi baita, aditz jokatueta perpausuan parte hartzen duten zenbait Izen sintagmaren erreferentziakide diren pertsona markak aurkituko ditugula. Adibidez, honako aditz hauetan agertzen diren markek argi eta garbi erakusten digute zein Izen Sintagma dabiltzan jokoan:

- (31) a. **N A T O R K I K** = **ni - hiri**
b. **Z A R A M A T Z A G U** = **zu - guk**

(a)ko aditzean ageri den markak erakusten digu hori: hasierako **N**-ak esaten digu **nor** den datorrena, lehen pertsona singularra, **NI**, alegia. **-K** hizkiak, berriz, ematen du aditzera **nor**i natorkion, **HIRI**, alegia.

(b)ko aditzean ere gauza bera dugu: **-GU** markak **gu** dela esaten digu eramalea. Alegia, nork sintagma bati dagokio, hots: lehen pertsona pluraleko (=GU) ergatibo bati. **Z-**, berriz, **nor** sintagma bati dagokio: **ZU**-ri, hain zuzen. Eta perpausoko **zu** izen sintagmari dagokion **Z-** aditzeko pertsona-marka horrezaz gainera, **-TZA-** plural marka ere beharrezko dugu, **zu**, historiari dagozkion arrazoiengatik, pluralizat hartzen baitugu aditz jokoan. Horrenbestez, nolabait esan liteke **Z- . . . TZA-** direla **ZU** izen sintagma aditzari ezartzen dizkion komunztadura markak.

Aditzak komunztadura du perpausuan ager daitezkeen hiru izen sintagmarekin: **NOR** izen sintagmarekin, **NORI** izen sintagmarekin eta **NORK** izen sintagmarekin. Edo bestela esan, perpausoko **NOR**, **NORI** eta **NORK** sintagmei dagozkien markak aurki ditzakegu adizkiaren barruan:

- (32) a. **N-ator** = **NOR (ni)**
b. **N-ator-ki-ZU** = **NOR(ni)/-ZU** = **NORI(zu)**
c. **H-akar-GU** = **NOR(hi)/-GU** = **NORK(gu)**
d. **d-akar-ki-GU-ZU** = **NORI(gu) / -ZU** = **NORK(zu)**

(Hasierako **d-** hori, gero ikusiko dugun bezala, berez ez da pertsona marka, nahiz eta, kasu honetan perpausuan **nor** sintagma bat, ez lehen pertsonakoa ez bigarrenakoa ez dena, badela adierazi).

Eta komunztaduraz hitz egiten dugunean esan nahi dugu adizkian ageri diren pertsona marka horiek eta perpausean ager daitezkeenak (egia da, hala ere, sarritan isildu egiten ditugula (cf., esaterako, **ekarri dizkiguzu** perpausa, non ez dugun agerian jartzen nori zer ekarri, baina hor daude nolabait) "ados" egon behar dutela. Alegia, aditzak adibidez **NORI (niri)** markatzen badu, perpausean ere era horretako "nori" sintagma bat aurkitu beharko dugu, edo, ezkutuan badago --egon daitekeen bezala-- ulertutzat emango dugu, eta ez, adibidez, **guri** bezalako sintagma bat, perpausa ongi eratua egotea nahi badugu. Horrela, honako bi perpaus hauetatik bigarrena gaizki eratua legoke, ez baita komunztadura errespetatzen:

- (33) a. (gu) ez **GAITUZU** ikusi (zuk)
 b. *ni ez **GAITUZU** ikusi (zuk)

Eta (b)ren ordez (c) bezalako bat baldin badugu, **nor-ik** ez dagoelarik, alegia, orduan (3) honen interpretazio posible bakarra (a)rena izango da:

c. Ez gaituzu ikusi

Dena dela, esan behar da **NOR**-i dagokion osagaia beti agertuko dela adizkian (1. eta 2. pertsonakoa denean, dudarik gabe, eta ez denean, markarik eza izango da, nolabait, marka). Horrenbestez, adizkietan honako konbinazio hauek izan ditzakegu, pertsona markei dagokien bezanbatean:

- | | |
|-------------------------------|----------------------------------|
| a) NOR marka soila: | NATOR, etorri GARA |
| b) NOR eta NORI markak: | ZATOZKIT, joan ZATZAIZKIT |
| c) NOR eta NORK markak: | ZARAMATZAT, ikusi ZAITUT |
| d) NOR, NORI eta NORK markak: | DARAMAZKIOT |

(Hala ere, azken honi buruz, esan behar da badakigula **nor** sintagma ez dela ez lehen pertsona ez bigarrena. Esana dugu ez 1. ez 2. pertsona ez den marka "markarik eza" edo izan ohi dela. Horrenbestez, hasierako **d-** hori ez litzateke pertsona marka izango, nahiz eta orainean **NOR hura** denean agertu. Baina **D-** horren ordez, **Z-** edo **L-** agertuko dira oraina ez direnetan).

Beraz, adizkiaren barnean ager daitezkeen pertsona markak hiru izen sintagma horiei dagozkienak izango lirateke. Laburbilduz:

PERTSONA MARKAK = NOR - (NORI) - (NORK)

Bestalde, gorago esanaren arauera, aditzak ere onar ditzaketen sintagmen arauera sailkatzen ditugu: adibidez, etorri bezalako aditz batek NOR(NORI) jokoa onartzen duen bitartean, ekarri aditzak NOR (NORI) NORK eskema onartzen du.

6.7.2. Pertsona markak.

Adizkiaren barruan agertzen diren aipatu pertsona markek forma hau erakusten dute:

a) Adizkiaren aurrean kokatzen direnean:

I	N-	=	1. pertsona singularra	(=ni)
II	H-	=	2. pertsona singularra	(=hi)
I'	G-	=	1. pertsona plurala	(=gu)
II'	Z-	=	2. pertsona singularra*	(=zu)
II''	Z-	=	2. pertsona plurala*	(=zuek)

(*Oharra.- Badakigu berez gaurko euskaraz zu bigarren pertsona singularreko izenordaina dela. Euskaldun askorentzat bera bakarra da, gainera; beste askorentzat, berriz, hi ere parean du. Baina garbi dago aditzaren morfologiaren aldetik, plural gisa lan egiten duela. Horregatik, hain zuzen, sartu dugu eskeman zuek-en parean, eta gero ikusiko dugun bezala, pluralgilea ere eskatzen du. 2. pertsona pluralak, dena dela, -TE pluralgilea eskatzen du, zu/zuek bereizketari jarraitzeko, askotan -z- bat ere tartean delarik: zaitu vs. zaitu-Z-TE).

b) Adizkiaren azken muturrean kokatzen direnean:

I	-T	
II	-K/N(A)*	(gizonezkoa edo emakumezkoa den)
I'	-GU	
II'	-ZU	
II''	-ZU +e	(baina g hau pluralgilea litzateke)

(*: hik dakarna eta antzeko formak ere badira, hik dakarren-en parean. Horregatik jarri dugu -N(A).

c) Adizkiaren barnean gertatzen direnean

Hau gerta daiteke NOR-NORI-NORK formetan eta baita adizkiak atzizkiren bat daramanean ere: adibidez, iraganean, erlatibozkoetan eta konpleti-boetan:

I	-DA	
II	-A/-NA	
I'	-GU	
II'	-ZU	
II''	-ZU+e	(baina e hau pluralgilea besterik ez litzateke).

6.7.3. Hirugarren pertsona delakoa

Hirugarren pertsona deitu izan zaio ez lehen pertsona (hizketan ari dena) ez bigarren pertsona (elkarrizketako bigarren pertsona, alegia, hiztuna zuzentzen zaiona) ez denari. Egiazko pertsonak elkarrizketan parte hartzen dutenak dira. Horrenbestez, hirugarren pertsona delako hori ez-pertsona dela esan izan da, elkarrizketatik kanpo gelditzen baita. "Ez-pertsona" izate hori, euskaraz, adizkiaren barruan markarik ezaren bidez erakusten da. Pentsa, adibidez, **nuen** bezalako adizki batean: oso zaila litzaiguke hor 3. pertsonako nor-en marka non den jakitea. Eta **dut** diodanean hasierako **d-** hori pertsona marka ote da? Hala balitz, ordea, non ezkutatu ote da **nuen** bezalako forma batean? Bestalde, hasierako **d-** hori pertsona marka balitz **dute** bezalako adizki batean, zergatik iraganean **Z-** eta alegiazkoan **L-**? Gauza jakina da, bestalde, bizkaieraz iraganeko **Z-** hori \emptyset dela, honako bikoteotan ikusten den bezala: **zetozen/etozan**; **zuen/eban**, e.a. Azkenik, adizkiaren azken muturrean joan ohi diren nork markek erakusten duten hutsunea nabarmena da 3. pertsonara iristen garenean:

(34)	dioT
	dioK/N
	dio-
	dioGU
	dioZU
	dioZUE (-ZUE = -zu+e)
	diote

Horrenbestez, 3.pertsonaren marka \emptyset dela esango dugu. Eta adizkiaren hasieran gerta daitezkeen **d-**, **z-** eta **l-** ez ditugu pertsona markatzat hartuko tempus edo modu markatzat baizik. Hala ere, datiboan marka berezia dugu 3. pertsonarako ere: **diOgu/diEgu**. Bestaldetik, **diote** forman agertzen den **-te** marka, **nor**k (=haiek) sintagmari dagokion komunztadura marka da. Baina **dio**-ren kasuan marka hori \emptyset bada (beraz, **dio** = **dio- \emptyset** , **diote** = **dio- \emptyset -te**) izanen litzateke. Beraz, **-te** hori "hura"/"haiek" bereizketak eskatzen duen pluralgilea izango genuke, **diozuE/diozu** bereizketan agertzen dena bezalakoxea.

6.7.4. Pluralgilea

Aditz banean ager daitezkeen pertsona markak zenbaitetan numero marka ere gehitzen zaiela dirudi. Aditzaren komunztadura, izan ere, ez da pertsonari bakarrik dagokiona, numeroa ere hor baitago.

Pertsona horien pluraltasuna markatzeko erabili ohi diren hizkiak honako hauek ditugu:

A)

-Z(KI)-	zaigu	vs.	zaizkigu
-Z-	doa	vs.	doaz (doa+z)
-TZA-	dabil	vs.	dabiltza
-IT-	nauzu	vs.	gaituzu

Plural marka hauek denak NOR-i dagozkionak dira: nor sintagma plurala bada aditzaren komunztadurak sintagma plural honi dagokion pertsona markari pluralgile horietakoren bat gehitzea eskaruko du. Eta honek lehen, bigarren eta hirugarren pertsonetarako balio du. Hots: alde honetatik "nor" marka perpauseko **gu**, **zu**, **zuek**, **haiek** sintagmei dagokiena bada, plural marka agertuko da:

- (35) **gu gatoZ** (cf. **ni nator**)
 zu ikusi zaITut (cf. **hi ikusi haut**)
 zu zabilTZA (cf. **hi habil**)
 liburuak daramaTZAt (cf. **liburuak daramat**)

Adizki askotan, bestalde, **Z** bat ere agerruko zaigu **-TE** eta **-KE** modu marken aurretik, **IT** pluralgilea indartzeko edo: **egingo luke/egingo lituzke** (eta ez ***egingo lituke**); **ikusi zaitu** baina **ikusi zaituzte**.

B) (T)E, DE

Hirugarren pertsonan singularra eta plurala bereizteko **-(T)E** pluralgilea erabiltzen dugu, hirugarren pertsona hori **NORK** eta **NORI** denean. Eta pluralgile bera agertzen zaigu **zu** eta **zuek** bereizi nahi ditugunean: eta hau bai "nor" denean, baita "nor-nori" denean ere:

- | | | | | |
|------|---------------------|---|----------------------|------------|
| (36) | esan dio | / | esan die | (dio+e) |
| | esan du | / | esan dute | |
| | ekarri dizut | / | ekarri dizuet | |
| | egin duzu | / | egin duzue | |
| | zabiltza | / | zabiltzate | |
| | zenuen | / | zenuten | |
| | dago | / | daude | (da+go+de) |

Gainera, "nork"-en marka eta pluralgilea elkarrengandik bereizirik egon daitezke "nork" marka lehen zutabearen doanean, adibidez:

- (37) **zuk esan Zenidan** / **zuek esan ZenidaTEN**

6.7.5. Pertsona marka hauen kokalekua

Pertsona marka hauek elkarren segidan joan ohi dira adizkiaren barnean, tartean aditz erroa eta beste zenbait tempus eta modu marka direlarik. Adibidez:

- (38) a. gatzokizu :
G a to z ki* zu
(gu) (erroa) (plu) (zuri)
- b. legokizuke :
l e go ki zu ke

(* -ki- hori, hemen, nori markaren aurrean ageri ohi den hizki bat dugu, eta ez pluralgilea).

Baina zer ordenatan agertuko dira pertsona marka horiek adizkiaren barnean? Hona hemen ordena hori:

1) NOR bakarrik bada adizkiak eraman behar duen pertsona marka, orduan adizkiaren hasieran joango da marka hori. Beraz, a)-ko forma izango dute pertsona markok. Adibidez:

- (39) Nator, Gabiltza, Naiz, Nadin, Zoazte...

2) NOR eta NORI markak agerrerazi nahi baditugu, orduan lehenbizi NOR-en markak joango dira eta NORI-renak, berriz, adizkiaren azken muturrean. Beraz, lehenbizi a) multzoko markak agertuko zaizkigu eta azkenik b) multzokoak, adizki gehienetan -KI- hizkiaren ondoren gainera:

- (40) Dago-ki-ZUE

3) NORK dutenetan ere problemarik ez dago: NORK azkenean kokatuko da eta NOR hasieran. Horixe izango da ordena NOR eta NORK bakarrik agertu behar badute adizkian:

- (41) a. N-arama-ZU (=ni zuk)
b. Z-akartza-GU (=zu guk)

Horiez gainera, NORI ere agertzen bada, adizkiaren erdian kokatuko dira "nori"-ri dagozkion formak. Hortaz, ordena honetan: NOR - NORI - NORK,

- (42) ekarri d-i-zki-GU-ZU (=haiek guri zuk)

Hala ere, iraganean eta alegiazkoan gauzak pixka bat alda daitezke. Izan ere, NORK dutenean (beraz, NOR- NORK eta NOR-NORI-NORK erakoetan) NOR hirugarren pertsonakoa bada --eta NORI dutenetan horrela izanen da eskuarki--, orduan adizkiaren hasieran joango dira NORK-en markak eta, horrenbestaz a) multzoik hartuko dira NORK-en marka horiek:

- (43) a. **G-eneraman, baGenerama, e.a.**
 (nahiz eta **daramaGU** izan orainean)
 b. **N-ekarren, Nekarke, e.a.**
 (nahiz eta **dakarT** izan orainean)

Hortaz, pertsona markak honako hauek ditugu, kontuan hartu gabe NOR-i dagozkion pluralgileak:

	1.zutabea (nor-nork)	2.zutabea (nori)	3.zutabea (nork)
<i>ni</i>	N-	-T (edo -DA)**	-T(-DA-)
<i>hi</i>	H-	-K/-N (edo -A/-NA-)	-K /-N
<i>hura</i>	-	O	-Ø
<i>gu</i>	G-	GU	-GU
<i>zu</i>	Z-	ZU	-ZU
<i>zuek</i>	Z-... te*	ZUE (=zu+e)	-ZUE(=zu+e)
<i>haiak</i>	-	E(=O+(t)e)	-te(=Ø+te)

*: te hori, jakina, pluralgilea da, **zu/zuek** bereizketa errespetatzeko ezarria.

** : DA izango dugu adizkiak atzizki bat daramanean (**diDAzu/diT**; zerbait esan dit/esan diDAna)

7. ADIZKI JOKATUAK: A.TRINKOAK

7. ADIZKI JOKATUAK: A.TRINKOAK

Orain arte adizki perifrastikoez aritu gara, horiexek baitira, hain zuzen ere, maizenik agertzen zaizkigunak eguneroko hizketan. Hasieran egin den bereizketa dela eta, adizki trinkoak ditugu hitz batean biltzen diren aditzak: **doa**, **dakargu**, **nentorke**, e.a. Hauen pareko adizki perifrastikoez, ordea, bi hitz edo gehiago erakusten digute: **joaten da**, **ekartzen dugu**, **etorriko nintzateke**, e.a.

Ez dugu hemen gauza berri gehiegirik esanen, adizki trinkoetan ere adizki perifrastikoetan ageritzen zaizkigun oposizio berberak aurkituko baititugu: **tempusa**, **modua** eta **pertsona**. Horietaz gain, **aspektua** ere bai.

Esan dezagun, hasteko, adizki trinkoen kopurua nahikoa mugatua dela: **egon**, **joan**, **etorri**, **ibili**, **jakin**, **eduki**, **ekarri**, **eraman**, **ihardun** eta beste bakar batzu ditugu ezagunenak eta erabilienak. Badira beste zenbait ere, literaturan eta, hizkera bizian baino ikusiagoak direnak: **atxeki**, **jarraiki**, **jario/jarin/jariatu**, **ezagutu**, **esan**, **erosi**, e.a. Nolanahi ere, xehetasun gehiago ikusi nahi izanez gero *Euskal Aditz Batua* delakoan aurkitzen ahal dira denak.

7.1. ASPEKTUA

Lehenago (ikus 4.2.) esan den bezala, adizki trinkoek ez dute aspektuaren marka ageririk, nahiz eta "puntuaritasuna" edo adierazten duten. Hortaz, bada, ez gara luzatuko puntu honetan lehen esanikakoak ez errepikatzeagatik lerro hauetan berriz ere.

Halaz guztiz, ohar bat egin behar dugu hemen: euskalki batzutan aditz trinkoen orainaldi edo iraganaldiko aspektu puntukaria adierazteko, forma trinkoaren ordez beste forma konposatu berezia erabiltzen dute askotan. Jokatu nahi den aditz trinkoaren aditz oinari '-ki' morfema erasten diote. Gero aditz horren iragangaiztasun edo iragankortasunaren arauera, **izan** edo ***edun** laguntzaileak jokatzen dira. Hauek adierazten dizkigute aditzaren tempusa eta pertsonak. Halere, ez dira aditz trinko guztiak horrela erabiltzen. Hona hemen erabiltzen diren horietako batzu:

- | | | | | | |
|-----|----|----------|----------------|---|-----------------|
| (1) | a. | Ibili: | ibilki naiz | / | ibilki nintzen |
| | b. | egon : | egoki naiz | / | egoki nintzen |
| | c. | joan: | joaki naiz | / | joaki nintzen |
| | d. | heldu: | helduki naiz | / | helduki nintzen |
| | e. | eraman: | eramaki dut | / | eramaki nuen |
| | f. | ekarri: | ekarki dut | / | ekarki nuen |
| | g. | erabili: | e(ra)bilki dut | / | e(ra)bilki nuen |

7.2. TEMPUSA

Adizki trinkoetan paratu ditugun marka berak aurkitzen dira hemen ere. Jakina denez, **izan** eta ***edun** aditz laguntzaileak aditz nagusi bezala ere erabiltzen ditugu:

- | | | |
|-----|----|---|
| (2) | a. | Jon etorri <i>da</i> (lag.) |
| | b. | Jonek ekarri <i>du</i> (lag.) |
| | c. | mutil hau Jon <i>da</i> (nag. = trinkoa) |
| | d. | mutil honek hamar urte <i>du</i> (nag. = trinkoa) |

Aditz hauen formak aldeztu aurretik ikusiak ditugunez, beste batzu erabiliko ditugu hemen oposizioa nola gauzatzen den argitzeko:

TEMPUSA

oraina		iragana		alegiatzkoa	
[+orain -iragan]		[-orain +iragan]		[-orain -iragan]	
DATOR	DAKAR	ZETORREN	ZEKARREN	-LETOR	-LEKAR

7.3. MODUA

Aipatu dugunez, **-KE** dugu modua markatzeko erabiltzen dugun morfema. Berriz ere, hauxe agertuko zaigu orain, ondoko kuadroan ikusten den bezala:

MODUA	TEMPUSA					
	oraina		iragana		alegiatzkoa	
[-ahal]	dator	dakar	zatorren	zekarren	-letor	-lekar
[+ahal]	datorke	dakarke	zatorkeen	zekarkeen	letorke	lekarke

Egia da **-ke** duten forma hauek modua markatzeko erabiltzen ditugula gaurko sisteman. Hortaz, **datorke** bezalako adizkiak *oraina* deitu zutabearen azpian sartzen ditugu. Nolanahi ere, historian zehar eta gure klasikoen testuetan horrelako adizkiek etorkizuna seinalatzen digute. Ikusten denez, adizki trinkoetan etorkizuna markatzeko morfema berezirik ez dugulako gertatzen da hori (perifrasietako marka <-KO> dela esan dugu, beste batzuen artean): **dator** dugu oraina eta **zatorren** iragana. Zein da, bada, etorkizuna? Kasu hauetan **datorke** erabili izan da historian berriki arte. Gaur egun, berriz, **etorriko da** bakarrik esaten dugu etorkizuna adierazteko, **datorke** modala markatzeko erabiltzen delarik.

7.4. PERTSONA

Jakina, azken oposizioa, aditz laguntzailean bezala, pertsonarena dugu eta hau ongi aski ikusten da oraina aztertzen baldin badugu adibide gisan:

(3)	nator	nakar
	hator	hakar
	dator	dakar
	gatoz	gakartza
	zatoz	zakartza
	zatozte	zakartzate
	datoz	dakartza

Ez ditugu berriz ere jarriko hemen lehendik ere ezagunak ditugun oharrak, adizki perifrastikoen kasuan esandakoak balio baitigu oraingoan ere. Hortaz, bada, hona hemen adizki trinkoen eskema osoa, pertsona kontuan hartu gabe eta **etorri** eta **ekarri** aditzak erabiliz:

ADIZKI TRINKOAK

ASP	MODUA	TEMPUSA					
markarik ez		[+orain -iragan]		[-orain +iragan]		[-orain -iragan]	
	-ahal	dator	dakar	zetorren	zekarren	-letor	-lekar
	+ahal	datorke	dakarke	zetorkeen	zekarkeen	letorke	lekarke

8. ZENBAIT ADITZ BEREZI

8. ZENBAIT ADITZ BEREZI

8.1. ARAZOA

Aditzean gertatzen diren oposizioak direla eta, aspektuarena aipatu dugun lehenik eta, esan denez, aspektu marka hau aditz nagusian agertzen da. Horrela, hiru forma hauek berezi ditugu:

- (1) a. <TU> : hartu du (burutua)
b. <TUKO> : hartuko du (etorkizuna)
c. <TZEN> : hartzen du (ez burutua)

Honekin batean esan dugu adizki trinkoetan ez dela aspektu markarik agertzen, baina puntu hau zertxobait zehaztu beharrea aurkitzen da. Alde batera utzirik baldintzazko esaldien kontua (ikus "Baldintzazko adizkiak", 12. kapituluan), aditz trinkoekin eta zenbait aditz "berezirekin" gertatzen dena ikusi nahi genuke hemen.

Hasteko, forma trinkoak dituztenen artean ez ditugu hiru forma, lau baizik:

- (2) a. etorri da
b. etorriko da
c. etortzen da
d. dator

Badirudi nolabaiteko erlazioa dagoela **etortzen da** eta **dator**-en artean, nahiz eta oposizio honen berri ematea ez den batera gauza erreza: antza denez, **dator** hori momentuzko zerbaiti lotzen diogun bitartean, **etortzen** forma ohiturari edo atxekitzen diogu. Hortaz, "puntuakaria" deituko dugu forma trinkoa. Adizki trinko guztietan, bada, "puntuakaria" ere izanen dugu eta "izan" aditza aditz trinko (eta, hortaz, nagusi) ere izan daitekeenez, honek ere lau formak izanen ditu:

- (3) a. izan da
b. izango da
c. izaten da
d. da

Nolanahi ere, arazo bat gertatzen zaigu orain hemen, zeren **da** adizkian ere aspektuaren edukia baldin badago (gauza bera **dator**, **dakar**, **dabil**, e.a.), zer esan **izango da** formaz? Bi aldiz al dago aspektua ezarria hor, "izango" adizkian alde baterik (etorkizuna) eta "da" adizkian bestetik (puntuakaria)? Bistan da

ezetz.

Aspektua aditz nagusian bakarrik dago. Hortaz, **hau irakaslea da** edo **hau irakaslea izanen da** diogunean, nola analizatu biak?:

(4) **irakaslea da** : aditz nagusia eta bakarra. Bertan dago aspektua.

(5) **irakaslea izanen da** : *izanen* dugu aditz nagusia. Bertan markatzen da aspektua, marka morfologiko baten bidez, **-en** kasu honetan. **Da**, berriz, ez da aditz nagusia eta, hortaz, ez da hor aspekturik ezartzen.

Jakina; guzti hau formari dagokionez, aditzaren erabilera konplikatua da baita. Hori dela eta, aspektuaren pisu semantikoa markatzeko beste hitz batzu erabil ditzakegu, honako adibide honetan ikus daitekeenez:

(6) **bihar kantatzen du Benito Lertxundik**

Azkeneko adibide honetan <**-tzen**> atzizkiak markatzen du aspektu formala (ez burutu, alegia), baina esanahiaren aldetik badakigu etorkizuna dela (*bihar*) eta interpretazio hori ematen diogu adizkiari. Guzti honetaz ikusi, zernahi gisaz, aditzaren erabilerari eskaini diogun atala.

Orain arte esandakoa aditz trinkoei dagokie. Zer egin, ordea, aditz trinko ez direnekin? Nola markatzen dugu **dator** eta **etortzen da** formen artean dagoen aspektu-oposizioa "josi" aditzaren kasuan, esaterako?:

(7)	etorri da	josi du
	etorriko da	josiko du
	etortzen da	josten du
	dator	?

Sarri askotan esan obi da "puntukaritasun" hori adierazteko "ari izan"en itzulia baliatzen dugula euskaldunok, honako hau izanen genukeelarik orduan parean:

Baina lehen bezala, ebentual modura ere uler daitezke, testuinguruaren arauera, bereziki ondorioko adizkiaren arauera:

- (10) a. aita *bazetorren*, zinera eramango gintuela esan zigun amak
 b. Donostian *banengoen* bisitatuko ninduela esan zidan

12.2.2. Baldintzazko adizki perifrastikoak

Oraingoan ere goragoko koadroak balio diezaguke, baina hemen, adizki trinkoetan ez bezala, aspektu markak edo marka eza kontuan hartu behar ditugu. Eta, gainera, aditz nagusiarekin batera aditz laguntzaile bereziak ere agertuko zaizkigunez, gauzak piska bat konplikatuxeagoak ditugu. Beraz, lehengo koadroa baino zertxobait konplikatua izango da oraingoa:

<i>etorri</i>	bada	bazen	balitz
<i>etortzen</i>			
<i>etorriko</i>			
	badadi	bazedin	baledi
<i>etor</i>	badaiteke	bazitekeen	baliteke

Oraingoan ere bi sail nagusi bereizten ahal dira: **ez-alegiak** (koadroko lehen bi zutabeetako adizkiak) eta **alegiak** (hirugarren zutabeko adizkiak). Bi sail hauek, hortaz, bereiz tratatu behar dira.

12.2.2.1. Ez-alegiak

12.2.2.1.1. bada sailekoak

a. <TU> + **bada/badu** (etorri bada, erosi badu, laguntza eman badiozu, ezagutu baduzu...)

- (11) a. *etorri bada, gogoak eman diolako izan da*
b. *erosi badugu, zerbaitengatik erosi dugu*
c. *laguntza eman badiozu, zergatik ez dizkizu eskerrak eman?*

Hemen, bistan da, aditz nagusiak aspektu burutuaren marka darama. Aditz laguntzailea, berriz, **izan** edo ***edun**-en oraina dugu. Beraz, alde horretatik **etorri da, erosi dugu** edo **laguntza eman diozu** esatean ematen den informazio bera dugu funtsean. Diferentzia bakarra, baldintzapean jarrita egotea da. Dena dela, hauetan ere, hiztunak baldintzapean doan baieztapena egiazkotzat jotzen duela dirudi: (11)an suposatzen da etorri dela, erosi dugula, lagundu diozula. Horregatik, hauek ere baldintza *errealak* ditugula esan beharko dugu. Baina hori ez da beti horrela izaten. Adibidez, oraingo hauetan, baldintzazko adizki berak izan arren, ez dugu (11)an genuen egia presuposiziorik:

- (12) a. *etorri bada, ikusiko dugu*
b. *erosi badu ordainduko du*
c. *lagundu badiozu saria izango duzu*

Badirudi auzia baldintzaren ondorioan dagoela. Alegia, perpaus nagusiaren formak bultzatzen gaituela oraingoan baldintzaren egia ez presuposatzeraz: (12)ko perpausetan hiztunak ez du suposatzen etorri dela, ez eta ere erosi duela edo lagundu diozula. Beraz, (11) eta (12)en arteko diferentzia inon bilatzekotan, baldintzaren ondorioan bilatu beharko da.

Leizarragaren ondorengo adibidea ere azken sail honetakoa dela dirudi:

- (13) "Baldin hire anaiek hire kontra *faltatu badu*, oha eta reprehendi ezak hire eta haren beraren artean" (Leizarraga, *Jesus Christ...*, Mt. 18,15)

b. <TZEN> + **bada/badu** (etortzen bada, erosten badiozu, ezagutzen baduzu,...)

(14) **Arratsaldero zugana etortzen banaiz, ez naiz diru bila etortzen, zu ikustearren baizik.**

Hemen baldintza *erreal* baten aurrean gaude: egiazki etortzen naizela suposatzen da. Baina gorago gertatzen zen bezala, eta beti ere baldintzaren ondoriooko adizkiaren arauera, baldintza gertagarri edo ebentual gisa ere ulertzen ahal dira adizki berberok:

- (15) a. **Horra joaten banaiz, konturatuko zara nor naizen**
b. "Baldin eure oblationea eramaiten baduk aldarera, eta han orhoit behadi ezen hire anaieak baduela zerbait hire kontra, utzi ezak han eure oblatione aldare aitzinean..." (Leizarraga, *Jesus Christ...*, Mt. 5, 23-24)
c. "Baldin (...) ordainaren bihurtzera enseiatzen ezpanaiz, edo neror agur egitera aitzintzen banaiz, erranen dute eztheus bat naizela" (Axular, *Gero*, 197)

c. <TUKO> + bada/badu (etorriko bada, erosiko badu, laguntza emango badiozu, ezagutuko baduzu,...)

- (16) a. **auto bat jarri beharko diozu, etorriko bada**
b. **langile hobeak beharko dituzte lan hori garaiz amaituko badute**

Horrelako adizkien erabilera aurrekoena baino askoz mugatuagoa da eta, gainera, hauetan halako obligazio edo premia kutsua nabaria izan ohi da. Honako adibide honetan bezala:

- c. "Emongo bozu, emoizu" (Bizkaiko eske-kanta)

Honen ordez, badirudi behar erabil dezakegula:

- c'. eman behar baduzu, emaizu

12.2.2.1.2. **Bazen** sailekoak

Hauek, jakina, aurrekoen parekoak ditugu guztiz, baina oraingoan iraganari gagozkiola:

- (17) a. *etorri bazen*, oso gaizki egin zuen
b. *norbait ikusten bazuen*, berehala agurtzen zuen
c. *jostailu bat eman behar izan genion haurrari isilduko bazen*

Ohar bat egin behar da, dena den, **etorri bazen** bezalako adizki hauen erabilerari buruz. Izan ere, (17 a)-ren tankerako erabilera jatorraren ondoan bada beste erabilera bat ere oso zabaldua herri hizkeran, euskaldun askok **etorri (izan) balitz** bezalako forma alegiazko eta iraganari dagozkien ordez erabiltzen baitiruzte **etorri bazen**-en saileko adizkiak:

- (18) a. *etorri bazen agurtuko nuen*

Honen ordez, beste honek zuzenago dirudi:

- b. *etorri (izan) balitz*, agurtuko nukeen

12.2.2.1.3. **badadi/badeza** sailekoak

Hauek, aditz laguntzailea duten bezalakoak dutelako (***edin**, ***ezan**) aditz oin soilari, hots, aspektu marka gabeari, eransten zaizkio:

- (19) a. *eros badeza ordainduko du*
b. *joan banadi*, ikusiko nauzu
c. "Baldin gizon batek ehun ardi baditu, eta hetarik bat *errebela badadi*, ez ditu laurogei eta hemeretziak utzitzen?" (Leizarraga, *Jesus Christ...*, Mt. 12,13)

Horrelakoak baldintza gertagarriak edo ebentualak ditugu beti, gerta daitekeen zerbaitez mintzo zaizkigu eta, horregatik, baldintzaren ondorioa sarritan geroaldian eta agintekeran joan ohi da.

Adizki hauen ordez, gaurko euskaldunik gehienek **etortzen bada** saileko adizkiak erabiltzen dituzte:

- (20) a. *erosten badu, ordainduko du* (=eros badeza,...)
 b. *joaten banaiz, ikusiko nauzu* (=joan banadi,...)

Hain zuzen, gorago jasotako adibide batean (ikus 15 b) bi adizki desberdin agertzen zaizkigu, nahiz eta biek gertagarri balioa dutela diruditen: **eramaiten baduk** eta **orhoit bahadi**.

Ondoko adibide hauek erakusten digutenez, denborazko perpaus txertatuetan ere ordezkatzeko berbera gertatzen da:

- (21) *etortzen denean, dirua ematen digu*

Perpaus hau guztiz erreala litzateke, egiazki gerratutzat ematen baitu hori dioenak. Hemen, jakina, **dadi** aditz laguntzailearen formendako lekurik ez da. Hauek gertagarri edo ebentual direnetan dute beren lekua eta horrenbestez, (21) perpausari (22) ez dagokion arren, (23)ko bi perpausak zilegi ditugu:

- (22) **etor dadinean, dirua ematen digu*

- (23) a. *etortzen denean, dirua emango digu*
 b. *etor dadinean, dirua emango digu*

12.2.2.1.4. **bazedin/bazezan** sailekoak

Sail honetako adizkiak (**bazedin/bazezan**) ez dirudi sarriegi erabiltzen direnik ez eta ere beren erabileraren lekukotasun ugariegirik aurkituko dugunik geure literaturan. Hala ere, "consecutio temporum" delakoa medio, iraganeko aditz baten mende doazenean aurki genitzake. Alegia, orainean **banadi** sailekoak ditugun lekuan:

- (24) a. *aitak esan du joan badadi agurtuko duela*

perpaus hau iraganean jarri beharra izanez gero, behar bada, honela izango litzateke:

- b. *aitak esan zuen joan bazedin agurtuko zuela*

Dena dela, bitxi samarrak dirudite horrelako esapideek, posibleak diruditen arren. Adibidez, Ithurryk bere gramatikan Axularren honako adibide hau besterik ez dakar. Zerbait da:

- c. "Ordenatu zuen Solonek bere legetan baldin herriko kargudun bati *gerta bazezion* sobera edatera (...) edeki zekiola berehala bere

kargua" (Axular, *Gero*, 264 par.)

Hala eta guztiz ere, **joan badadi** bezalako adizkiak nahikoa baztertuak ditugunez, eta beren ordeztan **bada** bezalakoak erabiltzen ditugunez nagusiki, bidezkoa da pentsatzea iraganean ere joera hori areago bihurtu daitekeela. Beraz, (24a) eta (24b) perpausen ordeztan, (25a) eta (25b) aurkituko ditugu:

- (25) a. **aitak esan du joaten bada** agurtuko duela
b. **aitak esan zuen joaten bazen** agurtuko zuela

Eta modu berean (24c) perpausaren ordeztan gaurko euskaldunik gehienek honelatsu esango lukete:

- c. **ordenatu zuen Solonek bere legeetan baldin herriko kargudun bati gertatzen bazitzaion sobera edatea (...)** edeki (edo ken) zekiola bere kargua

12.2.2.1.4. badaiteke/badezake sailekoak

Hemen ahalezko adizki bat jartzen da baldintza forman:

- (26) a. **etor badaiteke**, datorrela berehala!
b. **zuk esan duzu ordain dezakezula**. Beraz, *ordain badezakezu*, ordain ezazu.

Orohar, honela parafrasea litezke era honetako baldintzazko perpausok:

- (27) a. **egia bada etor daitekeela**, datorrela berehala!
b. **egia bada ordain dezakezula**, ordain ezazu

Hala ere, horrelakoetan, **ba** eta **-ke**-ren arteko elkargaiztasuna dela medio, **badaiteke** bezalako laguntzailearen ordeztan **badadi** soila ere ager daiteke. Baina orduan **ahal** eta **ezin**-en laguntza behar duela dirudi. Hona hemen adibide bat:

- (28) "Baldin erria egin cofesa badadi, zer egin behar du?" (Lavieuville, *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima*, 235.orr.)

Dena den:

ecin cofesa badadi = ezin konfesa badaiteke

12.2.2.1.5. **bazitekeen/bazezakeen** sailekoak

Hauk aurreko atalekoak bezalakoxeak ditugu baina orainaldian barik, iraganean:

(29) a. etor bazitekeen, zergatik ez zen etorri?

(alegia, egia bada etor zitekeela, edo etor zitekeela esan badu, zergatik ez zen etorri?). Hots: hauk ere baldintza *erreal* deitu sailekoak izango lirateke.

b. ordain bazezakeen, ordaintzeko eskatu genion

12.2.2.1.6. **baliteke/balezake** sailekoak

Ahalezkoen sailean alegiazko formak ere badirenez gero (**lezake, liteke,...**) **balezake** eta **baliteke** baldintzazko adizkiak ere agertuko zaizkigu. **Etor daiteke** eta **etor liteke** formen artean dagokeen desberdintasuna argi dagoen neurrian --eta euskaldun askorentzat ez da horrela gertatzen-- **etor badaiteke** eta **etor baliteke**-ren artean ere diferentzia bera izango dugula dirudi. Hortaz

(30) etor baliteke, etorriko da

Hemen, gutxi gora behera, honako hau suposatu behar da: egia bada etor litekeela, etorriko da (eta ez, etorriko litzateke, ez bait gaude, berez, alegiazko munduan).

Nolanahi ere, desberdintasuna, desberdintasunik baden neurrian, nekez somatzen da eta, horrenbestez, nekez egin daiteke. Hala ere, perpaus kontzesiboetan (**ba-...ere** gisakoetan alegia), errazago aurkituko dugu horrelako adibiderik:

(31) etor baliteke ere, ez dut uste etorriko denik

(Alegia, nahiz eta etor litekeen (zerbait gertatuz gero), ez dut uste etorriko denik).

12.2.2.2. Alegiazkoak

Hau da baldintzazko aditzen bigarren sail nagusia. Formari gagozkiola, hemen ere beste bi sail berezi behar ditugu: aspektu marka eta guztiko aditz nagusia duten adizkiak (etorriko **banintz** bezalakoak) eta, aditz oin soila dugunean laguntzailearekin (etor **baledi** bezalakoak).

12.2.2.2.1. <TU>, <TZEN>, <TUKO> + izan/*edun

Aditzak aspektu marka badarama (<TU>, <TZEN> edo <TUKO>) badakigu izan edo *edun izango dugula laguntzailea. Beraz:

etorri/etortzen/etorriko + balitz
erosi/erosten/erosiko + balu

Dena den, hemen ere bi azpisail berezi behar ditugu. Alegia, bereizketa ez da hirukoitza izango, goiko koadroak aditzera eman lezakeenez, bikoitza baizik.

12.2.2.2.1.1. Aspektu marka burutua (<TU>) + balitz/balu

Etorri **balitz**, erosi **balu** gisakoak *iraganaldiko baldintza irrealak* osatzeko erabiltzen ditugu. Eta *irrealak* deitzen dira gerta zitekeen baina gertatu ez den baldintza bat aditzera ematen baitute:

- (32) a. **garaiz etorri (izan) balitz, harrapatuko zuen tren**
b. **autoa erosi (izan) balu, ikaragarritzko astakeria egingo zuen**
c. "Baldin *egin balitz* euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats (...) izanen zen euskara ere" (Axular, *Gero*, 10. par.)

Hauetan, aspektu marka burutuaz baliatzen gara, **izan**-en laguntza ere zilegi delarik, iraganaldiaz mintzatzeko. Hortaz, aspektu marka horrek aspektua baino gehiago iraganaldia markatzen duela dirudi.

Forma hauen erabilerari dagokion bezainbatean, euskalki guztiak bat datoz. (Gogoan izan, halaz ere, gorago (ikus 2.2.1.2.) egindako oharra, **etorri bazen etorri balitz**-en ordez erabiltzeari buruz).

Beste gauza bat da iraganaldiko baldintza irreal hauei dagokien apodosiak edo ondorioak zein izan behar duen erabakitzea: **harrapatuko zuen** (eta eskuarki, **-tuko zuen/zen** tankerako adizkia) izango litzateke gaur hedatuena, baina **harrapatuko zukeen** ere gure literaturan aski hedatua da. Bi hauek izango lirateke, dirudienez, forma posible guztien (**hartu luke, hartu zukeen, ...**) artean egiazki erabiltzen direnak.

12.2.2.2.1.2. <TZEN>/<TUKO> + balitz/balu

Adizki hauen morfologiari begiratzen badiogu, argi dago aspektu marka desberdintasuna erakusten dutela: **erosten vs. erosiko**. Hots: biak ez-burutuak izaki, bata ez-gertakizuna edo litzateke (<TZEN>), eta bestea, berriz, gertakizuna (<TUKO>).

Hala ere, baldintzazko adizki hauetan ez da kontuan hartzen aspektu desberdintasun hau. Kontuan hartzen dena, dirudienez, batez ere denbora bereizkuntza da. Horregatik, bereizketa hirutan egin beharrean (**erosten/erosiko/erosi + balu**), bitan egiten da, **erosten balu** eta **erosiko balu**-ren artean teoriaz legokeen diferentzia deuseztatzen delarik. Hortaz, aurkakotasuna bikoitza dugu oraingoan:

erosi balu vs. **erosten/erosiko balu**

Lehenbizikoa, esana dugun bezala, iraganaldia markatzeko erabiltzen da (eta kasu honetan iraganaldia da esate unetik atzera gertatzen den guztia) eta besteak gainerakoetan, hots: nahiz esate uneari buruz ari, nahiz geroagoko zerbaitez, iraganaldia ez dena alegia).

Gauzak horrela, ez da harritzeko eskuineko forma horiek, morfologi desberdintasunak balio semantikorik ez duenez, euskalkien arauera banatu badira. Horrela:

	<i>iraganaldian</i>	<i>orainaldian eta etork.</i>
<i>mendebalean</i>	erosi balu	erosiko balu
<i>ekialdean</i>	erosi balu	erosten balu

Esandakoaren arauera, bada, Mendebalean hauxe dugu:

- (33) a. etorriko balitz, poztuko ginateke
 b. erosiko bagenu, esango ginizuke

Eta ekialdean, berriz,

- (34) a. etxea erosten bagenu, ordain genezake
b. burua erakusten balu, ikus nezake

Ohart gaitzen, bidenabar, apodosian ekialdeko gaurko euskaldunek **poztuko ginateke** bezalako formak ***edin/*ezan** erroko formez ordezkatzan dituztela: **alegera gintezke** (**poztuko ginateke**-ren ordez); **joan nintezke** (**joango nintzateke**-ren ordez); **erran nezake** (**esango nuke**-ren ordez).

12.2.2.2.2. etor baledi/eros baleza sailekoak

Hauk morfologiaz nola osatuak dauden begien bistan dago. Balioari dagokionez, hauk ere alegiazkoak direla esan behar. Ahalezko baldintzak direla ere esan ohi da. Dena den, ez dirudi oso garbi dagoenik zein izan daitekeen aurreko saileko adizkien eta honako hauen arteko diferentzia, diferentziaz baldin bada. Adibidez, honako aipamen honek forma bien artean diferentzia handiegirik ez dela erakusten duela dirudi:

- (35) "Atsegin handia ere ginuke, gu baino argituago batek berriz *has baleza* lanito hau, eta eskuararen onetan guk baino hobeki *bururatzen balu*" (P. Lafitte, *Euskaldunen loretegia*, 6.orr.)

Alde batera utzirik aipatu diferentzia hori badenentz, hona hemen sail honetako adibide zenbait:

- (36) a. "Baldin orduan hil bazindezi, ifernura zindoazke" (Axular, *Gero*, 349. par.)
b. "Baldin galdegin baliazote orai Judasi, (...) ihardets lezake..." (Axular, *Gero*, 387. par.)
c. "Baldin utz bazeneza harri handi bat eskuetarik, norat othe lihoake, goiti ala beheiti?" (Axular, *Gero*, 73. par.)

Perpaus guzti hauak beste era honetara emanen lituzke gaurko euskaldun askok:

- (37) a. baldin orduan hilko bazina...
b. baldin galdegingo baliote Judasi...
c. baldin utziko bagenu harri handi bat eskuetarik...

Dena den, hemen argiago ikusten ahal da ekialdeko euskaldunek alegiazko apodosietan ahalezko formak erabiltzeko joera:

- (38) "Hobeki zeneidike, eta segurkiago ioka zindezke, baldin gero, bertzeren eskuz egin gogo duzuna, orai zeurez (...) egin bazeneza" (Axular, *Gero*, 158. par.)

Ioka zindezke eta egin bazeneza biak elkarren parean gertatzen zaizkigu: biak ***edin**/***ezan** erroko laguntzaileak ditugu. Beste hauetan, berriz, parekotasun berbera gertatzen da baina **izan**/**edun** laguntzaileak ditugularik jokoan:

- (39) **hobekiago jokatuko zinateke, egin gogo duzuna egingo bazenu** (ikusten denez, kasu honetan, **jokatuko zinateke / egingo bazenu**)

Dena dela, nolabait laburbiltzeko edo, esan behar da forma hauetariko asko ez direla gaurko euskara mintzatuan maizegi erabiltzen. Hori da, adibidez, **badadi**-ren tankerako adizkien kasua. Eta beste askorentzat, **baledi**-ren kasua ere bai. Horrenbestez, bi sail nagusi bereizten dira baldintzazko adizkietan:

1) *Alegiazko adizkiak*

Iraganaldirako

etorri balitz
erosi balu

orain eta geroaldirako

etortzen balitz (ekialdean)
etorriko balitz (mendebalean)

erosten balu (ekialdean)
erosiko balu (mendebalean)

etor baledi
eros baleza

2) *Ez-alegiako adizkiak*

etorri/etortzen/etorriko + banaiz/banintzen

erosi/erosten/erosiko + badu/bazuen

etor *banadi*

eros *badeza*

Hemen sartuko dira, baita, ahalezkoen gainean osatzen diren baldintzazkoak ere:

etor + badaiteke/bazitekeen/baliteke

eros + badezake/bazezakeen/balezake

13. ALOKUTIBOA

13. ALOKUTIBOA

NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezcin sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik.

Har ditzagun kontutan, adibidez, honako bi perpaus hauek eta azter ditzagun dituzten aditz formak:

- (1) a. Gizon bat **ETORRI DA** Andoniren bila
- b. Gizon bat **ETORRI DUK** Andoniren bila

Etorri da aditzak perpauseko nor sintagmarekin (**gizon bat** sintagmarekin, alegia) du komunztadura. Bestalde, adizki horrek esaten digu esaldi hori dioenak (a) dioenak, alegia) ez duela kontuan hartzen elkarrizketa laguna, ez duela kontuan hartzen nori mintzo zaion: **gizona etorri dela** besterik ez digu esaten.

Baina (b) dioenak **Etorri duk** esatean (a) dioenak baino zertxobait gehiago esaten du. Aditz honek ere perpauseko nor sintagmarekin komunztadura du, baina horrezaz gainera, (a)-ko aditzak ematen ez digun beste informazio bat ere eskaintzen digu: **Etorri duk** dioenak **Etorri da** esaten du --beraz, (a)-ko informazioa ere ematen digu-- baina baita hiztunak gogoan hartzen duela ere hizketa laguna. Hortaz:

ETORRI DUK = ETORRI DA+hirekin ari nauk

Kasu hauetan, -K horri esker, badakigu hiztunak aurrean duena gizona **dela**. Emakumezkoa balitz, -N marka agertuko litzateke: **Etorri dun**.

Etorri duk eta **Etorri dun** bezalako formak forma alokutiboak dira. Forma alokutiboek bigarren pertsonari (solaskideari, alegia) dagozkion marka batzu (-K/-A-; -N/-NA-) hartzen dituzte perpauseko izen sintagmek ezartzen dizkieten komunztadura markez gainera.

13.1. HIKA, ZUKA ETA XUKA

Gorago aipatu diren adibideak hikako alokutiboak ditugu. Alegia, hiztunak bigarren pertsona **hi**-ka tratatzen du, ez **zu**-ka. Horregatik, tratamendu berezi honen ondorioz, aditz multzoan **hi**-ri dagokion markak agertuko zaizkigu (-K edo -N, funtsean). Baina ekialdeko euskalkietan, bigarren pertsona **zu**-ka tratatzen denean, zukako tratamendu honek islada izan dezake aditz multzoan alokutibo modura. Hots, perpausean ager daitezkeen "nor", "nori" eta "nork" sintagmez gainera **zu**-ri dagokion marka ere ager daiteke adizkian, orduan **zu**-kako alokutiboa dugularik:

(2) **etorri duzu = etorri da+zurekin mintzo**

Horrenbestez, zukako alokutibo bat ere bada euskaraz ekialdeko euskalkietan. Alokutibo hau, bistan da, hikako alokutiboaren guztiz parekoa dugu:

(3) **etorri duk/dun = etorri da+hirekin mintzo**

Horrezaz gainera, baxenafarreraz, **zu** alokutiboari balio afektibo berezia emanaz **xu** forma eman zaio. Hau **xukako** alokutiboa izango litzateke.

Hortaz:

- | | | | |
|-----|----|-----------------------|------------------|
| (4) | a. | Gizona JOAN DA | (ez alokutiboa) |
| | b. | Gizona JOAN DUK/DUN | (bai alokutiboa) |
| | c. | Gizona JOAN DUZU/DÜZÜ | (bai alokutiboa) |
| | d. | Gizona JOAN DUXU | (bai alokutiboa) |

Dena dela, euskaldunak oinartziko bi errejistro ditu eskura:

A.- Errejistro neutroa edo eztabadakoa honako forma hauez baliatzen da:

- (5) a. zu joan zara
b. gizona joan da

B.- Lagunarteko errejistroa deituko dugu beste aditz hauen modukoez baliatzen dena:

- (6) a. **hi izan haiz**
b. **Joxe izan duk/n**

B errejistro honi lagunarteko errejistroa deitzen diogu, lagunartean, famili giroan, erabiltzen delako. A errejistroaren erabilera-balioa, berriz, nahiz eta neutroa izan, euskalki batetik bestera aldatu egiten da: mendebalean, errejistro neutroa da eta euskaldun askorentzat errejistro bakarra, gainera. Baina ekialdean errespetuzkoa eta urruntasuna sortarazten duena da.

Ohart gaitzen, forma alokutiboak direla eta, bi errejistro hauek dituzten euskaldunentzat, solaskidea **zu**-ka tratatu edo **hi**-ka tratatu, ondorio desberdinak sortzen direla. Alegia, **hi etorri haiz** esaten badugu, beraz solaskideari **hi** deituz, horrek, nahitaez **hikako** forma alokutiboak erabiltzera behartzen gaitu: **hura etorri duk/dun**. Baina horrelakorik ez da gertatzen solaskideari **zu** deitzen badiogu. Orduan, forma alokutiborik ez da erabiliko, eztabadako forma baizik. Beraz, **zu etorri zara** eta **hura etorri da**.

13.2. HIRU ERREJISTROKO SISTEMA

Oinarrizko errejistroak gorago aipatu diren biak badira ere, ekialdeko euskalkietan, zukako forma alokutiboak ere badira. Hauetan, hitanozko formatako -K/-N horiez beste, -ZU marka agertuko da. Honek errejistroen balioa aldarazi du, errejistro neutroari urruntasun balioa emanez. Gainera, forma neutro hori baztertzea ekarri du xubererazko zenbait hizkeratan. Beraz:

- (7) joan da / joan duk/n / joan duzu (düzü)

Mendebalean, berriz, gaztelaniaren eraginez edo, errespetuzko beste errejistro bat ere bada hizketa lagunari BERORI esaten zaionean. Hemen, hala ere, forma alokutiborik ez dugu, baina bigarren pertsonari "berori" (edo "eurok", pluralez) tratamendua ematen zaionean, bigarten pertsona hau "nor", "nori" edo "nork" bada, aditzak, komunztadurari dagokion bezainbatean, hirugarren pertsona balitz bezala hartzen du:

- (8) a. **HI berandu etorri haiz**
b. **ZU berandu etorri zara**
c. **BERORI berandu etorri da**

Baina, esan dugun bezala, hitanoaren eta zukakoaren parekorik ez du "berorikako" tratamendu honek:

- (9) a. Gizon hori berandu joan DA
 Gizon hori berandu joan DUK/DUN
 b. Gizon hori berandu joan DA
 Gizon hori berandu joan DUZU (DÜZÜ)
 c. Gizon hori berandu joan DA
-

Forma desberdin hauek ez dira euskalki guztietan erabiltzen. Eta esan behar da, baita ere, ez dela euskalkirik forma guztiez baliatzen denik. Bestalde, forma hauen balio pragmatikoa (hots: zer egoeratan erabiltzen diren) aldatu egiten da euskalki batetik bestera, errejistro bakoitzak balio desberdina hartzen duelarik. Hona hemen, Rebuschi 1984-ren arauera (cf. Rebuschi 1984, 531 orr.) koadroa nolatsu geldituko litzatekeen, forma hauen balioari dagokionez:

	<i>2.perts.IZAN</i>	<i>3.perts.IZAN</i>	<i>Lap.</i>	<i>B-G</i>	<i>BN</i>	<i>Xub</i>
tokanoka	"hi haiz"	"hura duk/dun"	Lagrt	Lagrt	Lagrt	Lagrt
		"hura duzu(düzü)"	-	-	Kortes.	Kortes.
zuka/xuka eztabadaka	"zu zara" "zu zar a"	"hura da"	Kortes	Kort	Urrunt.	-
beronika	"berori da"	"hura da"	-	Erresp	-	-

13.3. PARE BAT OHAR GEHIAGO

1.- Euskaldun asko dira errejistro bakarraz baliatzen direnak. Hauek forma eztabadakoak erabiliko dituzte, hots, bigarren pertsonarako ZU tratamendua erabiltzen dute eta forma alokutiborik ez. Hauek dira, hain zuzen, Euskaltzaindiak batasunaren izenean proposaturiko eta gure lan honetan ere jasotzen ditugunak. Hauetan forma alokutiborik ez da: aditzean agertzen diren pertsona marka bakarrak perpauseko "nor", "nori" eta "nork" sintagmekin loturik daude. Eta perpauseko sintagma hauei dagozkien markez gainera, ez da besterik azaltzen aditzean.

Hala ere, gure paradigmetan bigarren pertsona singularra aipatzean, **hi** sartu dugu eta, horrenbestez, **hi** hau "nor" "nori" eta "nork" denean, dagokion marka azalduko zaigu aditzean. **Zu**-ri gagozkiola ere gauza bera esan genezake. Baina, gorago aipatu dugun simetria eza dela medio, hizketa laguna **hika** tratatu edo **zuka** tratatu, aditzaren erabilerari begira, ondorio desberdinak ditugu: izan ere, behin **hika** hasten bagara, alegia hizketa laguna **hi** bada, lagunarteko errejistroaz baliatu beharra dago. **Zu**-ka tratatzeak, berriz, errejistro neutroari bide ematen dio. Hortaz,

(10) ***Hi etorri haiz, baina besteak ez dira etorri**

ez legoke zuzen, **hi** hautatu ondoren, beraz lagunarteko errejistroan hasi ondoren, ez delako zilegi errejistroz aldatzea. Honela behar genuke:

(11) **hi etorri haiz, baina besteak ez dituk/n etorri**

Edo, bestela, errejistro neutroaz baliatuz:

(12) **zu etorri zara, baina besteak ez dira etorri**

Beraz, lagunarteko errejistroa ezagutzen ez dutenek aditz paradigmetan bigarren pertsona singularerako ez dute **hi** hautatuko, **zu** baizik.

2.- Bigarren oharra forma alokutiboen erabilerak dituen baldintzapen sintaktikoei dagokie.

Esana dugu lehenago aditzak jadanik bigarren pertsonako markarik baldin badu ("nor", "nori" nahiz "nork" sintagmei dagokiena) forma alokutiborik ez dugula izango. Beraz, alferrik hasiko gara **egin duzue** bezalako aditz forma bati dagokion alokutiboa zein den galdezka. **Egin duk** edo **egin dun**-en kasuan ere beste horrenbeste.

Baina badira, izan, testuinguru sintaktikoak ezartzen dizkigun debekuak ere. Adibidez, badirudi erabilera jatorrenari jarraituz behintzat, perpaus txertatuetan ez dela forma alokutiborik agertzen ahal. Beraz:

(13) ***Ez zioat esan Andoni etorri du(k)ala**

ez litzateke zuzena, aditz alokutiboa (**etorri duk**) perpaus txertatu batean dagoelako.

Baina zuzen legoke beste hau:

(14) Ez zioat esan Andoni etorri dela

Arrazoin beragatik, subjuntibo deitu formetan (**dadin, dadila, dezan, dezala**), subjuntiboak subordinazioan bakarrik erabiltzen direnez, ez zaigu alokutiborik agertuko. Etxepareren eta Leizarragaren hizkeran bai, noski, haientzat **etor zedin gure etorri zen** baitzen, eta ez subjuntiboa).

Beste zenbait perpaus motatan ere ez dirudi alokutiboa agertzea zilegi denik. Joera nagusi bezala behintzat ez. Hori da galderazko perpausetan gertatzen dena, eta, baita harridurazkoetan eta hirugarren pertsonako agintckeran (**bego, joan bedi** eta antzekoetan, alegia), e.a. Iduri luke, forma alokutiboa zuzenean baieztatua edo enuntziatua denerako gordetzen dela. Baieztapen soilá izatetik urmtzen garenean alokutiboaren erabilerak debekuak aurkitzen dituela dirudi.

13.4. ADIZKI ALOKUTIBOEN FORMEZ

Forma alokutiboak "nor", "nori" eta "nork" pertsona markez gainera beste laugarren marka bat ezarri zaienak ditugu. Horrenbestez, pertsona markak aditz laguntzailean nahiz adizki trinkoetan ageri ohi zaizkigunez, horietan agertuko zaizkigu forma alokutiboak.

Baina nola daude osatuak adizki alokutibo horiek? Euskaltzaindiak ez ditu oraindik aditz alokutiboaren batasunerako formak eskaini. Guk ere, hortaz, ezin dugu inolako paradigmarik eskaini. Are gutiago, formok gehienbat ahozko hizkeran bai, baina ez hainbeste literatura idatzian, direlako erabiliak eta, horrenbestez, herri batenik bestera alde handi xamarrek gertatzen direlako. Dena den, zenbait ohar egiteari bidezko deritzagu.

Lehen zutabea jarriko ditugun adibideak eztabadako errejistroari dagozkionak izango dira. Bigarrenean, berriz, alokutiboak (hitanoa, bereziki). Eta hauetatik piska bat berezirik, lagunarteko errejistroan agertuko diren bigarren pertsonako ("nor", "nori" edo "nork" bigarren pertsonako alegia) forma ez alokutiboak. Adizki hauen morfologiak aski argi erakutsiko digu nondik nora joan daitezkeen batasuneranzko proposamenak.

1.- **NOR aditzak**
Izan

<i>Estabedako erreg.</i>	<i>Erreg. markatua</i>	
ni naiz		ni nauk/-n
--	hi haiz	--
hura da		hura duk/-n
gu gara		gu gaituk/-n
zu zara	--	
zuek zarete	zuek zarete	
haiek dira		haiek dituk/-n

Hortaz, **nor-nork** paradigmaz baliatzen gara, "nork" **hi** delarik. Ondoren ikusiko denez aditz trinkoetan marka bat (-K edo -N) eranstean diogu:

egon

I		II
nago		niagok/n
--	hago	
dago		disgok/n (jagok/n; zegok/n) giaudek/n
gaude		--
zaude	--	
zaudete	zaudete	
daude		diaudek/n ziaudek/n

etorri

nator		nialorrek/n
-	hator	-
dator		ziorrek/n
gatoz		gialozek/n
zatoz		-
zatozte	zatozte	-
datoz		zetozek/n

joan

noa		noak/n
-	hoa	
doa		zioak/n
goaz		goazek/n
zoaz		
zoazte	zoazte	-
doaz		zioazek/n

2.- **NOR-NORI aditzak.**- Gauza bera gertatzen da "nor"- "nori" formako aditzeran:

izan

zait		zaidak/-n
--	zaik/-n	
zaio		zaioak/-n
zaigu		zaiguk/-n
zaizu	--	
zaizue	zaizue	
zaic		zaieak/-n

etorri

datorkit	diatorkidak (zetorkidak)	
--		datorkiak/n
datorkio	diatorkiok (zetorkiok; jatorkok)	
datorkigu	diatorkiguk (zetorkiok; jatorkok)	
datorkizu		--
datorkizue		datorkizue
datorkie	diatorkiek (zetorkiek; jatorkiek)	

3.- NOR-NORI-NORK aditzak

diot	zioat/zionat	
--		diok/n
dio	ziok/zion	
diogu	zioagu/zionagu	
diozu		--
diozue		diozue
diote	zioate(ziotek)/ zionate	

4.- NOR-NORK aditzak

"Nor" hirugarren pertsonan denean, "nor"- "nori"- "nork", "nori" **hi** delarik, paradigmaz baliatzen gara:

dut	dial/dinat (juat)	
--		duk/n
du	dik/din (jok)	
dogu	diagu/dinagu (joagu)	
duzu		--
duzue		duzue
dute	diate/dinate diutek/n (joek)	

Arazo larriagoak ditugu, "nor" hirugarren pertsonakoa gabe lehen pertsonakoa dugunean:

nau	naik/n
naute	naiate/nainate
gaitu	gaitik/n
gaituzte	gaitiate/gaitinate

14. ADIZKI JOKATUEN ERABILERA

14. ADIZKI JOKATUEN ERABILERA

14.1. KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK

14.1.1. Denbora

Denbora zer den zehaztu nahi dugunean, kronometro batek neurtzen duen **denbora kronologikoa** eta gizakiok erabiltzen dugun **denbora psikologikoa** berezi behar ditugu kontzeptuarki. Hizkuntzetan adierazten ditugun denborazko kontzeptuak badirudi denbora psikologikotik hurbilago daudela denbora kronologikotik baino. Horregatik berezi ditugu lehenago **tempus-a** (denbora gramatikala edo psikologikoa) eta **denbora** (denbora kronologikoa alegia). Nolanahi ere, gramatika honetan, hizkuntzaren tempus-sistemaren **erabilera** argitzen eta aztertzen saiatu nahi dugunez, denborazko nozio estralinguistikoak edo kronologikoak kontzeptu haiek azaltzeko balio diguten heinean bakarrik erabiliko ditugu.

14.1.2. Denboraren garrantzi semantikoa

Dударik gabe hizkuntza natural guztiek badituzte denbora nozio metalinguistiko zenbait adierazteko baliabideak, funtsezkoak baitira hauek sistema semantikoa modu koherente batean antola dadin. Har ditzagun honako perpausok:

- (1) a. berrogei urte ditut
b. berrogei urte ditut orain

Bi perpaus hauek semantika aldetik baliakideak dira (zeren lehena egia baldin bada eta egia baldin bada bakarrik, bigarrena ere egia izanen baita). Baina ondoko perpaus hauek ez dira ikusi ditugun bi horien baliokideak:

- (2) a. berrogei urte nituen
b. berrogei urte nituen orduan
c. berrogei urte izango ditut
d. berrogei urte izango ditut orduan

Ikusi ditugun perpaus guzti hauen egia balioak baloratzeko, baieztapenon denborazko erreferentziak ezagutu behar dira. Horrela, (1b) perpausean, **orain** hitzak seinalatzen duen unea **kodatz**e unearekin, esan nahi baita, perpaus hau ahozkatzen edo idazten den momentuarekin, bat dator, edo honen inguruan kokatzen da bederen; hori dela eta, ezin dugu (1b) baloratu, esaldi hori noiz ahozkatu edo idatzi den jakin gabe. Aurrera segituz, (2b,d) perpausetan, **orduan** hitzak oso orokorki seinalatzen du erreferentzia-unea (ez dator bat kodatze unearekin); baieztapenon egia balioa finkatzeko **orduan** honek gutienez zein urte seinalatu nahi duen jakin beharko dugu. Bestalde, ageri denez, aipatu perpaus guztiotan adizkiek denborari buruzko informazioa ere daramate. Hain zuzen, (2b) perpausean **nituen** adizkiak erreferentzi unea kodatze unea ez dela eta kodatze unea baino **lehenago** gertatu dela dioela esango dugu; eta (2d) perpausean, berriz, **izango ditut** adizkiak erreferentzia unea kodatze unea ez dela eta hau baino **geroago** gertatuko dela dioela. Zail da pentsatzen honelako bereizketarik egiteko biderik ez duen hizkuntza bat (hau da, 2a,b eta d bezalako perpausak ezin berezi lituzkeen hizkuntza bat), horrelako hizkuntzan komunikazioa ezinezkoa bihurtuko bailitzateke.

14.1.3. Denbora nozioen gramatikalizazioa

Hala eta guztiz, nozioak adierazteko bideak argiak nahiz isilekoak izan daitezke, alde batetik; eta sistema gramatikalean zuzenean enbortuak nahiz inguruak, bestetik. Euskarak denborazko nozioak adierazteko gutienez baliabide desberdin bi dituela ikusi dugu, hots, atzizki sistemako alternantziak eta denbora adberbioak. Bi mota hauek bereiz ditzakegu esanez adizki sisteman denborazko nozioak **gramatikalizatuak** direla (**ditut/nituen**), eta aditzondoetan, berriz, **lexikalizatuak** baina ez gramatikalizatuak (**orain/orduan**). Gainera, euskal perpaus gehienetan aditz batek edo gehiagok denboraz markatua izan behar du. Kapitulu honetan euskarak, eta zehazki euskal adizki jokatuak, denborazko nozioak nola gramatikalizatzen dituen aztertuko dugu.

14.1.4. Hizkuntza batetik bestera alda daitezkeen kontzeptu nozionalak

Galdetu beharko dugu, hasteko, zein nozio gramatikalizatzen diren euskaraz, hizkuntza guztiek ez baitituzte denborazko nozioak modu berean bereizten eta sailkatzen, lekuzko nozioak, koloreak eta abar sail berdinetan banatzen ez dituzten bezalaxe. Esate baterako, frantsesez leku adberbioak "hemen" ("ici"), eta "ez hemen" ("là") bezala banatzen dira; euskaraz, ordea, hirutan: "hemen", "hor" eta "han". Era berdintsuan, denborari dagokionez, frantses

mintzatuak, orainaldiaren ondoan, iraganaldia adierazteko "Je l'ai vu aujourd'hui" edo "Je l'ai vu hier" dioen bitartean ("je l'ai vu"= "kodatze unea baino lehenago"), euskararen aditz sistemak "kodatze unea baino lehenago baina egun berean" ("gaur ikusi dut") eta "kodatze unea baino lehenago baina ez egun berean" ("atzo ikusi nuen") bereizten ditu. Honelako guztiok *hizkuntzaz-hizkuntzako* (language specific) aldaerak ditugu.

14.1.5. Denboraren deiktikotasuna

Hizkuntzaz-hizkuntzako bereizkuntzak gora-behera, beharbada edonon ezar daitekeen sailkatze modua aurki dezakegu denboraren lehengaiak (primitiboak) finkatzeko. Horrela aipatuko genituzke, segur aski, *iraganaldia* (kodatze unea baino lehen buruturikoa), *orainaldia* (kodatze unean gertatzen dena eta *geroaldia* (kodatze unearen ondoren gertatzen dena). Ohart gaitezen nozio hauek **deiktikoak** direla, esan nahi baitugu, esate unearen testuinguruarekin erabat loturik daudela. Lehenago ikusi dugu **orain** hitza ulertzeko kodatze unea ezagutu behar dela; **ordu** hitzari bere esanahia emateko, berriz, jakin behar da zein erreferentzi nez garen mintzo. Hau, normalean, aurretiko testuan aipatua egonen da:

- (3) a. Ameriketan izan nintzen iaz. Berrogei urte nituen *ordu*
 b. hiru urte barru nere tesia bukatuko dut. Berrogei urte izango ditut *ordu*.

Denbora gramatikalizatuaren interpretazioa ere testu inguruari loturik dago, adizkiek erakusten digutenez:

- (4) a. Ameriketan izan nintzen iaz. Berrogei urte nituen
 b. hiru urte barru nere tesia bukatuko dut. Berrogei urte izango ditut

Aipa dezagun azken adibide pare bar:

- (5) a. mendira goaz *igandean*
 b. ez dut gosald

Osteguna, irailaren 25a baldin bada lehenbiziko perpausa esaten dudanean, eta testuinguruak ez badu bestelakorik adierazten, entzuleak badaki zehazki zein egunetan goazen mendira, *datorren* igandean, irailaren 28an, hain zuzen. Datorren igandea zein igande den jakiteko, gaur *zer* egun den jakin behar da aurretik, hau da, kodatze eguna zehazki ezagutu behar da. Bigarren perpaus

berriz, entzuleak badaki horrelakorik entzuten duenean hiztunak ez duela ezer ere gosaldu *perpaus hori ahozkatzen duen egunean*. Aztertutako adibideotan, beraz, denborazko esanahia enuntziatuaren testuinguruko ezaugarriekin (hala nola kodatze unearekin edo aurretik joan den testuarekin) loturik dago; hauxe da deitua deitzen duguna.

14.1.6. Denborazko beste zenbait kontzeptu

Euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, aditz formen artean denboraz markatuak eta denboraz ez-markatuak bereizten ditugu, **aditz jokatu** eta **aditz ez-jokatu** termino formalez baliatzen garelarik horretarako (horrek ez du esan nahi adizki jokatuak tempusaren marka besterik ez dutenik, beste ezaugarri batzu ere seinalatzen ditugulako). Denbora nozioak deiktikoak direnez gero eta adizki ez-jokatuetan denbora markarik ez denez, ezaugarri deiktiko hori ez da agertuko. Esate baterako, **oheratu baino lehen** esaten baldin badut, ez da semantikoki kodatze unearekin lotua, ondoko hiru perpausok elkarrekin konparatuz ikus daitekeenez:

- (6) a. oheratu baino lehen esne xorta bat hartu nuen
- b. oheratu baino lehen esne xorta bat hartuko dut
- c. oheratu baino lehen esne xorta bat hartzen ari naiz

Gauza bertsua gertatuko litzaiguke, adibidez, **mahaiaren azpian** edo antzeko zerbait esango bagenu, hori ere ez baitago hiztuna dagoen tokiarekin lotua. Dena dela, **oheratu baino lehen** esapideak denbora deiktikorik adierazten ez badu ere, oso garbi dago **denbora** erlazio bat ematen duela aditzera. Har dezagun orain **aldatuta** hitza:

- (7) a. herria aldatuta zegoen
- b. herria aldatuta egongo da
- c. herria aldatuta dago

Forma honek ere ez du denbora deiktikorik adierazten, bai ordea aspektu nozio bat (*perfektu* deritzan aspektua alegia). Beraz, denbora (deiktikoa), denbora erlazioak eta aspektuak (azken biok ez deiktikoak) berezi behar ditugu.

14.1.7. Denborak eta tempusak

Ikusi dugu laburki zer den denbora metalinguistikoa, edo teorikoa, edo semantikoa. Honen sailkapena (adibidez: lehenaldia / orainaldia / geroaldia) intuitiboki egitea ez da zaila. Baina hau berezi beharko dugu ohituraz "denborak" deitzen diren hizkuntza jakin bateko adizkietatik. Azalpenak errazteko, gramatika honetan denbora linguistiko hauek **tempusak** deitzen ditugu. Beraz, **denboraz** ari garelarik, normalean "denbora estralinguistikoaz" aritzen gara, ez gramatika kontzeptuez. Honela, beste hizkuntza batzutan betidanik egin ohi da bereizketa terminologiko hori (ingelesez **tense** eta **time**, esaterako, edo alemanez **tempus** eta **zeit**).

14.1.8. Aspektua

Denbora aipatzen dugunean zerbait **noiz** gertatzen edo izaten den hartzen dugu kontuan. Baina denborazko bereizketarik kanpo, gertakizuna edo egora bera era desberdinetan ikus daiteke, honen iraupen, burutze, errepikapen eta abar kontuan izanez. Bereizketa aspektualak sarritan gramatikalizatuz adierazten dira, euskal aditzean gertatzen den moduan adizki perifrastikoetan.

14.1.9. Modua

Modua esandako edo idatzitakoaren aurrean hiztun edo idazleak adierazten duen jarrera isladatzen duen bereizketa gramatikala dugu. Bereizketa modalak ere zenbait hizkuntzatan aditzean gramatikalki markatzen dira, eta halaxe da euskal aditzean ere, ikusiko dugunez.

14.2. KATEGORIA FORMALEN BALIO NOZIONALAK

14.2.1. Adizki jokatuaren sailkapen formala

Gogora dezagun orain, labur bildurik, zein diren adizki jokatueta agertzen diren oinarizko elementu formalak. Elementuok hiru parametroren bidez berezi dira, hau da, tempusa, modua eta aspektua (persona kanpoan utziko dugu oraingo honetan). Formalki --beharrezko xehetasunak gerorako utziz, hirugarten atalerako--, hiru tempus, 'hiru modu eta bost aspektu mota bereizten ditugu. Honela:

TEMPUSA	MODUA	ASPEKTUA
oraina dator	ez-markatua dator	puntuala dator
iragana zatorren	ke-đuna datorke	ez-burutua etortzen da
alegiatzkoa -letor	agintekera hator	burutua etorri da
		geroa etorriko da
		aspektu gabea etor -dadi-

Jo dezagun hiztunak adizki jokatu bat aukeratzeko dagoelarik hiru erabaki hartu behar dituela maila formalean adizki hori hautatzean: zein tempus?, zein modu?, zein aspektu? Egitez, erabakiak ez dira beti hiru: esate baterako, agintekera modua aukeratu gura badu, ezin dezake deusik ere hartu tempusaren zutabetik. Zenbait hizkuntzalariren eritzi teorikoan, aukera formal bakoitzak ezaugarri semantiko bat erantsi behar lioke adizkiaren esanahiarri. Azter dezagun atal honetan ea horrelakorik gertatzen den euskal adizki jokatuaren sisteman.

14.2.2. Tempus formalen balioak

14.2.2.1. Tempusak vs. denborak

Tempus izenarekin bataiatu dugun sistema formal hirukoitza ez dator bat zuzenki denbora estralinguistikoetarako proposatu dugun beste hirukote horrekin: orainaldia / iraganaldia / geroaldia. Sistema formalean etorkizuna ez da inon ere agertzen. Baina gainerakoan, erlazioa ez da gaizki, kontuan izanik alegiazko deitzen dugun tempusa benetan ez-tempusa dela, [-orain, -iragan] bezala analizatua. Halaz guztiz, esan behar da alegiazko adizkietan, denborazko ezaugarri ezezkor honekin batera, nozio modal jakin batzuk agertu behar dutela, baldintza hipotetikoei lotzen direnak alegia:

- (8) a. *negar egingo luke nere amak baleki*
 b. *zer erranen zuen jakin balu!*
 c. **nere amak leki*
 d. **nere amak jakin lu*

Badira alegiazkoaren erabileran beste ez-adostasun batzu ere. Adibidez, alegiazkoak eta iraganak denbora bera adieraztea (8 b)n, ez dirudi oso koherente.

14.2.2.2. Geroaldia adierazteko bideak

Geroaldia adierazteko tempus berezirik ez dagoen legez, oraina erabiltzen da, adizki honek orainaldi eta geroaldirako balio duelarik, beste hizkuntza askotan bezala. Forma batzu berez anbiguoak dira, adibidez dator eta iristen da:

- (9) a. *hor dator Kattalin (orainaldia)*
 b. *bihar dator Kattalin (geroaldia)*
 c. *Maria zer ordutan iristen da larunbatero?*
(orainaldi errep.)
 d. *Maria zer ordutan iristen da bihar? (geroaldia)*

Beste era askotan adieraz daiteke geroaldia euskaraz, jakina; geroa delako aspektu marka haietako bat besterik ez da. Baina guztietan oraineko tempus formala agertuko da. Bestalde, etorkizuna adierazteko esamolde desberdinok zentzu modalean bereizten dira elkarren artean, kutsu modal horiek zehazten zail bada ere.

14.2.2.3. Iraganaldia adierazteko bideak

Ondoko bi perpaus hauetan aditzaren tempusa oraina da:

- (10) a. *Kattalin etorriko da*
 b. *Kattalin etorri da*

Lehenbizikoa [+gero] da aspektu formalaren aldetik; bigarrena, aldiz [+burutu]. Denbora semantikoari dagokionez, lehena geroaldikoa dugu eta bigarrena iraganaldikoa, gertatu den zerbait delako. Aurreko paragrafoan ikusi dugunez, euskaraz ez dago geroaldiko tempus formalik, baina iraganeko bai bada; halere, ez dugu pentsatu behar iraganaldia beti iraganeko tempusarekin adierazten dugunik, geroago aztertuko ditugun honako adibideotan ikus daitekeenez:

- (11) a. **Kattalin etorri da**
b. **Kattalin etorri balitz**

Jakina, iraganeko tempusa ere ager daiteke:

- (12) **Kattalin etorri zen**

14.2.3. Aspektuen balioak

Ikus dezagun orain zein den euskal aditz jokatuaren aspektu sistema bakoitzaren balio semantikoa.

14.2.3.1. Aspektu puntualaren (adizki trinkoen) balioak

Ondoren ikusiko dugu noiz eta nola erabil daitezkeen forma puntualak:

14.2.3.1.1. Mugapen desberdinak

Hasteko, jakina, baldintza formal batzu bete behar dira: ezagun denez, euskararen aditzik gehienek ez dute ez forma trinkorik ez aspektu puntuala zuzenki (egitura perifrastiko batez baliatu gabe) sortzeko ahalbiderik. Areago --eta hau ez da ahantzi behar-- aditz batek zenbait forma sintetiko non edo non edukitzea, literaturako testu zaharretan nahiz ahozko erabileran, ez da aski arrazoi aditz haren jokabide trinko osoa *nonahi eta noiznahi* erabiltzeko; ezagutu eta errespetatu behar baita forma bakoitzaren balio estilistikoa gaurko hizkuntzan, alde batetik, eta bestetik haren balio semantiko eta erabilera sintaktiko zuzena. Hogeigarren mendeko euskara bizian **dakusat** edo **dazagut** olerki batean erabiltzea ez litzateke beharbada desagokia, baina elkarrizketa "natural" batean gogortxoegi dirudi ??ez **dazagut** hor **dakusadan** **tipo** hori bezalako esaldi batek. Eta ***beti nekusan han** perpausa segur aski ez-gramatikala litzateke, aspektuaren aldetik gaizki eratua delako, ***beti zihoan festara** bezala. Begiratu behar duguna, erabilera bakoitzaren zuzentasuna eta jatorritasuna da. Azkenik, oroit gaitezen, adizki trinkoak ez ezik, **izan** eta **ukan**-ekin sorturiko aditz bereziek ere (**behar dut**, **bizi naiz**, **komeni zait**, e.a.) badutela aspektu puntuala (ikus 8. kap.).

14.2.3.1.2. Aspektu mugapenak

Forma bakoitzak bere esparrua eta zeregina baldin badu, zein da puntual deitzen ditugun adizkien lana, zentzu semantikoan? Erantzuna aspektuzko nozioen bereizketan dagoela iduri du. Forma aldetik aspektu puntuala perifrasis osatzen diren aspektuei kontrajartzen zaie; esan beharrik ez, hortaz, puntualak [-burutu] eta [-gero] ezaugarriak ditu. Beraz, ondoko esaldiotan, lehenbizikoa ez da bigarren eta hirugarrenaren baliokide. Azkeneko biak, bestalde, ongi bereizten dira:

- (13) a. Kattalin hemen da
b. Kattalin hemen izan da
c. Kattalin hemen izango da
d. Karlos (ba)zeturten
e. Karlos etorri zen

Puntualaren eta <TZEN> edo ez-burutuaren arteko alde zehazki azaltzea zailago da eta formalki hain ageri ez diren nozio semantiko batzuz baliatu beharko dugu. Diferentziarik nabarmenenetik hasteko, ez-burutuaren esanahia ohizkoa edo **errepikakorra** izan daiteke; puntualarena, ordea, ez:

- (14) a. Karlos egunero etortzen zen
b. *Karlos egunero zetorren

Halere, aditz batzutan ez dirudi debeku hau hain azkarra denik:

- (15) a. Koldo gehienetan pozik egoten da
b. Koldo gehienetan pozik dago

Ondoren datozen lehenbiziko hiru adibideetan, adizki trinkoek (lehenbiziko bietan) eta aditz konposatuak (hirugarrenean), adierazitako aspektua aurrera doan prozesua bezala azal genezake, eta, hortaz, **jarraikorra**, deituko dugu aspektu hau:

- (16) a. Patxi autobusean dator
b. zure anaia ikusi nuen lehengo aldian kalean
zihar zihola
c. Patxi autobusean heldu da (= "dator")

Forma trinkorik ez duten aditzek aspektu berdintsua adierazteko egitura perifrastikoak hartu ohi dituzte:

(17) etxetik urruntzen ari gara

Beste hauetan, berriz, ez da adierazten prozesu jarraikorrik, hasiera eta bukaera finkorik ez duen egoera baizik; hau aspektu mugagabea dei genezake:

- (18)**
- a. ez dago ogirik neke gaberik
 - b. komeni da usu idaztea
 - c. badakit hori
 - d. hori egiteko dirua behar duzu
 - e. neska hori nere herrikoa da
 - f. non bizi zara?
 - g. maite zaitut

Aspektu nozio hau gainerako aditzetan adierazteko, ez gara ari izan edo horrelako itzuliez baliatzen, aspektu ez-burutuaz baizik:

- (19)**
- a. zure anaia ezagutzen dut
 - b. ongi gogoratzen naiz egun hartan esandakoaz
 - c. *ongi gogoratzen ari naiz egun hartan esandakoaz

Bi nozio hauek, beharbada, jarraikorra eta mugagabea, adibide hauetan kontrajar ditzakegu:

- (20)**
- a. Patxi autobusean dator orain
 - b. ?Patxi autobusean etortzen ari da orain
 - c. *Patxi autobusean etortzen da orain
 - d. Patxi etxean sartzen ari da orain
 - e. "denbora" hitza latinetik dator
 - f. *"denbora" hitza latinetik etortzen ari da
 - g. **denbora" hitza latinetik etortzen da
 - h. "denbora" hitza *tempus*, *temporis* hitzetik deribatzen da

Badirudi **dator**-en aspektua desberdina dela lehenbiziko esaldi multzoan eta bigarrenean. Laburki azaldu dugun gai honek ikerketa sakonagoa merezi luke, bistan denez.

14.2.3.1.3. Adizki trinkoen zerrenda

Aditz gutik dituenek forma trinkoak, eta hauen artean xehetasun lexikal, sintaktiko eta estilistiko ugariak daudenez, banaka aipatzea komeni da. Egungo euskaran oso bizirik eta geografikoki hedatuenik daudenak hauexek dira: **eduki, egon, ekarri, erabili, eraman, eroan, etorri, ibili, -io-** (diot, nioen...), **irudi, izan, jakin, joan, ukan/izan. Eragon, erasi, erautsi, ihardun, inotsi, jaugin** eta beharbada besteren bat. Aditz hauei dagozkien adizki *batzuk* bizirik diraute, baina eremu dialektal mugatuetan bakarrik. Hauetarik, **ihardun** aditza bere gaurko esparru mintzarutik at, estilo literarioan onartua dela dirudi. **Eritzi** aditzaz ere esan dezakegu, ahozko euskaran erabat suntsiturik ez bada ere, gaur egun gehien baten erabileratzat (edo arkaikotzat) haritzen dela; eta beharbada gauza bera esan beharko genuke **irakin, iraun** eta **jario** aditzez ere. Beste zenbait gehiago jo daitezke literariotzat gaur egun: **atxiki, eman, etzan, ikusi, jarraiki/jarraitu**. Guzti hauek normalean forma eta esamolde jakin batzutan baizik ez ditugu aurkituko:

- (21) a. **etxeari datxekiola** bada pentze bat
b. **demagun** hori egia dela
c. **hortxe datza** arazoa
e. **dakusagunez**, denak ez dira eritzi berekoak
f. **bata besteari darraikiola...**

Ez ditugu hemen aipatzen aditz laguntzaile bezala bakarrik erabiltzen direnak, dela orohar (***edin**), dela euskalki batzutara mugatuak (**eutsi, *iron**), beste kapitulu batean daudelako jasoak. **Egin** aditzak arazo berezi bat planteiatzen digu; trinko gisa jokaturik bi erabilera guztiz desberdin berezi behar ditugu. Batean laguntzailea da (erabilera hau Bizkaia aldean agertzen da), bestean aditz nagusi bezala ikusiko dugu, baina erabilera hau mugatu samarra da bai estilistikoki bai sintaktikoki. Beraz, gaurko euskaran behintzat, ez dirudi onargarriak direnik ondoko adibideak, eta arrazoia ez da beharbada estilistikoa bakarrik, hobeki aztertu beharko litzatekeen tringapen sintaktiko edo aspektual bat baizik:

- (22) a. ***zer dagizu orain?**
b. ***zergatik dagizu negar?**
c. ***gurekin hitz dagi**

Hona hemen **egin** aditzaren adibide trinko batzu (Azkueren hiztegitik jasoak direnak):

- (23) a. **bai nagian pekatu** ("yo hice pecado, pequé", Capanagarena)
 b. **begi mugaz eta goiz** ("hágalo a tiempo y temprano", Axularrena)
 c. **ez luke nahi deabruak, genegien trabailu hertzaz konturik** ("no querría el diablo que hiciésemos cuenta de aquel trabajo", Axularrena)
 d. **hau negien** ("para que yo hiciese esto", Men.-arena)

Azkueren itzulpenak aipatu ditugu susmatzen dugulako nozio aspektual edo modala erabakikorra izan daitekeela. Dena dela, erabilera hauek literarioak dira gutienez, edo arkaikoak, hobeki esateko. Arkaikotzat dauzkagu honako hauen forma trinkoak ere: **entzun**, **erakutsi**, **erasi/edasi**, **erauntsi**, **eutsi** (nagusi gisa erabiltzen delarik), **ezagutu**, **iharduki**, **iragan/igaran/irago/igaro**; gutiago erabilitako beste batzu ez ditugu aipatuko (ikus, adibidez, **Euskal Aditz Batua** liburuan 181. orr.):

- (24) a. "Nic ezlançut emaztiac borçhaturic guiçona" (Etxepare *Linguae...* III, 43)
 b. "Fedeak darakusku" (Añibarro, Azkuek aipatua)
 c. "Gurdi kargatuak badarasa" (Axular, *Euskal A. Batua*)
 d. "Hala bataillazuen naiz, ez aireri baneraunsa becala" (Leizarraga, Lafonek aipatua)
 e. "Alkarri dautscoez bitzuen eginbeçarrak" (??)
 f. "Jainkoak badazaguzki zuen bihozak" (Leizarraga, Azkueren hiztegia)
 g. "Orai hamar bekhaturekin dihardukazu, gero ehunekin iharduki beharko duzu" (Axular, Azkueren hiztegia)
 h. "Digaran arcan ez urtegati gasorik esan" (*Refranes...*, *Euskal Aditz Batua*-tik hartua)

14.2.3.2. Aspektu ez-burutuaren balioak

Aspektuaren aldetik bereiz daitezkeen ez-burutuaren bi balioak goian aipatu dira: errepikakorra eta mugagabea. Zentzu errepikakorrean ez-burutua puntualarekin gehienetan kontrajartzen da, ikusi dugunez:

- (25) a. **Karlos egunero etortzen zen**
 b. ***Karlos egunero zetorren**

Zentzu mugagabeen, ordea, dirudienez ez; adibidez, ondoko bi esaldiotan bigarrena lehenbizikoaren parafrasitzat jo daiteke, aspektuari dagokionez behintzat:

- (26) a. *zure anaia ezagutzen dut*
b. *badut zure anaiaren berri*

Bai balio mugagabeak bai errepikakorrak garbi bereizten dute ez-burutua **ari naiz** eta honen antzeko egitura perifrastikoen jarraipen aspektutik; hortaz, (27 b) eta (27 c) ez dira (26) eta (27 a) perpausen pareko, aspektu kontuetan behintzat:

- (27) a. *Egin irakurtzen dut*
b. *zure anaia ezagutzen ari naiz*
c. *Egin irakurtzen ari naiz*

Lehenago ikusi dugunez, orain ez-burutuak geroaldia adieraz dezake ederki:

- (28) **Maria zer ordutan iristen da bihar?**

14.2.3.3. Aspektu burutuaren balioak

Formalki burutu deitzen ditugun zenbait formatan bi nozio gurutzatzen dira: iraganaldia (denbora nozioa) eta perfektua (aspektua). Arazo hau geroago aztertuko dugu.

14.2.3.4. Geroaren balioak

Esan dugunez, geroa deritzan aspektu marka formalak ematen digu geroaldia adierazteko era bat, baina ez bakarra. Beraz, ondoko adibideotako geroak, puntualak eta ez-burutuak hiru bide erakusten digute denbora bera adierazteko:

- (29) a. **Kattalin etorriko da**
b. **bihar dator Kattalin**
c. **Maria zer ordutan iristen da bihar?**

Jakina, geroaldiko adibide horietan aditzaren tempusa oraina da; beste tempusak erabiliz, adierazitako denbora ez da gehiago geroaldia izanen, nahiz aspektualki geroko kutsua gorde (eta hori, geroaren marka formalak ez erabili arren):

- (30) a. **Maria zer ordutan iristen zela esan zenidan?**
b. **biharamunean zetorren Kattalin**

Puntu hau, geroa aspektua (eta ez tempusa) dela erakusteko frogatzat har liteke segur aski. Baina ikus ditzagun beste perpaus hauek orain:

- (31) a. **gure anaia ezagutuko duzu [segur asko] / ezagutzen dukezu**
b. **gure anaia ezagutuko zenuen [dudarik gabe] / ezagutu dukezu**
c. **Patxi honez gero iritsiko zela uste dut**

Geroaren erabilera hau guztiz zabaldua dago mendebaleko euskalkietan, eta, adibide hauek agertzen dutenez, euskararen tempus sisteman erabilera gehienak bezain integratua. Hauetan, bistan da geroaldia ez dela geroko formek adieraz dezaketen nozio bakarra; geroaren markaren balioa ez da tenporala aurreko adibideetan bezala; hortaz, goiko hiru horietako lehenbiziko perpausak bi interpretazio desberdin ditu, ondoko perifrasiok erakusten dituztenez:

- (32) a. **gure anaia geroago ezagutuko duzu**
b. **ia ziur nago gure anaia ezagutzen duzula**

Lehen interpretazioan geroaldia adierazten da, baina bigarrenean (hauxe baita hemen interesatzen zaigun irakurketa), denbora ondoko adibidean ageri dena da juxtu:

- (33) **gure anaia ezagutzen duzu**

Beraz, geroaren markaren beste erabilera honek adierazten duen nozioa **menturazko** deituko dugu eta ez da kontzeptu tenporala, modala baizik.

14.2.4. Moduen balioak

14.2.4.1. Azalpena

Moduari dagokionez, hiru aukera berezi dugu euskal aditzaren sisteman: **KE**-gabeak edo modu ez-markatua, **KE**-duna eta agintekera. **KE**-gabeak maila formaleko modu markarik ez duten adizkiak dira; balio aldetik, berriz, ez-markatuak dira, agerian denez. Hortaz, zentzurik ez luke forma hauek zertarako erabiltzen diren zehazteak, esan behar bait litzateke, gainerako moduek (**KE**-dunek eta agintekerazko formek, alegia) hartzen ez dituzten balio guztiak hartzen dituztela horiek. Baina agintekeraren balio semantikoa oso zehatza eta berezia denez gero, eta batez ere tempusean eta aspektuan aukerarik ez baitu, beste nonbait izango dugu tokirik aproposena modu honetaz mintzatzeko (ikus 11. kap.). Azter dezagun gelditzen den beste modu formala, beraz, **KE**-duna, alegia.

14.2.4.2. **KE**-dun adizkien balio modalak

Gero aipatuko dugun salbuespenarekin, **-KE** elementuak hartzen diren balioak modalak dira. Baina balio modal horiek sorburu bakarra dutela esan dezakegun arren, gaur egungo erabileran semantika aldetik espezializatuz joan direla esan beharko dugu. Hiru dira bereziko ditugun balio modalak: *menturazkoa*, *ahalezkoa* eta *ondorio hipotetikoarena*.

14.2.4.2.1. **KE**-dun adizkien balio menturazkoa

Balio hau ekialdeko euskalkietan bakarrik aurkitzen dugu. Goian ikusi dugunez, mendebaleko geroko adizkiak erabiltzen ditugu modu nozio hau adierazteko. Konpara ditzagun hurren ondoko adibideotan ikusten diren menturatasuna adierazteko erabiltzen diren ekialdeko eta mendebaleko adizkiak:

Mendebalean:

- (34) a. gure anaia ezagutuko duzu
b. gure anaia ezagutuko zenuen
c. Patxi honez gero helduko zen

Ekialdean:

- (35) a. gure anaia ezagutzen dukezu
b. gure anaia ezagutzen zenukeen
c. Patxi jadanik heldu zatekeen

Menturazko **-KE**-dun adizkien esanahia zein izan daitekeen ikusteko, aski da **-(te)ke** atzizkia kendu ondoren zein den geratzen den forma ikustea:

etortzen da	=	etortzen da	+	menturazko nozioa
etorri dateke	=	etorri da	+	"
etorriko dateke	=	etorriko da	+	"
etortzen zatekeen	=	etortzen zen	+	"
ikusi zukeen	=	ikusi zuen	+	"
hartuko nituzkeen	=	hartuko nituen	+	"

Hona hemen beste adibide batzu, lehena Etchaun-en lanetik hartua eta gainerako guztiak Lafitte-ren gramatikan heldu direnak:

- (36) "Hartzen badū aitaren estatia
notari *dūkezu* jinen den frütia".
(Etchaun, Gaztalondoko prima, in J. Haritschelhar,
L'oeuvre poétique...)
- (37) a. eri dateke
b. badituzke hiru lerro bederen (= 60 urte)
c. arrabots hori entzuten *dukezu*
d. oraino ere orhoitzen dateke
e. Baionarat bazoaken (=bazihoakeen)
f. arrabots hori entzuten *zinukeen*
g. nigar ederrik egin *duke*
h. nigar ederrik egin *zukeen*
i. aberastuko datekenean, *ikusiko duzu*
j. erran dauf emanen *dauzkuketela* (=dizkiguketela)
k. banakien ez *zinukeela onetsiko*
l. baimena ukan balu, lan hori *gogotik eginen zukeen*

14.2.4.2.2. **KE**-dunen balio ahazlezkoa

Euskalki guztietan, adizki forma **Ke**-dun aspektugabeak (**dezaket**, **zintezkeen**, e.a.) erabil daitezke ahalezko nozio modala adierazteko:

- (38) a. edozein hurrek uler dezake hori
b. atzo lagun zintzakedan, baina gaur ezin dut

(Zenbait bide perifrastiko daude nozio bera adierazteko)

14.2.4.2.3. **Ke**-dun adizkiak ondorio hipotetikoan

14.2.4.2.3.1. Aspektu ez-markatua

Ondorio hipotetikoan, aspektuaren aldetik ez-markatuak direnean (ikus beheiago), alegiazko **Ke**-dun formak erabiltzen dira:

- (39) a. atsedeen pixka bat ongi letorke
b. zure baserria izango banu aberatsa nintzateke
c. zure aberastasunaren erdia nahi nuke nik

Adibide horietan adizki trinkoak ditugu. Bestela forma perifrastikoaz ere baliu gaitzke mendebalean geroaren aspektu marka hartzen delarik eta ekialdean berriz aspektu markarik gabeko formak nahiago direlarik:

- (40) a. zure adiskidea ezagutuko banu, neronek gonbidatuko nuke
b. zure adiskidea ezagutzen banu, nihaurk gonbida nezake.

14.2.4.2.3.2. Perfektua

Aspektu perfektuko ondorio hipotetikoak adierazteko, eskematik atera beharra dugu, teoriaran espero genetzakeena, alegiazko forma **Ke**-dun burutua (**etorri litzateke**, **ekarri luke**), ez bait da erabiltzen, edo kasik ez. Horren ordez, bai euskal literaturan zehar, bai euskaldun gehienek aspaldiko eta gaurko usarioan, iraganeko etorkizun **ke**-gabea da forma erabiliena:

- (41) a. zure adiskidea ezagutu banu, neronek gonbidatuko nuen
b. zaldia saldu banu, asto bat beharko nuen

Bada, hala eta guztiz, --euskara mintzatuan nola idatzian-- erabil daitekeen beste forma bat: iragan **Ke**-duna. Hona hemen adibide batzu:

- (42) a. atsedeen pixka bat ongi zetorkeen
b. zure baserria izan banu aberatsa nintzatekeen

Adizki ez-trinkoetan, zein aspektu marka aukeratu behar dugu? burutua ala etorkizuna? Ez hiztunak ez gramatikariak ez datoz bat puntu honetan:

- (43) a. zure adiskidea ezagutu banu, nihaurk gonbidatu nukeen (ekialdean)
b. zure adiskidea ezagutu banu, neronek gonbidatuko nukeen (mendebalean)

Baina euskalki guztietan onartzen eta erabiltzen da gonbidatuko nuen gauza bera adierazteko.

14.2.4.3. KE-dun adizkien denborazko balioa

Zubereraz **ke**-dunak geroaldia adierazteko erabil daitezke:

- (44) a. "Egiaz ordian dükezü
guretako berantegi.
Etsaiak azkartü eta
gütükezü flaküegi"
(J. Casenave, *Ibañeta*, 75.orr.)
- b. "Enc aita die büü
bena ni ere hor nago
Jimenok laster han düke
bere seme Iñigo"
(J. Casenave, *Ibañeta*, 69.orr.)
- c. "Gero hitz batez dütükek
oro aisa hitzariak
Nafarroa, Ziberua
eta anaie güziak"
(J. Casenave, *Ibañeta*, 59.orr.)

- d. "Hiltzeko orenian ageri dirate diren bezala" (Ziburuko Guthuna, Txillardegi-k *Oinarri bila*-n aipatua)

Baxe nafarreraz ere bada etsenplurik:

- (45) a. "Ordu hartan afer date hari apellatzia" (B. Etxepare, *Linguae...I*, 147)
 b. "Non dirate egun hartan hebengo jaun erregiak?" (B. Etxepare, *Linguae... I*,290)

14.3. ADIZKIAK BANAKA BANAKA

Aurreko atalean euskal aditzaren kategoria formalen balioak ikuspegi orokorretik aztertu ondoren, atal honetan forma bakoitzaz eman behar diren xehetasunak eskainiko ditugu. Horretarako eskema formalean oinarrituko gara, ondoko koadro honek seinalatzen digun ordenan:

Modua	Tempusa	aspektua
I. KE-gabea	1. oraina	A. puntuala
II. KE-duna	2. iragana	B. ez-burutua
III. agintekera	3. alegiazkoa	C. burutua
		D. gertakizuna
		E. aspektugabea

14.3.1: Orain puntuala: "dator"

Orain puntualaren erabileretan aspektu nozio hauek gutienez bereiz ditzakegu:

a) mugagabea:

- (46) a. euskara zaharra da
 b. "denbora" hitza latinetik dator

b) jarraikorra:

- (47) a. begira, hor dator Xanti!
b. lanean dihardu
c. Eihera badabila (Lafitte)

Denborari dagokionez, orainaldia ez ezik geroaldia adieraz dezake:

- (48) a. bihar dator Kattalin
b. oraintxe noa
c. aurki dago hemen

Gainera, zenbait mendeko perpausetan **ebentual** dei genezakeen nozioa adierazteko erabil daiteke:

- (49) a. prest zaudenean hasiko gara
b. gurekin bazatoz bost izango gara

Zentzu errepikakorra ere izan dezake puntualak:

- (50) a. Koldo gehienetan pozik dago
b. Batzutan ez dakit zer esan nahi duzun

Lafitek "gnomiques" deitzen dituenak ere hemen aipa ditzakegu:

- (51) a. urak dakarrena urak daroa
h. gero dioenak bego dio

Estilo arkaikoan bederen, eta han edo hemen gordetako euskal itzulietan, orain puntualak aspektugabearen balio modalak izan ditzake, hala nola subjuntiboa (hurrengo bictan) edo optatiboa (beste hiruretan):

- (52) a. "Permititzen du Jainkoak munduan *diren* (=izan daitezen) probeak, hei ongi eginez, salba ditezin aberatsak" (Axular, *Gero*, 150)
b. "Ediren duzu ezua, ian ezazu bada neurriz...ase-eginik, okha *eztakizun*, ahotik bihur eztezazun" (Axular, *Gero*, 185)
c. "Egun on *daukala!*" (Villasante, *Sintaxis de la orac. compuesta*, 68.orr.)
d. "Iainkoak hala nahi *duela!*" (Axular, *Gero*, 400)
e. "*Etzaretela* deusen beldur!" (Axular, *Gero*, 89)

Lehen pertsonako inperatiboak ere **-(e)n** atzizkia orain puntualari erantsiaz ateratzen zaizkigu aditz batzutan:

- (53) goazen hemendik!

14.3.2: Orain ez-burutua: "Efortzen da"

Orain ez-burutuaren bi aspektu balio hauetaz ohartuko gara hasteko:

a) Mugagabea:

- (54) a. Koldo ezagutzen dut
b. B. Lertxundiren azken diskoa izugarri gustatzen zait

b) Errepikakorra:

- (55) ez dut libururik erosten, liburutegian ikusten ditut eta

Ohart gaitezene orain puntualak ere aspektu mugagabea adieraz dezakeela, errepikakorra gutiagotan hartzen duelarik, gorago ikusi dugun bezala. Horrenbestez, ondoko bi adibideotan zentzu mugagabea eta errepikakorra bereiz ditzakegu puntuala eta ez-burutua kontrajartzen baldin baditugu:

- (56) a. urdamak zerrikume asko ditu
b. urdamak zerrikume asko izaten ditu

Badirudi (54)ean eman ditugun perpausetan bezala forma ez-burutuan aspektu ez-mugatua adieraz dezaketene aditzek multzo berezi bat osatzen dutela (hauen eduki semantikoa dela kausa, jakina). Multzo honetan honelako aditzak ageri zaizkigu behin eta berriz: *entzun*, *ezagutu*, *gogoratu*, *gustatu*, *ikusi*, *interesatu*, *konturatu*, *ohartu*, *pentsatn*, *ulertu*, e.a. Halaz guztiz, anitzetan aurkituko dugu hemen seinalatu aditzak berak, testuinguru batzutan, forma ez-burutuarekin nozio errepikakorra adieraz dezakeela:

- (57) a. oporretan beti *ezagutzen dut* jende berria
b. *gauero ikusten duzu* telebista?

Honelakoak azaltzeko, aditz hauek adibide hauetan zentzu semantiko bereziak hartzen dituztela susma daiteke. Ohart gaitezen errepikapen aspektuarekin elkarrekinak diruditen aditzak jarraipen aspektuarekin ere ez datozela bat. Hurrengo adibideetan (b) eta (e) bezain okerrak dira (d) eta (f), baldin "jakin" eta "ezagutu" aditzen hasierako esanahiak aldatzen ez baditugu:

- (58) a. badakit haren berri
b. haren berri jakiten dut
c. haren berri jakiten ari naiz
d. ezagutzen ditut nere lankideen emazteak
e. beti ezagutzen ditut nere lankideen emazteak
f. nere lankideen emazteak ezagutzen ari naiz

Ikusi legez, geroaldia adierazteko tempus berezirik ez dagoenez, oraina erabiltzen da, beste hizkuntza aniztetan bezala, eta honen aspektu formala ez-burutua izan daiteke:

- (59) zer ordutan iristen da Maria bihar?

Nozio ebentuala adierazteko ere aspektu ez-burutua erabil dezakegu:

- (60) a. apostu hau *irabazten badut*, afaltzera gonbidatuko zaitut
b. Patxi *etortzen denean* hasiko dugu bilera

14.3.3: Orain burutua: "etorri da"

Adizki hau, formari dagokionez oraina da: *etorri da*. Dena dela, semantikari begiratu gero, aldez aurretik gertaturiko zerbaiti egiten dionez erreferentzia, iraganaldikotzat jo behar dugu: *gaur goizean etorri da*. Hori esan orduko, badakigu aditzak seinalatzen duen ekintza iadanik iragana dela. Horregatik diogu iraganaldikoa dela.

Nolanahi ere, hemen gurutzatze bat suertatzen zaigu, zeren adizki horrekin batera *etorri zen* ere baitugu, forma aldetik irtagana eta esanahiaz iraganaldikoa. Kontua da ongi berezi behar dugula noiz erabil daitekeen bata eta noiz bestea. Mendebalean, orohar, gauerdia markatzen du muga: *gaur etorri da* eta *atzo etorri zen* esaten da. Ekialdean, ordea, errazago esaten da *atzo etorri da* ere. Nonbait, badirudi bereizketa iraganarekin egiten dugula. Horrenbestez, ez da esanen inon **gaur goizean etorri zen*, nahiz eta esanahiaz iraganaldiaren erreferentzia izan esaldi horrek. (Gnzti honetaz ikus, dena dela....)

14.3.4: Orain-geroa: "etorriko da"

Orain-geroaren bi balio nagusiak hauexek dira:

a) geroaldia (erabilera tenporala):

(61) **Kattalin bihar etorriko da**

b) menturazko nozioa (erabilera modala):

(62) **zuk hala badiozu egia izango da**

Esan dugunez, geroaren erabilera modal hau guztiz zabaldua dago mendebalean. Ohart gaitzen orain-geroa menturazko zentzuan erabiltzen denean esanahia orainaldikoa dela denboraren aldetik. Aipa dezagun, gainera, baimena eskatzeko eta horrelakoetan ere orain-geroa erabili ohi dela:

- (63) a. beste taberna batera joango gara?
b. ardo gehiago emanen dizut?
c. eseriko zara?
d. leiho hori hertsiko duzu, faborez?
e. hertsiko dut ate hau?

14.3.5: Orain aspektugabea: "etor dadin, has gaitzen, etor dadila, etor badadi/ dadinean", e.a.

Aditza **Ke**-gabe eta aspektugabe duten esaldiak ia beti mendeko perpausak ditugu. Dakigunez, euskal adizki jokatuak, mendeko perpaus batean agertzen delarik, **mendekotasun marka** bat hartu behar du; ondorioz, adizki **Ke**-gabe aspektugabeak ez dira inoiz inolako subordinazio markarik gabe agertzen ahal:

- (64) a. etortzen da
 b. etortzen zen
 c. etortzen dela
 d. etortzen bada
 e. *etor dadi
 f. etor dadin
 g. etor dadila
 h. etor badadi

Zehazki, orain aspektugabea hiru subordinazio marka hauetako batekin bakarrik ager daiteke: **-(e)n**, **-(e)la** eta **ba-**. Funtsean orain aspektugabea beti bat dela esan daiteke, edozein subordinazio marka haritzen duela ere: dena dela, lotura sintaktiko desberdinok oinarrizko forma horren erabilerak kutsatu egiten dituzte, eta ondorioz zail izaten da abstraktukerian erori gabe balio semantikoak zehaztea.

14.3.5.1. Orain aspektugabea + **-(e)n**: etor dadin

Morfologikoki orain aspektugabea + **-(e)n** dugunean, subjuntibo delakoaren parekoa da gehienetan (ikus 6. kap.):

- (65) a. **komeni da Patxi etor dadin**
 b. **Patxik ikus dezan ekarri dut liburu hau**

a) Hau da, edota "borondatezko" dei ditzakegun aditzen (**komeni**, **nahi izan**, **eskatu**, **erregutu...**) osagarri zuzen gisa, (65a) adibidean bezala, edota helburua, zertakoa, adierazten duten mendeko perpausetan, (65b) bezala. Dena den, egitura hauek liburu honen mugetatik kanpo geratzen direnez, mendeko perpausez aritzean aztertuko dira zehatzago.

b) Agindu balioa ere izan dezake **has gaitezen** bezalako batek. Orain aspektugabea + **-(e)n** da adizki hau, ikusten denez. Lehen pertsonan, batez ere pluralean, adizki hauek beste balio bat izan dezakete, inperatiboarena alegia:

- (66) **itzul gaitezen etxera!**

14.3.5.2. Orain aspektugabea + **-(e)la**

-(e)la atzizkia haritzen duten orain aspektugabeko adizkiok zerikusi handia dute, semantika nola sintaxi aldetik, agintekerearekin. Adibidez, agindu edo eskaera bat estilo zuzenetik zeharkako estilora itzultzeko, agintekeratik forma honetara pasatzen gara (**ezazu --> dezazula**).

Gero ikusiko dugunez, komunikazioaren ikuspegitik agintekerak baditu ezaugarri batzu eta maila analisiak ere honen ondorio batzu erakusten ditu. Alde batetik, agintekerak orainaldian egon behar du, eta pertsona jakin batzurekin komunizatu beti. Horretaz gainera, esaldi mota jakin batzutan baizik ezin da erabili (ikus *EGLU I*, 1. kap.), hots, esaldiak aginte perpausa izan behar du (hau da, agintekera delako modua ez da posible ez adierazpen perpausetan, ez galde perpausetan eta ez harridura perpausetan); eta esaldiak, gainera, lokabea izan behar du. Baldintza formalotako bat betetzen ez delarik, beste forma batzu agertzen dira. Adibidez:

(67) **paper hori bota dezazula esan dizut!**

Baita ere, agintekerarekin ezkontzen ez den pertsona bat agertu bezain laster:

(68) **mesedez, argiak itzal ditzatela ateratzen direnean**

Euskalki batzutan, ezezko inperatiboak agintekera gabe adierazi ohi dira:

(69) **ez zaitzela kadira horretan jar**

14.3.5.3. Orain aspektugabea + ba-; -enean: etor badadi, etor dadinean, etor dadin baino lehen...

Adizki hauek ba- aurrizkia hartzen dute edo -(e)n eta konjunkzioa. Literatura zaharrean, orain ez-burutua alde guztietan eta maiz aurkitzen badugu ere, forma aspektugabeak ere agertzen dira ebentualetan (subjuntibo espainolaren antzera):

(70) a. "Bekhatuaren usantzak gaitzen du berthutearen bidea: ordea baldin usantza hura itzul badadi bertze aldera, gaixtatasunetik ontasunera, edirenen da berthutearen bide hura bera, errax, atsegín eta plazent" (Axular, *Gero*, 61)

b. "kontsidera dezazunean zein pagamendu handia emanen zaitzun hemengo trabailu aphurrakgaik, erranen duzu, eztuzula, hain deus gutigaik, hanbat merezi" (Axular, *Gero*, 319)

14.3.6: Iragan puntuala: "zeturren"

Iragan puntuala, oraineko kidea bezala, aspektuaren aldetik gehienetan edo mugagabea edo jarraikorra dugu:

- (71) a. *banekien nere alde zinela*
b. *autoaren jabea guregana zeturren*

14.3.7: Iragan ez-burutua: "etortzen zen"

Iragan ez-burutuak, orain ez-burutuak bezala, errepikapen aspektua edo aspektu mugagabea adieraz dezake:

- (72) a. *zure anaia askotan ikusten genuen*
b. *gailurretik itsasoa ikusten genuen*

Aditz askok ez dute bigarren aspektu hau onartzen; horregatik ondoko perpaus hau zentzu errepikakorrean bakarrik ulertuko dugu halaberrez:

- (73) *Deia irakurtzen genuen*

Ez-burutua ez da jarraipen aspektua adierazteko erabiltzen:

- (74) a. **txakolina hartzen genuen Xarles tabernan sartu zenean*
b. *txakolina hartzen ari ginen Xarles tabernan sartu zenean*

14.3.8: Iragan burutua: "etorri zen"

Honen arazo batzu lehenago ikusi ditugu orain burutuaz mintzatzean. Beraz, iragan burutuak, orain burutuak bezala, bi nozio adieraz ditzake: denborazko iraganaldiaren kontzeptua edo iraganaldi hori aspektu perfektuarekin batera emana. Biak askotan ez dira garbi bereizten hala ere:

- (75) a. *zure etxera joan nintzen atzo*
b. *zu ikusi nahi zintudan, baina esan zidaten etxetik irten zinela*

"Gaur" eta "atzo" aditzondoan arteko denbora banaketa forma burutuari dagokio bakarrik. Beste perpaus hauek, beraz, ez dute ezer okerrik:

- (76)
- a. Patxiak hona *zatorrela* egunkaria erosi du
 - b. goizean kanpoan *nengoela* deitu duzula jakin dut; zer nabi *zenuen*?
 - c. eta arratsalde osoan hor egon al zara fisik entenitu gabe? Nik uste *nuen* dena *uleritzen zenuela*
 - d. zertan ari *zinen* beste neska horiekin ikusi zaitudanean?
 - e. hori esan dudanean *banekien* ados *egongo zinela*
 - f. zer esan dizut etxetik atera zarenean? ez *zintezela* berandu *etor* bazkaltzera
 - g. duela bi ordu baietz *esan nezakeen*, baina orain ez

Gainera, badirudi testuinguru berezi batzutan iragan burutua, aspektu perfektua adieraztean, gaurko gertakari bati buruz erabil dezakegula, adibidez:

- (77) zer diozu, goizeko zortzietan gosaldu duzula? Nik uste *nuen* hamaiketan *jaiki zinela*

14.3.9: Iragan geroa: "etorriko zen"

Iragan geroa hiru balio desberdinekin erabiltzen da: a) iraganeko ikuspegitik geroago gertatu behar zuena adierazteko; konpletiboetan eta perpaus lokabeetan ere noizbehinka:

- (78)
- a. esan nizun neronek egingo *nuela*
 - b. hogeitau urterekin N. Yorkera joan zen; han ezagutuko zuen bere emaztea
 - c. "Alderdi guztiekin hitzeginaz erabakiko zen gure arteko arazo guzuen konponbidea" (M. Atxaga, *DEIA*, 86.12.12)

Menturazko modalotasuna iraganaldiarekin konbina daiteke forma honen beste erabilera batean:

- (79) zuk ezagutuko *zenuen* nere anaia, ez da?

Iraganaldiko baldintza irrealen ondorioetan, forma honetaz baliatzen gara aldi gehicenetan:

- (80) a. zure adiskidea ezagutu banu, neronek *gonbi-datuko nuen*
b. zaldia saldu banu, asto bat *erosi beharko nuen*

14.3.10: Iragan zehaztugabea: "etor zedin, etor zedila"

a) **etor zedin** (iragan aspektugabea + -(e)n)

Orain subjuntiboaz egindako oharrak hemen ere ezar daitezke. Iragan subjuntiboa perpaus nagusia (semantika aldetik) iraganaldian dagoelarik erabiltzen da, denbora egokieraren ondorioz.

b) **etor zedila** (iragan aspektugabea + -(e)la)

Goraxeago jarritako I.1.E formaren kidea denez, ez dugu hemen berriz ere garatuko.

14.3.11: Alegiazko puntuala: "letorren, baletor, bailetorren"

Alegiazko -**Ke** gabeko adizkiak mendeko perpausetan ageri dira eta subordinazio markarekin beti ere. Ikus ditzagun banaka erabil daitezkeen formen balioak:

a) **letorren** (alegiatzko puntuala + -(e)n)

Guti erabilitako forma honi, geroago alegiazko aspektugabeaz esango duguna ezar dakioko:

- (81) "nahi nuke ichilik legon" (Lafitte, 378. orr.)

-(e)la subordinazio markarekin ere ager daiteke:

- (82) "Gaiycez lagola ençun nuyen bana nic ez ogucnic" (Etxepare *Linguae...XIII,4*)

b) Baldintza: **baletor** (ba- + alegiazko puntuala)

Adizki hauek baldintza hipotetikoak adierazten dituzte, eta alegiazko ez-burutuetan, alegiazko geroan edo alegiazko aspektugabearen baliokidetzat eman daitezke zeharo:

- (83) a. nere ama baletor
b. nere ama etortzen balitz
c. nere ama etorriko balitz
d. nere ama etor baledi

c)_Moduzkoak: **bait letorren (bailetarren)** (bait + alegiazko puntuala + -(e)n)

Honako bi esaldiok sinonimoak ditugu:

- (84) a. aberatsa balitz bezala (balitz legez) bizi da
b. aberatsa bailitzan bizi da

Baina esan behar da, dena dela, bigarren formak ez dirauela bizirik gaurko egunean, euskara mintzatuan behintzat. Erabilera hori guti erabilia izan da eta bizkaieraz bakarrik ageri da; bestalde, arkaikotzat edo ikasitzat jo beharra da, mende honetako zenbait idazletan izan bai baitu neurri bateko jarraipena:

- (85) "bere bihotz propio baten biziaz gainezkaturik bailiran"
(Saizarbitoria, ik. Arejita, *Euskal Joskera*, 305)

14.3.12: Alegiazko ez-burutua/geroa: "etortzen balitz, etorriko balitz"

Bi adizki hauek batera aztertzen ditugu orbat sinonimoak direlako. Hala ere, ez dira eskualde berean ibiltzen bata eta bestea: **etortzen balitz** ekialdekoa da eta **etorriko balitz**, berriz, mendebalean dute nahiago. Baldintza hipotetikoan ageri dira:

- (86) a. zer egingo zenuke diru asko irabaziko / irabazten bazenu?
b. "Defisen sortzepenez nüzü orai mintzo:
nik entzünik düdanaz da seme Tarbako;
Hanko amek *balütie sortzen* haurrak holako
intres lizate har gintzan orok emaztik hanko"
(Etchaun, Musée Defis, J. Haritschelhar, *L'oeuvre poétique...*, 514. orr.)

14.3.13: Alegiazko burutua: "etorri balitz"

Alegiazko burutua erabiltzen dugu iraganeko hipotesiak (ezinezko edo gezurrezkoak, hortaz) adierazteko:

(87) zer esango zenuen jakin bazenu?

Izan (ukan) tartekatuz adizki honetan, esanahia ez zaigu aldatuko:

(88) zer esango zenuen jakin izan bazenu?

14.3.14: Alegiazko aspektugabea: "etor ledin, etor baledi, egin legi"

a) etor ledin (alegiazkoa + -(e)n)

Euskal aditzaren eskema formalean ez dira falta forma hauek: ekialdeko euskalki batzutan agertzen dira, eta Euskaltzaindiak paraturiko paradigma batuan ere sartzen dira. Hala ere, balioaren aldetik, eta datuak kontuan izaki, adizki hauen eta iraganekoen (etor zedin, etor zedila) artean diferentzia sobera aurkitzea (semantika aldetik) artifizialegia dirudi. Arestian aipatutako alegiazko beste forma batzuen artean bezala (efortzen balitz, etorriko balitz), formon banaketa ez bide da, egitez, semantikoa, geografikoa baizik.

- (89) a. "Desiratzen zuten eguna ethor ledin" (Leizarraga, Act., 27, 29, in Lafon II, 86)
b. "Yxil ladin nahi nuque halaco den gucia" (Etxepare, *Linguae* ... III, 13)
c. "Pierris ioan cedin ur gainez, Jesusgana ethor ledinçat" (Leizarraga, Mt 14, 29, in Lafon II 87)
d. "Pierris ethor ledinean haren izala berere betaric cembeiten gainetic iragan ledinçat" (Leizarraga, Act., 5, 15 in Lafon II 87)

b) Baldintza: **etor baledi (ba- + alegiazko aspektugabea)**

Adizki honen balioa alegiazko burutugabe/gerotik (**etortzen balitz, etorriko balitz**) biziki hurbil da. Bada, antza denez, bion artean nabardura txiki bat; adizki aspektudunek gertaera gertagarriago bat edo adierazten bide baitute. Gaur egun adizki aspektugabeak, literaturatik at, ez dira orokorki erabiltzen ekialdean ez bada edo **ahal** partikularekin batera bizkaieraz ere, zentzu potentziala dutelarik orduan:

- (90) a. **hau egin bazeneza biziki esker niezazuke**
b. **berak zer esango leuke bere semea ikusi ahal bale(g)i?**

c) Potentziala: **egin legi** (subordinazio markarik gabe)

Erabilera hau bizkaieraren ezaugarrietako bat dugu. Adizkion balio semantikoa, euskalki berean hauei dagozkien forma **Ke**-dunen balio bera da, potentzialarena alegia; hau da, **le(g)i = le(g)i ke/lezake; ne(g)i = ne(g)i ke/nezake**, e.a.

14.3.15: KE Orain puntuala: "datorke"

14.3.16: KE Orain ez-burutua: "etortzen dateke"

14.3.17: KE Orain burutua: "etorri dateke"

14.3.18: KE Orain geroa: "etorriko dateke"

dator, etortzen da, etorri da eta etorriko da-ren menturazko formak dira **datorke, etortzen dateke, etorri dateke eta etorriko dateke**. Honek esan gura du haiek bezala erabil daitezkeela, menturazko nozio modala (ikus 2.4.2.1., eta bertako adibideak) adierazi nahi delarik. Euskara mintzatuari dagokionez, erabilera hau Iparraldean bakarrik aurkitzen da gaur egun; goi mailako erregistroetan, ordea, **ke**-dun orain puntualak (**dateke, duke, datorke**, e.a.) noizbait erabiltzen dituzte gaurko idazle ikasi batzuk.

14.3.19: KE Orain aspektugabea: "etor daiteke"

Adizki hau euskalki guztietan erabiltzen da gaitasuna edo posibilitatea adierazteko:

(91) **nahi duten guztiak etor daitezke bilerara**

Halaz guztiz, ekialdean **ahal** elementuaren bidezko perifrasi maizago erabiltzen da:

(92) **nahi duten guziak etortzen ahal dira bilkurrat**

Aipa dezagun, bestalde, **KE**-dun aspektugabearen ezezko formak guztiz gramatikalak direla euskaraz:

(93) **ez dezaket hori onar**

Nolanahi ere, mendebaleko euskaran horrelakoetan **ezin** erabiliko da ia beti, eta ekialdekoan, berriz, ezezkoetan ere, **ahal** erabili ohi da:

- (94) a. **ezin dut hori onartu**
b. **ezin onartu dut hori**
c. **ezin dezaket hori onar**
d. **ez dut hori onartzen ahal**

14.3.20: KE Iragan puntuala: "zetorkeen"

Bi balio izan dezake forma honek. Bietan, nahiz desberdinak izan, **zetorkeen**-en ordez **etorriko zen** ere ibiltzen ahal da. Lehen balioa menturazkoa da eta bigarrena "ezinezko" ondorio hipotetikoa; bietan iraganaldiko denbora adierazten da, jakina.

- (95) a. **Piarres hura gizon aberatsa zatekeen** (*izango zen*, mendebaleko euskara arruntean)
b. **lan hori hartuz gero, gizon aberatsa zatekeen** (*edo izango zen*)
c. "Nahi zukeien gchiago bizi, bekhamu gchiago egiteko" (Axular, *Gero*, 393)

Adizki honek idatzizko mailan du eremurik nagusiena gaur egun.

14.3.21: KE Iragan ez-burutua: "etortzen zatekeen"

Forma honen balio bakarra menturazkoa da: hau da, **etortzen dateke**-ri dagokion iraganaldiko kidea, zentzu berean eta geografi eremu berean erabilirik:

(96) **arrabots hori entzuten zenukeen**

14.3.22: KE Iragan burutua: "etorri zatekeen"

14.3.23: KE Iragan geroa: "etorriko zatekeen"

Forma hauek, berriz ere, bi balio desberdinekin erabil daitezke: menturazkoa bata, eta "ezinezko" ondorio hipotetiko gisa bestea. Beti bezala, menturazko balioa ekialdean besterik ez da ezagutzen:

(97) **nehork ez daki xuxen, baina zenbaiten ustez gizon hura hil aitzin biziki aberastu zatekeen**

esan nahi baita gizon hura "aberastuko zela" edo "aberastu zela, antza". Menturazko balio honetan, **etorri zen** eta **etorriko zen** adizkien kideak ditugu **etorri zatekeen** eta **etorriko zatekeen**. Bigarren erabilera, aldiz, hegoaldean ere ezagutzen da, adibidez:

(98) **jakin izan banu, etxean gelditu(ko) nintzatekeen**

Honen ordez, **geldituko nintzen** esan daiteke eta ongi esana da, gainera, edozein euskalkitan, forma **Ke**-duna baino aise gehiagotan ere gaurko euskara mintzatu zein idatzian. Hona hemen literatura zaharretik bilduriko adibide bat:

(99) "Erregek xoil miretsi zuen hunetzaz, zeren ezizuen uste ezen erreginak halako iokorik iokatu zukeiela" (*Axular Gero*, 267)

14.3.24: KE Iragan aspektugabea: "etor zitekeen"

Bistan denez, etor daiteke-ren iraganaldiko kidea da:

(100) nahi zuenean etor zitekeen

14.3.25: KE Alegiazko puntuala: "letorke"

Ondorio hipotetiko adierazteko erabilia da:

(101) a. hori egin baneza ere, hura ados legoke
b. ez legoke txarto

14.3.26: KE Alegiazko (ez-burutu/burutua) geroa: "etortzen litzateke/etorri litzateke/etorriko litzateke"

Ondorio hipotetiko orokorrak (ez ahalezkoak) adierazteko alegiazko KE-dunak erabiltzen dira, eta aspektu formalari dagokionez, hiru aukera daude: puntuala (**letorke**, oraintxe ikusi duguna), geroa (**etorriko litzateke**) eta aspektugabea (**etor liteke**). Ez-burutua (**etortzen litzateke**) posiblea da baina oso guti erabilia, Lafittek aitortzen duenez: "Il faut cependant reconnaître qu'il disparaît de plus en plus: il n'existe que dans quelques localités et on lui substitue l'infinitif radical accompagné du conditionnel de *dadi* ou *deza*. Ex.: *hauts lezake*, 'il le casserait'; *jin ninteke*, 'je viendrais'. Il est trop tard pour remonter le courant, et il faut accepter le système: "jakiten banu, egin nezake; jiten balitz, joan ninteke", 'si je l'apprenais, je le ferais'; 's'il venait, je m'en irais'".

(102) "Musde Clerice jaunari, deklaracera da jarri
desiratzen lükila ençun çounbait uscaldun coblari
Etchaunc nahi beitçukin ençun coumpagnan hits hori"
(Etchaun: Musde Legouve, J. Haritschelhar,
L'oeuvre poétique...)

Forma ez-burutua guti erabiltzen bada, burutua (**etorri litzateke**) are gutiago. Bi era gelditzen dira, beraz, puntualaz gainera, euskaraz ondorio hipotetiko arrunta adierazteko, geroa eta aspektugabea, hain zuzen ere, eta hauen banaketa geografikoa da, aspektugabea ekialdean bakarrik erabiltzen baita zentzu honetan (ikus beherago). Mendebalean, beraz, hauxe dugu egiturarik arruntena:

(103) hamar milioi pezeta (izango) banitu, etxe
bat *erosiko nuke*

14.3.27: KE Alegiazko aspektugabea: "etor liteke"

Forma hauek bi balio desberdin izan ditzakete; balio hauen banaketa hein handian geografiak zehazten du. Orain eta iraganeko KE-dun aspektugabeak (**etor daiteke**, **etor zitekeen**), ikusi legez, gaitasuna edo posibilitatea adierazten dute. Alegiazko KE-dun aspektudunek, berriz, (**etorriko litzateke**) gero hipotetikoa adierazten dute. Hauen kide aspektugabeak, **etor liteke-k**, ere, ondorio hipotetikoa adierazten du berez (hizkera arrunt batzutako salbuespenak salbu, ikus behean). Bi balioen arteko aldea, hortaz, hauxe da. Mendebalekoan, gaitasunezko edo posibilitatezko modalitasuna forma honen esanahian biltzen da beti; ekialdekoan, aldiz, modalitasun hori ez da forma honetan ulertzen nahitaez, eta ondorioz ondorio hipotetiko simplea adierazteko erabil daiteke eta erabiltzen da, mendebaleko **etorriko litzateke**-ren ordez. Hau da, ondoko bi esaldiok baliokide hutsak dira, bata mendebalean eta bestea ekialdean erabiltzen direnak:

- (104) a. **nik diru horrekin etxe bat erosiko nuke**
b. **nik diru horrekin etxe bat eros nezake**

Ohart gaitzen, dena dela, ekialdean **nahi nuke**, **behar nuke** eta horrelakoak erabiltzen direla, eta ez ***nahi nezake**, ***behar nezake**. Horrenbestez, **nik banuke** esaten den era berean, horien atzean **nahi izan**, **behar izan** e.a. bairitugu.

Hauetan ez da adierazten gaitasun nozioaren kutsurik, ondorio hipotetiko hutsa baizik. Gaitasuna adierazteko, ikus dezagun orain mendebalean eta ekialdean zein formaz balia gaitzkeen:

- (105) a. **egungo prezioetan, diru horrekin etxe bat eros(i) nezake/erosi ahal izango nuke**
b. **egungo prezioetan, diru horrekin etxe bat erosten ahal nuke/eros (ahal) nezake**

Ohar bat adizki aspektugabeon erabileraz mendebaleko hizkeretan. Honelakoetan alegiazkoaren erabilera maiz kutsu distantziatu edo bigundu bat adierazteagatik egiten da, isilpeko **nahi bazenu** edo antzeko zerbait ulertzen dugula. Horrela abiaturik, mendebaleko hiztun batzuk alegiazko formak orainekoen ordez erabili ohi dituzte, azkenok baztertuz:

- (106) a. guk ere egin dezakegu
b. guk ere egin genezake

Horrela, bigarren forma bakar hau ageri da askotan bai kutsu hipotetikoa emateko asmorik ez dagoenean, bai nozio hori adierazi nahi denean ere.

14.3.28: Agintekera puntuala/aspektugabea

(ikus 11. kapitulua)

15. PERIFRASI MULTZOAK

15. PERIFRASI MULTZOAK

Aditz bakarrak adieraziko lukeen ekintza edo egoera aditzera emateko erabiltzen dugun hitz bat baino gehiagoko esapideari deritza perifrasi multzoa (ikus hemen 6. kapitulua).

Beste hizkuntza askok bezalaxe, euskarak ere baditu horrelako zenbait. Horietako batzu, gure ustez gehien erabiltzen direnak hain zuzen ere, azalduko ditugu hemen.

15.1. "ARI IZAN" ETA KIDEAK

15.1.1. -tzen + ari izan

Perifrasi multzoa denez, bi aditzez osaturiko egitura da (ikusi honetaz esaten dena 6. kapituluan). Batak beti forma bera, hau da, forma ez-jokatua hartzen du eta inesiboan doan aditz izena da. Aditz izen honek adierazten digu beti ere aditz nagusiaren eduki semantikoa.

Inesiboan doan aditz izen edo nominalizazio horrek inesiboaren kasu marka daraman edozein izenen funtzioa betetzen du. Inesiboan datozen ondorengo perpausekako izen sintagmei buruzko galdera egiten badugu, galdetzaile bera erabiliko da beti. Ikus, bada, perpausotako sintagmak:

- (1)
- a. ikastolako haurrak *jolasean* ari dira
 - b. afalostean *bertsoan* aritu ginen
 - c. euskara *ikasten* eta *sakontzen* ari dira gazteak
 - d. *igotzen* ari da liburuen prezioa
 - e. ni euskal gramatika *ikasten* ari naiz

Azpimarratu ditugun sintagma horiei, esan bezala, galdetzaile bera dagokie beti: zertan?

Halaz guztiz, nahiz eta ari izan forma konposatu horretan eskierki izan aditz iragangaitza erabili, inoiz aditz hori doan perpausean osagarri zuzen mugagabe gisa ager daitezke kasu absolutuak, batez ere hauek izenordain galdekari eta mugagabeenak direnean. Orduan, badaiteke isilik dagoena egiten edo antzeko aditzen kasu absolutua izatea:

- (2) a. "Zer ari zara hemen, galdetu zion morroiak" (Satrustegi: *Ipui Miresgarriak*, 52.orr.)
 b. *ezer ez dira ari*
 c. *ez haiz deus ari*
 d. *hura ere zerbait ari da*

Inesiboan doazen aditz izen horiek, bestalde, beste zenbait adizki perifrastikotan ez bezala, aditz iragankorrenak eta iragangaitzenak izan daitezke, hala nola:

- (3) a. *mutiko hori asko ari da hazten*
 b. *mutiko hori euskara ikasten ari da*

Erabilera eta esanahiari dagokionez, beste hauek ere hartu behar ditugu kontuan. Hasteko, *ari izan*-en subjektua absolutuan doa beti. Dena dela, nominalizazio aditza iragankorra denean, bi *nor* agertzen dira hor, bata *ari izan*-en subjektua eta bestea aditz izenarena, hala nola:

- (4) *ni gramatika ikasten ari naiz*

Ari-rekin, bestalde, *izan* aditz iragangaitzaz gainera --hori baita formarik erabiliena-- **edun* aditza ere erabiltzen da inoiz. Hala, *gizona/gizonaren sendatzen ari da* perpausaren parean *gizona sendatzen ari du*, edo *gizonak sendatzen ari da* perpausaren ondoan *ura/uraren karreatzen ari du* eta antzekoak erabiltzeko joera dago ekialdean.

Mendebaleko euskalkietan ere, bizkaierazkoan salbu, badira honako esapide hauek bezalakoak:

- (5) a. *elurra urtzen ari du*
 b. *eguna luzatzen ari du*
 c. *luzatu du eguna*
 d. *eguna luzatzen hasi du*
 e. "(Espiritu Santuak) gudan ari duen lana" (Orixe)

Forma trinkorik ez duten aditzak, nola orainaldiko eta iraganeko ekintza edo egoera aspektugabea edo puntukaria adierazteko beretiko formarik ez duten, *ari naiz.../ari nintzen...* aditz forma elkartuez baliatzen dira hutsune hori betetzeko:

- (6) a. *igofen ari gara* une honetan eta ez jaisten
 b. *erortzen ari den* etxeari jarri euskarria
 c. *atzo entzuten ari ginen* eta orain mintzatzen

Beste batzutan, eta hau gipuzkeran gertatzen da, inesiboan datorren aditz izenari adizki trinko bat baldin badagokio, adizki trinko horrek adierazi gura duen ekintza edo egoera galdegai dela adierazteko **ari izan** forma elkartuarekin perifrasi eginez erabiltzen da. Hala nola:

- (7) a. *mutiko hori ez da egurra eramaten ari, ekar-tzen baizik*
 b. *auto hura ez da joaten ari, etortzen ari da*

Esate modu horiek bizkaierazko **ibili dabil**, **etorri dator** eta antzekoen pareko esangura dute.

Bizkaierazkoan ez beste euskalkietan erabiltzen den **-tzen+ari izan** perifrasi multzo honetaz aparte, baditugu ekialdean bakarrik erabiltzen diren beste hiru perifrasi:

- a) **-tzeari + ari izan**
 b) **-tzerat + ari izan**
 c) **-tzera + ari izan**

Formaren aldetik, nabaria da nola bereizten den lehenbiziko multzoa beste bietarik, hauetan bakarrik ageri baita adlatiboaren kasu marka. Adlatiboaren kasu marka dutenen artean, berriz, batean **-ra** agertzen den bitartean bestean **-rat** dugu, guzti hau euskalkien arteko diferentzia besterik ez dela, "t"-dun hori Behe-Nafarrokoa dugularik eta bestea Ekialdekoa.

- (8) a. *igotzeari ari dira* mendigoizaleak
 b. *sendatzeari ari dira* auzoko mutila
 c. *haren sendatzerat ari da* medikua
 d. "Erran dut bazka egitera ari behar dugula" (Duvoisin, *Laborantzaco...*, 130.orr.)

Formari begiratu gero, **-ari** tankerako itxura duten aditz izenak iragangaitzak edo, iragankorrak izanik, iragangaitz gisa erabiliak ditugu eta nor bakarra ageri da adibide horietan. Horrenbestez, bi aditzen subjektua bat bera da, bai **ari izan**-en subjektua, eta baita aditz izenarena ere.

- (9) a. [(gu) ikasten] ari gara (gu)
 b. [(gu) ibiltzen] ari gara (gu)

Bi nor dira, hortaz, horrelakoetan: bata ari izan-en subjektua eta bestea, aditz izenaren osagarri zuzena (ikus hemen, dena dela, 6. kap.). Forma trinkoak dituzten adizkietan ere ageri dira batzutan horrelako perifrasi multzoak:

- (10) a. liburu honi kolorea joaten ari zaio
 b. orain ari da etortzen jendea

15.1.2. -tzen jardun

Inesiboan doan aditz izena **jardun** aditzari lotzen baldin bazaio, beste perifrasi mota bat sortzen da, eta perifrasi hau bizkaieraren eremuan ibiltzen dena da.

Formari dagokionez esan behar dugu aditz nominalizatu horiek iragankorrak izan behar dutela beti. Perifrasi mota hau ezin da, beraz, aditz iragangaitz nominalizatuekin erabili. Horrela ongi daude:

- (11) a. "...ezteustazu ezer ulertuko, ia bear bada nire euskerea ezjala euskerea esaten jardungo dozu..." (Tx. Agirre, *Kresala*, 5.orr.)
 b. "itsasoraterik izan ezan goiz baten, Anjelek txibikorafak egiten ziarduala" (Agirre, *Kresala*, 72.orr.)
 c. "Bitartean aterpekoak *baziarduen* egifaletan Berrio-Otxoaren bizitza *ereztuen*..." (Tx. Agirre, *Kresala*, 98.orr.).

Beste hauek, ordea, ez-gramatikalak dira:

- (12) a. *etxe egin berriak *erortzen dihardu*
 b. *ikastolako haurrek elgorriz *gaisotzen dihardute*
 c. *loratzen *ziharduten* garaian kimatu zituen zuhaitzak

Esanahiari dagokionez, **-tzen + ari izan** edo ondoren datorren **-tzen + egon** perifrasiak duten esanahia bertsua da: aditz izenak adierazten duen ekintzaren jarraia.

15.1.3. -tzen + egon

Formaren aldetik begiratuta, berehala ikusten da zein elementuz osaturik dagoen perifrasi multzo hau. Aide batetik, inesiboan doan aditz izena dago; bestetik, berriz, **egon** aditz trinkoa.

Aditz izenaren tokian edozein aditz joan daiteke, nahiz iragankorra nahiz iragangaitza izan. Ikus, bada, honako adibide hauek:

- (13) a. "Entzutea daukadanez, bata, portuko *jausten egoan* etxe zar baten jaio zan..." (Etxeita, *Jose txo*, 182.orr.)
b. "Beñ lanbolina beko kalean alboradea *jotenegoala*..." (Agirte, *Kresala*, 50.orr.)
c. "Ez dot... esaten... señac *asten* (sic) oi *dagozan* asco gaitic, ardura pusca bat iminizen ez dabeelaco" (J.J.Mogel, *Echeco escolia*, 192. orr.)

Esanahiari dagokionez, -tzen + **ari izan** perifrasiak duen adierazi bera du. Hortaz, aspektu puntukaria adierazteko erabiltzen da.

Hala ere, kontuan hartu behar da perifrasiak ez dela beti inesiboan doan aditz izenak eta ondoan izan dezakeen **egon** aditzak osatzen dutena. Perifrasiak denean, **egon** aditzak ekintza adierazten du edo, hobeto esanda, ekintzaren jarraia. Beste batzutan, ordea, aditz honi berez dagokionez, egoera adierazten du. **Egon** eta **izan** balio semantiko bereko direnean (ikus hemen *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (I)*, 363. orr.) gertatzen da hori, ondorengo adibideotan ageri denez:

- (14) a. nere aita musika *entzuten egon da/izan da plazan*
b. asteburu honetan pilota partidua *ikusten izan naiz/egon naiz Iruñean*
c. atzo On Joxe Miel *izan ginen/egon ginen agurtzen*

Adibide horietan ikusten da "entzuten egon", "ikusten egon" eta "agurtzen egon" perifrasiak esanahiak "entzuten izan", "ikusten izan" eta "agurtzen izan" perifrasiak parekoak direla eta ez direla aipatzen ari garen perifrasi horren barruan sartzen, ez dutela ekintzaren aspektu puntukaririk adierazten, egoera baizik. Hor, **egon** aditzak **izan** aditzari dagokion funtzioa betetzen du. Hortaz, **egon** aditza perifrasiarekin osatzen den ala ez jakiteko, ordezkak lezakeenetz ikustea komeni da, azkeneko etsenpluetan ageri denez. Benetako perifrasiak baldin bada, **egon** vs. **ibili**-ren esanahietan erabili ohi da.

15.1.4. -tzen + ibili

Perifrazi honetan inesiboko aditz izena **ibili** aditzarekin batera doa. Esanahia, berriz, aditz izenak adierazten duen ekintzaren jarraia edo errepika azaltzen du.

Inesiboan doazen aditz izenak aditz iragankorrak dira gehien bat, baina badira iragangaitzenak ere:

- (15) a. "Eta basurde hori *jaten ebillela* azur bat jausi jakon lurrera" (Estonba'tar Mikel, *Zer*, uztaila 1977, 3)
b. "Ez denborarik galtzen ibili, esan zion" (Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, 42.orr.)
c. "...baina txikiak ziren eta...*jolasten ibiltzen ziren* kabian" (Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, 7.orr.)
d. **haurrak** *zuhaitzetara igotzen dabiltzala* esan didate
e. **nola** *habil* hi heure herriaren aurka *mintzazen?*

Batzutan, aditz izenaren orde z zenbait izen ere erabil daitezke inesiboaren kasu markarekin, perifraziaren esanahi bera duelarik, hala nola:

- (16) a. *jolasean zebiltzan* ikastolako **haurrak**
b. *lanean dabil* Peru
c. *larrean dabilta* auzoko behiak

Zenbait aditz iragangaitzekin, halaz guztiz, ez dator ondo perifrazi modu hau. Semantikak badu, beraz, zerikusirik horretan, aditz iragangaitz horiekin barneko aurkesana bait dute **ibili** aditzarekin, hala nola:

- (17) a. **lanera berandu joaten zabiltzate*
b. **guri lanean laguntzera etortzen zabiltzate*

Perifrazi forma hauek bitxi samarrak dirudite, egia esan.

Orain arte azaldu ditugun perifrazi horien pareko eta esanahi bereko beste perifrazi mota bat edo beste ere bada, baina euskalki mailakoak dira, eta euskalki mailan ere erabilera mugatua dutenak eta gaur egun nahikoa galduz doazenak: **-tzen+eragon**, **-tzen+eutsi** eta **-tzen+erauntsi**.

Hauetarik lehenbizikoa, **-tzen+eragon** alegia, Bizkaian erabiltzen da eta oso toki mugatuetan _Gemika aldean eta Arratia aldean- eta galtzen ari da, egia esan. Hona horren adibide batzu:

- (18) a. "Ibaiondora eldu zanean..., matzak indarga *joten eragoiola* zaldun batek, errukiaren bereganako bidca artu eban" (Azkue, *Euskalerrriaren Jakintza II*, 21.orr.)
b. "Sakristeian soñekoak ipinten lagundu bearrean, euliak eskuz arrapatzen eragon" (*Euskalzale*, 1898, 21.orr.)
c. "Albokariak *joten eragoion* artean buruan erabillen uste bertso onelantxe norbaitek jarri eban" (Azkue, *Eusk. Jak. II*, 27.orr.)
d. "Lamindano deritxon auzotegian, Arratian, ama laba-sua *egiten eragoion* bitartean, negar ta negar egoan bere alabatxo bat atetan" (Azkue, *Eusk. Jak. II*, 75. zkia).

Bigarren perifrasiare, hau da, **-tzen+eutsi**, Bizkaian erabiltzen da eta aurrekoa baino mugatuagoa da, Aulesti eta Markiña aldekoa:

(19) **mutiko horrek ikasten dautsa**

Bi perifrasi multzo hauetan, besteetan bezalaxe, aditz izenaren tokian beste izen sintagma bat ere ibil daiteke inesiboan jarrita:

- (20) a. "Zetan *daragoiok* alan?, itaundu eutsan zarrenak" (Azkue, *Eusk. Jak. II*, 27.orr.)
b. **jo ta ke beharrean dautsa**

Aipatu dugun hirugarren perifrasiare, **-tzen+erauntsi**, Ekialdean erabiltzen da eta beronen erabilera ere oso mugatua da:

(21) **josten erauntsi dira emaztekiak**

Beste perifrasiak bezalaxe, hau ere izen bat inesiboaren kasu marka duela erabiltzen ahal da:

- (22) a. "Lanean *derauntsa*" (Harriet, *Dictionnaire...*, "erauntsi")
b. "Erauntsi dizie pilotan eijerki" (Harriet, *Dictionnaire...*, "erauntsi")

15.2. NAHI, GOGO, GURA, GEI + izan/*edun

Nahi, gogo, gura, gei izenak **izan/*edun** aditzekin batera, banako edo unitate bat sortuz datozenean, "nahia", "gogoa" eta "guraria" adierazten duten aditz modal bihurtzen dira.

Nahi, gogo, gura, berez, izenak dira eta izen baten arauera jokatzeko dute eta horren funtzioak berak betetzen:

- (23) a. *nahiak (gogoak, gurak) askotan ahalak baino gehiago dezake*
b. *maitasunak uste baino gehiago dezake*

Adibide hauetan, **maitasunak** hitza izen sintagma den bezalaxe, **nahiak (gogoak, gurak)** ere izen sintagma dira, eta edozein izenek bezalaxe funtzionatzen dute.

Beste batzutan, ordea, **nahi, gogo, gura, gei**, izen horiek aditz konposatuko edo perifrastiko elementu gisa ibiltzen dira. Orduan, izen horiek absolutu mugagabeen doaz beti, hala nola:

- (24) a. *edozertako dirua nahi (gura) dute/da*
b. *etxera garaiz joan nahi (gogo, gei, gura) zuen/zen*
c. *lana izatea nahi (gogo, gei, gura) genuke/ litzateke*

Hiru adibide horietan ikusten denez, **nahi dute/nahi da, nahi zuen/nahi zen, nahi genuke/nahi litzateke** bikoteak "nahi (gogo, gura) + ukan/izan"-ek osaturiko perifrasi multzoak ditugu. "Gei" eta "gogo", osagarria aditza denean erabiltzen dira.

Eman ditugun adibideetan ikusten denez, **nahi+ukan/izan** perifrasi multzo horiek hiru eratako objektu osagarria edo **nor** kasua har dezakete: izena, aditza eta aditz izena. (24). adibideak, hau da, **edozertako dirua nahi (...)** **dute/da** esapideak **dirua** izen sintagma darama kasu absolutuan osagarri edo subjeto gisa, beste edozein aditzek bezalaxe.

(b) adibideak, aldiz, **etxera garaiz joan nahi (...)** **zuen/zen** esapideak alegia, partizipioaren <TU> forma duen aditza darama osagarri edo **nor** subjeto gisa.

Azkenez, (c) adibideak, <TZEA> aditz izendua duen perpaus osagarria darama objektu osagarriaren edota nor subjektuaren funtzioan: *lana izatea nahi ... genuke/litzateke*.

Hiru eratako osagarri horiek direla eta, komuntadurarekiko zenbait arau izan behar dira kontuan:

a) Osagarria izen sintagma denean, perifrasi aditzak horrekin egingo du komuntadura, *nor-(nork)* izen sintagmekin alegia:

- (25) a. *lana nahi dute gazteek*
b. *liburuak nahi dituzte ikasleek*
c. *ogia nahi da gure etxean*
d. *gizon langileak nahi dira lantegian*

b) Osagarri zuzena <TZEA> partizipioaren forma duen mendeko aditz denean, perifrasi multzoko aditzak komuntadura singularrean eginen du, aditz izendua singularizat hartzen baita:

- (26) a. *irakurleak ugaltzea nahi du idazleak*
b. *eguzkiak berotzea nahi izaten da udaran*

c) Osagarri zuzenaren funtzioa, partizipioaren <TU> forma duen aditzak betetzen duenean sortzen dira zenbait arazo. Orduan honako arau hauek izan behar dira kontuan:

Lehenik, mendeko perpausoko aditza zeinnahi motatakoa dela ere -iragankorra nahiz iragangaitza- ukan dela eskerki perifrasi multzoko aditza:

- (27) a. "Jan eben guztiak naroro edo gura beste" (Iturzaeta, *Berbaldiac I*, 133.)
b. "Zer egin gogo duk?" (Duvoisin, *Dictionnaire*, "gogo")
c. "Gaizki kausitzen du zuk egin gogo duzuna" (Duvoisin, *Dictionnaire*, "gogo")
d. "Gero egin gogo dituzun ongiak eta deskarguak" (Axular, *Gero*, 297.orr.)
e. "...joan gura neurque, joan bear nintzateque, baña ecin joan naz" (Iturzaeta, *Berbaldiac*, 49.orr.)
f. "...Jesus Jainko-Gizonaren ikustera etcheetarik jali nahi balute bezala hek ere" (Barbier, J., *Piarres*, 168)
g. "Gure Salbatzaileak,... haragiaren arauaz etzuen hil nahi" (Axular, *Gero*, 361. orr.)

- h. "...halakoarekin guztiak dute lakhet, guztiak *nahi dute ibili eta egon*" (Axular, *Gero*, 387. orr.)
- i. "Auxo aitu eban Davidec, esan ebanean, *icusi guraco dau* Erreguoc zure edertasuna" (Iturzaeta, *Berbaldiac*, 153. orr.)
- j. "Dudatzen nintzen Piarresek, ..., *nahiko zuela egin* pausatto bat Azkainen" (Elissanburu, *Piarres Adame*, 19.orr.)
- k. "Eztuzu pentsatzen...*gozatu nahiko duela?*" (Axular, *Gero*, 329. orr.)
- l. "Gal-bideak oro utzirik, *nahi duzu* nerekilan *ethorri?*" (Barbier, *Piarres*, 240.orr)
- ll. "*Eztizit edan gei*" (Harriet, *Dictionnaire*, "gei")
- m. "Ahaide delezius huntan bi berset *gei tit kantatū*" (Etchahun, 'Ahaide delezius' in Haritschelhar)
- n. "Jun gei dizut" (Duvoisin, *Dictionnaire*, "gei")

Bigarrenik, mendeko aditza **nor** motakoa denean, **izan** laguntzailea erabil daiteke eta erabili izan da, ekialdean batez ere:

- (28)
- a. "Baldin beñi ere azkenarekin *gelditu nahi bazara*..., eta gerlaren akhabatzerik..." (Axular, *Gero*, 386.orr.)
 - b. "...orok maite zuten ihizlari chaharra...bere buruaren jabe beñi *bizi nahi zen* Dabit ihizlaria" (Barbier, *Piarres*, 128.orr.)
 - c. "*Nahi bahiz* bicitece eternalian *sarthu*, beguira etçac maniac" (*Uscaldunaren laguna*..., 79.orr.)
 - d. "Çoure khurutchia bessarcacen çoureki *bici eta hil nahi gutuçu*" (*Uscaldunaren*..., 198.orr.)
 - e. "Aberastu cenian *nahiçan cen* bere herritarren guehien içan" (*Uscaldunaren*..., 79.orr.)
 - f. "*Nahi izan bazira* zelian dohatsū" (*Kantika*)
 - g. "Eleizaren barruan *hil nahi bazira*" (Tarus, *Oña hilceco bidia*)
 - h. "...Celiari soiten ciracoçun leku çointara haxetik heldu *guei cien* bati beçala" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez Jesusen*..., 261.orr.)
 - i. "Gonde fuerte heer iduri cieççu..., *ezticie guei çuten* beçala eguiten" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez Jesusen*..., 26. orr.)

Horrela erabiltzearen arrazoia, batzuen eritziz, **nahi**, **gura** osakideak izenondo gisan erabiltzean datza. Osakide hauek, beraz, izen funtzioarekin erabiliz gero, ***edun** hartuko lukete aditz; **izan**, aldiz, izenondo gisa hartuz gero.

Bestalde, badagoke semantika aldetiko arrazoirik ere. Izan ere, batzuk ondo bereizten dituzte, esate baterako, *etxea ondo jantzi nahi baduk* eta ondo *jantzi nahi bahaiz heu*. Batean, *jantzi* aditza iragankortzat joa baitago; bestean, aldiz, iragangaitz modura hartua. Hori nabari ageri da *ohea jantzi dut* vs. *jantzi naiz* esapideetan.

Hirugarrenik, *nahi*, *gogo*, *gura*, *gei* + *izan/ukan* elementuez osaturiko perifrasi multzoak datiboarekin erabili nahi badira, osagarri duten aditzari dagokion adizkia aukeratu beharko da. Hala, aditz hori iragangaitza baldin bada, *nor-nori*-kako adizkia dagokio, hala nola:

- (29) a. "Ohi nola, aspaldian *nahi etzait mintzatu*" (Detxepare, *Linguae* VII,9)
 b. "...eta halatan, hala nola baitzinitut bezala, *mintzatu nahi natzaizu*" (Axular, *Gero*, 1.orr., Barcelona, 64)
 c. "...Jainkoari zin zinez bihotzeko urrikimendu batekin *nahi natzaika* barkhamendu *eskatu*..." (Axular, *Gero*, 46.orr.)

Mendeko aditz hori iragankorra bada, ordea, *nor-nori-nork* jokaerako adizkia erabili behar da, ondoko adibideok erakusten digutenez:

- (30) a. "Horren gainean *eman gogo darotzut* chehetasun bat..." (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 181. orr.)
 b. "Mescede bat egin *gura neuskizu*"
 c. "...hola *nahi ukhen deiku merechitu* bekhatiaaren esclavagiaren petic jaiki eraztoco *gracia*" (*Uscaldunaren laguna*, 178.orr.)

Batzutan, *nahi*, *gura* ("gale" eta "zale" bezalaxe) izen baten ondoren eta horri hertsiki loturik doaz. Orduan izenondoak osatzen dituzte. Ez lirateke, beraz, *izan* aditzaren osakide izango, beste izen sintagma baten osakide eta *izan* loturazko aditzaren atributo baizik, hala nola:

- (31) a. *agintari-nahi dena* ez dago morroi izateko
 b. *egarriaren egarriz ur-gura naiz*
 c. "Ganixek *errege-nahi* bat lagundu; imperadore-nahi bat orobat lagunduko zuen" (Dasconagaguerre: *Athea*..., 173.orr.)

Azkenik esan behar da, etorkizun aspektua adierazten duen *-ko* marka, arauz, perifrasiaren osakide diren *izan* edo *ukan* aditzek hartzen badute ere, behin baino gehiagotan aditz horiek isildu egiten direla eta *-ko* marka hori *nahi*, *gura* izenek hartzen dutela, hala nola:

- (32) a. "Eztuzu pentsatzen, zuk bezala, hark ere bere denboran gozatu *nahiko* duela? *Nahiko* nian, Pello, muthil traste horrek eman balio..." (Elissamburu, *Piarres Adame*, 27.orr.)
- b. "Dudatzen nintzen Piarresek,...., *nahiko* zuela egin pausatto bat Azkainen" (Elissamburu, *Piarres Adame*, 19.orr.)
- c. "..., euequi *guraco* dituz artuemon ta adisquidetasunac ordi arinagalduco orecaz?" (Iturzaeta, *Berbaldiac I*, 61. orr.)
- d. "Auxe aitu eban Davidec, esan ebanean, icusi *guraco* dau Erreguce zure edertasuna" (Iturzaeta, *Berbaldiac*, 153. orr.)

Atal hau amaitu aurretik ohar bi egin nahi ditugu. Hasteko, **nahi** eta **gura** konparatibo eta superlatibo formetan ere erabiltzen dira, hala nola: **hori dut nahien/guraen, nahiago/gurago dut ogia...** Bestalde, aditz konposatu hauen osagarri zuzena aditza denean sortzen diren beste zenbait arazo perpaus konposatuak aztertzerakoan ikusiko dira.

15.3.BEHAR

15.3.1. Behar + izan/ukan

Perifrasia multzo hau **behar** izenak eta **ukan/izan** aditzek osatzen dute. **Behar**, berez, izena da eta izen baten arauera jokatzeko du, horren funtzio berak betez:

- (33) a. *lagunak* bultzatu du hori egitera
b. *beharrak* bultzatu du hori egitera

Adibide hauetan ikusten den legez, **lagunak** eta **beharrak** pare parean aurkitzen dira, bestelako edozein izen sintagma agertzeko litzatekeen leku berean. Adibide horietan, bada, bere esanahia gordeaz, edozein izenek bezalaxe funtzionatzen du.

Beste batzutan, ordea, **behar** izen hori aditz konposatuko elementu gisa ere erabiltzen da. **Ukan/izan** aditz bikoteari lagunduz eta horiekin unitate edo banako bat sortuz doanean gertatzen da hori. Kasu honetan, **behar** izena absolutu mugagabea da beti, hala nola:

- (34) a. *dirua behar dut/da*
b. *etxera garaiz joan behar dugu/da*
c. *polizia etortzea behar zenuke/litzateke*

Hiru adibide hauek erakusten dutenez, **behar dut/behar da, behar zenuke/behar litzateke, behar dugu/behar da** bikoteak **behar + ukan/izan-ek** osaturiko perifrasiak ditugu.

Bestalde, adibideetan ikus daitekeenez, aipatzen ari garen aditz konposatu hauek hiru eratako objektu osagarria edo kasu absolutuaren marka daraman izen sintagma har dezakete. Lehenbizikoak, hots, **dirua behar dut/da** esapideak **dirua** izen sintagma darama **nor** kasuan osagarri edo subjeto gisa, beste edozein aditzek bezala. Bigarrenak, aditza nahi du, hau da, <TU> forma duen aditza darama osagarri edo **nor** subjektu gisa: **joan behar dugu/da**. Hirugarrenak, azkenik, <TZEA> aditz izendua duen perpaus osagarriak betetzen du objektu osagarriaren edo **nor** subjektuaren funtzioa: **etortzea behar zenuke/litzateke**.

Komunztadurari dagokionez, bi mailatako arazoak ditugu: **izan** eta ***edun** aditzek bere subjektu eta osagarri zuzenarekin duten koinunztadurari dagokiona eta mendeko **nor-(nork)** aditzekin duten komunztadurarekikoa. Ikus ditzagun biak banaka.

Lehenengoari dagokionez, hau da, **izan/ukan** aditzek bere subjektu eta osagarriekin dutena kontuan izanez, hiru kasu desberdin gerta daitezke:

a) **Behar + izan/ukan** aditz konposatuek mendeko perpausik ez dutenean, bere perpauseko **nor-(nork)** izen sintagmekin egingo du komunztadura:

- (35) a. *dirua behar dute horiek*
b. *sagarrak behar dituzte horiek*
c. *dirua behar da*
d. *liburuak behar dira*

b) Mendeko perpausa <TZEA> aditz izendua denean, horrekin egiten du komunztadura, singularrean, beraz, nominalizazio hori singularizat jotzen baita:

- (36) a. *horixe behar genian: hi haserretzea!*
b. *zuk esatea behar genuen*

c) Mendeko perpaus osagarriko aditzak partizipioaren <TU> forma duenean, bi kasu gerta daitezke: bata, aditz hori **nor** aditza izatea, eta orduan komunztadura singularrean egingo du, eta bestea, aditz hori **nor-nork** erakoa izatea, eta, orduan, aditz horren osagarri zuzenarekin edo objektuarekin egingo du komunztadura:

- (37) a. *etxera garaiz joan behar dugulgara*
 b. *auto berria erosi behar dute*
 c. *bide berriak urratu behar dituzte idazleek*

Komunztadura dela eta, bigarren sailean sartzen ditugu mendeko **nor-(nork)** aditza kontuan hartzen dutenak. Hasieran esan dugunez, perifrasi multzo honetan bi aditz ditugu osagai gisa erabiltzekoak: **izan** eta **ukan**. Ezin daitezke, ordea, biak noiznahi erabili. Honako arau hauek izan behar dira kontuan horietako bat aukeratzeko momentuan:

a) Perifrasi multzo horren mende doan aditza iragankorra baldin bada, ***edun** forma aukeratuko dugu, mendeko hori inpersonalki edo pasiboaren moduan erabilia ez bada behintzat:

- (38) a. "Ascoc ondo goguan josiric *euqui bear leuquiena*" (Mogel, *Echeco Escolia*, 173. orr.)
 b. "Baldin eria ecin cofesa bada, *cer eguin behar du?*" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 235. orr.)
 c. "...ikaram eta zalitu eta *jan egin bear ditugu* prankotarrak ostera bere" (Agirre Tx., *Auñamendiko lorea*, 33.orr.)
 d. "...hortzik aski ez zuen *jan behar zituen* guzien jateko" (Barbier, *Piarres*, 154.orr.)

Baina besteotan **izan** aukeratzen da, modu inpersonalean edo forma pasiboan erabiliak direnez:

- (39) a. "Hala *egin behar da* bada bekhatuetan...? berri direino *egotzi behar dira*" (Axular, *Gero*, 85.orr.)
 b. "Eta etorkizunekoak *behar dira egin*" (Axular, *Gero*, 172. orr.)
 c. "*Bear eztanen bat* egingo dok ik ondiño" (Azkue, *Euskal-erriaren... III*, 279. orr.)
 d. "*Behar da izan* Jaincoac hartara *deithua...*" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 236)
 e. "Jacob Abrahamen arrasemari marçatu ceion jinen cela igorric *izan behar cena...*" (*Uscaldunaren laguna...*, 32. orr.)

b) Aditza, aldiz, iragangaitza baldin bada, bi jokabide aurkitzen dira euskal hiztun eta idazleen artean. Jokabide hedatuena **ukan** aditza erabiltzekoa da, honako adibideotan ikusten denez:

- (40) a. "Bekien lengo bidetik asi bear zala ta amaren aurretik *joan beharko ebiela* ikastetxeko aterako..." (Aguirre Tx., *Kresala*, 65.orr.)
- b. "Beti *juan biar dogu* cornulguetara gracion..." (Moguel, *Echeco Escolia*, 30.orr.)
- c. "*Eztugu* gerotik gerora ibili behar" (Axular, *Gero*, 234.orr.)
- d. "Eta desberdintasun onec...*izan bear dabela* ain andiac..." (Iturzaeta, *Berbaldic I*, 73.orr.)
- e. "Aitari bazkaria eramatera *joan behar zuen gero*" (Satrustegi, J.M., *Ipuin miresgarriak*, 119.orr.)
- f. "...eta janhari delicatu bilha *eztu ibili behar*" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco*...280)
- g. "Bainan, cihortzekotz, orai *ethorri behar nuen*" (Barbier, *Piarres*, 241.o.)

Baina *izan* laguntzailea ere erabilia izan da eta erabilia da lehenagoko eta egungo testuetan, ekialdean nola mendebalean. Ikus adibide hauek:

- (41) a. "Ez zuan dudarik Pello, muthil hori *izan behar zela* aisok helatu zuen Manuel" (Elissamburu, *Piarres Adame*, 24.orr.)
- b. "*Etzare* hola *izan behar*" (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*", 124.orr.)
- c. "...eta egun hartan *ari behar gara* obra onen eguiten" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco*..., 119.orr.)
- d. "Biharamun goizean zazpi orcnak *ez ziren* urrun *behar izan* ni atzari nintzanekotz" (Elissamburu, *Piarres Adame*, 37)
- e. "Zertako *ibili behar zara* seinalatzekotan eta bertzeri kargu emanketan?" (Axular, *Gero*, 242)
- f. "..., lur harekin borroka *behar ziren bizi*" (Barbier, *Piarres*, 66.orr.)
- g. "Zer munta du, eta *noren beldur behar naiz?*" (Barbier, *Piarres*, 96.orr.)
- h. "Oiloak zartakn ari direnean parasola hartzen ahal düzü, norapat *joan behar bazira*" (Azkue, *Diccionario*...)
- h. "..., joan gura neunque, *joan bear ninzateque*: bafia ecin joan naz; urreratu gura neunque, *urreratu behar ninzateque*, bafia ecin urreratu naz" (Iturzaeta, *Berbaldic*, 49.orr.)

c) Perifrasi horretan datiborik ageri bada, bi jokabide daude: mendeko aditza norkduna izan daiteke edo nork gabea. Lehenbiziko kasuan **nor-nori-nork** adizkira jotzen da, aditza modu inpersonalean edo forma pasiboan erabilia ez bada behintzat:

- (42) a. "...horrec eman behar darocu fidancia handi bat Andre haren arartecotasunean" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...* 250.orr.)
- b. "..., inok begiratu biar ez deutsen moduban, eskuti dausanak kolpez jaso artian..." (Bartolome de Santa Teresa, *Euscal Errijetaco...*, 69.orr.)
- c. "Berehala hartaz Jaincoari barkhamendu escatu behar diogu" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 257.orr.)
- d. "...bafa ebagi biar deutsut beinik bein esatera zinuazana" (Moguel, *Peru Abarka*, 195. orr.)
- e. "Bada beste ainbeste eguin bear dau pecazariac, dcadar eguin eta deitu bear deuto Jaungoicoari..." (Iturzaeta, *Berbaldiac I*, 86.orr.)

Mendeko aditza **nork** gabea baldin bada, ordea, **nor-nori** formara jo behar da nahitaez. Beraz, nahiz eta joan behar **dut/naiz** bi forma hauek erabiltzea zilegi izan, zuri zerbaiten eske *joan behar natzaitzu* esan behar da, eta inola ere ez **...joan behar dizut*. Ondoko etsenpluak begiratzea aski da horretaz konturatzeko:

- (43) a. **daraman zama lurrera erori behar zaio**
- b. ***daraman zama lurrera erori behar dio**
- c. "Bainan, berehala urrundu behar zauzku beraz" (Barbier, *Piarres*, 239.orr.)
- d. "Bildur gueiago izan behar jaco pecatu mortal bateri munduko gach guziari bafio" (Iturzaeta, *Berbaldiac I*, 87.orr.)

Esanahiari dagokionez, **behar +*edun/izan** aditz konposatuak esanahi bat baino gehiago du:

Lehenik, osagarri zuzenaren funtzioa izen sintagma batek betetzen duenean, "premia" edo "beharra" adierazten du. Beraz, **liburua behar dut, ogirik behar al duzu?** diodanean, ogiaren "premiatz" edo "beharraz" ari naiz mintzatzen.

Bigarrenik, osagarri zuzenaren funtzioa aditz partizipioak betetzen duenean, esanahi bat baino gehiago izan ditzake perifrasi multzo horrek. Batetik, "obligazioa" adieraz dezake: **ikasi egin behar dut**. Bestetik, geroa ere adieraz dezake, batez ere ondoan esanahi horretako aditzondorik doanean, hala nola:

- (44) a. "*Behar niz khausitu bihar goizean Baionan*" (Salaberry, *Vocabulaire des mots...*)
 b. *zer egin behar duzu gaur arratsean?*
 c. *Bihar Donostiara joan beharko duzu/zara*

Bestenaz, **behar+izan/ukan** perifrasi multzoak ezezka datozenean, "debekua" edo obligaziorik eza adierazten dute, hala nola:

- (45) a. *gaur ez dute lanera joan behar*
 b. *ez dugu gezurrik esan behar*

Beste batzutan **bide+*edun**-en esanahia hartzen du edo horren baliokide da:

- (46) "*Gauz amets egin dut, eta egunez ezin dut gogotik kendu zaldun gaztearen iduria: neska izan behar du*" (=neska bide da) (Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, Bilbo, 1979, 66.orr.)

Geroaldia dugularik **behar izango/ukanen**-en ordeztan **izan/ukan** ezabaturik erabiltzeko joera handia da (ikus 8. kap.):

- (47) *joan beharko dut*

15.3.2. "Beharra", izen sintagma

Izen sintagma hau zenbait aditzen subjeto nahiz objektu modura ager daiteke: **ukan, eduki, izan**, e.a. Bestalde, esan beharra da kasu markaz horniturik doala, beti ere determinatzaile singularra duelarik: **beharra, beharrak, beharrik, beharrean**, e.a.

Hori dela eta, lehenagoko **behar ukan/izan** perifrasi multzoarekin ez bezala, oraingoan **izan/ukan**-ez gainera **eduki, egon** eta bestelako aditzak erabiltzeko aukera dago.

- (48) a. **jango badut, ogia erosi beharra dut/daukat**
b. **bukatuko bazen, hasi beharra zen/zegoen**
c. "...zeinetara bertze guizonac bejala sujet *izan beharra baitzen* bestela" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 266.orr.)

Behar ukan/izan aditz modalekin ez bezala, oraingo hauekin, izen sintagma guziek bezalaxe, **behar** izenak ere, hala behar izanez gero, partitiboa har dezake ezezko, galderazko eta baldintzazkoetan:

- (49) a. "Zoaz eizera eta esan...*ez duzula* hemendik aurrera lezera inor *bialdu beharrik*" (Satrustegui, *Ipuin miresgarriak*, 144.orr)
b. **ez dut/daukat ogi beharrik**
c. **horren beharrik baldin bada, esan.**

Erabilerari dagokionez, perifrasi mota hauek bere mende honako elementu hauek eraman ditzakete:

a) Partizipioaren <TU> forma duen aditza:

- (50) a. **liburu hau irakurri beharra duzu/daukazu**
b. **hemen isilik egon beharra zen/zegoen**

b) <TZEKO> aditz izenkia, nahiz eta honek oso erabilera bakana izan:

- (51) "..., hari barkhamendu *escatceco beharra* bethi badugula" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 245. orr.)

c) Izenordaina. Orduan hau beti genitibo edutezkoan joanen da:

- (52) a. "Oran inos baño bere gueiago *zure biar nas*" (Olaechea, *Dotriña cristiana*, 1780)
b. *zure beharra* badut eta zatoz laguntzera
c. *ba al duzu horren beharrik?*

d) Beste izen bat. Orduan osakin hau bi eratara ager daiteke: edota absolutu mugagabeen, edota edutezko genitiboaren kasu-marka duela, posposizio gisako egitura baita (ikus *EGLU I*, 438. eta hurr.orr.).

Esanahiari dagokionez, lehenik egitura honek "premia" edo "bharra" adierazten badu ere beste batzutan premiarik eza adieraz dezake, eman adibideetan ikusi dugun bezala.

15.4. AHALA ETA EZINA

15.4.1. Ahala

Ahala adierazteko, besteak beste, bi baliabide nagusi ditugu euskaraz: bata, *daiteke/dezake* edo *diro/da(g)ike* eta abar bezalako ahalezko adizkiez osaturiko baliabidea eta bestea, berriz, *ahal izan/ukan*, **edin/*ezan* perifrasi formez osaturikoa.

Lehenengoak, ahalezko adizkiez osaturikoak (ikus *EGLU I-Eraskina*) modu bakarra -ahalezkoa- eta hiru denbora -orainaldia, iraganaldia eta geroaldia- adieraz ditzake soilik, ekintza edo egoera aspekturik ez baitezake adieraz inoiz ere. Alde horretarik oso urria eta murrizta dugu, beraz, baliabide hori. Horren eskasia bigarren baliabideak betetzen du.

Bigarren baliabidea, perifrasi multzoaren bidezkoa, askoz ere aberatsagoa eta zabalagoa da. Lehen baliabideaz ezin adieraz daitezkeen modu, denboretako ahal izatea eta horietako ekintza egoeren aspektua ere -aspekturik dutenean, noski- bigarren baliabide honetaz eman daitezke aditzera. Ikus zer-nolakoak diren perifrasi honen forma eta erabilera.

Esan dezagun, dena dela, hemen aipatzen dugun *ahal* partikulaz baliatzen garela ahaltsuna edo posibilitatea adierazteko; ez gara ari hemen, hortaz, agintezkoaz edo galderazkoaz, azken hau, formalki, *omen* edo *ote* bezalako elementuen parekoa baita, eta oraingo honetarik berezi beharrekoa (ikus 16.1, liburuki honetan). Banaketa desberdina dute bi *ahal* hauek, ezezko perpausetan

bereziki ikus daitezkeen bezala:

(53) ez ahal da oinez etorriko !

(54) ez da oinez etortzen ahalko

Aditz perifrasi multzoetako **ahal** ahalezkoa (54),ekoa, alegia, ez daiteke ager (53)ko beste **ahal** hori bezala, ez eta aditz laguntzailearen artean. Bestalde, -ko aspektu marka ezin erabil daiteke (53)ko **ahal**-i erantsiz, baina bai, ordea, hala nahi izanez gero, (54)ari.

Garbi gera bedi, beraz, (54)ko **ahal** horretaz soilik ariko gara ondoko lerrootan, edo, hobeki esanez, dagozkion aditz perifrasi multzoez.

15.4.1.1. 'Ahal', aditz laguntzaileak eta adizkera desberdinak

Ahal-ekilako perifrasi multzoak era askotakoak izan daitezke, zeren aditz laguntzaile guztiekin molda baitaitezke: bai izan eta ***edun**-ekin, ***edin**-ekin zein ***ezan**-ekin (nahi izanez gero, ***iro** eta **egin**-ekin ere, aditz hauek erabiltzen diren euskalkietan, jakina).

Perifrasi multzo horietan, aditz nagusiak du beti aditz laguntzaileen jokabide mota finkatzen, eta ez sekula ere **ahal**-ek. Aditz nagusia **nork** gabekoa baldin bada, nahi eta ez izan edo ***edin** aditz laguntzaileak erabili beharko dira, eta **nork**-duna denean, berriz, ***edun** edo ***ezan**. Hots, etorri **behar/nahi izan dut** bezalako perpausen parean, ez dugu ***etorri ahal izan dut** bezalakorik aurkituko.

Horiek horrela, edozein adizkirekin molda daitezke perifrasi multzo hauek, ahalezko modalitateari kontrajartzen ez zaizkion bitartean (aginteraren kasuan). Adibidez, baldintzetako protesietan, edo apodosietan, erabil daitezke, izan daitezen alegiazko adizkiak, edo ez-alegiazkoak, izan daitezen aspektu markadunak, edo aspektu markagabekoak. Ondoko adibideetan, perifrasi multzoa, ***edin** eta ***ezan** aditz laguntzaileekin ukan ditzaketan itxura desberdin batzu agertzen dira:

- (55) a. "Eguidaçu...; *hel ahal nadin* guero hizemaiten deitaçun gloria etemiala..." (*Uscaldunaren laguna*, 225.orr.)
b. "...Jincoaren ajutiareki, hassi eta acaba içan beita, hen beren salbamentiala hel eracitceco *cerbutcha ahal ledin* eta moyen bereurçaç clarki *ageri içan ledin*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia* XIII.orr.)

- c. "..., gero hil ondoan Jinkoa *laida ahal dezadan* behierekoz zureki zelian" (Belapeyre, *Catechima laburra...*)
- d. "Bena Gingoaganik *uken ahal deçagun* haren gracion irateco dohainha, inxeatu behar diici beruthian..." (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 65.orr.)
- e. "Zure burua osoki *garai ahal badezazu*, errextiago gero beruzean eginen tutzu" (Chourio, Jesus-Christoren imitacionea)
- f. "...bainan penitencia hek errecebi detçagun bortcharic gabe, *baldin compli ahal badeçagu*" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima* 228.orr.)

15.4.1.2. 'Ahal', KE-dun aspektugabeko formetan

Aurreko adibideetan ikus daitekeen bezala, *edin eta *ezan-ekin moldatua bada perifrasi multzoa, aditz nagusiak aspektu markarik gabe egon behar du. Gauza bera gertatzen da, **ahal**, aditz laguntzaile horiek dituzten -KE-dun formekin erabiltzen delarik.

Dakigun bezala, 14. kapituluan ikusi baitugu, gisa horretako adizkiek, **ahal** gabe ere, ahalezko balioa dute maiz, beti orain eta iraganeko adizkiekin: **etor zitekeen**, **egin dezaket** (ikus 14.3.19, liburuki honetan). Hala ere, idazle klasikoen jokamoldeari jarraituz, **ahal** adizkera perifrastiko horietan ere erabil daiteke. Ez dirudi, balioaren aldetik, gauzak sobera aldatzen diren molde bateko nahiz besteko perpausetan. Hona hemen adibide batzu:

- (56) a. "...kalitz hau urrun bedi eneganik, *egin ahal badaite*" (Larregi, *Testament çaharreco eta berrico historia II*)
- b. "Orain hemen *galdegin ahal diteke* ea ifemuan berorik baizen hoztik izanen denz" (Axular, *Gero*)
- c. "Ezen hartaz, Gristiflo, *ahal aite segura*, faltan kutsuekin nihor eztoala zerura" (Etcheberri, *Manual devotioenezcoa I*, 1493.b.)
- d. "Nola *ardiets ahal deçaquegu* gracia hori?" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima*, 173.orr.)
- e. "...norc *conpreni ahal diro* çoure amorioaren handitarçuna!" (*Uscaldunaren laguna*, 234.orr.)
- f. "...ordian *gintzake zeluko* gaizak goza *ahal*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*)

15.4.1.3. 'Ahal', aspektu markadun formetan

Izan eta ***edun** aditz laguntzaileez baliatzen bagara, aditz nagusia beti aspektu markaduna izanen da. Eta, hain zuzen ere, aspektu marka hauen erabiltzeko moldetik sortuko zaizkigu, perifrasi multzo horrek dakarzkigun buruhausteetarik handienak. Alabaina, ez datoz beti bat puntu horretan euskalki guztiak, eta komeni da, hortaz, zenbait argitasun batzuk ematen saiatzea.

Horretarako, irakurleari erraztasunak ematearren, baliokide diruditen forma desberdinak elkarren parean ematen ditugu, gure sailkapena, jokabide perifrastikoan aditz nagusiari lotzen zaizkion marken paradigmattoan finkatuko dugularik (esan nahi baita, "burutua", "ez-burutua" eta "geroa")

a) Burutuaren aspektu marka, **ahal**-ekilako perifrasi multzoetan.

Perifrasi multzoari burutuaren aspektu marka emateko, badirudi euskalki gehienetan berdintsu jokatzen dela: aditz nagusiari -TU aspektu marka lotzen zaio, eta **ahal**-i ere bai, **izan/ukan** partizipioaren bidez:

(57) **aski goiz etorri ahal izan da**

Hona hemen beste adibide batzu:

- (58) a. "Ez! etzioten eman arrotzeric, bainan bai hartatik bertze *asmatu ahal izatu* zituzien erremedio guziac" (Joannateguy, *Sainduen bicitcea*, 271-272. orr.)
- b. "...ez dute *ukatu izan ahal* aien bultzaldi goragarria" (Lizardi, *Itz lauz*,)
- c. "...belhar osto bat bakarra *ez du egin ahal ukan* oraino gizonak" (Etxepare J., *Buruxkak*)
- d. "Onelaxe *jakin aal izan det egia*" (Etxaide J., *Alos Torrea*)
- e. "Ezziokign sinhets Mariak *egin ahal ukhen ziala* gaizkirik..."
- f. "Ez dakit behinere *kausitu ahal ukan zuten* gaizoek" (Etxepare J., *Beribitez*)
- g. "erallearen besondoa *okertu aal izan zun ukaldiari* uts egiferaziz" (Etxaide J., *Alos Torrea*)
- h. "Festa hartara sasoiz *joan ahal izan nintzan*"
- i. "Zuk emoniko biharra oporrak baino lehenago *amaitu ahal izan eban* ikasleak"

Halaz guztiz, zenbaitek **-tzen** aspektu marka ere lot diezaiokete aditz nagusiari (burutuaren aspektu marka **ahal-i** beti erantsiz, bistan dena). Azken markabide hau guti zabaldua baita, nolabait batasunerako bideük urruntzen gaituela dirudi. Hona adibide bat:

- (59) "...bainan horri esker *ikasten ahal izan du* munduko zenbait berri" (Xalbador, *Odolaren mintzoa*)

b) Ez-burutuaren aspektu marka, **ahal**-ekilako perifrasi multzoetan.

Ez-burutuaren aspektu marka perifrasi multzoari lotzean, euskalkien arteko goiti-beheüiak, aditz nagusiari lotzen zaizkion aspektu markan agertzen dira, denetan halere **ahal+Ø** dugularik. Bi forma hauek aurkitzen ditugu beraz:

- (60) a. **etorri ahal naiz**
b. **etortzen ahal naiz**

Lehenbizikoa (60a, alegia) mendebalean erabilia da gaur egun eta iduri du bigarrenak sustrai heduatagoak dituela gure literatur tradizioan. Benturaz, batasunerako bideük abiatuz, azken hau (**-tzen+ahal**) hobetsi behar genuke, bestea gaitzetsi gabe, jakina. Hona hemen adibideak:

- (54) a. "*Sendarazten ahal nauzula* diozu" (Joannateguy, B.: *Sainduen bicitcea*, Baionan, 1890, 195.orr.)
b. "Bena orai norat *joaiten ahal niz* zure edireiteko?" (Inchauspe, *Maria Birjinaren Hilabetia*)
c. "Nola *izaiten ahal cira* borrein aleguera hain estatu pietate garrian *izan eta*?" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 10.orr.)
d. "Gure etsai deabruak gure enganatzeko *ediren ahal duen* bidetik eta arterik hoberena" (Axular, *Gero*, § 28)

c) Geroaren aspektu marka **ahal**-ekilako perifrasi multzoetan

Geroaren aspektu marka perifrasi multzoari lotzeko moldeetan dirateke gehienik agertzen euskalkien arteko desberdintasunak. Zenbaitek geroaren aspektu marka **ahal-i** eransten diote, edo **-ko** zuzenean **ahal-i** eratxekirik, edo **izan/ukan** partizipioari gaineratuz (**ahalko**, **ahal izanan/izango**). Haatik, aditz nagusiari ez diote denek aspektu marka bera eransten: batzuk **-tu**, beste batzuk **-tzen**, eta besteek **-fuko** (orduan aspektu marka bi aldiz agertzen delarik multzoan). Beraz, lehen jokabide horretan, geroaren aspektu marka **ahal-i** eransteko bi bideak (**ahalko**, **ahal izanen**) kontuan hartu gabe, hiru aukera hauek ditugu:

- (62) a. **etorri ahalko / ahal izanen da**
 b. **etortzen ahalko / ahal izanan da**
 c. **etorriko ahalko / ahal izanan da**

Bigarren jokabidea desberdina da, hartan geroaren aspektu marka **ahal**-i erantsi gabe, aditz nagusiari berari lotzen baitzaio, **ahal** aspektu markarik gabe gelditzen delarik. (62)ko aukeren ondoren, laugarren bat ere badugu:

- (62) d. **etorriko ahal da**

Ondoko adibideok (62a-d)ko aldakien erakusgarri dira:

- (63) a. "... zuetarik nor *jasan ahal izanen ditu* sekula guziko su elementa hek?" (Duhalde, *Meditacioneac*, 168.orr.)
 b. "...Noiz entzun *ahal izango dugu* 'Illeta' Donostian?" (Miltxelena, *Idazlan Hautatuak*, 153.orr.)
- (64) a. "Uso bat edo bertze erretzen *ahalko zuelarik* eta jaten..." (Barbier, *Piarres*, 127.orr.)
 b. "Gure begiez *ikusten ahal duguna*" (Belapeyre, *Credo*, 39.orr.)
- (65) a. "...artoak bi, hiru aldiz, beharbada *jorrationen ahalko zitu*zten oraino..." (Barbier, *Piarres*, 155.orr.)
 b. "*eginen ahalko du*" (LaFitte, *Grammaire basque*, §656)
- (66) a. "...*ezta* thenpora luzaz hunian *egonen ahal*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*)
 b. "...eta *enuzu* sekula *digne izanen ahal*" (*Uskara libru berria*, 106.orr.)
 c. "Hainbeste etsaiei nor *eskatuko ahal zaitte?* Nor da *salbatuko ahal dena?*" (Joannategny, *Sainduen bicitcea*)

Gauzak daudenean daudelarik, komeni litzateke zerbait gisaz batasun bidean jar gaitzaketen forma batzu hautatzea. Iduriz, jokabiderik zabalduena, geroaren aspektu marka **ahal**-i erantsen diona da (izan dadin zuzenki eratxekia, edo partizipioaren bidez). Bestea gaitzetsi gabe (ikus 66), beharbada, horik joan behar genuke. Horrela eginez aditz nagusiari lotu behar zaion aspektu marka denaz bezainbatean, diren hiru aukeren artean (-tu, -tzen, -tuko) lehenbiziko bien artean hautatzea litzateke egokiena, hirugarrenak markatuago baitirudi.

15.4.1.4. 'Ahal' adizki trinkoetan

Ahal adizkera trinkoekin erabiltzen denean, kedun formak erabili ohi dira:

- (67) a. "Ordean nolatan *ahal dateke* hori horrela?, diotsate kardinalek" (Axular)
b. "..., ezen Eskual-Herriko umea zer *ahal dateke* baizik eskualduna?" (Elicheberrri, *Eskuaren hausapenac*)
c. "Dagoenak Jaunarekin, zer eskas *ahal duke*?" (D'Argaignarats, *Devoten breviarioa*)
d. "*Ahal derraket* (...), ez ordea eman segurantzatik" (Axular, *Gero*, §140)
e. "Egun egin behar dugun gauzarik, eta *ahal daidikegunik*, ez biharko luzatu" (Axular, *Gero*, §28)

Ahal bera enplegatzen dugu batzutan ia ia izen bezala **edun* eta *izan* aditzekin. Baldintzazkoetan eta mendeko zenbait perpausetan gertatzen da bereziki hori, itzuli jakin batzutan:

- (68) a. *ahal badut*, biazur joanen naiz
b. *ahal duen* bakoitzean, Parisa joaten da
c. *ahal delarik*, hobe da autoa aterbean uztea

15.4.2. Ezina

Hemendik kanpo geratzen zaizkigun kasu guztietan orain artaino erabili den perifrasi egitura oinarritz hartu eta ezin erasten zaio. Ahalezko adizkiekin eta *ahal* daramatenekin ez soila ere erabiltzen ahal da, ezin eta guztiko erabilera lehenagotzat jotzen bada ere.

Inolako ahal kutsurik ez duten aditz multzoekin, ezin erabiltzen da, perifrasi multzo horrek adierazten duen ekintza edo egoera burutzeko, ahalik eza edo ezina aditzera emateko. Ondoren ditugu modu bakoitzetik, adibide gisa, etsenplu bat edo beste:

- (75) "...ta *etziniruala* sekula zure desira *konpli ahal*" (*Uskara liburu berria*, 34.orr.). Berdin beste hauetan ere:
(76) a. "*Ezthietegu endelga ahal* anitz guiristinhoren erhokeria" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 50.orr.)
b. "...zarrik ez aal *daite* bere lo-zorrotik inoiz iratzarri?" (Orixe, *Olerkiak*)

15.5. OHI

15.5.1. "Ohi" + izan/ukan

Ohitura adierazteko perifrasi multzoa dugu berau. Horretako, egitura bat baino gehiago ditugu. Ikus ditzagun bada banan bana.

Ohitura adierazteko erabiltzen den perifrasiarik arruntena **ohi + izan/ukan** aditz modalaz sorturikoa da. Perifrasi honen osakinei begiratzuz gero, honako hauek zaizkigu nabari.

Lehenik, **ohi-k <TU>/<TZEN>** partizipio forma bikoitz horietako bat hartzen du. Lehen aukera, hau da, **<TU>** partizipioa + **ohi izan/ukan**, dugu formarik erabiliena:

- (77) a. "Simetria, batetik, ez da osoa 'bai du' eta antzekoak idatzi ohi baitituzie bai etreko eta umetandikako ez dutenek" (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 104.orr.)
- b. "Goi-aldean doan izenburu dotore horrekin gerta ez dedin maiz, bai Donostian bertan ere, Alma Mater sonaarekin *geratu ohi dena*, diodan, bestetara jo gabe" (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 211.orr.)
- c. "Erdara *izan ohi dugunez* jakite-bide, zenbat ere ez-ikasiago hainbat ere euskaldun jatorrago. Hori ez da adarra jotzeko gogoa baizik" (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 230.orr.)

Bigarren forman **<TZEN>** agertzen zaigu askotan **ohi**-rekin batera. Iparraldeko joera dugu, baiapat, baina bizkaieraz ere baditugu horrelakoak. **Ohi-k** eta aspektu ez-perfektoko **<TZEN>** bukaerak funtzio bera betetzen dutenez, bietako bat aski litzateke. Biak erabiltzea gehigarri hutsa da, beraz.

- (78) a. "Orduan *baituen oi dabeenagaz* (...) eguin darue sari merijendia..." (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 134.orr.)
- b. "Urte guziaz *egiten ohi du*...bilkura handi bat" (Etchepare, *Buruxkak*, 70.orr.)
- c. "Ez *ohi du* begi orde anhitz *higatzen*" (Axular, *Gero*, 187.orr.)
- d. "Plazetan *jartzen ohi dira* noizetik noizera" (Etchepare, *Buruxkak*, 323.orr.)

- e. "Zeren bat bederak sendo zeifto zertan baitzedukan gogoa, hartan ohi daduka, eta hartaz *mintzatzen ohi da* eritasunean eta hiltzerakoan ere" (Axular, *Gero*, 243.orr.)

Ohi modala da perifrasi honen elementu berezia, esanahi berezia ematen diona. Honek, inesiboan doan <TZEN> aditz izenaren funtzio bera betetzen du eta aspektu ez-burutuaren esanahia adierazten du. Berdin da **telebista egunero ikusi ohi du** esatea edo **telebista egunero ikusten du** esan.

Hirugarren elementua **izan/ukan** laguntzaile bikotea dugu. **Izan** laguntzailea, arau denez, aditz modalaren mendeko aditza iragangaitza denean erabiltzen da; **ukan**, ostera, aditz hori iragankorra denean:

- (79) a. *etorri/etortzen ohi da*
- b. *ikasi/ikasten ohi du*

Batzutan **ohi** modala aditz trinkoen adizki jokatuekin ere erabili izan da, hala nola:

- (80) a. "Eguijaz *oi dira* guraso..." (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia* 14.orr.)
- b. "Gaissuac *gura oi dau* medicuric jaquintsubeena..." (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 93.orr)
- c. "Arbola batec *oi dituz* adar ece ta igarrac" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 6).orr.)
- d. "Ceif da bildurrez *oi eguan* Pascua egunian bertan catillu bat indidar jaateco" (JJ Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 87.orr.)
- e. "Errucarijac *dira* nundic erioziagaz aazuco diran *oi dabilzanak*" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*)
- f. "...emendic *oi datoz* ainbeste confesimoe deunga damu bagaac" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 68.orr.)
- g. "Zeren bat bederak sendo zeifto zertan baitzedukan gogoa, hartan *ohi daduka* (...) eritasunean eta hiltzerakoan ere" (Axular, *Gero*, 243.orr.)
- h. "Lagun chaarrac *oi diran* leguez gueijeenez arima asco bide galdubeeata *oi daruezanac*" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 168.orr.)
- i. "...baita bere alperreri jac *oi dacartzan* ecandu deungueetatic" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 99.orr.)
- j. "...baita guraso batzuc *oi dauqueez* urte aurreratubeean seme ta alabac..." (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echeco escolia*, 244.orr.)

- k. "Ama alper ez guichic bere *oi darabileez* erdi billosic euren umiac" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren eheco escolia*, 193.orr.)
- l. "Ta orregaitik bere *oi dirausee* alaco pecatarijac..." (Mogel, *Baserritar jaquitunaren eheco escolia*, 89.orr.)

15.5.2. Ohitura adierazteko beste forma batzu

Ohitura adierazteko <TU>/<TZEN> + izan + ukan perifrasi multzoaz ere baliatzen gara euskaraz, nahiz eta bi horien artean <TU> den formarik erabiliena. Horixe ikusten bide dugu hurrengo adibideotan:

- (81) a. "...garan eta dogun guztia gure Aita'ren esku zabaleuk *artu izan dogu*..." (Ibargutxi, *Kristau-Ikashide-Atzalbena*, 1955, 67-68.orr.)
- b. "Nere ibillaldi geienak uste gabeko egokieratik *etorri izan dira*" (Tx. Garmendia, *DV*, 86-8-19)
- c. "Gu erne-azoteko laguntzar *artu izan ditu* Jaunak gure gurasoak" (Ibargutxi, *Kristau-Ikashide-Atzalbena*)
- d. "Itzuli digun San Agustinena ez da bakarrik geroztikako arima jainkozaleek irrika biziz *irakurri izan duen* liburua" (Mítxelena, *Mítxelena-ren idazlan hautatuak*, 354.orr.)

Bigarren forma, <TZEN> hartzen duena alegia, bizkaieraz erabiltzen da:

- (82) a. askotan *joaten izan da* Bilbora
- b. pelikula hori baten baino gehiagotan *ikusten izan dot*
- c. "-Ba, nota bateri ta *aserratu egiten izan da*..." (L. Villasantek Teri Ibarrola-ri magnetofonoz hartua, Arantzazu, 1964, 351)
- d. "...antxe egon naz ni aska-buruan, ta handixerik *botaten izan deusedax*" (id.)

Hondarribian -ketu erasten zaio partizipioari zuzenean:

- (83) **Batzutan etorriketu da gurera** (=batzutan etorri *izan da gurera*)

Batzutan bada beste modu bat ere ohitura adierazteko, bestelako perifrasi hau erabiliaz: <TU> + joan/eroan, eraman. Azkeneko hiru aditz hauen arteko aukera aditz nagusiaren arauera egin behar da. Aditz nagusia iragangaitza baldin bada, joan-en adizkiak aukeratzen dira, baita aditz iragankorra inperzonalki erabilia bada ere. Aditz nagusia iragankorra denean, ordea, eroan edo eraman du beti laguntzaile.

Lehenbiziko moldea, hau da, <TU> + joan perifrasi, ekialdeko idazleek eta bizkaierazkoek erabili izan dute, nahiz eta gaur egun ez den erabiltzen:

- (84) a. "Urthe-gakhoaz athe guziak ireki doaz..." (Oihenart, *Atsotitzak eta neuritzak*, 466)
 b. "Bethegiz, zorroa leheritu doa..." (Oihenart, *Atsotitzak eta neuritzak*, Prov. 511)
 c. "harçaz orhit nadinian vihoza doat ebqui" (Etxepare, *Linguae... VI,6*)
 d. "Beriarequi eghustiaz hain hain noha penatu" (Etxepare, *Linguae... IV, 27*)
 e. "Gitxika gitxika asko egin doa" (*Refranes y Sentencias* 61)
 f. "Gatz guztien sustraia alperkeria izan doa" (Añib., *Escu-liburua*, 77-18)
 g. "Etorri doaz..." (Capanaga, *Doctrina cristiana*, 127-14)
 h. "Anhiz iende enganau doa luçamenduyaz" (Etxepare, *Linguae... I, 157*)
 i. "... adarrac eta ulla urdinac estoas etorri egunacayu" (*Mdo breve...*, Sevilla, 1897, 24.orr., 35. lerr.)

Aditz nagusia iragankorra denean <TU> + eroan, eraman perifrasi erabil daiteke. Eroan bizkaieraz erabili izan da bai euskara idatzian bai euskara mintzatuan. Gaur egun euskara mintzatuan galduxa da.

- (85) a. "Urdail beteak gogamenezustu garoaz" (Azkue, *Diccionario...*, "gogamen" hitza)
 b. "Esan daroe mandaco on bat, auntz on bat ta emazte on bat, iru kuka gaizto direala" (Mic., op. c., 27.orr.)
 c. "Asco icusi dotçetaasco dacusanacasco icasi darua" (Moguel, *Peru Abarca*, 33.orr.)
 d. "Zaarren zarpizortzi urte inguruko neskatillatu bat zan..., beren amak esan eruana esateko, mutilla egiten asia" (Azkue, *Euskaltzale*, 1897, 131. orr.)
 e. "...medicu jaquitun batec baño pama gueijago euqui eruen..." (Moguel, *Peru Abarca*, 32-33.orr.)

- f. "Atekisket baten otsak *esnatu naroa ni*" (Moguel, *Peru Abarca*, 130-15)
- g. "Ala *esan daroe*" (Añibarro, *Esku-liburua*, 6-12)
- h. "Otsailean *urteiten daroa* artzak lezearen" (*Refranes y Sentencias*)
- i. "Beroturik ardao puska bategaz *esan darue*: ez naz ni baten bildur" (Mogel, *Baserritar jaquitunaren echecho escolia*, 174.orr.)
- j. "Mari Baltz-ek be orixe *esan eroyan*" (Kirikiño, *Abarrak*, 64.orr.)
- k. "Gariak errekeran *egin daroen* zaratea" (Azkue, *Euskalerrriaren Jakintza II*, 27.orr.)

Beste perifrasiak, <TU> +**eraman** formakoa alegia, Detxeparek erabili zuen inoiz, hala nola:

- (86) a. "Mundu honec anhez gende *enganatu darama...*" (Etxepare, *Linguae...II*, 74)
- b. "Guti uste duyenian ehor *uci darama*" (Etxepare, *Linguae...II*, 76)

Eman ditugun azkeneko hiru perifrasi hauek, lehentxoago ikusitakoek bezalaxe, aditz nagusiak adierazten duen ekintzaren edo egoeraren ohitura edo aspektu ez-burutua azaltzen dute.

15.6. -TZERA/-TEN

Honelako perifrasiaren forma hartzen baldin badugu kontuan, kasu adlatiboan doan aditz izenaz eta joan -honekin <TZEN> ere bai- egin, egon eta mugimendua adierazten duten beste aditz gehienekin osaturiko perifrasiak ditugu hauek.

15.6.1. <TZERA>/<TEN> + joan

Perifراسي honetan joan aditza beti ere orainaldiko eta iraganeko aspektu puntukarian erabiltzen da: **doa, zihoan**... Perifراسي honen esanahiak bi izan daitezke: batetik, **joan** aditzak aditz nagusiaren gero hurbila adierazten du, indikatiboan dagoenean. Orduan perifراسي den aldenik, mugimendua adierazten duen jatorrizko esanahia neurri batean galdu egiten du.

- (87) a. orma zahar hori *erortzera doa*; ken zaitez hortik
b. Pisako dorreak *erortzera zihoala* zirudien

Baina bestetik, agintekeran doanean, zirtoko agindua adierazten du joan aditzak:

- (88) a. *zoaz hura isil eraztera*
b. *hoa gaur egun merke eroztera*

Goian aipatu dugun bigarren aukera hori, <TZEN> + joan, bizkaieraz erabiltzen da gehien:

- (89) a. "Orain mezia *emoten noia*. Agur" (Izurrategi, *Jerusalenen osterean*, 25.orr.)
b. "Bakea *eskatuten joanagaitik* esan leik azpitik yagoala, baiña bakea *opositen joanagaitik ez*" (Zamarripa, *Zaparradak eta*, Bilbon, 1926, 55.orr.)

15.6.2. <TZERA> + egin

Perifراسي honek adlatiboan doan aditz izenak aldarazten duen ekintzaren hasiera markatzen du:

- (90) a. "*Egin* zuen *xutizera*" (Duvoisin)
b. "Horien *xuxentzera egin* behar bidean, gehiago nahasten dituzu" (Duvoisin)

15.6.3. <TZERA> + egon

Egon aditzarekin osatzen den perifrasi multzo honek, eta honekin batera -tzeari+egon perifrasi multzoak, ekintza egiteko edo laster betetzeko asmoa adierazten du, zerbait gertatzeko zorian dagoela alegia:

- (91) a. etxe hori *erortzera dago* (=erortzeko zorian)
b. zure astoa *lehertzera* (=lehertzeko zorian) omen da
c. ingelesaren *ikasteori zeuden* askok burutu dute bere gogoia

15.7. -TZEKO (a,ak)

15.7.1. -tzeko (a,ak) + izan/egon

Lehenbiziko perifrasi lekuzko genitiboan doan aditz izenkiaz eta izan/egon aditzen adizki jokatuaz osaturiko perifrasi dugu. Bi aditz horien artean izan aukeratuz gero, aditz izenak -tzeko + Ø forma edota -tzeko + -a/-ak forma har dezake. Bigarren forma hauek, predikatuak direnez, subjektuarekin dute komunziadura. Bi forma hauen erabilera buruz esan behar da -tzeko+Ø forma perifrasiaren subjektua perpausa denean hartu duela nominalizazioak eta -tzeko+-a/-ak forma, aldiz, subjetoa perpausa ez baina izen sintagma denean.

- (92) a. "Eskola puska bat zun guztia eder begira zebillen, da ez da *arritzeko pentsamendu hau nagusitzea*" (DV, 85-9-11)
b. "*Harritzeko da nola handitu den*" (Lafitte, *Grammaire Basque...*, 1962, 219.orr.)
c. "*Zinez ere harritzeko da*" (Duvoisin., 315. orr.)
d. "...baina gogoak eman behar liguke behin edo behin ez ote *den harritzeko* Jainko eskuzabalak...guri bakarrik jakinduria *ematea*" (Mitx., *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 165.orr.)
e. "...*harritzeko ere baita nola ez zitzaizkion nere bi beharriak eskudetan gelditu*" (Elissamburu, *Piarres Adame*, 29.orr.)

Adibide horietako perifrasiak, ikusten denez, lexikalizatuak dira gehien bat.

- (93) a. "Hetarik bat, gizon ederra, kara onekoa, *ikustekoa zen* egiazki, molde pullitenean bira eta bira gozoki" (Barbier, *Piarres*, 220.orr.)
- b. "Moysac deitzen du *profeta handia*, Israelier ortiterazten du hayen semetarie *sorticecoa dela...*" (*Uscaldunaren laguna...*, 32.orr.)
- c. *ikustekoak ziren plaza erdian egin zituzten jokoak*
- d. "*Ikustekoa izango da* haicxen 'Ilustraziñoia'" (Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak.*, 173.orr.)

Aditz jokatua, izan-en orde z egon baldin bada, aditz izenak -tzeko+Ø hartu behar du halaberharrez:

- (94) a. gure herrian gerora zer gertatuko den *ikusteko dago*
- b. gu iritsi ginenean oraindik *hasteko zegoen jaialdia*
- c. hirurak, eta bazkaltzen *hasteko geunden*
- d. ordua da eta oraindik janzten *hasteko zaude?*

Esanahiari dagokionez, bat baino gehiago dira perifrasi mota honek adierazten dituenak: egon aditzarekin osaturikoak ekintza edo egoera oraindik ere etorkizun dela esan nahi du, bitarteko adibideetan ageri denez. Bestetik, obligazioa adieraz dezake inoiz:

(95) lan hori zuek *egitekoa da* (=zuen egin behar duzue)

(367) "O Jaunaren amodio bethi *maitatzekoa*
Graziako misterio bethi *gorestekoa*" (Arbelbide, *Igandea*, 68.orr.)

Etorkizun hutsaz gainera, asmoa ere adieraz dezake izan aditzarekin doanean:

(96) Donostiara *joatekoak gara*

Azkenik, orain arte emanikako zenbait adibideran ikus daitekeenez, "ahal", "egokiera" eta horrelako esanahiaren nabardura ere adierazten du.

15.7.2 -tzeko (a,ak) +ukan/eduki.

Bigarren bikoteaz ere gauza bertsua esan liteke: -tzeko aditz nagusiaren forma honek bere bigarren osakina **ukan** aditza duenean, -tzeko+Ø forma mugagabea har dezakeela, edota -tzeko+-a/-ak forma mugatu singularra nahiz plurala. Bigarren honetan **ukan** aditzaren osagarri zuzenarekin kasu absolutuan egiten du komunztadura, horiek predikatuak baitira. Aditz horrek, beraz, iragankorra izan behar du.

- (97) a. "Amac *estu sofriceco* semen artian guerlaric" (Etxepare, *Linguae...II*, 133)
b. datorren urtekoa oraindik *ikusteko duzu*
c. bai, lan hau atzo *egitekoa genuen*, baina...
d. arrebak *jostekoak al dituzu* galtza hauek?
e. "...arimaz asqui *eguiteco varduquegu* orduyan" (Etxepare, *Linguae...I*, 163)

Halaz guztiz, -tzeko+eduki forma aukeratzen baldin bada, beti ere forma mugagabean erabiliko da aditz izen hori.

- (98) a. amak bere alaba *saltzeko* ote zeukan?
b. etxe hizitza oraindik ere *ordaintzeko daukagu*
c. zenbat gauza berri ote *dauzkagu* oraindik ere *ikusteko*

Perifrasi modu bikoitz honek ere gehienetan aditz izen horrek adierazten duen ekintza oraindik ere etorkizun dela adierazten du. Esan behar da batzutan testuinguruak ere, denborazko aditzondoak batipat, esanahi horretara mugatzen duela perifrasi hori, bestela -tzeko+eduki esate moduak helburua ere adieraz baitezake.

Inoiz obligazioa ere adieraz dezake -tzeko+-a/-ak perifrasiak:

- (99) "Ongi achola-gutikoak garela *aithortzeko dugu...*" (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 293. orr.)

15.8. -TZEA

Formaren aldetik begiratuta, kasu absolutuko singularrean doa aditz izena, hau da, <TZEA> eta, bestetik, **ukan, eduki, egin** eta **ba-** baiezpen aurritzia **eduki** edo **ukan** aditzen forma jokatupei loturik. Aditz izena, aditz iragangaitzarena edota iragankorrarena izan daiteke.

Lehenbiziko bien eginkizuna, hau da, <-TZEA> + **ukan/eduki** perifrasi multzo hauena, agindu-nahikunde edo erredua adieraztea da, baina halako testuinguru berezietan, hala nola:

- (100) a. **autoen prezioak gora egin omen du: lehenago erostea zuen**
b. **oraindaino alferra izan dela? Orain lan egitea du**
c. "*Etortea daukan beste baten be nire baimenaren billa Izarora joatko*" (*Josetxo*, 236.orr.)
d. "*Senarra ixarra atera zaio; lehen uztea zekukan*" (Diego de Alzo, *Estudio sobre el euskera hablado*, 60.orr.)

Beste batzutan ekintza burutua adierazten du:

- (101) a. "*Aditzea dut ahul litekeela*" (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 186.orr.)
b. "*Entzutea daukadanez, bata, portuko jausten egoan elxe zar baten jaio zen*" (*Josetxo*, 182.orr.)
c. "*Bai, othoi, ezen aditzea dut ez dela deusere hobegorik lurrentzat*" (Duvoisin, *Laborantzaco liburua*, 129.orr.)

Horiek ez dira emankorrak, idiomatikoak baizik. Esakera gisa erabiliak daude, bi aditz horietaz kanpo ez baitago besterik.

Ondoko adibideotan ikusten denez, <-TZEA> +**egin** perifrasiare ere agertzen da:

- (102) a. "*Irea jasotzea egin diat*" (Lizardi, *Hitz lauz.*)
b. **ikusi al duzu Pello? Bai, oraintxe irtetea egin du**

Orduan, aditz izenak adierazten duen ekintza hori burutu berria, oraindik orain egin dela adierazten digu perifrasi multzo horrek.

<-TZEA> aditz izen hori absolutu mugatu singularrean doa

perpauşa baiezkoa denean, batipat. Baina esapidea ezezkoa, galderazkoa edo baldintzazkoa baldin bada, edozein izen sintagmarekin gertatzen den bezalaxe, aditz izenarekin ere partitibo forma erabili ohi da.

Orduan, beraz, <-TZERIK> + ez izan/egon edo <TZERIK> + ez ukan/eduki perifrasi formak erabiliko dira. Horixe bakarra da bi perifrasi multzo horien arteko diferentzia.

- (103)
- a. "Baldin bethi ere azkenarekin gelditu nahi bazara..., ezta gertaren akhabatzerik" (Axular, *Gero*, 386.orr.)
 - b. "-Igeska, e, igeska? Ez dona ba alde egiterik..." Bilbao, *Ipuin barreka*, 128.orr.)
 - c. **horrenbeste zarata dela, izango al da lo egiterik?**
 - d. "Guraso askori au ez dago esaterik" (Tx. Garmendia, *DV*, 85.9.11, 15.orr.)
 - e. "Ez zegoela Saulen biotza biguntzerik" (Lardizabal, *Testamentu berriko kondaira...*187-6)
 - f. **nahi eta ere, ez du hara joaterik izan**
 - g. **han ba al zegoen bada ezer esaterik?**
 - h. **gaur izan al duzu hara joaterik?**
 - i. **lekukoak ba al dauka juezaren aurrean gezurrik esaterik?**
 - j. **frontoian sartzerik baldin bada/badago, ikusi behar dugu partidua**

Perifrasi multzo hauen esanahia agerian dago: partitiboan doan aditz izenak adierazten duen ekintza edo egoera burutu ezina dela edo horri buruzko galdera edo baldintza azpimarkatzen dituzte.

Erabilerari buruz, berriz, esan behar da **egon** eta **eduki** aditz osakinak usuago erabiltzen direla hegoalde-mendebalean; beste euskal eremuetan, aldiz, **izan** eta **ukan**.

Azkenik, **ukan/eduki**, **izan/egon** bi aditz bikote hauek baiezpenezko **ba-** aurizkia dutela baldin badatoz, perifrasi multzo horiek, aditz izenak adierazten duen ekintza edo egoera burutzeko ahala adierazten dute:

- (104)
- a. **zuk esan duzun horren aditzea badut**
 - b. **lan hori biharko bukatzea badaukat**

Aditz guzietan erabil daiteke **ukan/eduki**. Inperzonalekin, ordea, **izan/egon** bakarrik.

15.9. -TU(a)Z/-TZEN + joan

Beste perifrasi multzo baten bi forma ezberdin ditugu, lehen osakiaren aldetik begiratuta. Lehenengoan <-TU> partizipioa kasu instrumentalean doa; bigarrenean, aditz izena kasu inesiboan. Aditzak, bestalde, iragankorrek nahiz iragangaitzak izan daitezke. Bigarren osakinari dagokionez, **joan** aditza dugu eta hau da, hain zuzen ere, jokatzeko dena, forma trinkoetan nahiz konposatuetan erabil daitekeelarik.

- (105)
- a. "Lur bati bethi gozo mota bera khentzen bazayo,...gozo hartarik *gabatur dihoa*" (Duvoisin, *Laborantzako Liburua*, 80.orr.)
 - b. "Egidazu *berretuaz johanen sinhesia*" (Etcheberri, *Noelac*, 158-13,)
 - c. "Jendea beti *antzostuz dihoa*" (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 107.orr)
 - d. "..., bainan oihana *azkhartuz dihoa*..." (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 233.orr.)
 - e. "...ceren ordian heen merechimendia ehorc hobeki eçagutzen baitu,..., hanbatenez heendaco dugun egartia *handithuz dihaçu*" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez*..., 36.orr.)
 - f. "Justuen bidia ekiaren pare duçu, çoin beti *goratur, beratuz* eta *argithuz baituha* eguerdiren gorenera hel arthian" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez*..., 36.orr.)
 - g. **bizitzako bideak *ikasiz joango dira* gazteak**
 - h. **orain arte ikusi gabeko gauzak *ikusten goaz***
 - i. **gauzak gero eta *garestitzenago omen doaz***

Esanahiari dagokionez, bi perifrasi mota hauek lehen osakian agertzen den aditzak adierazten duen ekintzaren jarraia eta ekintzaren mailako gehitzea azpimarratzen dute. Erabilerari buruz, berriz, esan behar da hegoaldean behintzat lehen forma galdukea dela eta, horren ordez, bigarren aukera zabaldu dela.

15.10. PARTIZIPIOAREKIN OSATURIKO PERIFRASIAK

Forma diferenteak hartzen dituzten perifrasiak ditugu hauek eta hemen paratzen ditugun aditzoz gain, predikatu gisa doan beste edozein aditzekin ere agertzen ahal zaigu. Guzti honetaz zerbait esango baldin badugu ere hemen, subordinazioa lantzen dugunean xehekiago aztertuko ditugu perifrasi hauen inguruan sortzen diren arazo guztiak.

Perifrasiaren lehenengo elementua <TU> partizipioari erantsitako lau morfema ezberdin ageri zaizkigu: **-a(k)**, **-ik**, **-ta**. Bigarren elementu gisa, berriz, kopulatibo gisa erabil daitezkeen aditzak paratzen dira: **izan**, ***edun**, **eduki**, **egon**, e.a. Hauek dira, jakina, jokutzen direnak.

15.10.1. -a(k) + izan/egon

Izenondo bihurturik doan <TU> partizipio atributo gisa erabilia dago. Gehienetan kasu absolutuko singular edo pluralean erabiltzen da. Aditzak, iragangaitza baldin bada, subjektuarekin egiten du komunztadura:

- (106) a. zu, lehendik ere, Ameriketatik *ibilia zara*
b. zuhaitz horiek aspaldi *eroriak daude*

Aditz iragankorrak ere erabil daitezke horrela, baina orduan kontuan izan behar da partizipio hori pasiboki erabiltzen den ala ez. Pasiboki erabiltzen baldin bada, eta formarik erabiliena da, **izan**, **egon** edo antzeko aditzen subjektuarekin egingo du komunztadura, eta aditz konposatu horien subjektua ergatiboan joango da eskierki eta ongien, batzutan kasu instrumentalean jarriarik agertzen bada ere.

- (107) a. "Ordukotz ihesi *juana zen oilariza...*" (Arbelbide, *Igandea*, Lille, 67.orr.)
b. "Bai, eta hura gabe ecin *izan gaiterque salbatuac*" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*149.orr.)
c. "Juan Apezpionac, ceinac *baitire Jaincoaz eçarriac*, guiritinoen guidatceco eta gobernatceco" (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*263. orr.)
d. "...gogoan hartcen dugularic...ordian oro elgarrekin Eliçan *bildiac girela*" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 228.orr.)
e. "*Bira zuen gerrunzeak gerrickatuak*" (Lizarraga, *Doctrina Christianoaren Cathechima*, Luc. XII-35)

- f. "Oro uspeldua da, oro zehatua" (Arbelbide, *Igandea*, . 85.orr.)
- g. "...esthonathia duçu beldurrez eta esperançaz bihotzça nahassia"
- h. "Hebreoen ume lehenic sorthuac *içanen citçaiçcola* Jaincoari ofrituac edo presentatuac bere burasoez, eta içanen cirela denbora berean *hetuz berez erosiac*" (Lavieuxville, *Bayona-co Diocesaco...*, 274.orr.)
- i. "Jaun horrek...hartzen du, merkataria eta argiko etche hartarat *helduak* ziren jendarme tropa batekin" (Arbelbide, *Igandea*, 79.orr.)
- j. "Han *zeuden* dotzenabat haur gazte...beltz-beliza *eginak*, *akhituak...*, *desherituak...*" (Arbelbide, *Igandea*, 84.orr.)

Aditz iragankorren partizipioa aktiboki ere erabil daiteke eta erabili ere asko erabiltzen da hegoaldean eta oso bakan iparraldean. Gehienetan kasu absolutuko singularrean edo pluralean erabiltzen da, eta horrelakoetan bere subjektuarekin egiten du komuntadura:

- (108) a. "Komeri ederrak *ikusiak gera* gazte denboran" (Salaberria, *Neronek tirako nizkin*, 26.orr.)
- b. "Eskapada ederrak *eginak ziran*" (Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, 155.orr.)
- c. "Nere gurasoen etxean *lo egina naiz*" (Loidi-Bizkarrondo, *Amabost egun Urgain'en*, 102.orr.)

15.10.2. -IK + izan/egon

Beste batzutan, ageri denez, <TU> partizipioa partitiboan erabiltzen da adberbio gisa:

- (109) a. "Hartuac oro pitci çutian Jinfoari, çongrentaco deus *eçepita estaliric*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 245.orr.)
- b. "Esku zarta ederrik *bildurik dago*" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak I*, 133.orr.)
- c. "...eta umilitate eguiazco bal, eioçu ber seindu horrec, anitez baliozago dela eta anitez segurago, ecinez aicez eta urguluz *betheric den* handiostarçun bat" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 260.orr.)
- d. "*Larri-izurric*, *bildur-icaraturic*, conorte baga ta *zorabiatuoric egongo nas*" (Añibarro, Escu-liburua, 23.orr.)

- e. "Becatu eguin badol, *bearturic ta premiaturic nago* penitencia egutera" (Añibarro, *Escu-liburua*, 37.orr.)
- f. "*Jakinik gütüzü* (=gira), Jauna, Garuna ibai nausitük duala goiti armada" (Casenave, *Ibañeta*, 51.orr.)
- g. "*Damuturik zegoen* bere alaba ez bialdua, eta biharamunean nun esaten dion ugazalabari..." (Satrustegi, *Ipuin miresgarriak*, 40.orr.)
- h. "Hountarçun eternal muga gabiac campo, çerbait handiric etchekiten diana, luçaç bere ichipitarçunian lurrareki *jossirik egonen da*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 231.orr.)
- i. "Burduguac...hougnetan beilutic beçala dutuçu..., nahicunteç eta berri ikhasi beharreç *betheric daudianac*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 234.orr.)
- j. "..., houra da orotra ere, harri preciatu hanitchi *gorderic dagouena*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 235-236.orr.)

Esan behar da, forma horiek denak direla erabiliak euskaraz, baina **-ik + izan** aukera, esate baterako, Zuberoan erabiltzen dela eta hori bakarra erabiltzen dela gainera. Beste aukera, **-ik + egon** alegia, nafar-lapurteraz eta mendebaleko euskara idatzi landuan maizago ageri da.

15.10.3. -TA + izan/egon

Hemen ere partizipio iragana adberbio bihurturik doa **izan/egon** laguntzaile dituela. Ez dago, beraz, inongo komunztaturarik.

- (120)
- a. zain eta zain, bapo *aspertuta dira* honez gero
 - b. garaiz etortzeko *esanda zaudete*
 - c. hamaika horrelako *ikusita gaude* gure bizitzan
 - d. zuk ekarritako liburuak dagoeneko *salduta daude*
 - e. etorriko nintzela *esanda nengoen*
 - f. lanean hasterako *nekatuta al zinen?*

Mendebalean erabiltzen dira aukera hauek. Gainera, **-ta + izan** aukera oso gutxi erabilia da eta gipuzkeraz bakarrik.

Beste hiru perifrasi gehiago geratzen zaizkigu ***edun/izan** aditzekin erabiltzen direnak, lehen osakinean **-a(k)**, **-ik** eta **-ta** agertzen delarik.

15.10.4. **-a(k) + ukan/eduki**

Atributo horrek **ukan** edo **eduki** har dezake aditz bezala. Zubereraz eta bizkaieraz izan ezik, **ukan** hartzen duen perifrasi mota da hedatuena, gainerako euskalki guztietan erabiltzen baita. **eduki** laguntzailea hartzen duena, aldiz, gipuzkeraz eta bizkaieraz erabiltzen da.

- (121)
- Donostiako hondartza askotan *ikusia dut*
 - euskal liburu gehienak *irakurriak zituen*
 - nere diru apurrak bankuan *sartuak dauzkat*
 - semeak honez gero etxera *etorriak dituzu*
 - zituen zor guziak *ordainduak ote zeuzkan?*
 - "...la plazatara agertutako uzia *ixioa* (izioa) *daukanak*" (Fr. Bartolomé de Santa Teresa, *Euscal Errijetaco...*, 202-2, Pamplona, 1816)

15.10.5. **-ik + ukan/eduki**

Beste batzutan, **ukan/eduki** aditzekin ere <TU> partizipioa partitiboan jarrikerik erabiltzen da adberbio modura.

- (122)
- "...eta bake campotic tcherkhatu harec eçtiçu hanitch iraganen bihotcian foundamena *phaussaturic eçpadu*" (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 220.orr.)
 - "...eta ciuçaçu, buria akhodignaç, *betheric diana*, hetan nahi beçaunbat egoitera" (Maister, op.c., 212-213.orr.)
 - "jandarmek *inguraturik dadukate etche guzia!*..." (Arbelbide, *Igandea*, 79-80.orr.)

Bi aditz horien aukera euskalkien arauerakoa da. ***Edun** zubereraz erabiltzen da eta **eduki** nahiago da lapurteraz eta gipuzkeraz.

15.10.6. **-TA + ukan/eduki**

Hemen ere bi perifrasi ditugu: **eduki** aditzarekin osaturiko perifrasiak hegoaldekoa dugu, bai bizkaieraz bai gipuzkeraz erabiltzen dena; ez, ordea, ekialdean. **ukan** aditzarekin osaturikoa, berriz, batez ere gipuzkeraz erabiltzen da. Hona hemen adibide batzu:

- (123)
- a. jantziak dagoeneko zintzilika *jarrita ditu*
 - b. semeak honezkero etxera *etorrira dituzu*
 - c. San Bartolometako arbiak *ereinda zituzten auzoan*
 - d. zuek etortzerako mahaia *jarrita izango zuten*, noski
 - e. "Eta ni *zoraturta eta gogait eginda naukate*" (Emiliano, *Euskal musikalaria bikaiñak*, Itxaropena, 1967, 159-60.orr.)
 - f. Unibertsitateko ikasketak *bukatuta dauzkat*
 - g. Donostiako San Sebastian jaiak *ikusita al zeneuzkan?*
 - h. Athletic talderik onentzat *jota daukate hilotzarrek*

Esanahiari dagokionez, argi dago sei perifrasi hauetan agertzen den lehenbiziko osakinak adierazten duen bezala, ekintza burutua dela. Partizipioari eransten zaizkion *-a(k)*, *-ik* eta *-ta* morfemek ekintzaren egoera perfektua adierazten dute, lehenago burutua dela alegia. Bestalde, kontuan izan behar da *-ik* eta *-ta* morfemek ez dutela mugatzaierik hartzen, ez eta numeroaren marka ere, horiek adberbioak baititugu. Ezin dira, hortaz, predikatu gisa erabili.

15.10.7. -TU (+izan/ukan) + naiz/dut

Sarritan aditz forma konposatuetako partizipioaren eta laguntzailearen artean *izan* edo *ukan* partizipioak agertzen zaizkigu. *Izan* partizipioa nahiz aditz iragankorrekin nahiz iragangaitzekin erabiltzen da; *ukan*, aldiz, iragankorrekin bakarrik. Gaur egun agitz usu erabiltzen dira forma konposatu hauek:

- (124)
- a. *ikusi izan/ukan dut*
 - b. *etorri izan dira*

Forma hauek orainaldiko, iraganeko eta etorkizuneko burutuetan erabiltzen dira: *ikusi izan/ukan dut*, *ikusi izan/ukan nuen*, *ikusi izango/ukanen dut*. Orainaldiko nahiz iraganeko ez-burutuekin ere erabil daiteke, hala nola: *ikusi izaten dut/ikusi izateu nuen*, e.a. Forma konposatu horren tarteko *izan* edo *ukan*-en partizipio forma horiek aditz nagusiak adierazten duen ekintzaren lehenagotasuna markatzen dute berez.

- (125)
- a. "Epiphania da hitz bai, ceinac erran nahi baitu aguercea, eta icen hori *eman ičan çajo* Besta huni..." (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 272.orr.)
 - b. "Ber seindiac cioçu orano joandene Petiri arraçoin beraz erori ičan cela" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 294.orr.)
 - c. "..., consola gaitecin, Job saindua *eguin ičan cen* beçala, gure gorphutçaren phizteco esperançaz..." (Lavieuxville, *Bayonaco Diocesaco...*, 287.orr.)
 - d. "Aita seindiec ciocie Gincoaren Semia Celuic lurrera *jeutzi ičan dela*" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez*, 299.orr.)
 - e. "Dihuru bat *galdu ičan duçu*...eta lohian eta sacukerietan idireiten duçu" (Lopez, *Alphonsa Rodriguez...*, 279.orr.)

Baina maiztasuna ere adieraz dezake, batez ere, ondoan maiztasuna adierazten duen aditzondoren bat duenean: **nator/gero nator** esaten denean geroa adierazten den bezalaxe (ikus II.3.7.5.3.)

- (126)
- a. "Gu erne-azoteko laguntzat *artu izan ditu* Jaunak gure gurasoak" (Ibargutxi, *Kristau-Ikasbide-Atzalbena*, 67-68. orr.)
 - b. "Baifia au baifio semetzako bikañagoa *emon izan dausku* gure Aita'k Jesukristo'ren irabaziz" (Ibargutxi, *Kristau-Ikasbide-Atzalbena*, 67-68.orr.)
 - c. "Izuli digun San Agustinena ez da bakarrik gerozükako arima jainkozaleek irrika biziz *irakurri izan duen* liburua" (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 354. orr.)

Lafittek dioenez, beste batzutan, mendeko perpausean adierazitako ekintzaren eta nagusian adierazitakoaren arteko gogoeta une soila adierazten du:

- (127) **haren hitza irakurri izan** nuenean ihardetsi nion

Azkenik esan behar da aditz nagusiaren <TU> partizipioari **izan/ukan** eransten zaiola. Horrela sortzen diren egiturek ere aspektu burutua adierazten dute eta tarteko **izan/ukan** horiek gehigarri hutsa izango lirateke. Horrenbestez, esanahi bera bide lukete honako bikoteok:

- (128)
- a. **gaur ikusi dut**
 - b. **gaur ikusi izan/ukan dut**
 - c. **atzo jakin banu**, besterik egingo nukeen
 - d. **atzo jakin izan/ukan banu**, besterik egingo

nukeen

Halaz ere, esan behar da gaur egun ekialdean, euskara mintzatuan batipat, frantsesaren eraginez edo, -tu + izan/ukan egitura orainaldiko eta iraganaldiko aspektu burutua adierazteko erabiltzen dutela, hala nola:

- (129) a. *gaur berandu heldu naiz* etxera
b. *atzo berant heldu naiz* Parisetik etxera
c. *gaur goizean irakurtu dut* zuk idatzia
d. *atzo arratsean irakurtu dut* zuk idatzia

Orduan badirudi, iraganaldiko zen/zuen adizkien erabilera galdua edo baztertuxea dutelarik, horien iraganaldi esanahia nolabait adierazi nahiz edo, izan/ukan partizipioak erasten dizkiotela -tu + izan/ukan egiturari, tu + izan/ukan + izan/*edun egitura bihurtuz.

15.11. -TZER eta -TZEAR

15.11.1. -tze + r + izan/ukan

Perifrasi honetan aditz nagusia aditz izen bihurturik eta kasu adlatiboko -tzera-ren laburdura da, batzuren ustez. Bigarren osakin diren aditz laguntzaileak izan edo ukan izan daitezke, aditz nagusiaren arauera: hau iragankorra baldin bada, ukan darama; iragangaitza baldin bada, berriz, izan. Aditz horiek beti orainaldiko edo iraganaldiko puntukarian doaz:

- (130) a. "*Haster niz oihuz*" (Sal., 196-4. orr.)
b. "*Nahaster dut ene ogia zurearekin*" (Id., 197-20)
c. "*Ny enuçu ohoyna arrobacer nyçana*" (Etxepare, *Linguae...* IX, 13)
d. "...goseac *hilcer daude* asco ta asco" (Larramendi)

Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den forma honen esanahiari bagagozkio, geratzeko puntuan egon den, baina geriatu ez den zerbait adierazten da. Beraz, hegoaldeko euskalkietara edo beste esate modu batera itzuliz gero, honela esan daitezke esapide horiek: oihuz *hasteko zorian egon naiz baina ez naiz hasi*, nere ogia zurearekin nahastu aginean edo beharrean edo beharrik egon naiz, *baina ez dut egin*.

15.11.2. -TZE + AR + izan, egon/*edun, eduki

Hemen ere lehen osakian aditz izena dugu, -ar atzizkia erantsirik duela. Aditz bezala, berriz, **izan** edo **egon** daramate, alde batetik, eta **ukan** edo **eduki**, bestetik. Aditz nagusia iragangaitza baldin bada, **izan** edo **egon** erabiltzeko aukera dago. Aditz hori iragankorra baldin bada, berriz, **ukan** edo **eduki** laguntzaileetako bat erabiltzeko aukera gelditzen da.

- (131) a. gaiso hori *hiltzeaz da/dago*
b. gu irten ginenean, elurra *hastear zen/zegoen*
c. zuk emandako liburua *irakurtzeaz dut/daukat*
d. irteteko garaia iritsi zenean, lana *bukatzeaz nuen/neukan*

Hemen ere perifrasi egitura hauetan aditza aspektu puntukarian erabiltzen da eta esanahia ere aspektu horrexena du: gaiso hori *hiltzeko zorian dago*, elurra *hasi aginean zegoen*, zuk emandako liburua *ia ia irakurtzeko daukat*, lana *bukatu beharrean/beharrik neukan*. Perifrasi modu hau, egia esan, oso euskara landuan bakarrik erabiltzen da.

Esanahiaren aldetik, badira beste egitura batzu ere goiko perifrasi multzoen esanahi berbera dutenak. Hona hemen:

- (132) a. "Ito-aginean ebiltzela deitu eutsen biak Mariari" (Uriarte, Marija..., Bilbon, 1862, 37-24)
b. "Zagoz tanga baten, azkenengo arnasakaz joan-aginean dagoan baten antzera" (Añibarro, *Escu-liburua*, 28-9)
c. "...eta ori, berbaric eciñ eguin daben *il aginean* dagoan bateri bere..." (Iturzaeta, *Berbaldiac I*, 63.orr.)
d. "...eta erregutu eutsan:..., eta osatu eguiala bere seme *il aginean egoana*" (Iturzaeta, *Berbaldiac I*, 168.orr.)
e. "Lari erabillezan arerioak eta goitu-aginik" (Moguel, *Peru Abarka*, 210-8)
f. **zauria zolditu beharrean dauka**
g. **ito beharrik zetorren**

Perifrasi modu honetako formari gagozkiola, ikusten da, **izan/egon** edo **ukan/eduki** aditz laguntzaileez gain, beste batzu ere har ditzakeela.

Badira beste perifrasi batzu **hurren/hurran**, **hullan** partikulez osaturikoak: perifrasi multzo hauetako partizipioak adierazten duen ekintza edo egoera aspektu aldetik begiraturik burutzear dagoela esan nahi du, gertakizun hurbila dela. Perifrasi hau ekialdeko euskalkietan erabiltzen da:

- (133) a. "Hemengo aldia *egin hurran* baitui" (Axular, *Gero*, 3.a.XVIII, 8.orr.)
b. "*Hil hurra* da" (Duvoisin, *Dictionnaire...*)
c. "Arrotzek *ito hurran* gaituzicako estakurian" (Etchepare, *Buruxkak*, 88.orr.)
d. *hil hurren da*

16. ADITZ MULTZOKO BESTE OSAGAIAK

16. ADITZ MULTZOKO BESTE OSAGAIAK

16.1. OSAGAION SAILKAPENA

Aditza da, jakina den bezala, aditz multzoaren osagai nagusia eta bera dugu, gainera, aditz multzoa osatzeko ezin bestekoa den elementu bakarra. Nahitaezkoa baita batetik, agerian nahiz isilean, eta derrigorrean laguntzarik gabe agertu behar duena, bestetik. Sarri askotan, halaz guztiz, beste osagarri batzu hartzen ditu aldamenean, berari estu-estu lotuak eta aditz multzoaren parte direnak: *badago, ez daki, esan omen du*, e.a.

Elementu hauek, hain zuzen ere, adizki jokatuari eransten zaizkio: trinkoari edo perifrastikoen laguntzaileari, hain zuzen ere. Gainera, -a galdera ezaugarria izan ezik, aurre-aurretik lotzen zaizkio denak:

	aditz multzoa	aditz multzoa
	daki	ibili da
ez	daki	ibili ez da/ ez da ibili
omen	daki	ibili omen da
	dakia ?	ibili dea ?

Hori dela eta, elementu hauek (-a atzizkia salbu, jakina) aditz perifrastikoan adizki nagusiaren eta laguntzailearen artean kokatzen direla esan ohi da inoiz, perpausaren beste osagarri gehienak ez bezala: **ibili kalean da*, baina *ibili omen da*. Baina, esan dugun moduan, zehazki harturik adizki bien artean kokatu baino areago laguntzaileari aurretik eransten zaizkio, dagoen lekuan dagoela: *ibili omen da, ez omen da ibili*, e.a.

Dena dela, aipatzen ari garen elementu hauek ez dira denak sail batekoak. Sintaxi aldetik duten jokabidea edo perpausaren barnean betetzen duten zeregina kontuan izanik, bi sail nagusi hauek berezi behar ditugu: *egibaliaoarekin* zerikusia duten elementuak eta *ziurtasun neurriarekin* erlazionatzen direnak.

Lehenbiziko sailean sartzen dira *ba-* eta *ez* partikulak. Adierazpen eta galde perpausetan erabiltzen ditugu: adierazpenetan, adierazi nahi dugunari egibaliao eman nahiz ukatzeko; eta galderetan, egibaliaoaz galde egiteko:

- (1) a. *badakizu hori*
b. *ez dute lagunik*
c. *badakizu hori?*
d. *ez dute lagunik?*

Bigarren sailean ditugu, berriz, adierazpen *ñabarduretan* eta galderetan ager dakizkigukeenak. Hemen aurkitzen dute leku, hain zuzen ere, *-a* atzizkiak (galdera markatzeko behenafarreraz eta zubereraz erabiltzen dena, bestelako *ñabardurarik* erantsi gabe) eta *ahal²/al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* elementuek. Hauek erabiltzen ditugu adierazitakoaren ziurtasun neurria *ñabartu* egin gura dugunean, nahiz eta gipuzkeraz erabiltzen den *al* partikula berez galdera marka soilia den. Bigarren saileko hauek aurretik erasten zaizkio denak adizki jokatuari:

- (2) a. *ez dea xarmangarri?*
b. *hori esan al du ?*
c. *hori esan ei du*
d. *hori esan omen du*
e. *hori esan ote du?*

Aurrera segitu aurretik bi ohar egin nahi genituzke hemen. Lehenengo eta behin hor jarri dugu *ahal²* hori modala dugun beste *ahal* parrikulatik bereizteko. Aurrerantzean *ahal* jarriko dugu bakarrik, modala eta bestea berezi nahi ditugunean behar bezala seinalatuz. Bigarren oharra erabilerari dagokio: sail bereko elementuak, modalitate modu bera ematen dutenez, ezin dira aditz multzo berean metatu: **ba ez*, **omen al*, **ote bide...*Sail desberdinetakoak ditugularik, halere, orduan erabil daitezke multzo berean, bata bestearen ondoan: *badea ?*, *ez ei*, *ba ote*, e.a., aukera guzti guztiak ezin

gertatu badira ere (**ba bide**, esate baterako, ez dirudi erabiltzen denik). Bi saileko hauek elkartzen ditugularik, erraz ikus daitekeenez, lehen sailekoek bigarrenekoei uzten diete adizki jokatuaren aurre-aurreko lekua:

- (3) a. **ba ote dabil ?**
b. **ez ei dabil...**

Bigarren saileko -a atzizkia ere ezin daiteke bere kideekin batu: ***al dea ?**, ***omen dea**, e.a. Izan ere, adizkiaren aldamenean betetzen duten lekuak berezten baditu ere, eranstean duten modalitateari dagokionez, sail batekoak baitira.

Hona hemen, beraz, eskema batera ekarririk adizki jokatuari eranstean zaizkion elementuak, zein bere lekuan kokatua:

	ahal/al	
	bide	
ba	ei	adizki jokatua
ez	omen	
	ote	

Esan bezala, guztiak aukerakoak ditugu. Bestalde, bigarren saileko horiei -a ere erantsi behar zaie. Esan dugunez, sail berekoak ezin daitezke bata bestearen gainean metatu.

16.2. "BA-" ETA "EZ": BAIEZPEN ETA EZEZPEN EZAUGARRIAK

16.2.1. Zernolako naguslak

Adizki jokatuaren aldamenean kokatzen diren elementuen lehen saila hiztunak bere esanari egotzen dion egibaldioarekin zerikusia dutenek osatzen dute, "ba-" eta "ez" partikulek, hain zuzen ere. Horiexek dira, gainera, zalantzarik gabe, elementu guzti hauen artean gehien eta usuen erabiltzen ditugunak. Lehenago esan dugun bezala, lekua adizki jokatuaren aurrean dute: ez gara joango esaten da, hortaz, gehienetan eta, inoiz, joango ez gara ere aurkituko dugu. Ez, ordea, *ez joango gara.

Ezaugarrien eta adizkiaren arteko lotura hori, bestalde, oso estua dugu: tartean ezin da, izan ere, ez etenik egin ez eta, aditz multzoko beste partikulak salbu, inolako elementurik sartu. Hori dela eta, ez dago eragozpenik honako hau esateko:

(4) ba omen daki

Ez ditugu ontzat emanen ordea beste guzti hauek:

- (5) a. *ba, dator
b. *ez, daki
c. *ba Mikel dabil
d. *ez, ordea, dabil

Izan ere, zertarako balio dute partikula hauek? Zertarako erabiltzen ditugu? Elementuon zeregina hauxe da: ondoan duten adizkia baieztu edo ukatu, bai-ezko modalitatea eranstean diote perpausari, hau da, perpausak aditzera ematen duenaren egibaldioa onartu edo ukatu egiten dute.

Nolanahi ere, aurrera jo baino lehenago kontuan izan behar dugu ezaugarri bi hauek, sail berekoak izan arren, ez dutela erabat jokabide bera: ezezko perpaus guztiek "ez" daramaten bitartean (edo, ahalezko "ezin" edo "nekez" bezalako adizlagunen bat bederen), baiezko gehienek ez dute ez "ba-" partikula ez horren antzekorik eramaten. Hona hemen eskema laburra:

- | | |
|---------------------|-------------------|
| (6) a. Mikel, badoa | Mikel, ez doa |
| b. Mikel, doa | Mikel, ez doa |
| c. Mikel, joan da | Mikel, ez da joan |
| d. Mikel, joan da | Ez da Mikel joan |

Agerian dagoenez, beraz, baiezko perpaus gehienak "ba-" gabe egiten dira. Zati galderen moldean duten perpausetan, esate baterako, esan nahi baita aditzaz bestelako elementuren bat galdegai dutenean, ez du partikula horrek inolako lekurik:

(7) Nor doa?: *Mikel badoa

Partikula hori sarru orduko, "ba-" partikula sarru orduko alegia, galdegaitasuna kentzen zaio, euskalki gehienetan bederen, aurreko elementuari.

Bai-ez galdera jeneralaren oihartzun izan daitezkeen perpausetan, berriz, baiezkoa azpimarratzeko erabiltzen da ba- partikula adizki trinkoaren aurrean: badoa. Adizki perifrastikoetan, ordea, galdegaia baiezkoa denean ere ez da, egungo egunean, ba- partikula erabiltzen normalean:

(8) joan da (edo Ø joan da)

Hona, beraz, laburtuz, noiz erabiltzen den eskuarki ba- partikula: beste galdegaririk izan ez eta adizki trinkoa perpausaren lehen buruan gertatzen denean edota egindako edo eginkizun den eten baten ondoan agitzen denean. Hona hemen bi kasuak:

- (9) a. badoa Mikel
b. Mikel, badoa

Horietan beti erabiltzen da. Esan behar da, dena dela, beste zenbait egituratan ere, nahiz eta beharrezkoa ez den, baiezkoa indartzeko edo, ankerakoa behintzat badela. Euskara zaharrean orain baino usuago erabiltzen zen horrelakoetan:

- (10) a. "Ene copá edanen baduque" (Leizarraga, *Jesus Christ gure...*, Mt XX, 23)
b. "Etsairic izandü ba-zuan?" (Ubillos, *Christau Doctriñ...*, 85)

Ezezko guztietan, ordea, eta lehen esan dugunez, beti dugu ez partikula beharrezko (ezin, nekez edo horien antzekorik tartean ez bada behintzat). Horretan ez dago salbuespenik. Ezezko guztiak ez dira, nolana ere, egite berekoak eta komeni da hau ongi bereiztea.

Batzutan ezezkoa azpimarkatu nahi dugu:

(11) **Ba al dator Mikel? Ez, Mikel ez dator**

Beste zenbaitetan, ezezkoa aurretik emana dugula, indarra beste elementu batean ezarri nahi izaten dugu:

(12) **Nor ez dator ? Mikel ez dator**

Azkeneko adibide honetan ez da berariaz erlazio bat ukatzen ("Mikel etorri" + "ez"), lehendik eraikiriko ukapena osatzen baizik ("ez etorri" + "Mikel"). Ukapen baten baieztapena dugu hortaz:

(13) **Mikel da etorri ez dena**

Ezezko mota bi horien arteko bereizketa sarri askotan ñabardura mehe batera mugatzen bada ere, zenbaitetan izaten du galdegaiaren gorabeheretan eraginik (ikus *EGLU-1 (Eraskina)*, 1.4.).

Baiezkoa edo ezezkoa indartzeko, azkenik, beti ditugu aukeran bai eta ez adizlagun edo perpausordainak ere:

(14) a. **banuen, bai, zuen herri**
b. **ez nuen, ez, zuen herri**

Berdin berdin adizki perifrastikoetan ere:

(15) a. **iritsi da, bai, eguna**
b. **ez da iritsi, ez, eguna**

Hauek, ordea, erraz ikus daitezkeen bezala, etenen artean berezirik ematen diren hitzak dira, berez joan daitezkeen perpausordainak hain zuzen. Eta beti ere aukerakoak badira, inoiz ez dira beharrezkoak.

Hona hemen, azkenik, **ba-** eta **ez** ezaugarrien zernolako nagusiak labur laburrean emanak:

1) Adizki joakatuaren aurrean kokatzen dira, tartean aditz multzoko beste partikulak baizik sar ez daitezkeela (ez **da**; ez **ote da**, baina ***ez Mikel da**, ***ez, da**).

2) **Ba-** ezaugarria adizki trinkoaren aurrean erabiltzen da, bestelako galdegairik ez dagoenean (**badakit hori;hori, badakit**).

3) Ez ezaugarria, berriz, beti erabiltzen da -antzekorik ez dagoenean- ukapena markatzeko edo osatzeko (**Mikel, ez dabil; Mikel ez dabil**).

4) Bai/ez-koak indartzeko **bai** eta ez perpausordainak ere erabil daitezke, etenen artean eta aditz multzotik bereiz.

16.2.2. Jokabide sintaktikoa

Ezaugarri hauen ohizko lekua, esan dugun moduan, adizki jokatuaren aurre-aurrean badago ere, bestelako lekuak ere bete ditzake egitura berezi batzutan.

Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den galdegai hanpatuari dagokiona dugu batetik. Galdegaia garbiroago bakandu nahi denean, adizki laguntzailea nagusiaren aitzinean ematen da, galdegaiaren ondo-ondoan (ikus *EGLU-1 (Eraskina)*, 1):

(16) **aitak du partida irabazi**

Ezezkoetan ere, hain zuzen, egitura hau erabil daiteke:

(17) **aitak du partida ez irabazi**

Eta horrelakoetan, ikusten denez, ez ezaugarria adizki jokatuetik bereiz ematen da, ordena hau segituz: galdegaia - ad. laguntzailea - (...) - ez - adizki nagusia.

Ohizko egitura ere erabil daiteke galdegai horren zerbitzuan, jakina: **aitak ez du partida irabazi**. Orduan, ordea, bitara uler daiteke perpausa. Izan ere, hizkera doinuak eta etenek baizik bereizten ez dituzten bi egitura izan daitezke hor, gorago ikusi dugun bezala: ezezkoa markatzen duena bata (**aitak ez du partida irabazi**) eta izen sintagma markatzen duena bestea (**aitak ez du partida irabazi**). Azken hau hanpatzeko erabiltzen da, hain zuzen, aipatu egitura bakana (**aitak du partida ez irabazi**).

Ezezko perpausen koordinazio berezi bati dagokion egitura dugu bestetik. Ezezko perpaus bati ondotik beste bat koordinatzen zaionean, ez partikulak ez du eskuarki lekurik aldatzen:

(18) **ez gara garaiz iritsi eta ez dugu ezertxo ere ikusi**

Ezezko ukapen desberdinen batuketa baino areago aukera desberdinen ukapen bakarra denean, ordea, beste egitura hauek erabili ohi dira:

- (19) a. ez galdu da ez galduko
b. ez galdu da eta ez galduko ere

Egitura horretan ere, beraz, adizki jokatuaren aurretik aldendu egiten da ez ezaugarria, koordinatzen diren bi perpaus edo sintagmen aurrean kokatzen baita:

- (20) ez berak egiten du ez guri egiten uzten digu

Idazle zaharren testuetan ere ikus daitezke horrelako adibideak:

- (21) "ez atsegirik nahi du utzi, eta ez penarik hartu" (Axular, *Gero*, 51)

Ohizko koordinazioa "A ez eta B ere ez" gisakoa den bitartean beste koordinazio mota hau "ez A eta ez B" gisakoa da edo, zehatzago esanik, "ez [A eta B]" gisakoa, A eta B aukerak batera ukatzen dituen, adizki jokaturik ez duen beste adibide honetan ere ikusten dena:

- (22) "Baña zu, ez apaiz eta ez ezkondu" (Garmendia, *Bordaberri'ko gozo-mikatzak*, 24)

Gogoan hartzekoa da, jakina, koordinazio lana dugula hemen eta, beraz, egitura honek beti ere bi perpaus eskatzen dituela gutxienez eta ez galdu da bezalako egitura ez dela sekula segidarik ez duten perpaus lokabeetan gertatzen: *ez egin du; *ez ekarri du eta horien antzekoak, segidarik ez badute behintzat, ez dira euskara.

Bi kasu berezi dira, horrenbestez, ez ezaugarriari dagokionean. Ba- partikulari dagokionez, berriz, estuagoak dira gauzak, hau ez baita inoiz ere adizkiaren aurretik aldentzen.

Ezezko perpausetan, jakina den bezala, adizki laguntzailea nagusiaren aurrean ematen da eskuarki gaurko egunean:

- (23) a. trena iritsi da
b. trena ez da iritsi

Eta gainera, baieztoketan ez bezala, perpausaren beste elementuak sar daitezke bi adizkien artean:

- (24) a. *trena iritsi garaiz da
b. trena ez da garaiz iritsi

Esan beharra dago, nolana ere den, inoiz bestelako ordena ere izaten duela ezezko perpausak. Hain aspaldiko ez diren idazle batzuk, hegoaldekoak batez ere, nagusiaren ondotik ematen dute laguntzailea ezezkoetan ere:

- (25) a. "eta Tomas ageri ezan" (Lardizabal *Testamentu Berriko...*, 152)
b. "izen ori itork ezagutzen ez du" (Lopez Mendizabal *Manual de conversación...*, 214)

Horrelakoetan, jakina, perpausaren beste elementurik ez dute adizkien artean sartzen.

Ordena hori bera gordetzen da, egungo egunean ere, harridura tankerako moldea duten zenbait ezezko erretorikotan, esan nahi baita, baiezko hanpatua gordetzen dutenetan eta sarri askotan **ba(da)** lotura hitzaren arrimua izaten duten horietan:

- (26) a. hilda gelditu ez da ba!
b. nola gogoratuko ez naiz ba horretaz!

Mendeko perpaus zenbaitetan ere ordena hori bera gordetzen da. Erlatiboetan, esate baterako:

- (27) iritsi ez den mutila

Adizki laguntzailea isilpean gordetzen duten zenbait egituratan ere ordena horixe gertatzen dela pentsa daiteke:

- (28) a. horrek egiten ez eta guk egin behar al dugu?
b. gauero bezala oheratu zen eta gehiago jeiki ez!

Hor agertzen diren egiten ez du eta jaiki ez zen ditugu, zalantza gaberik, elipsi horien barruan gordetzen direnak.

Ezin ere bietara erabiltzen da. Laguntzailea aurretik doala, ezezko gehienak bezala:

- (29) ezin dute indarrik hartu

Edo laguntzailea nagusiaren ondoan dagoela, baiezkoetan bezala:

(30) ezin ikusi dute

Aditza geroan dagoenean erabiltzen da batez ere ordena hori:

(31) ezin egongo gara beti hemen

Horrelakoak alde batera utzita, dena dela, gaur egun ezezko perpausetan laguntzailea nagusiaren aurretik ematea da arruntena. Eta gauza bera gertatzen da, ezezkoaren oihartzun gisa edo, baiezkoa hanpatzen duen egitura honetan:

(32) a. ez da etorri!
b. bada etorri!

Gorago esan dugun bezala, "ba+aditza" eta "ez+aditza" lotura hori ezin dezake, ohizko perpaus lokabeetan bederen, edozein elementuk hautsi:

(33) a. *ez Mikel dator
b. *ba hori dakit

Tartean sar daitezkeenak aditz multzoko beste partikula modalak dira, gorago aipatu "ba/ez (partikulak) adizkia" egituraren arauera:

(34) a. ba al dakizu?
b. ez ei dauka

Horixe dugu, hain zuzen ere, bestela beti loturik idazten den ba-partikula bereiz idaztea dakarren kasu bakarra, inoiz gainera bai perpausordainaren forma betea hartzen duelarik

(35) a. ba omen daki
b. bai omen daki
c. ba al dauka?
d. bai al dauka?

Ez dirudi, zernahi gisa, partikula horien arteko elkarketa guztiak egin daitezkeenik: *ba bide, esate baterako, ez dirudi erabiltzen denik.

Adizki trinkoa perpausaren buruan gertatuz gero, ba-partikularen laguntza behar duela esan dugu gorago. Eta horrelaxe da normalean, Badira, halaz guztiz, adizki trinko soilaz hasten diren perpausak ere:

- (36) "Gande ba ote den deus heien oroitzapenak baino gozoagorik"
(Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 276)

Horrelako zenbait, egia esan, aski garbiro azal daitezke: aditzaren ondotik datorren sintagma da perpausaren galdegaia eta, horrexegatik, aditzaren aurrean du leku. Luzea eta konplexua denez gero, aditzaren ondora pasa da, aditza bera perpausaren lehen buruan utziz. Gogoratu, alegia **hori esan du** esaten dugula, galdegaia aditzaren aurretik emanik, baina aditzaren objektua luzea eta konplexua denean atzera pasatzen dugula:

- (37) **esan du bihar lan handia izango duela eta besteetan baino beranduago etxeratuko dela**

16.2.3. Erabilera

Ez da sobera erraza **ba-** partikularen erabil eremua zehatz-mehatz mugatzea. Hau, gainera, ez da bat bakarra eta bera euskalki guztietan: ekialdekoek, esate baterako, gainerakoek baino usuago eta zabalkiago erabiltzen dute, dudarik ez. Funtsezko erabilera, nolana ere, gorago esan dugunera bil daitezke: adizki trinkoak aurretik beste galdegairik ez duenean erabiltzen da. **Laguna doa** bai (*nor doa?*, alegia), baina ***doa laguna** edo ***laguna, doa**, ez. Horrelakoetan beste hauek eskatzen baitira: **badoa laguna** edo **laguna, badoa**.

Zer esan nahi du horrek? **Ba-** partikulak, gutxienez, perpausak beste galdegairik ez duela adierazten digula. **Laguna doa**, hain zuzen ere, "laguna da doana" edo horrelako batez parafrasia daitezke, **nor doa?** galderaren erantzuna alegia. **Ba-** partikula sartuz gero, berriz, gauzak aldatu egiten dira: **laguna badoa** diogularik, "laguna" galdegai gabe mintzagai egiten dugu euskalki gehienetan. Galdegaia, hor, perpausaren baitza da, aditzaren baitza esan nahi baita. Horregatik, tartean etena egin daitezke eta etenaren barruan lotura hitzak sartu, **ba-** gabeko perpausetan ez bezala:

- | | | |
|------|---------------------------|-----------------------|
| (38) | a. laguna badoa | laguna doa |
| | b. laguna, badoa | *laguna, doa |
| (39) | c. laguna behintzat badoa | *laguna behintzat doa |
| | d. laguna ere badoa | *laguna ere doa |

Ildo beretik dirua hemen daukat ongi dago non azpimarkatu nahi dugunean, baina **dirua** hemen, **daukat** ez da euskara. Hemen barbari galdegaitasuna kentzeko, **ba-** partikula sartzen dugu: **dirua** hemen, **badaukat**.

- (45) a. upel horretan dagoena ardoa da
 b. upel horretan dagoena ez da ardoa
 c. taberna honetan ardoa bada
 d. taberna honetan ez da ardorik

Egia da inoiz bada forma ere kopula hutsa izan daitekeela:

- (46) hori ardoa bada, bai, baina txarra

Ez ezaugarriaren erabilera mugatzea errazagoa da. Ukapen guztietan erabiltzen da, izan ere, hau da, bai ukapen zuzenetan eta baita emandako ukapenaren osatzea direnetan ere: *Lurdes ez da iritsi* gehienetan eta *Lurdes ez doa* gisakoetan.

Ukapenak, nolana ere, ez du nahitaez aditzera emandakoaren aurkakoa adierazten. Beltza ez dela diogunean, ez dugu derrigor txuria denik esaten. Beltza ez den beste edozein kolore izan daiteke. Esate baterako, ez dira denak etorri perpausak ez du inor azaldu ez denik esan gura. Beharbada bat, bi, hiru edo asko etorri dira; beharbada bat ez beste denak...baina denak ez. Zer ez den esaten du beraz ukapenak; ez, ordea, nahitaez, zer den.

Itzuli batzutan baiezkoa hanpatzeko erabiltzen dugu ezezko perpausa. Gorago aipatu dugun egiturak, esate baterako, hots, laguntzailea nagusiaren ondoan ematen duenak eta *ba(da)* hitzaren arrimua hartzen duenak baiezko harritu eta indartua adierazten du:

- (47) eroak garela esan ez digu bada!

16.3. ADIZKI JOKATUARI ERANTSITAKO BESTELAKO ELEMENTUAK

Adizki jokatuaren inguruan kokatzen diren elementuen bigarren saila osatzen dutenak esandakoaren *ziurtasun neurriarekin* zerikusia dutenak dira, galdera ezaugarriak ere barne direlarik. Horien artean, gorago azaldu dugunez, bi azpisail ditugu: **-a** atzizki galdekaria dugu batetik eta adizkiaren aurre-aurrean eman ohi diren **ahal/al, bide, ei, omen** eta **ote** partikulak bestetik.

16.3.1. "-a" atzizkia, galdera ezaugarria

16.3.1.1. Zernolako nagusiak

Normalean adizki jokatuari erantzen zaion atzizki hau "bai/ez" moldeko galde jeneralak markatzeko erabili ohi da, ekialdeko euskalkietan batez ere.

Galdera horiek markatzeko bide desberdinak ditu euskarak, jakina den bezala: hizkera doinua ibiltzen dugu euskararen eremu osoan; **al** partikula gipuzkeraren eremuan batez ere eta orain aztertzen ari garen **-a** atzizki hau ekialdekoetan batez ere:

- (48) a. garaia da?
b. garaia al da?
c. garaia dea?

Ohart gaitezen **ote** partikula ere erantzen zaiola inoiz galderari. Hau, ordea, ez da berez galdera ezaugarria, aldez aurretik dugun galderari erantzen zaion partikula modala baino. Partikula horren egitekoa ez baita, hain zuzen ere, "galdera markatzea", baizik galderari zalantza kutsu edo ñabardura bat ematea. Horrenbestez, galdera ezaugarria ez denez, bestelako galdekaria daramaten zati galderetan ere erabiltzen ahal dugu:

- (49) a. *nor etorri al da?
b. *nor etorri dea?

baina,

(50) **nor etorri ote da?**

Edozein galdera moldetan eta galderetan bakarrik ibil daiteke partikula modala, beraz (ikus III.3.2., geroxeago datorrena).

Halaber, aukera galderetan erabiltzen den *ala* juntagailua itaunen azken osagai gisa eman ohi da anitzetan. Hautakizunaren bigarren partea ezabaturik sorturiko egitura da hau eta, beraz, "bai/ez" erako galderaren itxura hartu duena: **ondoezik zaude ala "x"**? Delako elipsi hau jeneralizatu egin denez, *ala* zenbaitetan "bai/ez" galderaren ezaugarritzat hartzen ahal dugula pentsa dezakegu:

(51) **ondoezik zaude *ala*?**

Juntagailu hori, zernahi gisa, ez da izaten galdera ezaugarri bakarra. Partikula ageririk gabeko galde perpausek duten hizkera doinua eskatzen du alde aurretik eta itaunaren azken osagaia izaten da. Hori batetik. Bestetik, izatez juntagailua denez bera, *ala* ez dugu kapitulu honetan aztertzen ari garen partikulak bezala aditz multzoko elementua, esan nahi baita, ez zaiola adizki jokatuari eransten, baizik perpaus osoari:

- (52) "Autoridadeak nun dira, olako astakeriak ez galazoteko? Ez dago txinetik *ala*?" (Kirikiño *Bigarrenko Abarrak*, 144)

Galderen azken osagai gisa erabili ohi dira anitzetan **ez da** ("ezta") eta ez:

- (53) a. **ezagutzen nauzu, ez da?**
b. **ezagutzen nauzu, ez?**

Itzul gaitezen berriz ere **-a** atzizkira. Esan bezala, adizki jokatuari eransten zaio:

- (54) a. **hi hintzena?**
b. **badea hori baino gauza ederragorik?**

Lekuan lekuko aldaketa fonetikoak sortzen ditu lotura gunean (**dea**, **daramaia...**)

Aditza isilpean uzten denean, ordea, bestelako hitzei ere erants dakieke (**nika?**). Jakina denez, horrelako elipsietan agerian gelditzen den elementua galdegai izaten da:

- (55) -zuk egin omen duzu hori
-nika?

Eta perpausordainei ere erants dakieke: **baia?, eza?**

Horietan, beraz, -a atzizkia da aditz multzoak agerian utzi duen elementu bakarra.

16.3.1.2. Jokabide sintaktikoa

"Bai/ez" erako itaunen ezaugarria izanik, atzizki hau ez da bestelako galdekariren bat daramaten zati galderetan ibiltzen:

- (56) a. *nor dea?
b. *non utzi duzua liburua?

Eta, gorago ere esan dugunez, ezin da ere bere saileko bestelako elementuekin aditz multzo berean metatu:

- (57) *ba ote dea honelakorik?

Egia da noizbehinka erabiltzen direla (58). perpausaren tankerakoak, baina geroago azalduko dugun legez, ote partikula aparte dago hor, etenen artean kokatua eta aditz multzotik bereiz:

- (58) a. badea ote?
b. "Ez dea ote miliun bat Euskaldun (...)" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 307)

Azken perpaus hau honela irakurri beharko genuke:

- (59) Ez dea, ote, miliun bat euskaldun...?

Esaldi honetan ikusten dugu hobeki -a atzizkia eta ote partikula ez direla aditz multzo berean metatzen.

Esan dezagun, azkenik, itaun zuzenetara mugatzen dela atzizki hau eta zeharkako galderetan ez duela lekurik:

- (60) a. Hemen bizi dea?
b. *hemen bizi dean geldegin du

16.3.1.3. Erabilera

Atzizki honen erabilera zehaztea erraza da: berez itauna markatu baizik ez du egiten; ez du, alegia, berez bestelako ñabardurarik eransten. Gainerako galdera ezaugarriak bezala, dena dela, hau ere erabiltzen da erretoriko deitu izenetan:

(61) **ez duta neure herria maitatuko?**

Honelakoak, ordea, ongi aski jakina den bezala, itaun itxura duten arren, ez dira egiatzko galderak. Ez dute, izan ere, erantzunik eskatzen, itauna baino areago baieztapen hanpatua baitira:

(62) **maite dut neure herria, noski!**

Ñabardura hori, dena dela, ez dio atzizkiak ematen perpausari, inguruak baizik.

Azkenik, zenbait itzulitan bestelako adierarik ere izan dezake. Denborarena edo baldintzarena, esate baterako, Lafitek bere Gramatika ezagunean aipatzen duen adibide honetan bezala:

(63) "hasten zena bada mintzatzen, argitzen zaizkion begiak" (Lafitte, *Grammaire Basque*, 404)

Hauxe da, gutxi gora-behera, itzuli horrek adierazten duena: "mintzatzen hasten zenean" edo "mintzatzen hasten bazen..."

16.3.2. "Ahal"/"ai", "bide", "ei", "omen" eta "ote": aditz multzoko partikula modalak

16.3.2.1. Zernolako nagusiak

Partikula hauek ere hiztunaren **ziurtasun jarrerarekin** dute zerikusia. Hiztunok, izan ere, ez diogu esaten dugun guztiari ziurtasun neurri berbera eskaintzen. Anitzetan, egia da, egiten ditugun perpausak ñabardurarik ez duten adierazpen soilak izaten dira:

(64) a. **Lurdes etxera joan da**
b. **Lurdes ez da etxera joan**

Zenbaitetan, ordea, gure perpausak adierazpenak gabe galderak izaten dira:

- (65) a. Lurdes etxera joan da?
b. Lurdes etxera joan al da?

Eta beste askotan, azkenik, geure jarrera areago ñabartu gura izaten dugu, zalantza, ustea eta horien antzekoak adieraziz. Honetarako, besteak beste, partikula modal hauek erabil ditzakegu. Esaten duguna besteri entzuna diogula eta, beraz, ziurtasun neurria haren bizkar uzten dugula adierazteko, esate baterako, **ei** eta **omen** ditugu, lehena bizkaieran erabiltzen delarik:

- (66) a. Lurdes etxera joan ei da
b. Lurdes etxera joan omen da

Esaten dugunari ziurtasun oso-osea ematen ez badiogu ere, egiantz handia bederen eskaintzen diogula adierazteko **bide** partikula dugu:

- (67) Lurdes etxera joan bide da

Perpaus honetan adierazi gura dugu "dirudienez" edo, Lurdes etxera joan dela. Galderari zalantza edo susmo kutsua eransteke **ote** partikulaz baliatzen gara:

- (68) Lurdes etxera joan ote da?

Eta desira adierazteko, besteak beste, **ahal** partikula dugu, potentzialetan agertzen zaigunarekin nahasi ezin duguna:

- (69) Joango ahal da etxera!

Azalpenak laburtu eta errazteko partikula modalak edo/eta aditz multzoko partikula modalak esan ohi zaie eskuarki partikula hauei. Ez dira, noski, modaltasuna eman dezaketen elementu bakarrak. Modaltasun horretaz landa, izan ere, bestelakorik ere bada. Aditz modalez ematen dena, esate baterako, gertakarien edo egoeren adierazpen soilaren agindu haien nahia, beharra, e.a. adierazten dituena: **joan da** batetik eta **joan nahi du**, **joan behar du**, e.a. bestetik (ikus...). Edo konjugazio moduez ematen dena eta xedea, agindua eta horrelakoak adierazten dituena: **joan dadin**, **joan bedi**. Edo/eta, baita ere, bestelako hitzez ematen dena: **agian joan da**.

Aditz multzoko beste elementuak deitu ditugun horiek, ordea, sail berezia osatzen dute. Batetik, modaltasun mota jakina ematen dute: ziurtasun neurriarekin zerikusia duena, hain zuzen, bestela perifrasi luzeagoez eman beharko litzatekeena (**omen: entzun dudanez, esaten dutenez, ...; bide: dirudienez, itxura denez ...**). Bestetik, behin eta berriz esan dugunez, jokabide zehatza dute hauek: aditz multzoko partikulak dira, adizki jokatuaren aurrean kokatzen direnak, bere antzeko perifrasiak ez bezala.

Badira aditz multzoan lekua duten beste elementu batzu ere eta, hori dela eta, partikula modal hauekin nolabaiteko antza dutenak, baina halere sail honetan sar ez daitezkeenak. **Nahi izan, gura izan, ahal izan, ezin izan** eta horien antzekoak aipa daitezke batetik; **ohi (izan)**, bestetik; **edo** eta ere juntagailuak; **berri, hurreu** eta horien antzeko adjetiboak.

Zenbait aditzek (**nahi ukan, gura ukan, behar ukan** eta **ahal izau**) badute, lehen begiratuan bederen, partikula modalen antza. Partikulek, izan ere, adizki jokatuaren aurrean daudenez, aditz perifrastikoaren adizki bien artean kokatzen dira. Eta aditz modalekin ere gauza bera gertatzen dela dirudi:

- (70) a. **ogia ekarri omen du**
 b. **ogia ekarri nahi du**

Baina gauzak bertagotik aztertzen baldin baditugu, berehala ikusiko dugu partikulak adizki jokatuari datxezkon bitartean, aditz modalek adizki nagusiaren lekua betetzen dutela. Ezezko perpausetan ikus daiteke argi:

- (71) a. **ez omen du ogia ekarri**
 b. **ez du ogia ekarri nahi**

Eta hortik datoz beste hainbat eta hainbat desberdintasun ere. Hortik dator, esate baterako, beste askoren artean, adizki trinkoekin gertatzen dena, esan baitaiteke **omen doa**, baina ez ordea ***nahi doa**, delako **nahi** hori ez baita, alegia, adizki jokama ñabartzen duen hitza. Hortixek, baita ere, aspektua dela eta nabarmentzen den aldea: partikulek, laguntzailearekin doazenez, ez dute aspekturik markatzen, hau nagusian baita emana, lehen ikusi dugun bezala: **ekarri omen du, ekartzen omen du, ekarriko omen du**. Aditz modalak, berriz, bera izanik adizki nagusi, berak hartzen ditu aspektu markak: **ekarri nahi du, ekarri nahi izaten du, ekarri nahi izango du** edo **ekarri nahiko du, ahal izan** aditzaren kasuan geroa bitara ematen bada ere, hau da, aspektu marka **ahal** berari erantsiz edo aditz objektuari itsasiz:

- (72) a. **"sartu ahalko dira"** (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 152)

- b. "dirutan ere ez da eskuratuko ahal" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 138)

Honek adierazten duenez, aditz modal hauen artean bi azpisail bereiz daitezke (ikus...), baina biak ere partikula modalekin zerikusirik ez dutenak.

Ohar bat egin behar da, aurrera baino lehen, **ahal** hitzari dagokionez. Hitz honek, izan ere, bi adiera baditu gutxienez: batean aditz modala da eta adizki nagusiaren lekua betetzen du; bestean partikula modala da eta adizki jokatuaren aurreko lekua hartzen du:

- (73) a. "dirutan ere ez da eskuratuko ahal" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 138)
- b. "baina ez ahal zauzkit samurtuko..." (Etchepare, *Jean Etcheparen mirikuaren...*, 321)

Lehenengo perpausean aditz modala dugu eta bigarrenean, berriz, desira edo adierazteko ibiltzen dugun partikula modala.

Semantika aldetik zerikusi estu-esturik ez badu ere, badu ohi (**izan**) hitzak partikula modalen antza, ekialdeko erabilieran bederen. Erabilera horretan, hain zuzen, partikula deitu dezakegun hitz hori adizki jokatuaren aurrean kokatzen baita, bai adizki perifrastikoetan eta bai trinkoetan ere, baiezkoetan nola ezezkoetan:

- (74) a. "urte guzietz, egiten ohi du (...) bilkura handi bat" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 151)
- b. "Ezagun, hortarik, ez ohi dutela aski artarekin irakurtzen" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 70)

Aintzinagoko testuetan ere ez dira falta:

- (75) a. "Ez ohi du begi orde anhitz higitzen" (Axular, *Gero*, 187)
- b. "Zeren bat bederak sendo zeñño zertan baitzedukan gogoa, hartan ohi daduka, eta hartaz mintzatzen ohi da eritasuncan, eta hiltzerakoan ere" (Axular, *Gero*, 243)
- c. "Ezoixaku sekula falta eskarazen jentea" (Barrutia in Lakarra, *Barrutiaren edizio kritiko baterako*, 152)

Aldeak ere badira, ordea, partikularen esangurak berak eragindakoak hain zuzen. Ohizkotasuna markatzeko erabiltzen denez, ez du bestelako aspektuaren lekurik: ***ekarriko ohi du**, esate baterako, ez da euskara. Eta horretan, jakina, partikula modalak ez bezalakoa da, azken hauek aspektu

guztietan erabiltzen baitira.

Ekialdean, hain zuzen, bestela ere ohitura adierazten duen **-TZEN** formarekin erabiltzen da, ohizkotasuna areago markatzeko: **jaten ohi dut**. Eta trinkoarekin ibiltzen denean ere aspektu berbera adierazten du: **ohi dauka** (= "edukitzen du", "edukitzen ohi du"), **ohi dago** (= "egoten da", "egoten ohi da").

Mendebalean partizipioarekin erabiltzen da, ondoko adibidean ikus daitekeenez:

- (76) "Goizetik iluntzera aldaketa aundiak izan oi dituk da egun artan ere bai" (Garmendia, *Bordaberri*'ko gozo-mikatzak, 62)

Partizipioarekin joan arren, dena den, ohizkotasunaren modalitatea ematen du: **jan ohi dut** (= "jaten dut"). Mendebaleko erabileran, gainera, ezezkoetan adizki nagusiaren ondoan ematen da, aditz modalen moduan eta partikula modalak ez bezala: ez dugu **jan ohi** (ikus15.5).

Askotan adizki nagusia isilpean uzten da: **urtero ohi dugun bezala egingo dugu aurten ere**. Horren azpian dagoena, hain zuzen, hau izan daiteke: **urtero egin ohi dugun bezala**. Are elipsi handiagoa **dago ohi baino beranduago iritsi da** eta horren antzeko perpausetan.

Semantika aldetik bestelakoa delako batetik eta jokabide sintaktikoan ere nolabaiteko antza izanik ere arrunt berdina ez delako, ezin da ohi hitza aditz multzoko partikula modalen sailean sartu.

Aditz multzoan kokatzen diren partikulatzat hartu izan dira inoiz **edo** eta ere partikulak. Izan ere, adizki perifrastikoan partikula modalek hartzen duten leku bera hartzen baitute hauek ere:

- (77) a. galdu omen da
b. galdu edo da

Berehala ikusten dira, ordea, aldeak, perpausak ezezkoa pasatzen ditugun bezain laster:

- (78) a. ez omen da galdu
b. *ez edo da galdu

Ikusten da **edo** ez dela sekula ere horrelako egituran, ezezkoetan, gertatzen.

Bigarren perpausean dugun egitura ez da partikula modalekin agertzen zaiguna, baizik **aita eta; zu ala?**, **Mikel edo** eta horien antzeko sintagmetan suertatzen dena. Hau da, koordinazioaren bigarren elementua isilpean uzten duena, alegia: **aita eta X, zu ala X, Mikel edo X**.

Eta egitura hori, jakina, ez da aditzera mugatzen. Izenekin, adjetiboekin eta adberbioekin ere ibiltzen dugu. **Galdu edo, txuria edo, gaur edo** eta horien antzekoak ere erabiltzen dira.

(79) **etxeakoak edo, familiakoak edo dira**

Baita perpaus osoekin ere:

(80) "(...) ortara etorriak, zenbat gauden-edo jakitera" (Ataño, *Zigorean*, 14)

Orobat perpaus ordainekin ere: **bai edo, ez edo**.

Egitura hori espresibitateari dagokiona ere bada. Isilpean uzten den bigarren elementua zehazteak garrantzi handiegirik ez duela adierazi nahi du batetik eta aipatzen den lehen elementuari ere indarra kendu egiten dio bestetik. Horrelakoak esaten ditugunean, **Mikel edo, txuria edo, gaur edo, galdu edo...** alegia, zehaztu gabeko zerbait isilpean uzteaz gain, **Mikel, txuria, gaur** eta **galdu** elementuei ere indarra kentzen diegu, zalantza kutsu bat erantsiz.

Aditz multzoari dagokion adibidea ere egitura horren kasu bat baizik ez da. Horrenbestez, **galdu edo da** honela irakurri beharko genuke: **galdu edo X da**. Eta garbi dago hor **edo** juntagailua partizipioari lotzen zaiola, ez laguntzaileari, juntagailu hori fiabartzen duen elementuaren ondotik baitator beti, ez aurretik: **galdu-edo da** beraz. Eta hortxe dago, hain zuzen, aldea: partikula modala ondoko laguntzaileari datzekion bitartean, **edo** juntagailua aurreko adizki nagusiari dagokio:

(81) **galdu edo da** **galdu omen da**

Semantika aldetik partikula modalen antza badu ere, beraz, **edo** ez da aditz multzoko partikula.

Bide beretik azal daiteke zenbait euskalkitan erabiltzen den beste honako egitura hau ere:

adizki nagusia + ere + adizki laguntzailea

Ikus adibide hau, esate baterako:

- (82) "ikusten ere zintuzken" (Etchepare, *Jean etchepare mirikuaren...*, 185)

Trinkoarekin ere berdintsu eman daitekeena:

- (83) a. "zabal ere dute bizkarra" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 184)
b. badakigu ere gauzak ez direla hain erraz konpontzen
c. ekarriko nizula agindu nizun eta badakart ere

Koordinazio lana dugu hemen ere, koordinazio kopulatiboarena, hain zuzen. Baina kasu honetan lehen elementua da, izatekotan, aipatu gabe geratzen dena. Eta zorrotz hartuta koordinaziorik ez balego ere, erreferentzia munduaren zabaltzea gertatzen da bederen. Eta koordinazio edo erreferentzi mundu hori ere hitzaren aurrean dagoen elementuari dagokio (X ere), hau da, gure kasuan partizipioari eta ez, partikula modalak bezala, adizki jokatuari:

ikusten ere da

ikusten omen da

Nolanahi ere, juntagailu kopulatiboak aztertzean mintzatuko gara luze ere honetaz.

Berri, hurren eta horien antzekoak ere ez dira partikula modalen sailean sartzekoak, nahiz eta hauek ere lehen begiratuan adizki nagusiaren eta laguntzailearen artean kokatzen diren:

- (84) a. "arrotzek iio hurren gaituztelako estakurian" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 88)
b. iragan berri dugun urtea ez da hain txarra izan

Zemahi gisa, gauzak patxadan aztertuz gero, aldeak ikusten dira hemen ere: hitz horiek ez dira ezezko perpausetan adizki laguntzailearen aurrean kokatzen (***ez berri da iragan**), ez eta trinkoekin ematen ere (***hurren dator**) e.a. Hitz horiek, hain zuzen, partizipioari lotzen zaizkio, elkarketa modu bat sortuz, partizipio elkarru bat alegia, adierazia nolabait aldatuz, mugatzailearekin zein gabe eman daitekeena:

- (85) a. ikusi berri dugu
 b. hil hurren(a) da

Ezin dira, beraz, aditz multzoan kokatzen diren partikula modalen sailean sartu.

Hona hemen, bada, laburtuz, aditz multzoan kokatzen diren partikulen eta bestelako hitzen sailkapena:

A. Adizki jokatuari aurretik eransten zaizkionak

- 1) ahal/al, bide, ei, omen eta ote : joan omen da
 2) ohi zenbait erabileratan : ez ohi da joan
 3) Ba- eta bait menderatzaileak : joan bait da

Oharra: Ba- eta ez partikulak ere adizki jokatuaren aurre aurrean ematen dira, partikula modalak tartekatzen direnean izan ezik: badao, baina ba omen doa.

B. Adizki nagusiari ondotik eransten zaizkionak

- 1) edo eta ere juntagailuak : joan edo da
 2) berri, hurren eta horien antzekoak : joan berri da

Oharra: Aditz modalak ez dira goiko horiekin nahasi behar.

- a) nahi, behar, gura : joan nahi du
 b) ahal, ezin : joaten ahal da

16.3.2.2. Jokabide sintaktikoa

Adizki jokatuaren aitzinean hartzen duten leku zehatzak markatzen du, neurri batean behintzat, partikula modalen jokabidea. Partikularen eta ondoko adizkiaren arteko lotura, izan ere, hain da estua, non azentu eta ebakera gorabeheretan ere eraginik baitu (éi-**da**, **omentzen**). Ez hori bakarrik, ordea. Galdegaitasunari dagokionean ere bereziak dira partikula hauek, gainerako elementuak ez bezalakoak: galdegaiaren eta aditzaren artean kokatuta ere, ez diote hari galdegaitasuna kentzen:

- (86) a. *nor* dabil hor?
b. *Mikel* dabil
c. *Mikel* ei dabil

Baina,

- d. **Mikel* hor dabil

Galdegaiaren perpausaren baiezkua edo ezezkoa baldin bada ere, **ba** edo **ez** partikulen eta adizkiaren artean koka daitezke haiei galdegaitasuna kendu gabe: **ba omen dakite**, **ez bide dira** (ikus III, 1).

Kasu jakin batzutan **omen** eta **ote** partikulak --ez, ordea, besteak-- aditzaren ondoan joan daitezke ohizko bideetik saihestuz:

- (87) a. "Ez dea ote miliun bat Euskaldun (...)" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 307)
b. "Hemen ez dugulakotz omen deus ikustekorik gehiago" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 88) (= "hemen ez omen dugulako...")

Euskara zaharrean, gainera, usuago erabiltzen zen behar bada eginura hori. Hona adibide bat:

- (88) "Margarita, badaidita othe huts (...)" (Oihenart, *Atsotizak eta neurtizak*, II. neurtitza)

Ez dirudi, dena den, egitura horrek ohizko ordena benetan hausten duenik. Besterik izan baitaiteke hor gertatzen dena: **omen** eta **ote** aditz multzotik bereiz egotea egitura horretan, etenen artean emanak, enfasi baten zerbitzuan edo. Honela irakurriko genituzke, beraz, (87a) eta (87b) perpausak: **ez dea, ote, miliun bat Euskaldun (...)? eta Hemen ez dugulakotz, omen, deus ikustekorik**. Bi arrazoi ditugu honen alde:

a) inoiz ere ez dira sail honetako bi partikula aditz multzo berean sartzen: ***ba al ote da?, *ba al dea?, *ba omen al da?, *ba ei ote da?...** Nahiko argi adierazten du horrek **ba dea ote?** egituren partikula biak bereiz daudela eten edo pausa baten bidez. Ohizko jokabidearen salbuespen bakarra eta harrigarria litzateke bestela.

b) aditzaren ondoan eman daitezkeen bi partikula hauek dira, hain zuzen ere, --**omen** eta **ote** alegia-- adizkirik gabe ere eman daitezkeenak, hau da, zehatzago esanik, adizkia isilpean utzita ere eman daitezkeenak:

- (89) a. **hori legea ote guretat?**
b. **non da Miren?**
etxean omen

Elipsia, gainera, perpaus osora luza daiteke: **bai ote?, bai omen?**. Horrelakorik ez da gainerako partikulekin gertatzen, -a atzizkia alde batera uzten badugu behintzat (**baia?**). Horiek horrela izanik, adizki ondoan erabiltzen direnean ere aditz multzotik bereiz ematen direla dirudi, aparte: **badea, ote?** eta **bada, omen**. Eta etena beti-beti egiten ez bada ere, beti da eginkizun.

Partikula modalek badituzte, beste aldetik, erabil muga zehatzak, gorago behin eta berriro gogoratu ditugunez beste. Honako hauek, esate baterako, beste zenbaiten artean:

a) Hasteko, gogoratu oraintsu esan duguna. Horrelako partikulak ezin direla bat baino gehiago aditz multzo berean metatu.

Horrek argitzen du ondoenik, besteak beste, **ote** partikulak dituen erabil muga zenbait. **Ote** ezin da, egia da, **al** partikularekin edo -a atzizkiarekin elkartu. Baina hori ez da gertatzen inoiz esan den bezala bi galdekari elkartu ezin direlako, **ote** ez baita galdekaria, galderetan erabiltzen dugun partikula modala baizik. Eta horrexegatik elkar daiteke, hain zuzen, **nor** eta horren antzeko galdekariarekin. **Al** partikularekin eta -a atzizkiarekin elkartu ezina, aditz multzoko partikulen sail berekoak direlako gertatzen zaio **ote** partikulari, ez beste ezergatik. Hona eskema:

EZ	BAI	EZ
bi galdekari	galdekaria + ote partikula modala	sail bereko bi partikula
*nor al da? *noiz dea?	nor ote da noiz ote dea?	*etorri al ote da? *etorri ote dea? *etorri omen dea? *etorri ei al dea?

Bi galdekari ezin dira, hortaz, elkartu. Ezta sail bereko partikula bi ere. Bai, ordea, **ote** eta bere saileko ez diren galdekariak, **ote** ez baita galdekaria.

b) **Bait** partikulak, beste alderik, ziurtasun osoa adierazten duenez, ez ditu bere aldamenean galdera ezaugarri diren **al** eta **ote** partikulak edo egintza baizik adierazten ez duen **bide** partikula onartzen. **Omen**, ordea, onartzen du:

(90) "hau nigarrez abiatzekotan izan omen baitzen" (Etchepare *Jean Etchepare mirkuaren...*, 129)

Ezintasun horien oinarria, dena dela, semantikoa dela dirudi.

c) Baldintzazko **ba-** partikulak, bere aldetik, ez ditu sekula partikula modalak onartzen aldamenean, hauek baldintzaren ondorioan joango baitira beti ere:

(91) etortzen bada, ikusiko al dugu?

d) Partikula modal hauek, azkenik, ez dute leku edozein perpaus mendekotan. Ez, esate baterako, aditz izenki soilez osatzen direnetan:

(92) *horrela omen eginik

e) **Badirudi al** galdera ezaugarria ez dela zehar esaldietan erabiltzen:

(93) *ez dakit joan al den

Erabiltzen da, ordea, benetazko zehar galderetan, hau da, itaun bat jasotzen dutenetan eta galdegin edo horrelako aditz nagusiren baten objektu direnean:

(94) **joango al den galdegin diote**

Ote partikula, beraz, zuzenetan bezala zehar galderetan ere ibil daiteke:

(95) **etorri ote den jakin nahi nuke**

f) **Omen** bai erlatiboetan, bai konpletiboetan eta bai **-ela** morfemak osaturikoetan ere erabiltzen da, batzutan bederen:

- (96) a. "aspaldian gogoan omen daukan xede bat" (Etchepare *Jean Etchepare mirikuaren...*, 164)
b. **hark egiten zuela esan omen ziguten**
c. "euskara ba omen zekiularik hautaki" (Etchepare, *Jean Etcheparen mirikuaren...*, 252)

16.3.2.3. Erabilera

Kapitulu honen lehen atalean, partikula modalok mugatzen saiatu garenean, bi erizpide erabili ditugu beraiek bereizteko: jokabide sintaktikoaz beste, perpausari eransten dioten modaltasun mota ere aipatu dugu. Hitzunek bere esanei eskaintzen dieten ziurtasun neurriarekin zerikusia dutela esan dugu. Hau da, adierazpenak ñabartu nahi direnean erabiltzen direla. Partikula bakoitzak ñabardura berezi bat eransten dio perpausari. Ñabardura horren barmean, ordea, adiera eta erabilera desberdinak izan daitezke, esangura nagusi baten inguruan adiera diferenteak alegia.

Ahal/al. Partikula hau aski zehatza dugu alde batetik: galdera ezaugarria da, hots, itauna markatzen duen hitza. Baditu, ordea, hain zehatzak ez diren beste erabilerak ere: desira adieraz dezake, esate baterako, zenbait itzulitan; zalantza, beste batzutan...

a) Galdera-ezaugarri bezala gipuzkeran batez ere erabiltzen da, bizkaiera literarioan guztiz ezezaguna ez bada ere:

- (97) "Kaixo, lagun zarra! Zelan bizi da? Bekast esku ori! Ez al nau czagutzen?" (Kirikiño, *Egunekoa*, 193)

Erabilera horretan berez hori baizik ez du adierazten, daraman perpausa bai/ez gisako galdera dela:

- (98) a. **hasi al da jokoa?**
b. **ez al dira oraindik iritsi?**

Ez da hori, gorago esan dugun bezala, itaunak markatzeko euskarak duen bide bakarra (ikus III.3.1.1.). Hizkera doinu berezia, **al partikula** eta **-a** atzizkia --azken hauek ere bere hizkera doinu berezia dutelarik-- dira galdera soilen ezaugarriak, hau da, berez bestelako *ñabardurarik* ez duten bai/ez erako galde perpausen ezaugarriak.

Berez ez bada ere, ordea, inguruak ematen dio askotan **al** galderari nolabaiteko *ñabardura*. Itaun erretorikoetan, esate baterako, erantzunik ere eskatzen ez duten itaunetan alegia, galdera baino areago zerbaiten baieztapen edo ezeztapen hanpatua direnetan:

- (99) a. **ez al dizut esan isilik egoteko?**
b. **haiek baino gutxiago al gara gu?**

Lehenbiziko perpausa baieztapena da (**esan dizut, noski!**) eta bigarrena, berriz, ukapena (**ez gara gutxiago, noski!**). Horrelako galdera erretorikoetan bestelako enskalkietan ere erabiltzen da:

- (100) "ez ahal dakizu osoki partida ditugula liburuak euskaldunak"
(Etchepare, *Jean Etcheparen mirikuaren...*, 347)

Perpaus horietan, jakina, inguruak ematen dio galderari aipaturiko kutsu erretorikoa eta hori, noski, pragmatikari dagokion gorabehera da. **Al** partikula, beraz, esan bezala, galdera marka soila baita, informazio edo erantzun baten eskea. Ohari gaitezkeenez, galderaren ezaugarria denean **al** idaztea erabaki du Euskaltzaindiak, gipuzkeraren usadioari jarraikiz. Galdera erretoriko hauetan, ordea, gipuzkeratik kanpora ere ibiltzen da eta Euskaltzaindiak horrelako xehetasunak aipatu ez baditu ere, badirudi horietan ere, galderazkoak diren neurrian, **al** idaztea dugula bidezkoena, idazkera batuan, euskararen eremu osoan. Gainerako erabilereetan ahal idazten da.

b) Desira adierazten duten perpausetan ere erabiltzen da partikula hau, geroaldiko aditzekin:

- (101) a. **hurrengo urtean suerte hobea izango ahal dugu!**
b. **ez ahal dira horren urrutira joango!**

- c. "Ez al zaitu antustea amilduco!" (Larramendi in Mendiburu, *Jesusen Biotzaren Debozia*, (Sarrera))
- d. "Agur, aita nerea, ta gogoango al nazu zure owoitzetan" (Larramendi in Mendiburu. *Jesusen Biotzaren Debozia*, (Sarrera))

Bestelako denboretan ere ibili izan da adiera honetan:

(102) **etorri ahal da!** (=etorria izango ahal da!)

Egia esan, kasu hauetan, desira eta zalantzaren arteko muga ez da beti garbia. **Irabaziko ahal dugu!** perpausak, adibidez, irabazteko gogoia eta hala izango ote den zalantza ere adieraz dezake.

Bestelako ñabardurarik ere badu partikulak adiera honen inguruan, zalantzarik ezarena hain zuzen, ziurtasunarena. Hori da, esate baterako, ondoko testuan amak semea etxeko atarian ikusita adierazten duena:

(103) **etorri al haiz, seme!**

Ez da batere harritzekoa partikula hauen modaltasuna erabat zehatza ez izatea eta horrelakoetan, jakina, inguruak, hizkera doinuak eta horien antzekoak agindu ohi dute zein den kasu bakoitzeko esanahia edo ñabardura.

c) Bada, azkenik, beste egitura bat ere, aipamen laburra merezi duena:

(104) a. **ez al zen klasera iritsi, klaseak hasi ziren**
 b. **ez al zen etxera heldu, deika zeuzkan poliziak**

Egitura horrek denborazko esanahia du: **bezain laster** edo esan nahi du: "klasera iritsi bezain laster...", "etxera heldu bezain laster..."

Ez da usuegi erabiltzen **bide** partikula. Hori dela eta, ez ditu ñabardura diferenteak hartzen. "Dirudienez" edo esan gura du beti ere eta, egia esan, adiera honen etorkiak ez dirudi ilunegia: "bide da", "bidezkoa da", "horrela behar du", "itxura guztien arauera hala izango da..."

Esandakoaren ziurtasuna oso-osoa eta erabatekoa ez bada ere, beraz, handia behintzat badela adierazten du partikula honek. Esandakoak egiantz handia duela, alegia.

Ei eta omen. Partikula hauen modaltasunak bata bestearekin loturiko bi alderdi ditu: a) esaten dena besteri entzuna dela adierazten dute batetik eta b) egia denentz ezin duela hiztunak erabat ziurtatu. Bi alderdi horiek honako testu honetan ikusten dira ezin hobeto:

- (105) "Omen' behar dugu erran, zeren ez baitugu gure begiz ikusi, ez baitakigu ere nor ziren batean ala bertzean (...). Euskaldun aipatu andanaño bat bazela, hori ba, osoki egia daukagu" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 23)

Hiztuna esandakoaz jabe egiten ez dela markatu nahi denean erabiltzen dira, beraz, partikula hauek. Izan ere, ikusi ez den guztia ez da, besterik gabe, **omen** edo **ei** partikulen pean jartzten. Zerbait ikasia denak ez du nahitaez "Paris handia omen da" esango, Parisen sekula izan ez bada ere. Besterik gabe onartzen direnentzat ez dira partikula hauek erabiltzen. Hiztunak bere jarrera ñabartu nahi duenean erabiltzen ditu, gorago aipatu bi alderdiak eman nahi dituenean alegia.

Eta urruntze hori askotan jarrera neutroa bada ere, zenbait ingurutan hanpatua ere izan daiteke:

- (106) a. **xoxik ez du eta jauregia erosiko omen du!**
b. **edan gabe harrapatzen ei ditu mozkorrak!**

Beste zenbaitetan, berriz, onartze aldera edo jo dezake:

- (107) a. **ez zaitetz hara joan, kaltegarria omen da.**
b. **kontuz, lapurren bat ei dabil hor!**

Omen partikula, adiera bera gordez, beste hitz kategoria batzutura ere igaro da:

- (108) a. **jendearen omenean dabil**
b. **omenez ezagutzen nuen**
c. **omenka ibili behar al du beti?**

Gogoeta moduko bat eransten dio galderari **ote** partikulak, berarekin zalantza, susmoa edo horren antzeko zerbait daramana. Bere egitekoa ez du galdera markatzea --galdekaria ez baita--, galderari zalantza kutsu hori eranstea baizik. Ondoko testuotan azaltzen da nolazbait partikula honen modaltasunaren nondik-norakoa (azpimarrak gureak):

- (109) a. "egon baitira *gogoeta*, haur batzuek berez bere egin ote dezaketen

halako lan apainik" (Etchepare, *Jean Etchepare mirikuaren...*, 120)

- b. "halako baten Praiskuk itxi edo etxetik kanpora bola ete ebanaren *bildw* barik" (Bilbao, *Ipuin barreka*, 84)
- c. **nik zalantza egiten dut hala ote den**
- d. "zur xamarra ote zan *tankera* eman nion" (Garmendia *Bordaberri'ko gozo-mikatzak*, 144)
- e. **joan zaitez norbait ote dagoen *ikustera***
- f. "Ta ikusiko ezetedozun *uste* izan dozunean" (Agirre, *Kresala*, 27)

Zerrenda luze hori luzeagoa ere egin daiteke, nahi izanez gero, batere nekerik gabe. Horrenbestez ikus daiteke, ordea, nondik nora dabilen ote (ete, bizkaieraz) horren modalitasuna. Ikus daitezke, hasteko, ote itauna ez dela galdera soila. Ez dela, alegia, galdera neutroa, informazio eske hutsa, gogoeta baten harian marnitzen dena baizik eta inguruaren arauera, gogoeta, beldurra, zalantza, susmoa, ustea, irudipena, e.a. izan daitekeena. Eta gauza bera gertatzen da galdera lokabetan ere:

(110) horrela zioen zalantzaz beterik: bukatuko ote da inoiz nekealdi latz hau?

Areago esan daiteke: ote galderak ez du berez hizketa lagunagandik erantzunik eskatzen, eta hiztunak berekiko egiten duen galdera delako edo hizketa lagunak erantzun ezin dezakeelako, inoiz, gainera, enfasiaren zerbitzuan etor daiteke:

(111) hik esan duala eta, lege ote hori guretzat?

Garbi da ezetz. Horixe da, hain zuzen, benetako galdera ez den horren pean dagoena: ukapena.

Konpara, beste aldetik, ondoko adibide hauek:

**(112) a. zenbat bertso jarri ditu Basarrik?
b. zenbat bertso jarri ote ditu Basarrik!**

Lehena informazio eske hutsa da, itaun soila, erantzuna eskatzen duena. Bigarrenak ere erantzuna jaso dezake, baina ez du derrigor erantzunik eskatzen, hiztunaren beraren iritzia azaltzera baitator, era hanpatu batez. Basarrik bertso asko eta asko jarri dituela adieraztera, alegia. Are hanpatuagoa eman daiteke galdera, ezezka eta harridura erantsiz hemen ere:

(113) zenbat bertso ez ote ditu Basarrik jarri!

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

Liburuak

- Aguergaray A., 1985, *A. D'Oihenart* (Pastorala), Muskildi
- Aguirre, Domingo de, 1898, *Auñamendiko lorea*, Bilbo, *Euskaltzale*
- 1907-1912, *Garoa*, (4. argitarapena, 1966: Oñati, Arantzazuko Farnziskotar Arg.)
- 1906, *Kresala* (1967, Oñati, EFA)
- Aguirre, J. M^a, (ik. Lizardi)
- Aguirre, J.B., *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ziozkan zazpi sacramentuen ganean erakusaldia*, 3 lib.; (Faksimila: 1978, Donostia, Hordago)
- Alzo, Diego de, 1961, *Estudio sobre el euskera hablado*, S. Sebastián
- Añibarro, Pedro Antonio, 1827, *Escu-liburua*, Tolosa
- Arbelbide, J.P., 1895, *Igandea*, Lille
- Archu, J. Bapte., 1848, *La Fontaineren alegia berheziak*, La Réole
- 1853, *Uscara eta franzes gramatika*, Baiona (2. arg.)
- Arejita, Adolfo, 1978, *Euskal Joskera*, Durango, Leopoldo Zugaza
- Astarloa, Pedro, 1818, *Urreco Domeca guistijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua*, Bilbo
- Ataño, 1985, *Zigorpean*, Tolosa: Auspoa
- Axular, Pedro, 1643, *Gero* (1964, Barcelona: Juan Flors, Villasantek paratua)
- Azkue, Resurrección M^a de, 1905, *Diccionario Vasco-español-francés*, 2 lib., Tours Mame
- 1935, *Euskalerraren Yakintza. Literatura popular del País Vasco*, 4 liburu (2. arg., 1979: Madrid, Espasa-Calpe, S.A.)
- Barbier, Jean, 1929, *Piarres*, 1. lib., Baiona
- Bartolomé de Santa Teresa, 1816, *Euskal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (Faksimila, 1979, Donostia, Hordago)
- Belapeyre, A., 1696, *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Gincó Jaunaren eçaguticia, saluaia icateco* (1893, Bilbo: Euskaltzaindia)
- Bilbao, Felix, 1959, *Ipuin barreka*, 1973, Oñati, EFA
- Campión, Arturo, 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios del euskara* (Faksimila, 1977, Bilbao: La GRan Enciclopedia Vasca
- Capanaga Ochoa, Martin de, 1893, *Doctrina cristiana*, Vizeu
- 1897, *Método breve...*, Sevilla
- Casenave, J., 1978, *Ibañeta*, Oñati, Jakin
- 1976, *Santa Grazi*, Oñati, Jakin
- Chourio, Miguel, 1720, *Jesus-Christoren imitacionea*, Bordele

- D'Argaignarats, Pedro, 1665, *Devoten breviarioa*, Baiona
- Dasconaguerre, Jean Bapiste, 1870, *Atheca gaitzeco oihartzunak*, Baiona
- Duhalde, Martin, 1809, *Meditacioneac*, Baiona
- Duvoisin, J.B., 1858, *Laborantzaco liburua*, Baiona
- *Dictionnaire* (arg. gabea)
- Egile ezezaguna, *Charlemagne-ren pastorala*, Bordeleko III-ko Unibertsitatea (1981)
- 1894, *Maria Birjinaren hilabetia*, Pau
- 1596, *Refranes y sentencias*, Pamplona
- 1838, *Uscara libru-berria*, Olorou
- Elissamburu, J.B., 1946, *Piarres Adame* (1982, Donostia, Elkar)
- Emiliano, A., 1967, *Euskal musikolari bikainak*, Zarautz, Itzaropena
- Erkiaga, Eusebio, 1958, *Arranegi*, Zarautz, Itzaropena
- Etcheberri, Joannes (Zib.), 1627, *Manual devotioenezcoa*, 1. lib., (Bilbo, Euskaltzaindia, 1981)
- 1636, *Noelac*, Bayonne
- Etcheberry, J.B., 1974, *Orotarik*, Baiona, Cordeliers
- Etcheberri, J. (Sar.), *Escuararen hatsapenac (Obras vascongadas del doctor labortano Joannes D'Etcheberri)*, (Paris, 1907)
- Etxeita, José Manuel, 1909, *Josexo* (Bilbo, Labayru, 1982)
- Etchepare, J. (1877-1935), *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, 1. Lib., (1984, Donostia, Elkar)
- 1910, *Buruchkak* (Donostia, Elkar, 1980, 3. arg.)
- 1931, *Beribilez*, Bayonne
- Etxahun, P. Topet, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchaun* (Bilbo, *Euskera*, 1970, J. Haritschelhar-ek paratua)
- Etchepare, B. 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, (Bilbo, Mensajero, 1980, P. Altunak paratua)
- Etxarren-Lohigari, J.B., 1985, *Lehen Urbian*, Donostia, Elkar
- Euskaltzaindia, 1979, *Euskal Aditz Batua*, Bilbo, Euskaltzaindia (Txillardegik paratua)
- Garmendia, Txomin, 1983, *Bordaberri'ko gozo-mikatzak*, Tolosa, Auspoa
- Gazteluçar, Bernard, 1686, *Eguia catholicac*, Pau
- Goyhetche, 1838, *Andre dena Mariaren ilhabethea, edo Maihatza*, Bayonne
- Haritschelhar, J., 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*, Bilbo, Euskaltzaindia
- Harriet, Maurice, *Dictionnaire basque-français*
- Hiriart-Urruty, J., (1892-1912), *Mintzaira, aurpegia: gizon.* (P. Lafittek *Eskualduna*-tik egin bilduma, 1971, Oñati, Ikas-Jakin, EFA)
- (1892-1912), *Zezenak Errepublikan* (P. Lafittek *Eskualduna*-tik egin bilduma. 1971, Oñati, EFA)
- Hiriart-Urruty, J., 1977, *Jauna dut argi*, 2 lib., Baiona, Gure Herria
- Ibargutxi, J.G., 1955, *Kristau-Ikasbide-Atzalbena*, Bilbo
- Inchausepe, Emmanuel, 1984, *Maria Birjinaren hilabetia*, Pau
- Iturzaeta, 1894, *Berbaldic I*, Tolosa
- Izurategi, J., 1923, *Jerusalenen osterean*, Zornotza
- Ithurry, J., 1920, *Grammaire Basque. Dialecte labordin* (Faksimila, Donostia, Hordago, 1979)
- Jaureche, 1840, *Meditacioneac*, Baiona
- Joannategui, Basilio, 1890, *Sainduen bicitcea*, Baiona
- Kirikioño, E., 1918, *Abarrak*, Bilbao

- 1930, *Bigarrego abarrak* (Bilbao, GEU argitaldaria, 1980)
- *Egunekoa* (Bilbao, Labayru, 1981)
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Bayonne (2. arg., Baiona, Ikas, 1962)
- Lakarra, Joseba, 1981, "Barrutiaren edizio kritiko baterako", *ASJU* XV-1981, 123.-156. orr.)
- Laphitz, Francisco R., 1867, *Bi saindu hescualdunen bicia*, Baiona
- Lardizabal, F.O. de. 1855, *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia* (Bilbo, 1983)
- Larregi, Bernard, 1775-1777, *Testament çaharreco eta berrico historia*, 2 lib., Baiona
- Larzabal, P. 1962, *Iru ziren. Herriko bozak*, Tolosa: Auspoa
- 1962, *Bordaxuri*, Tolosa, Auspoa
- Lavieuxville-Harostegui, 1733, *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima* (1985, Bilbo, Euskaltzaindia, Villasantek paratua)
- Leizarraga, Joannes, 1571, *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria* (1979, Faksimila, Donostia, Hordago)
- Leon, L., 1947, *Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebangelio saindua*, Uztartitze L.E.T. (Liturgi Euskaratzaile Taldea), 1980, *Itun Berria*, Donostia, Idatz
- Lizardi, X., 1934, *Itz-lauz* (2. arg., 1972, Donostia: Edili)
- 1932, *Biotz begietan*, Bilbao, Verdes
- Lizarraga, Joakin, XIX. mendea, *Doctrina Christianoarén Catechima* (1979, Bilbo, Euskaltzaindia, J. Apezetxeak paratua)
- Loidi-Bizkarrondo, J.A., 1965, *Amabost egun Uragin'en, Zarautz, Itxaropena*
- Lopez, 1782, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren guiristino perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala izulia*, Avignhone, Antonio Aubanel Liburu salçaliaren eta Aita Saindiaren choil Imprimuçaliaren Beithan
- Lopez Mendizabal, I., 1908, *Manual de conversación castellano-euskera*, Tolosa
- 1943, *La lengua vasca*, (2. arg., 1977, Donostia: Auñamendi)
- Maister, Martin, 1757, *Jesu-Kristen imitacionia*, Pabe
- Mendiburu, Sebastián, 1747, *Jesusen Biotzaren Debozia*, (Sarrera), Iruñea
- Mitxelena, Koldo, 1972, *Idazlan hautatuak*, Bilbao (P. Altunak paratua)
- Moguel, J.A., 1881, *Peru Abarca* (1981, Durango, Gerediaga)
- Moguel, J.J., 1845, *Baserritar jaquitunaren eheco escolia*, Vitoria
- Oihenart, A., 1657, *Aisonitzak eta neurutzak*
- Olaechea, Bartolomé, 1780, *Dotriña cristianeaa*, Vitoria
- Ormaetxea, Nicolás "Orixe", 1930, *Mireio*, Bilbo
- 1929, *Santa Cruz Apaiza* (Bilbo: Gero)
- 1971, *Jainkoaren bila* (Bilbo, Etor)
- *Euskaldunak, Poema eta olerki guziak*, 1972, Donostia, Auñamendi
- Oxolua, 1932, *Bertolda eta Bertoldin*, (1983, Bilbao: La Editorial vizcaína, A. Arejitak paratua)
- Oxobi, 1966, *Oxobiren lan orhoitzgarri zenbait*, Baiona, Gure Herria
- Pouvreau, Silvain, XVII. mendea, *Imitacionea*
- Salaberria, S., 1964, *Neronek tirako nizkin*, S. Sebastián, Auspoa
- Salaberry D'Ibarrolle, M., 1856, *Vocabulaire des mois basques bas-navarrais traduits en langue française*, Bayonne
- Satrustegi, José M., 1979, *Ipuin miresgarriak*, Zamudio-Bilbao

Tartas, Jean de, 1666, *Oñsa hilceco bidia* (1911, Paris, RIEB)
Txillardegi, 1977, *Oinarri bila*, Donostia
Ubillos, J. Antonio, 1785, *Christau Doctriñ Berri Ecarlea* (1978, faksimila, Donostia, Hordago)
Uztapide, 1975, *Lengo egunak gogoan*, 1. lib., Zarautz
Villasante, Luis, 1976, *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñati, EFA
Xalbador (Aire, Fernando), 1976, *Odolaren mintzoa*, Zarautz
Zamarripa, P., 1913, *Manual del vascófilo*, Bilbao, Imprenta y Enc. de José A. de Lerchundi
--- 1926, *Zaparradak eta*, Bilbo
Zapirain, Salvador (ik. Ataño)

Aldizkariak

"Astolasterrak", Antzeri, Donostia
Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (ASJU)
Aranzazu
DEIA
Diario Vasco
Eskualduna
Euskaltzale
Euskera
Herria
Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV)

IZAN

NOR

TEMPUSA →		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA
MODUA				
↓				
	ni	Nauz	Nautzen	-Nintz
	hi	Hautz	Hintzen	-Hintz
	hura	du	zu	-Itz
-AHALA	gu	Gara	Ginon	-Gina
	zu	Zara	Zinen	-Zina
	zuek	Zarute	Zinuten	-Zanete
	haiek	dira	ziren	-Ira
	ni	Nautzateke	Nautzatekeen	Nintzateke
	hi	Hautzateke	Hintzatekeen	Hintzateke
	hura	dateke	atekeen	Itzateke
+AHALA	gu	Garateke	Ginatekeen	Gintateke
	zu	Zarateke	Zinatekeen	Zinateke
	zuek	Zaruteke	Zinutekeen	Zinateke
	haiek	dirateke	zinatekeen	Irateke

* EDIN

NOR

TEMPUSA →		ORAINA	IRAGANA	ALEGIAZKOA
MODUA				
↓				
	ni	-Nadi-	Nendan	-Nengi
	hi	-Hadi-	Hendin	-Hendi
	hura	-dadi-	edin'	-ledi
-AHALA	gu	-Gaitex-	Gintezon	-Gintex
	zu	-Zaitex-	Zantezon	-Zintex
	zuek	-Zaitexte-	Zantezten	-Zantexie
	haiek	-daitex-	zitezon'	-Itez
	ni	Naitexke	Nintexkeen	Nintexke
	hi	Haitexke	Hintexkeen	Hantexke
	hura	daitexke	zitekeen	Iteke
+AHALA	gu	Gaitexke	Gintexkeon	Gintexke
	zu	Zaitexke	Zintexkeon	Zantexke
	zuek	Zaitexkete	Zintexketen	Zantexkete
	haiek	daitexke	zaitexkeon	Iteke

*** E D U N**
NORK - NOR

TEMPUSA →	ORAINA	IRAGANA		ALEGIAZKOA	
MODUA ↓		NORK	NOR	NORK	NOR
		(1)N (it) u	eN	(2)-N (it) u	
-AHALA		H (it) u	eN	-H (it) u	
		z (it) u	eN	-z (it) u	
		Gen (it) u	eN	-Gen (it) u	
		Zen (it) u	eN	-Zen (it) u	
		Zen (it) u	zie N	-Zen (it) u	zie
		z (it) u	ze N	l (it) u	zie
+AHALA		(3)N (it) u	ke eN	(4)N (it) u	ke
		H (it) u	ke eN	H (it) u	ke
		z (it) u	ke eN	l (it) u	ke
		Gen (it) u	ke eN	Gen (it) u	ke
		Zen (it) u	ke eN	Zen (it) u	ke
		Zen (it) u	ke te N	Zen (it) u	ke te
		z (it) u	ze ke te N	l (it) u	ze ke te

*** E Z A N**
NORK - NOR

TEMPUSA →	ORAINA	IRAGANA		ALEGIAZKOA	
MODUA ↓		NORK	NOR	NORK	NOR
		(1)N (it) za	N	(2)-N (it) za	
-AHALA		H (it) za	N	-H (it) za	
		z e (it) za	N	-z e (it) za	
		Gen (it) za	N	-Gen (it) za	
		Zen (it) za	N	-Zen (it) za	
		Zen (it) za	te N	-Zen (it) za	te
		z (it) za	te N	-z (it) za	te
+AHALA		(3)N (it) za	ke eN	(4)N (it) za	ke
		H (it) za	ke eN	H (it) za	ke
		z e (it) za	ke eN	l e (it) za	ke
		Gen (it) za	ke eN	Gen (it) za	ke
		Zen (it) za	ke eN	Zen (it) za	ke
		Zen (it) za	ke te N	Zen (it) za	ke te
		z (it) za	ke te N	l (it) za	ke te

* E D U N

NOR - NORK

TEMPUSA →	ORAINA				IRAGANA				ALEGIAZKOA								
MODUA ↓	NOR		NORK		NOR		NORK		NOR		NORK						
-AHALA	Na	u	T	-	Nind	u	T	N	-Nind	u	T	-					
	Ha	u	KN	-	Hind	u	KN	N	-Hind	u	KN	-					
	d	u	-	-	(1)	-	-	eN	(2)	-	-	-					
	Ga	it	u	GU	-	Gint	u	GU	N	-Gint	u	GU	-				
	Za	u	u	ZU	-	Zint	u	ZU	N	-Zint	u	ZU	-				
	Za	it	u	te	ZUe	-	Zint	u	te	ZUe	-	Zint	u	te	ZUe		
d	it	u	-	TE	-	(1)	-	TE	N	(2)	-	-	TE				
+AHALA	Na	u	ke	T	Nind	u	ke	T	N	Nind	u	ke	T				
	Ha	u	ke	KN	Hind	u	ke	KN	N	Hind	u	ke	KN				
	d	u	ke	-	(3)	-	-	eN	(4)	-	-	-					
	Ga	it	u	te	GU	-	Gint	u	te	GU	N	Gint	u	te	GU		
	Za	it	u	te	GU	-	Zint	u	te	ZU	N	Zint	u	te	GU		
	Za	it	u	te	ke te	ZUe	-	Zint	u	te	ke te	ZUe	-	Zint	u	te	ke te
d	it	u	te	ke	TE	-	(3)	-	TE	N	(4)	-	-	TE			

* E Z A N

NOR - NORK

TEMPUSA →	ORAINA				IRAGANA				ALEGIAZKOA						
MODUA ↓	NOR		NORK		NOR		NORK		NOR		NORK				
-AHALA	-Na	za	T	-	Nint	za	T	N	-Nint	za	T	-			
	Ha	za	KN	-	Hint	za	KN	N	-Hint	za	KN	-			
	-de	za	-	-	(1)	-	-	N	(2)	-	-	-			
	Ga	it	za	GU	-	Gint	za	GU	N	-Gint	za	GU	-		
	Za	it	za	ZU	-	Zint	za	ZU	N	-Zint	za	ZU	-		
	Za	it	za	te	ZUe	-	Zint	za	te	ZUe	-	Zint	za	te	ZUe
d	it	za	-	TE	-	(1)	-	TE	N	(2)	-	-	TE		
+AHALA	Na	za	ke	T	Nint	za	ke	T	N	Nint	za	ke	T		
	Ha	za	ke	KN	Hint	za	ke	KN	N	Hint	za	ke	KN		
	de	za	ke	-	(3)	-	-	eN	(4)	-	-	-			
	Ga	it	za	ke	GU	-	Gint	za	ke	GU	N	Gint	za	ke	GU
	Za	it	za	ke	ZU	-	Zint	za	ke	ZU	N	Zint	za	ke	ZU
	Za	it	za	ke te	ZUe	-	Zint	za	ke te	ZUe	N	Zint	za	ke te	ZUe
d	it	za	ke	TE	-	(3)	-	TE	N	(4)	-	-	TE		

* E Z A N

NOR - NORI - NORK

TEMPUSA →	ORAINA			IRAGANA			ALEGIAZKOA							
MODUA ↓	NOR	NORI	NORK	NORK	NOR	NORI	NORK	NOR	NORI					
-AHALA	-	T	T	-	N	-	T	N	-N	-	T			
	-	KN	KN	-	H	-	KN	N	-H	-	KN			
	-	O	-	-	z	-	O	N	-z	-	O			
	(dileza)	GU	GU	-	Gen leza	-	GU	N	-Gen leza	-	GU			
	-	ZU	ZU	-	Zen	-	ZU	N	-Zen	-	ZU			
	-	ZUe	ZUe	-	Zen	-	ZUe	te N	-Zen	-	ZUe	te		
-	(zki)	(i)	E	TE	-	z	(zki)	(i)	E	te	N			
+AHALA	-	T	ke	T	N	-	T	ke	eN	N	-	T	ke	
	-	KN	ke	KN	H	-	KN	ke	eN	H	-	KN	ke	
	-	O	ke	-	z	-	O	ke	eN	-z	-	O	ke	
	d leza	GU	ke	GU	-	Gen leza	-	GU	ke	eN	Gen leza	-	GU	ke
	-	ZU	ke	ZU	-	Zen	-	ZU	ke	eN	Zen	-	ZU	ke
	-	ZUe	ke	ZUe	-	Zen	-	ZUe	ke te	N	Zen	-	ZUe	ke te
-	(zki)	(i)	E	ke	TE	-	z	(zki)	(i)	E	ke	te	N	

I Z A N
NOR - NORI

TEMPUSA →	ORAINA		IRAGANA		ALEGIAZKOA							
MODUA ↓	NOR	NORI	NOR	NORI	NOR	NORI						
-AHALA	Na	ta	T	Nin	ta	T	N					
	Ha	ta	KN	Hin	ta	KN	N					
			O			O	N					
	Gu	ta	zki	GU	ta	zki	GU	N				
	Zu	ta	zki	ZU	ta	zki	ZU	N				
	Zu	ta	zki	ZUe	te	Zu	ta	zki	ZUe	te	N	
			E			E	N					
+AHALA	Na	ta	T	ke	Nin	ta	T	ke	eN			
	Ha	ta	KN	ke	Hin	ta	KN	ke	eN			
			O	ke			O	ke	eN			
	Gu	ta	zki	GU	ke	Gu	ta	zki	GU	ke	eN	
	Zu	ta	zki	ZU	ke	Zu	ta	zki	ZU	ke	eN	
	Zu	ta	zki	ZUe	ke	te	Zu	ta	zki	ZUe	ke	te
			E	ke			E	ke	eN			

*** E D I N**
NOR - NORI

TEMPUSA →	ORAINA		IRAGANA		ALEGIAZKOA							
MODUA ↓	NOR	NORI	NOR	NORI	NOR	NORI						
-AHALA	Na	ki	T	Nen	ki	T	N					
	Ha	ki	KN	Hen	ki	KN	N					
			O			O	N					
	Gu	ki	zki	GU	ki	zki	GU	N				
	Zu	ki	zki	ZU	ki	zki	ZU	N				
	Zu	ki	zki	ZUe	te	Zu	ki	zki	ZUe	te	N	
			E			E	N					
+AHALA	Na	ki	T	ke	Nen	ki	T	ke	eN			
	Ha	ki	KN	ke	Hen	ki	KN	ke	eN			
			O	ke			O	ke	eN			
	Gu	ki	zki	GU	ke	Gu	ki	zki	GU	ke	eN	
	Zu	ki	zki	ZU	ke	Zu	ki	zki	ZU	ke	eN	
	Zu	ki	zki	ZUe	ke	te	Zu	ki	zki	ZUe	ke	te
			E	ke			E	ke	eN			

*** E D U N**
NOR - NORI - NORK

TEMPUSA →	ORAINA			IRAGANA			ALEGIAZKOA						
MODUA ↓	NOR	NORI	NORK	NORK	NOR	NORI	NORK	NOR	NORI				
-AHALA				N	T	N	-N		T				
				H	KN	N	-H		KN				
				r	O	N	-r		O				
	d	i	GU	GU	Gen	i	GU	-Gen	i	GU			
			ZU	ZU	Zen		ZU	-Zen		ZU			
			ZUe	ZUe	Zen		ZUe	-Zen		ZUe	te		
		(zki)	E	z	(zki)	E	te		(zki)	E	te		
+AHALA				N	T	ke	eN	N	T	ke	ke		
				H	KN	ke	eN	H	KN	ke	ke		
				z	O	ke	eN	r	O	ke	ke		
	d	i	GU	GU	Gen	i	GU	ke	eN	Gen	i	GU	ke
			ZU	ZU	Zen		ZU	ke	eN	Zen		ZU	ke
			ZUe	ZUe	Zen		ZUe	ke	te	Zen		ZUe	ke
		(zki)	E	z	(zki)	E	ke	te	te	(zki)	E	ke	te